

# Nabarnizko Hiztegia (I, J eta K letrak)

Alberto Martínez de la Cuadra

Zamudioko Udaleko itzultzailea  
itzultz.zamudio@bizkaia.org

## Abstract

This dictionary is based on an (oral) linguistic corpus compiled in Nabarniz. In addition to the collection and definition of the vocabulary from that area, particular emphasis is placed on displaying the phraseology and examples of usage from that corpus. The current collection covers the I, J, and K letters (I letter has 296 entries, J letter has 130 entries, and K letter has 569 entries), while the rest will be subsequently added in the upcoming issues of the magazine.

## Laburpena

Hiztegi honek Nabarnizen bildutako ahozko hizkuntz corpusa du oinarri. Bertako euskararen lexikoa bildu eta definitzeaz gainera, ahalegin berezia egin da corpus horretako fraseologia eta erabilera adibideak eskaintzeko. Aldizkariaren ale honetara I, J et K letrak baino ez dira ekarri (I letrak 296 sarrera ditu, J letrak 130 sarrera ditu eta K letrak, berriz, 569 sarrera). Hurrengo aleetan joango dira beste atalak agertzen.

**Hitz gakoak:** Hiztegia, ahozkotasuna, fraseologia, Nabarniz.

## Sarrera

1. Hiztegien eginkizuna izaten da hiztun talde jakin batek erabiltzen dituen berbak eta adierak era sistematizatuan bildu eta eskaintzea. Hiztegi gintzaren azkeneko joerei jarraituta, lexikoa bildu eta definitzeaz gainera, erabilera adibideak ere eskaintzen dituzte hainbat hiztegi, beti ere hizkuntz corpus zabal batetik abiatu. Era horretan, definizioei beste ñabardura batzuk erantsen zaizkie eta argiago erakusten da zein portaera izaten duten berbek diskurtsoan. Hiztegi honetan, Nabarnizko euskal lexikoa –edo zati bat, hobeto esanda– bildu eta definitu da, baina aparteko ahalegina egin da bertako herritarrei ahoz bildutako erabilera adibideak eskaintzeko. Corpusa ahozko hizkuntzan oinarritzen dela kontuan harturik, ahozko formei darraizkien forma normalizatuak zehaztu gura izan dira, ahozkotasunetik hizkuntza idatzira igarotzeko prozesuan askotan aurkitzen diren oztupoak kentzen laguntzearen.

2. Grabazioak Nabarnizko jende heldu edo zaharrari egin zaizkio, 1993ko maiatzetik 2003ko otsailera bitartean. Grabaziorik gehienak kasete-grabagailuz egin dira. Hala ere, 2002ko urtarrilaz geroztik grabazio digitalak egin dira, Minidisc grabagailua kanpo mikrofono batekin erabilia. Grabazio digitalen transkripzioak COOL edit pro deritzon soinu editorearen laguntzaz egin dira.

Inkestak egiteko moduari dagokionez, batzuetan, etnografia arloko galderak egin dira; beste batzuetan, aurretik batutako testuetako berbei buruz galdetu da; berba biren edo gehiagoren arteko desberdintasunak ere eskatu dira; beste toki batzuetan erabiltzen diren berbak Nabarnizen ere erabiltzen diren galdetu da inoiz (halakoetan, erabilera hori egiaztatuta beharra izan da berriemaile gehiagorekin); erdarazko esaldiren bat euskaratzeko eskatu zaie kasu banaka batzuetan; irudiak

edo argazkiak erakutsi zaizkie, edo, beste barik, edozein gairi buruz berba egiten utzi zaie. Galderak prestatzeko orduan, lagungarriak izan dira, batez ere, Iñaki Gamindek hainbat herritan eginiko lexiko bildumak, Toribio Etxebarriaren *Flexiones verbales y lexicon del euskera dialectal de Eibar* liburua, Candido Izaguirreraren *El vocabulario vasco de Aránzazu-Oñate y zonas colindantes* liburua eta Gilisasti Fanoren *Urduliz Aldeko Berba Lapikokoa* liburua.

3. Sarrera burua letra lodiz eman da, amaieran puntua duela. Mugatzailea onartzen duten berbetan, forma mugagabea zein mugatua ezarri dira, koma batez bereizita (**apur, apurre**). Forma mugagabea nagusiz hartu da eta letra tamaina handixeagoan idatzi da. Hala eta guztiz ere, kasu banaka batzuetan forma bakarra batu da, eta, horrenbestez, hura baino ez da ezarri. Mugagabe eta mugatuen bereizketari dagokionez, aipatu beharra dago berba batzuetan bikoiztasun bat izaten dela, esate baterako, *-keridxe* atzizkia duten berbetan edo *karabidxe* berban, alegia, batzuetan *karabi-karabidxe* bikotea batu da eta beste batzuetan *karabidxe-karabidxe*.

Aditzei dagokionez, sarrera buruan era burutua eta ez burutua ezarri dira, koma batez bereizita, beti ere biak jaso diren kasuetan. Era burutua letra handixeagoan idatzi da. Sarrera buruaren amaieran puntua ezarri da (**apurtu, apurtzen**).

Sarritan, ordea, forma bat baino gehiago batu da. Halakoetan, aldaera guztiak sartu dira sarrera buruan, koma batez bereizita. Forma nagusiz jotzen dena lehenengo ezarri da, eta aldaerak, berriz, haren hurrengo, beti ere aurreko paragrafo bietan forma mugatuei edo aditz burutuei buruz aipatutakoa kontuan harturik.

4. Sarrera buruaren ondoren, hari dagokion forma normalizatu ezarri da, letra larriz eta parentesi artean. Askotan, bizkaieraz eta batuaz erabiltzen diren formak ez datoz bat; halakoetan, bizkaiera normalizatu forma ezarri da aurretik, letra larriz, eta atzetik, berriz, batukoa, letra xehez eta *-bat.* gehiturik. Inoiz sinonimo bat edo beste gehitu da, beti ere Nabarnizen erabiltzen ez den berba bat izanik (ARTAGARAUN, artagarau-*bat.*, artale).

Atal honetan zailtasun handiak izan dira. Alde batetik, lexikoaren normalizatzeko lanak, orain arte, hizkuntza estandarera bideratu dira batik bat, eta horregatik ez dira normalizatu gaur egun ahozko bizkaieraz korritzen duten berba asko, edota baztertuta gelditu dira hitzak eraldatzen dituzten fenomeno fonetiko dialektal asko, nahiz eta euskalkiaren barruan hedapen handia izan. Beste alde batetik, bizkaierazko lexikoa ere oraindik normalizatu barik dago, nahiz eta ahalegin batzuk egin diren han eta hemen. Horren ondorioz, askotan ez da erraza izan forma normalizatuak –batez ere, bizkai ereduak– proposatzea. Esate baterako, *bijutz* sarreran (BIJA-HUTS, bidaia-huts-*bat.*) proposatu da, hiztegiaren haren aztarrenik aurkitu ez arren. Beharleku honetan, oinarri sendorik aurkitu ez denean, Nabarnizko berbetari estuago jarraitu zaio, batzuek estuegi iritzi liezaioketela jakin arren. Nolanahi ere, herri bateko hiztegi dialektala denez gero, normalizazioaren atal honetan irizpide malguagoak erabiltzeko lizentzia hartu da. Horrela, bada, *baridxeu* sarreran (BARIAKU, bariku-*bat.*) agertzen da, hau da, Bizkaiko alderdi zabal batean erabiltzen den forma proposatu da “bizkaierazko” forma normalizatutzat, eta ‘bariku’, berriz, “euskara batuko” formatzat. Ildo horretan, gogorarazi beharra dago proposamen horien xedea dela erraztasunak ematea edo bide posible batzuk erakustea ahozko formatik gaur egun zabaldua dauden edo zabaltzen hasi diren ereduera igarotzeko. Hortaz, irakurleak erabakiko du zein forma (euskara batukoa edo bizkaierazkoa) erabili behar duen eta proposatutako forma egokia den. Hemen proposatutako forma asko era horretan ulertu behar dira, mendebaldeko lexikoaren normalizazioa egiteko, eremu geografiko zabalagoa hartu behar baita oinarritzat, literatur tradizioa ahaztu barik. Hiztegi honek, ostera, oso eremu geografiko txikia aztertu du, eta gaur egungo ahozko hizkuntzara mugatu da.

5. Forma normalizatuaren ondoren, sarreraren gaztelaniazko adiera ezarri da. Berba askok adiera bat baino gehiago izaten dituzte eta bakoitzari zenbaki bat ezarri zaio aurretik. Animaliei eta landareei dagokienez, izen zientifikoa jarri da, halakorik aurkitu den guztietan. Haur hizkerako hitz edo adieretan (Haur.) laburdura ezarri da.

Adierak emateko, gehienbat, ondorengo hiztegi hauek erabili dira: R.M. Azkueren *Diccionario Vasco-Español-Francés*, Plácido Mujikaren *Diccionario Vasco-Castellano*, Elhuyar *Hiztegia*, 3.000 *Hiztegia*, Juan Martín Elempururen *Bergara Aldeko Lexikoa*, Emiliano Arriagaren *Lexicón Bilbaino*, RAEren *Diccionario de la Lengua Española* eta María Molinaren *Diccionario de Uso del Español*.

6. Nabarnizko hizkeran sinonimotzat jo daitezkeen berbak ere aipatu dira *Sin.* laburduraren bidez. Askotan, sinonimotzat jo barik, sarrerako berbaren eremu semantiko berdintsuko berba bat edo gehiago ezarri dira, *Ik.* laburduraren bidez. Inoiz, azalpen osagarri bat edo beste gehitu da, euskaraz. Adibide bati buruzko azalpena eman denean, □ ikurra erabili da.

7. Batzuetan sarrera bitan edo gehiagotan zenbakiak ezarri dira sarrera buruaren aurretik. Horrek esan nahi du, alde batetik, berba horiek, grafia bera izan arren, kategoria gramatikal desberdina dutela, edo, bestetik, izatez, berba desberdinak izan arren, nabarniztarrek berdin ahoskatzen dutela (erren-herren/erren-errain).

8. Adibideak letra etzanean eman dira. Adibide bakoitzaren aurretik || zeinua ezarri da. Adibideok izan daitezke berba bikoak, esaldi batekoak edo esaldi gehiagokoak. Hasieran aipatu den bezala, adibideok erakusten digute berbak zein testuinguru zehatzetan agertu ohi diren, zein berbaren ondoan jarri ahal diren edo ezin diren, esaldiaren barruan zelan josi behar diren eta beste xehetasun batzuk. Adibideetan agertzen da argien zelakoa den Nabarnizen hitz egiten den euskara.

Adibide guzti-guztiak grabazioetan batutakoak dira eta euren hartan transkribatu dira, ezer gehitu, kendu edo moldatu barik. Kasu batzuetan, berriemaileei eurei eskatu zaie berbak definitzeko, jakingarri iritzi baitzaio berben adierak haien erabiltzaileek eurek mugarrizteari. Kasurik gehienetan, ordea, berbetaldi bateko atal bat ekarri da hiztegiari, testuinguru jakin bati dagokiola. Inoiz, berriemaileei berba biren adieren arteko desberdintasunak zehazteko eskatu zaie, era horretan azaltzen baitira, askotan, inguru horretako berbeta ez dakitenentzat hain begi bistakoak izaten ez diren ñabardura asko.

9. Sarrera nagusiaren barruan azpi sarrerak ezarri dira. Azpi sarrerok erabilera edo esanahi bereziko esapide eta hitz elkarketak izaten dira. Bakoitzaren aurrean □ ikurra ipini da. Azpi sarreraren burua letra lodiz eman da, eta amaieran puntua ezarri. Azpi sarreraren sailean nolabaiteko ordenari jarraitu nahi izan zaio. Lehenengo, aurretik sarrera nagusiko berba duten hitz elkarketak ezarri dira; ondoren, atzetik sarrera nagusiko berba dutenak, eta, azkenik, aditz batekin osatu direnak edo bestelako esapideak (**arto kapasie**, **kanpo artue**, **artue garandu**).

10. Sarrera hau ezin da amaitu berriemaile izan diren nabarniztarrei euren laguntasuna eta prestutasuna eskertu barik. Ondorengo hauek dira haien izenak: Isaac Urtubi (Larrinaga), Andere Goiriena (Ibarguen), Julian Bollar (†) (Ane), Karina Zabala (Ane), Maria Dolores Gabika-Aldekoa (†) (Bengoetxe), Genaro Izagirre (Etxebarri), Matilde Totorikaguena (Etxebarri), Victorio Goikolea (Goikola), Julian Beaskoa (Agarre), Pia Sierra (Goikoetxe), Sabin Sierra (Goikoetxe), Artiats (Argiarrozarra), Jonas Gerrickagoitia (Ardantza), Alberto Goiriena (Ibarguen), Isidra Lekerikauriarte (Argiarro), Victor Ordorika (Gorostiaga), Pedro Garatea (Merikaetxebarri), Bienvenido Beaskoetxea (Iturribeko), Juan Pedro Ikazuriaga (Ikazuriaga), Jose Arrizabalaga

(Aboixene), Santi Urzaa (Merikauriko), Zubizarreta (Ormaetxe), Jesus Elias Basterretxea (Torretxu), Lontzo Garetxena "Arrola" (Arrolagoiko), Juan Jose Ondarza (Beitxi).

**i.** (HI) Tú. Ik. eu. || *Da "I nongu as?" esan eskeru, "Txorierrikue". Da gero esan senidxo txorierrittarra. Ba ostantzin Txorierrikue. || "I as astopatxiko i!", igul e badabil saltoka, "Astopatxiko i as!".*

**ia.** (EA) ¡Ea!, ¡ánimo!, ¡venga! || *A ondo? Ia ba!*

**1 ibili, ibilli, ibiltten.** (IBILI) **1.** Andar. Baita *ibiltten* ere. || *Leku askotan ibilli da. || Ikusi barik ibilli nas. || Esin nas ibilli ainkin ganin. || Or ibilite sauz? || Gixona ibili esiñi dau. 2.* Manejar, usar, emplear. || *Serrie, a eskun ibiltten dana. || Geure aittek ibiltte sittun orrek abarkak. || Juliane pe iru urtiñ ibilli dxok beren txandal sarra. || Anis bedarra guk geuk estou usau, baya lenguk pentzetot ibiltte bela egositte, edateko be bai. || Goru ipintte san, jeneral paparrin ipintte san, jeneral paparrin ibiltte ben, olan paparrin, da amuri esku batas kolpe, da bestias tiretu, da bueltaka-bueltaka, ardatza bueltaka-bueltaka-bueltaka dala, aridxe itte san. || Biarran biarras esaten da jeneralien ori e, emen. Biar asko dabillenak: "Bai, biarras total etenda dxak morroidxe!". || Arku laku eukitten deu, ta areri ba aresku esate dxako se norberak andixi kolpeta ibiltten deu atzetik. || Orrixeri esate gentzon kaikue, da esnias be ibiltte genduen, da uras be ibiltte genduen baya a ba aundidxe-edo ixete san. || Emen esta ibiltten ori berbete ori. || Es, emen estu guk olakorik ibiltten ixen. 3.* Manejar, poseer. || *Dirurik estabe ibiltten. || Beittu orre tabillen moskolie!* **4.** Andar, estar haciendo algo, ocuparse, emplearse en. || *Geurin be, bueno beti botaten eskara ibiltten, baya geurin be botate tzeu botikie. || Abadetzarako ikesten ibili san. 5.* Salir con, andar con. || *Agas dabil. □ ibili por ibili.* Andar por andar. || *Ibili por ibili: edo berton ibili, edo Elixaldera jun, ibili por ibili. □ ibilttes.* Andando, en lo referente a andar. || *Txarto ganera! Estala ixengo sekule esetako ta. Oin suabe dabillega pentzetot ibilttes. || Ba oiñ ondo dabil estomagotik-eta. Ibilttes oiñ ondo dabil. Baya oin beste geuse bat pasate dxako. □ asko ibilttekue.* Andarín, -ina, andariego, -a. Ik. *ibilttaridxe, ibilttune. || Askó ibilttekue da ori.*

**2 ibili, ibilidxe.** (IBILI) Caminata, andanza. paseo. || *Ibilidxe esateko bastante korridu bi da. || Ño, ain lekuten mendixen be goixien egon as, da ik ein dok ibilidxe!*

**ibilkera, ibilkerie.** (IBILKERA) **1.** Modo de andar. || *Ibilkera ona deko. || "Badxoik txirri-txarra": ibilkera ori, geldi-geldi. 2.* Andanza, andadura. Sin. *ibillerie.*

**ibilkor, ibilkorra.** (IBILKOR, ibilkari) Andariego, -a, andarín, -ina. *Ibilkorra* lagunei nahiz animaliei esaten zaie, baina *ibiltteune* lagunei baino ez. Ik. *ibilttaune. || Ibilkorra da nagiri pakue. || Ibilkorra: asko ibiltten*

*danari. || Ibilkorra da ori! || Saldidxe beti be ibilkorra da.*

**ibilkune, ibilkunie.** (IBILKUNE) Modo de andar. Sin. *ibilkerie. || Ibilkerie: noberan ibilli eikerie. || Ibilkune ona deko.*

**ibillera, ibillerie.** (IBILERA) Andanza, andadura. Sin. *ibilkerie. || Ori ixen dok ibillerie, ori!*

**ibilpide, ibilpidie.** (IBILPIDE, ibilbide-bat.) Locomoción, facultad de andar. Ik. *ibilkerie, ibilkunie. || Ibilpide ona deko. || "Ibilpide txarra deko": ba ego lei kojua, edo ibili lei bide txarretatik. □ Bidea eskasa bada eta bertatik ondo ibiltzerik ez badago, honela esaten da: || Ibilpide txarra dau. □ ibilpidie galdu.* Perder la capacidad de andar. || *Ibilpidi galdu daben personie, makaldute dauna. || Ibilpidi galdu: ibiltteko modue galdu.*

**ibilttaldi, ibilttaldidxe.** (IBILTALDI, ibilaldi-bat., bidaldi) Marcha, caminata, paseo. || *Ibilttaldi ederra ein dot, kantza-kantza einde nator. || Da ei ben or ibilttaldi bet biargiñek ointxe oindiño estabil asko, da suluk eiñ ei sittusen, baya es eben eser topau.*

**ibilttari, ibilttaridxe.** (IBILTARI) Andarín, -ina, andariego, -a. *Ibilttaridxe* baino gehiago *ibiltteune* esaten da.

**ibiltteun, ibilttun, ibilttune.** (IBILTAUN, ibildaun-bat.) Andarín, -ina, andariego, -a. *Ibilkorra* lagunei nahiz animaliei esaten zaie, baina *ibiltteune* lagunei baino ez. Ik. *ibilkorra. || Ibilttune da. || Ibiltteune dok ori!*

**ide, idie.** (IDA, ira-bat., garo, iratze) Helecho (*Pteridium aquilinum*). Ik. *donini idie. || Ide sikue, edo igerra. || Len idie ekarten san, mendixen ebei, siketu euskidxe sortzi egun, gero siketutakun, ekarri da sabaidxen gorde edo metie ein kanpuen, da a aspirako ori simurre eitteko. || Idie dao oin makala, idiek bi deu libre goidxe, da or piñu artien idie makalau dao asko be. || Len idak ebate siriñ urridxen. || Igul burdi bi-edo usete sin len. Bat usete san satzetako, kajias. Da bestie usete san e asparritteko. Idie. Idie bakixu ser dan suk. Idetako-ta. || Bueno! Len beti or e Arrolati gorantz dana idie! □ ide arlue.* Helechal. □ **ide bedarra.** Variedad de helecho, tiene cierta pelusa. || *A san juan idie esate gentzona -oin be egongo dire nonun-de-, a larrosakin-de adorno modun sera ixeten da, adar bat, olanik adar txikitxuk dekosenen. Da a bai ipintten da, oiñ emen estau, te emen euki be esteket paya, ide bedarra arixeru esate dxako. Da adornutze pe ibiltten da, da politto emoten deu, larrosakin. || Ormetan asten da. Oiñ estau emen ormetan, baya sarri egon da. Ide bedarra esate dxako beres. Olanik asten da, da ixaten da, ser esango neu, dana adartxus beteneku. Da orma bedarra esate dxake areri. Ba emote dxakena ba, esate baterako, bei batek txala eitten dabenien egoten da loidxe bota esiñik iguel. Da arek eitte gendusen batu, da arek eukitte dabe sustreixue, eurek, olan ormiñ aspidxen-*

*edo. Da sustrei tte gusti batu eitte gendusen, da egosi. Da a emote gentzen beidxeri, txala ein barridxeri, loidxe bota esiñik dausenari. Da orrixeri esate dxaken ba orma bedarra, ide bedarra be bai, ixen bat bayo geidxau. || Ide bedarra emote dxake loidxe bota eraitteko, loidxe bota esiñik dasenien. Ba ostantziñ e esteutzeu emoten, baya loidxe bota esiñi dasenien, batu bedarrak eta egosi, ure otzitzen danien emote dxake. Ide bedarrak, baya orrek ormetan be asten dire. || Ide bedarra? Olan basuen oten da asko, olan sera ixeten da, ide bedarra, se esate dxako areri? Olan aundixde ixeten da, fuertie. Ide bedarra arixeru esate dxako. □ Berriemaile batek orma bedarra idie eta san jun idie bereizten ditu oraingoan: || Ide bedarra, beres, idi da, da batzuk esate tze, geurin be bai, san jun idie, san jun idie esate tze. Orrek e, ida payo ariñau eltzen dire. Orrek ide bedarrak, ta san jun idak, kontixu, bat dire. Donini idie be bai, bardiñ ori be, kontixu. □ ide ebatie. Faena de cortar el helecho. □ ide ebatzaille. Cortador de helechos. □ ide lekue. Helechal. □ ide metie. Almiar, montón de helecho en forma de cono. □ ide saille. Helechal grande. □ ide suskurre. Rastrojo, tallo del helecho. □ ide sustreidxe. Raíz del helecho. || Suskurre, ta trukutze bat dire. Sustreidxe es, sustreititik esta ebaten idie, sustreidxe barrun gelditzen da. □ ide trukutze. Rastrojo de helecho. Sin. ide suskurre. □ geispetako idie. 1. Helecho de paraje sombrío, que suele ser basto. || Geispeko idie bastue da, euskitekue fiñe. 2. Persona basta. || Geispetako idi ixeten da bastue. Da ba personi bastu bada, ori esan leidxo. □ orma idie. Pequeña planta con forma de helecho que crece en los muros. || Orma idie be eoten da, emen geurin be asten da, or, orman urtete daben idi lako txikitxuk ixeten dire. || Esate baterako, bei batek ein deu txala, da euki deu parto txarra. Da emote dxakon... orrixek, orma idak egosi, bueno, orrek idak euro payo, eurok eukitte daben sustreidxe, garbittu uretan, egosi, da axe ure egosi, ta axe ure emote gentzon beidxeri. □ san jun idie. Variedad de helecho de color pálido y que viene antes que el helecho común. Ik. donini idie. || Idie beres eltzen da..., udegoniñ esango neke nik, udegonin, edo negu partera, da ba "Idak eldute das", edo "Gorritute das", se idi gorritutu eitten da eltze danin be, da ba se esangot nik?, e, "Idi eldute dau". Baya orrek san jun idak-eta, orrek estire gorritzen udegoneko idi modun, orrek suri gelditzen dire, suri, edo berde. || San jun idie txikitxuau da. Es pentzau asko egongo danik amen erri onetan. Nik badakit nun dausen oin be san jun idak. Erreka onduen, poso onduen, ure onduen. || Guk euki gendun an basuen, an basuen, an serien, an Argiarro... – Argiarro bakixu seintzu din– arexen beyen jun, de txabola bat, antxiñe aittek einde, da aren eurrien egon san posue. Da arexen posuen urtete ben san jun idak. || Ur ondoku da san jun idie.*

**ider, iderra.** (IDAR, ilar-bat.) Guisante (*Pisum sativum*). || Ider tekie. || Iderrak garandu. || Iderra

*gosuau ixeten san. □ ider seruka.* Vaina del guisante. || Iderra, garauek e, arek e, tekatzuk e ba serukak tire. Arek beidxek jate ittue. || Arek ider serukak? Esetako bes, beidxeri emoteko, garaune kendu, da beidxeri emoteko.

**idetza, idetzie.** (IDATZA, iratza-bat.) Helechal, gran cantidad de helecho. || Idetza ederra dau!

**ideya, idea, idie.** (IDEIA, burutapen) Idea. || Esteko ideya onik. || Idieri pes! || Esteke idiarik. 2. Idea, intención. || Bidzar Bilbora juteko idea deket.

**idi, ididxe.** (IDI) Buey. || Ididxe da kapaue, ya kapau bakue esta ididxe. || Idi narru bete urre gorri dao or mendixden baya iñok esteu topeten. || Domekan etorriko dire ididxekin proba eitten karreterurik onenak. || Ba guk idirik..., nik estot esetu iñoix amendik, guk beidxek eta txalak-eta dekeus, baya idirik amen erridxen iñok esteko. || Ididxe pai, olantxik e ein biar basan e, obra aundi bet-edo beuken. Ididxek, nire tiok e ididxek euki basen, basotik idi ekarteko, gero ba askanaldin. Ostantzin dana beidxe. Se beidxek deko probetxue, esni emoten deu. Ididxek esteko. Ididxek axe biarra bakarrik. Da amen e biarrrik ididxentzakorik e es san dediketan basutatik oingo modun e tronguk ataterik es olakorik. Da eitte sana beidxekin. □ idi busterridxe. Yunta, par de bueyes uncidos. □ idi probie. Arrastre de piedra (con bueyes), prueba de bueyes.

**idiatzu, idiatzue.** (IDIATZU, ideiatzu-bat.) Ingenioso, -a. Sin. idiosue, asmotzue. || Idiatzu da.

**idiau, idietan.** (IDIAU, ideiatu-bat.) Idear, pensar, trazar. Ik. pentzau. || Nik olan idiau dot. || Idiau deu gause bat eittie. || Idiau deu olan eittie. || Ori, asko idietan deuna ba, "Orrek asmau deu orrek", asmau, da asmotzue. || Asmotzu? Bai, idiau eitten deuna asko, asmo asko dekona. Orrek esate ban, baten moskorras a, Elixaldekie, gure kinttue, Elispekue. Arek e ari Rupertori, taberneruri, ba beti a idietan, da geusak esaten, da au te, "I, ididxek asko! Ididxek asko!". 'Idie' esateko, 'ididxek', moskorra euken itzela. "Ididxek, ididxek!".

**idigastaña, indigastañie.** (INDIGAZTAINA) Castaña de Indias (*Aesculus hippocastanum*). || Idigastañie? Orrek e... amen estau idigastañari pe bai oten dire ba kalin-da olan e partitan, da gastaña aundi-aundixdek aste ittue baya estire ixeten jatekuek. || Indigastañak len egon sirin. Oiñ estau orretariko ixenik eta es gastañarik. Len gure sarrak ixenakiñ eukitte ittuen gastañak.

**idioso, idiosue.** (IDIOSO, ideioso-bat.) Ingenioso, -a. Sin. idiatzu, asmotzue. || Idiosu da ori!

**idixil, idixille.** (IDIZIL) Vergajo, azote, nervio de buey. || Idixille da sera, iskuen txistue, siketute ipiñitte. || Idixille? Idixillen bustena. Ididxen bustena siketute. A joteko. Ori da saldidxeri e makillas-da jo biarren, puntan ipinte tze ugela-edo. Da idixille, sille. Da ori eitte ben aintxiña. Pittue. Pittu da. Da a siketu de

*idixille esate tzen. Alakoxias-da eitte ittuen. Da onen baserridxetan-da karrerako saldidxek-edo makillas jo biarrin, axe. Idixille esate tzen.*

**idulidxetara, idulistara.** (IRULIETARA, iruntzitara-bat.) Al revés, dado vuelta. || *'Idulidxetara' aspikus ganera dauniñ esate dxako. Au jersie kendu, te aspikus ganera ipintte bosu: "Idulistara dekosu", "Idulistara ipiñi dosu". Edoser be, jersias, edoser, ropie be bai. Praka pe bai, alrebes jasten bosus, idulidxetara.*

**1 iduri, iduridxe.** (IDURI) Imagen.

**2 iduri, iduridxe.** (IDURI) Cisco, carbón menudo, carbón de brasero. || *Iduridxe da iketza eitteko usetan dana. || Iduridxe da, seinde... iketzen eutze lakue; aixerik-eta artu esteidxen eitten da a bota. A botaten da leलगotan, bedar satarra edo a tapie, ta gero aren ganetik dana tapau aras, aixerik esteidxen sartun. || Iduridxe da iketz seye ixete san, iketz seye eutze lakue, eutze laku ixete san. || Tapagarridxe da ba ganeti botaten dan geusie, tapagarridxe. Ori be, txondorra len eitte san, ori be, tapagarridxe eitte dxakon leलगotan, da gero iduridxe. || Txondorra apurkan-apurkan atara biar ixate san. Dana batera barik, bueltan-bueltan kendu ta gero bota osta be iduridxe. Iduridxe esate dxakon ganeko areri eutzeri. Iduridxa. Da bota, da osta be, bidxamoniñ osta be beste apur bet. || Iduridxe san erreneko lurre, bal-bal-baltza, es arririk e esebe bakue.*

**idxaketa.** Ya que. || *Idxaketa emen sausen, eixu au be.*

**idxan.** (IAN) A punto de, con la intención de. || *Ain lekutera ba jutie-edo pentzaute egon, da etzara etorri, gero an pentzaute batzie: "Idxan ibil nas, baya enas maniau." || Idxan egon nas, baya enas jun. || Idxan ibilli nas, baya!*

**1 idxe.** (IA, abantzu, kasik) Casi. || *Idxe esteket dirurik. || Idxe jeusi da. || Idxe siketute dau. || Da arixen saldidxan ganiñ ibiltten diñak ainkan sartzen dabe olako erramintta bat, edo ser esangot neuk?... selaku dan ba astute nau idxe. || Idxe illin dxak (nois ilgo). || Kaguen, idxe-idxe eldu dok. || Bueno, ori asko, idxe irurogei urte buelti. □ **idxe illenin.** A punto de morirse. || *Idxe illenin dxak.**

**2 idxe.** (IHI) Junco (*Juncus effusus*). || *Ure asko deun lekuen, olan, len e... -nik estaitt oten badire ta oin be badas baya- or beko errekan urteten deu urek aspittik, an idxek aste sirin len, baya nik estaitt oiñ asten bada be, oiñ andik ibili eskara eitten.*

**idxegeittik.** (IAGAITIK, iagatik-bat.) Por poco. Ik. *apur bategeittik. || Idxegeittik esta jeusi.*

**idxeltzau.** (IGELTSAU, igeltsatu-bat.) Enyesar, aplicar a un miembro o una parte del cuerpo un vendaje recubierto con yeso. || *Arek es eutzon esebe ein, espabese eskuri tiretu tzon, tiretu te antza dan les e, onako asurre edo onaku apurtu ban, da alkar joten*

*ipiñi ittusela pentzetot nik, da gero idxaltzau ban dana. Da ondo geldittu san. || Idxeltzunekue.*

**idxeltzu, idxeltzue.** (IGELTSU) Yeso. || *Idxeltzu material ustela da. || Idxeltzue? Ori leलगo sertzen daniñ e esta gogorra ixeten, bigune ixeten da. □ **idxeltzun ipiñi.** Enyesar, aplicar a un miembro o una parte del cuerpo un vendaje recubierto con yeso. || *Idxeltzun ipiñitte.**

**idxeltzusk, idxeltzuske.** (IGELTSUZKO) De yeso.

**idxoneskero.** Ya, seguramente. || *Idxoneskero esta etorriko.*

**ie.** (EA) A ver, si, interjección que se emplea para dar énfasis. || *Ie agudo etorten baas. || Eidxosu sakada bat, ia arranketen badeu!*

**ifer.** (IPAR) Noreste. Ik. *eper, iper. □ ifer aixie.* Viento noreste. || *Iferraixie Frantzi partetik dator, nortetik estera bittartetik. || Iferraixie mobidu i dxok.*

**igaro.** (IGARO) Pasar a otro lugar. || *Ara igaro deu.*

**iger, igerra.** (IGAR, ihar-bat.) Seco, -a, marchito, -a. Ik. *sikue. || Adar igerrak. || Ide igerra. || Arto igerra. || Berdiri es, igerrari, sikuri esate dxako pastue. || Sue emon da erretekuek igerrak ixan bi dabe.*

**igeri.** (IGERI) Nadando. □ **igeri ein.** Nadar. *Uger ein gutxiago esaten da. || Baya emen, an beko errekatxuda..., an igeri eitteko besteko urik estau.*

**igerilari, igerilaridxe.** (IGERILARI) Nadador, -a.

**igerlie.** (IGARLE) Adivino, -a. || *Igerlie: igerten dabena, gausak igerte ittuna. || -A ba nik igerri tzet pa! -Bai, i igerli as!*

**igerri, igerten.** (IGARRI) Acertar, adivinar, conocer, darse cuenta, notar. Ik. *asartu. || Esiñ igerri. || Nor dan igerri ein bier. || Pamelidxeiku diriñ igerte dxako. || Igerri ein deu. || Txikitxuten ollaskuek da ollandak esiren... etxaken igerten, da gero piskat gangurtxue urteten asten sanien igerten dxaken. || Leidxe be surisuri ikusten da dana, da igerten dxako. || Selako orridxe dekon baneki, igarriko neskidxo emen selan esaten dxakon. || Berbetan igerten dxako nungue dan ori. || Mendidxen, da atzetik asten dire jaten. Gero ortik igerte dxako se pataridxe ixen dan. Pataridxe danak estabe jaten igul. Es. Onek aseridxe odola txupeten deu emenditxik. Da ementxe agin suluk eitte ittu. Emen, gorgoille edo albotik. Ordun bakixu aseridxe ixen dana. || Danak e lorriñe. Basurdik dana apurtu te lorrindu eitten deu. Aseridxe eitten deu artu te erun. Artotzan bertan jan barik artuten deu artotzan da erun. Basurdik bertan jan. Igerten da seiñ ibiltte daun, ensegida be. □ **igerriidxen.** A sabiendas, con conocimiento. || *Geusa bat dakidxela eitten dabenari bai, "Igerriidxen ein deu". □ **igerri-igerriidxen.** A la vista, manifiestamente. || *Igerri-igerriidxen ein deu (albokuek ikusitte).***

**igertu, igertzen.** (IGARTU, ihartu-bat.) Secar(se); marchitar(se). Ik. *siketu. || Arbolie igertu ein da. || Lorak igertzen dire. || Igertute dau. || Igertuneko*

garaue. || *Kapasi esate gentzon ganekuri, artaburu ganekuri, da kendu, te axe artue sartze gendun laban, igertzeko. Da gero urren egunien ba ya igertute ote san, labi be otzittute ote san, da atara eitte gendun, atara, ta garandu: labartu. || Garidxe ebaten dire, lotzen dire, da muntxuridxun ipintten dire apur bet igertzeko. Da gero igertute dausela pentzautekuen meti eitten da. || Arto lorie? Ba, oiñ artuk igertute das da, baya arto lori aundidxe, arto lorie erres e ikusten da.*

**1 iges, ies.** (IGAZ, iaz-bat.) El año pasado. || *Igesko urtin. || Batzuk esaten dabe 'pasa dan urtien', da bestik esan deu "Iestik ona orrek ein dxok mudie". || Ies. Eurton enas juen. □ igestik ona.* De un año a esta parte.

**2 iges.** (IGES, ihes-bat.) Huida, fuga, evasión, escapada. □ **iges ein.** Escaparse. Ik. *eskapau.* || *Iges ein deu. □ igesari emon.* Darse a la fuga. || *Igesari emon tzo.*

**igesik.** (IGESIK, ihesi-bat.) Huyendo, escapando. || *Igesik jun da.*

**igetargi, igetargidxe, iretargidxe, ittargidxe.** (IRETARGI) Luna. || *Igetargidxe sartu da. || Auxe sasu inguru au ixete san paguek iñusteko sasoidxe, ilberie, iretargidxe bera yoyenien. || Igetargi idxe pasaute dauna. || "Laba ganin dau igetargidxe": Bai, ori lenau esate ben, oinguri nik estot pentzetan, neuk estot esaten da ba. Igetargidxe laba ganin daunin, ba politte ixeten da ei da ta ba "Igetargidxe laba ganin dau" neu pe entzunde amumeri-tte. □ iretargi barridxe.* Luna nueva. □ **iretargi betie.** Luna llena. □ **igetargi erdidxe.** Semilunio. || *Igetargi erdidxe: erdidxe daunin, erdidxe.*

**igoera, igoerie.** (IGOERA) Subida. Sin. *igokerie.*

**igokera, igokerie.** (IGOKERA) Subida. Sin. *igoerie.*

**igon, igoten.** (IGON, igo-bat.) Subir. || *Aidxen eskerra basun egoten da jeneralin. Arbolan gora igoten deu orrek. || Da iños entzu dosu beidxe eskillatan gora igon leidxenik? E? Bai! Antxe mendixen, Airo bakixu nun daun? Antxe alde ein de gero, beidxe igon eskillatan gora, eta gero koltzien, esan tzutena, eta apurte ben kakiolak eta bera jeusi, ta biskerrasurre apurte ilde topau ben. || Ak igon eban, baya gero bajatu esin!*

**igul, igula.** (IGUAL) **1.** Igual. || *Ogi sapalak aintxiñe ixete siren, tremesak. Oin danak igulak dire. || Artina, da atxana alkarren antzekuk dire, igul-igultzat pe bota lis, alkarren antzekuk dire baya. Paguk estiitu asten alakuk. **2.** Igual, quizás. Ik. *biarbada. || A, esan igul eingo tze. Esan be igul eingo tze, bai. || Onek igul eukiko deu ikusitte.**

**1 igurtzi, igursten, igusten.** (IGURTZI) Frotar, restregar, friccionar. || *(Agiñe urtekeran:) Bueno, estidxe, euki estidxe, edo ekarri edo ba len jeneral etziñ eukitte gendun estidxe, erlik euki gendusen-da,*

*ba erlio pa banan-banan il siren-da. Da ba estidxe bota uretara, urtu da uidxe iguste gentzesan. || Setako artzen da? Ba solittu ba taunien e, materidxe-edo dauniñ ankan edo nonun, ba axe igusteko. || Axe igurtzi, axe nin dauna. || Bai, igurtzi eitten da, da igurtzidxas e, estaipa, oiñ arte igurtzidxas pasetan ixen da baya, estaipa pasauko bada igurtzidxas be, asko eiñ eskerun pasau esin.*

**2 igurtzi, igurtzidxe.** (IGURTZI) Friega, frotamiento. || *Igurtzidxe emon.*

**igurtzialdi, igurtzialdixe.** (IGURTZIALDI) Fricción, restregamiento. || *Igurtzi..., min daun lekun-edo, "Igurtzialdi bet ein dxako".*

**ijugi, ijugidxe.** (IJUI, ijiji-bat.) Jijeo, relincho, grito festivo de los jóvenes. Ik. *santzue, saratie. || Olan, barre eitten daniñ eitten dirin serak, saratak, edo ijuidxe purrustadak dire, barre purrustadak. || Ijuidxe eitte ittu. || Erromeridxetan eitte ittue ijuidxe. □ Hona hemen zelán bereizten diren santzue eta ijuidxe: || Ijuidxe, da santzuk kontixu, danak bat dire, baya ba ijuidxe jeneralin ba, olgetan dabixenak, edo ser esangot neuk?, olan eitte ittunak ixeten dire. Da santzuk eitten diriñien, ba seoser gure dabena da.*

**ijuijeka.** (IJUIKA) Gritando, relinchando. || *Armonidxe da juergie, alegre deunak, "Orrek dxabidxe armonidxen!". An ijuijeka ta sarataka dabilleni esate dxako armonidxe.*

**ikaratu, ikeretu, ikatu.** (IKARATU) Asustarse. || *Ikeretu ein nas. || Orrek esteko odolik, ikatzen da. || Ardixdek ikatu dotas. || Ori umiri esate dxake ikaratzeko. || Edo "Txakurre etorriko da!", edo "Txori eundidxe dator!", "Edo mamu etorriko da"-edo ikaratzeko ba esate dxakes olakuk.*

**ikaslie.** (IKASLE) Estudiante. || *Oiñ estudiantie nik pentzetot geidxau esango dala, ta ikasli ser dan batzuk jakiñ igul estabe eingo.*

**ikera, ikerie.** (IKARA) Susto. □ **ikerie artu.** Asustarse. || *Ikerie artu dot. □ ikerie ein.* Temblar, estremecerse. || *Persona bat geixorik daunin, edo geixorik egonda, da altzetan dauniñ-edo, belaneuk ikerie eitten dabe. || Totue ba, an geldi-geldi ero olan deuna, "Toto garbidxe! Ikerari pe etxok eitten!". "Toto garbidxok a". □ **ikerie emon.** Dar miedo, un susto. || *Ikerie emo-uste. || Ikerie emon bi tzat. □ ikerie sartu.* Asustar. || *Ikerie sartu bi tzat orreri. || Kusunke daunin ba, ikerie apur bet sartuti-edo, geldittu deidxen-edo.**

**ikeragarri, ikeragarridxe.** (IKARAGARRI) Tremendo, aterrador, terrible. Ik. *bildurgarridxe. || Baya kobie ikeragarridxe! || Egurre aretxa pentzetot sala lodidxe, alako lodidxerie! An ol meye barik, ol ikeragarri lodidxe!*

**ikerati, ikeratidxe.** (IKARATI) Asustadizo, -a, miedoso, -a, temeroso, -a.

**ikesdun, ikesdune.** (IKAZDUN) Carbonero, -a, que vende carbón.

**ikesgin, ikesgiñe.** (IKAZGIN, ikazkin-bat.) Carbonero, -a (persona que hace carbón vegetal). || *Ikesgiñen lapikokue gosuenta. Biar asko eitte balako. Da ardaue gosuenta ikesgiñek. eutze eukitte balako asko. Iketzak eutze deko asko. Da a barrure sakatzeko ardaue onena. || Aintxiñeko ikesgiñek iru astiñ e arkondarie soiñetik kendu barik euki dxuasen. E pentzau! Da buelta emon ei tzon, irugarren astin. "Ño -esan ei dxuan- ño, garbidxe dekon beran antza!" esan ei dxuan. Beste iru astin buelta emonda. || Ikesgiñek, arpi sikiñe! Erropa sikiñe! Ene! Kolorie, afrikanu lakoxe kolorie. Orrek e igul domekan elixara esta? Da onek begidxe, begionduk garbitzen gatxak. Iketzin nor dabillen an jakitte san. Sikiñe da iketza. || Arek lo be basun eitte ben ikesgiñek, ba antxe ipintten dan oltxuri kamañe: "Emen ipiñiko tzut oltxu bat, edo kamañetxu bat". || Sartze dxakosan atziñ egur bi da aurrin beste egur bi, ta egurreri alkar jo eraitte dxaken da leku eukitte ban barruen lo eitteko. Da manti edo seoser ipiñi, aspiaridxe-edo, da ba antxe eitte ben lo ikesgiñek.*

**ikesi, ikesten, ikisten.** (IKASI) Estudiar. Ik. *burun artu. || Burus ikesi. || Guk ikesi gendun euskera apurre orretara erakutzi euskuen. || Ordutik ona ikesi deu susen ibiltten. || Seminaridxuen ikesten egon sanien, pilotan jokatze ban asko. || Abadetzarako ikesten ibili san. || Ikeste esteunari buru gogorra esate tzeu, eskolarik ikisi-tte es eiñikue. || Tarrañuelak bai entzun dot, eta ikesitte deket, baya ori erdaldunek ibiltten dabe. || Txintxi? Bai, soldutzara jun giñenin, kaguen!, soldutzara jun giñeniin jaki gendun sertzuk sin, soldau egon giñenin, an ikesi gendun! || Burutzue? Sientzidxe asko dekona edo asko aittuten dabena edo ba asko ikesiñeku edo ba. || Orrek andrik estaipa nik e euskera ikesidxe bouko ala beres dan euskaldune. Ba euskera eitte ban beintzat.*

**ikestoki, ikestikidxe.** (IKAZTOKI) Carbonera, era de carbonear. Ik. *txondor lekue, iletz larriñe. || Ikestokidxe: iketza eitten dan lekue. □ ikestoki larriñe.* Era, plazoleta donde se hace la txondorra.

**iketza, iketza.** (IKATZ) Carbón. || *Egur iketza. || Iketza eitteri egosi esate dxako. || Iketza pixeute saldu eitte ben. || Txondorra ixeten da ori, iketza eittekue. || Atxagas be eitte san. Len iketza geu pe asko ibiltte gendun, saltzeko. Da paguas eitten da onena. Artias be eitten da, artias eitten dana ba ixeten da..., se esangot neuk?, agunte geidxau dekona, edo ba geidxau agunteta ban iketza. Da paguna be ona ixete san. || Oiñ iketzik iñun eitten badabe estai nik, len geu pe eitte gendun de. || Nik esan tzet leku gustidxetan iketza. Basorik estau iketzik ein bakorik. || Da illinttiri pe bape es eban bota. Iketz utze. Batzutan illinttidxe esaten da egur ondo erre bako rokie. Erdidxen-erdidxen dauna, esate baterako. □ iketz larriñe.*

Plataforma sobre la que se hace carbón. *Txondor lekue* baino gehiago entzuten da honela Nabarnizen.

**ikestu, iketzen.** (IKAZTU) Carbonizar, hacer carbón. || *Len asko san emen, atxa asko san emen baya danak iketzen siren, pasa dan denporan danak iketzen siren da gero piñue sartu. || Baya nun dau pague ikesteko?*

**ikittanue.** (IKITANO, ijito.bat.) Gitano. *Ikittanue* Nabarnizko jatorrizko hitza dela esan daiteke; dena den, azken urteetan geroago eta sarriago *jittanue* entzuten da. *Kittanue* ere entzun daiteke. Ik. *motzailie. || Ikittanu kastie da ori. □ Edonork zer edo zer asmo txarrez egiten duenean ere esaten da aurreko adibidea. Edo azpijokoren bat egiten denean ere: || Ori ikittanu klasi da! || Ikittanuk badatos.*

**iko, ikue.** (IKO, piku-bat.) **1.** Higo. || *Iko baltza, gorridxe, sapala. 2.* Higuera (*Ficus carica*). || *Iko arbolie. || Iko orridxe. || Sibue, bai, geurin be aspaldidxon ortxe dau, ikotik e aurtxe, ikotik eskeitte dau, da ortxe ibiltten dire domeketan etorten diñak. □ iko garagarrillekue.* Pasa. || *Ikue dau gurin, asko deko, garagarrillekue, julion, garagarrillen eltzen dana, garagarrillekue esate tzau guk, erdera brevas edo, garau ederrak. || Agustun eltzen dana dau beste bat, garagarrillekue, a goixetik eltzen dana da nauku iko aundidxe ixeten da bera. Da ori oiñ (ireillin) eltzen dana txikitxu ixeten da. □ iko gorridxe.* Higo rojo. || *Geurin be badas e, iku gorridxe be badau, ointxe, laster be asiko da eltzen. □ iko pasie. 1.* Higo seco. || *Emen oiñ iko pasarik esta oten. Ba len e... Emen ba, esan gutena tabernatan be iko pasak kajak ote sin. Iko pasie. 2.* Persona floja, de poca actividad y remango. Ik. *epela, tentela, umela. || Iko pasie da mantzu esati les. Bai, geusa noblie, mantzue. "Iko pasa garbidxok ori!". Iko pasi ixeten da les... || Iko pasie? Bai. Ori be pelmi esati les. A umela esan gutena, suabi. Ta iko pasi suabi ixete dan les "Iko pasa garbidxok ori!" ba ori be bai. || Ta gero igul alan tentel modun daunari be "A da iko pasiori!". □ iko suridxe.* Higo blanco. || *Iko garagarrillekue da garagarrilliñ eltzen dana. Geurin be egon san. Da gero aixik bota edo estaitt ser ei ban da, oiñ estai garagarrilleko ikorik badauen. Iko suridxe badau, baya estakitt a garagarrilleku badau. Iru iko edo lau badas baya estaitt e, batzuk e ondiño gastik dire ixen be, da eundidxe be an dau, galanta, da ori iko suridxe da beres. Baya onetan otz-edo, ikuntzako estau eitten a denporie, leku batzutako modukue, au altu artu eitten deu te.*

**ikol, ikola, ikule.** (IKOL) Contraído, -a, encogido, -a, hueco, -a, vacío, -a. || *Intxaur ikolak. || Ikola da mamin gitxikue. || Ikola esta usteldute dauna, ustela dekonari ustela esate dxako, baya ikolduneku da geusa bat, selan esangot?, argaltzen dana-edo, gitxi asi dana-edo. Geuse ikola argaldunekuri esate dxako. Emen ikola bayo geidxau simela. || Ikola: ueku les, ser esango tzut pa, olan sakau, te blaust eitten da ikule. || "Tripe ikola*

*deko*: jan barik-eta, tripestu, txikidxe dekona: "Tripe ikola deko, au goses dau!" || Argala daunari esate dxako ikola: "Pedro ikola dau". || Txikola bakixu seri esate dxakon? Gastañiri. Gastaña garaueri, arek espadeko mamiñik, "Ikolak dxasak ainbeste!"-ta. Areri etxako esaten mamiñi pakue, espabe ikola.

**ikoldu, ikoltzen.** (IKOLDU) Quedar(se) hueco; contraer. Sin. *argaldu*. Nabarnizen gehienbat *ikoldu* esaten da, baina *txikoldu* ere entzun daiteke. || *Ikoldu*: esate baterako, *puxikak-eta egoten dire, arek aplastau, sertu, suloitute: ikoldu*. || *Ori ikoltzi ori ba argaltzi da*. || *Ikoldu batzuk esate tze argaldutiri be, baya "Ikoldu ein dok", ikoldu ba pustute badau be, ori eitten da. Bota ba pe, ya akabetan-ero, "Ikoldu dok ori"*. || "Botie *ikoldu dok*": *utzittuten danin, bidxurtute*.

**ikorra, ikorra.** (IKOR, elkor) Seco, duro. Ik. *liorra, eskasa*. || *Ikorra bai, esan eitten da, baya gitxi. Ikorra da liorra, ikorra ba eskas esati laku, ikorra*. || "Ikorra *dxak*", *ba eskasa daunari, landariri be bai*. || *Ikorra, ikorra bai esan eitten da, baya ori gitxi useten da. "Ikorra dxak", geuse eskasa, ligorra, jeneru, jeneru eskasa*.

**ikortu.** (IKORTU, elkortu) Secar(se), endurecer(se). Sin. *igertu, siketu*. *Ikortu* gutxi erabiltzen da; *igertu* esaten da gehienbat. || "Ikortu *ein dok*": *landariri nai edoser geusari*.

**ikubil, ikubille, ikuille.** (IKUBIL, ukabil-bat.) Puño. || *Ikuillas jo*.

**ikubilkada, ikubilkadie.** (IKUBILKADA, ukabilkada-bat.) Puñetazo.

**ikubilke.** (IKUBILKA, ukabilka-bat.) A puñetazos. || *Ikubilke dabis*.

**ikuistar, ikuistarra, ikustiarra.** (IKAZURIETAR) Natural del barrio de Ikazurieta, que los nabarriztarras pronuncian *Ikuista*. Ik. *txorierritarra*.

**ikusgarri, ikusgarridxe.** (IKUSGARRI) Digno de ser visto, que merece ser visto; impresionante, espectacular. || *Ikusgarridxe bai esaten da, "Ikusgarridxe geusi!" esate dxako, igul geusa ederrari*. || *Antxe euen metal ure, metal ure, da jute giñen bille, ona dala ta. Selako grasi eukitte ban ganién ikusgarridxe ak urek. Metal ure, metal ure esate dxako, urrie, urrie... ko kapi baleko les. Metal ure*. || *Da a ixeten da barridxe suri-suridxe da. A da ikusgarridxe! Da gero baltzittu eitten da. Abaidxe esate dxako arexeri. Elixako onek kandelak-eta eitteko-ta*.

**ikusi, ikusten.** (IKUSI) **1.** Ver. || *Ikusi tte albora begittu!* || *Ikusi barik ibilli gara*. || *Ikusteko dau*. || *Bai, eukitten dabe, neu pe ikusitte deket eta*. || *Onek igul eukiko deu ikusitte*. **2.** Sufrir las consecuencias de algo. || *Jeusten basara, ikusko su!* **3.** Parecer. || *Mamalie bayo mali bakue oboto esanda dau. Nitzako..., nik oboto ikustot, se mamalie esan biarrien mamali ba ganorabakuri-edo, ta besti ori ba oboto esanda dau la neutzako*. □ **se ikusidxe.** Espectáculo,

algo digno de verse. || *Ikustaldidxe: bistias ikusten sun geusie. Oiñ esta usetan ori, baya len aintxiñe batzuk ikustaldidxe... oiñ se ikusidxe esaten du. Se ikusidxe ikusten, "Se ikusidxe dxak an"-da, ikustaldidxe barik. Jaidxe-edo badau e, edo jenti-edo doiñ errire, Ereñora nai Nabarrixera..., "Bai, se ikusidxe dxasak an". Oin beste batzuk esaten dabe "Ikustaldidxe dxauk". □ **se ikusidxe euki.** Ser complice, tener parte. || *Nik esteket se ikusirik*. □ **ikusi-makusi.** Al veo veo (juego infantil que consiste en adivinar el nombre de cosas que están a la vista). || "Ikusi-makusi", *batak esaten deu, "Ser ikusi?" bestiek erantzute tzo, da esan ein bi deu, ba "Nik ikustot trapu gorri bat-edo, beste edoser geusa be bai, da gero arek lelengo ikusi-makusi esaten dabenak igerri ein bi tzor ser dan*. □ **ondo ikusi.** Tener simpatía por algo o alguien. || *Personie, gustora-ero espouko, lagune-edo, beren parienti bada be, "A etxok ondo ikusten". Sarriten esaten da ba "Ondo esteu ikusten"*.*

**ikusiesin, ikusiesiñe.** (IKUSIEZIN) Aversión, odio, aborrecimiento enemistad.

**ikuskiun, ikuskiune.** (IKUSKIZUN) Espectáculo, objeto de visión. || *Ikuskiune da ser ikusidxe, ba seoser diferentie daunien, ba ikuskiune*.

**ikustaldi, ikustaldidxe.** (IKUSTALDI) **1.** Vista, ojeada, algo digno de verse. || *Ikustaldi ederra ein dxok*. || *Ikustaldidxe: bistias ikusten sun geusie. Oiñ esta usetan ori, baya len aintxiñe batzuk ikustaldidxe... oiñ se ikusidxe esaten du. Se ikusidxe ikusten, "Se ikusidxe dxak an"-da, ikustaldidxe barik. Jaidxe-edo badau e, edo jenti-edo doiñ errire, Ereñora nai Nabarrixera..., "Bai, se ikusidxe dxasak an". Oin beste batzuk esaten dabe "Ikustaldidxe dxauk". || Ikustaldidxe? Geusa asko ikusten jute sara su, esate baterako, jai baten, da "Ikustaldi itzel on dok!". Geusa asko ikusteko. **2.** Visitación. || *Ikustaldidxe? Ba, Jesus umie txikidxe ixete sanin be, ikustaldidxe eitten da ba*.*

**1 ikutu.** (IKUTU, ukutu-bat.) Tocar. || *Ikutuas batera kili-kilidxe artzen deu*.

**2 ikutu.** (IKUTU, ukutu-bat.) Toque, retoque. || *Geidxau ikuturik es ein, bedarra datorrela bereskue*.

**il, iltten, ilgo.** (HIL) Morirse o matar. Ik. *garbittu*. || *Burue il*. || *Atuen il de*. || *Konpleto bertan il*. || *Ilde dau*. || *Ilteko modun dau*. || *Erdi ilde les dau*. || *Idxe erdi ilde dau*. || *Mikelen anaye il da*. || *Makillakiñ il ben*. || *Orrek marti sosuk ilterik estau. Baya emen jentiek il eitte ittu bardin*. || *Bixidxenas il da*. || *Bueno, il ementxe il siriñ arek, baya semi be ill ein dxaken areri, da gero alaba bat e Ameriketara-edo jun dxaken eskondute*. || *Pasa dan astiñ il san a andra sarra, bost urtiñ oyen egon sana*. □ **il-bixikun arpeidxe.** Semblante que denota que está muy grave (entre la vida y la muerte). || "Il-bixikun *arpeidxe deko*": *beren etxuretik urtenda dauna-edo, dana surittute dauna-edo*.

**il, ille.** (HIL) **1.** Muerto, -a (persona muerta). Singularrean lehenengo silaban du azentua (muerto =



ille / illé = mes). || *Atautie kajie da, ille eruten dan kajie.* || *Anderuk dire arek ille erutekuk.* || *Ille otzittu eitten da.* || *Urteko mesie: illeri eitte dxakona, andik urtebete garrenien.* **2.** Sin fuerza, sin vida, apagado, -a, flojo, -a. Ik. *motela, odol bakue.* || *Gustu ille.* || *Sagar ille.* || *Au ille dxak!* || *Garrik estekon sue su ille da, estaunin berotzen.* || *Karie, berotasunik estekona.* *Eutze. Ille deuna. Se iguel lurren ganien lusero badau itto, eitte san karie, ille, ildu. A berotasunik es.* □ **il kanpaye.** Campanas que tocan a muerto. Ik. *aingeru kanpaye.* || *Baten bat il da, il kanpaye joten dau te.* || *Tokadie: illeri jote dxakosanak, tokadak esate tzeu guk e, il kanpaxak jote ittunien, tokadak.* || *Da gero iñor e gabiñ il bada, albakue jo orduko iñor il bada gabien, jote san albakue, bederatz kanpa-edo pentzetot ixate sila, da jote ban, tokadak jote siriñ iñor ilde badau. Da ixete san entzun eskerun senagie batabat il dana. Da eberdidxen be amabidxetan be jote sirin kanpayek, iñor ilde badau. Goixien da eberdidxen be bai. Da artzaldien enterru badau, edo okasiñoye esate dxako, baya oiñ enterru esate dxako ta ba dana dau; badau, geur badau, ba jote sittuen amabidxetan be bai. Da espadau, geur arratzaldiñ espadau enterrue, etzan joten.* □ **ille altzau.** Llevar el cadáver, recoger al muerto. || *Gorpue altzau: iltten danin, ba ya gorpu geldittute dau. Da ba olan enterru-edo danin, elixakue-edo, ille altzau, ille altzatie edo enterru dau, ille altzaten da.* □ **idxe illiñ egon.** Estar a punto de morir. || *Ya arnasie juten badao, ba "askanetan dao" (esaten da), da idxe illin deuna, dao ondiño apur bet fuertetxueu.* || *Idxe illin dxak (nois ilgo).*

**ilban, ibana.** (ILBAN, albainu-bat.) Hilván, puntada larga con que se une y prepara lo que se ha de coser después de otra manera. || *Gero, josittakun, ilbanak kendu eitten dire.* || *Ilbana: bai, ori jostunena da. Da "Aridxe ilbandu". Ilbanien eitten da ori, ori lelengotan eitten da, au amen ilbandu, te gero josi.* || *Sesiñe ilte san negun, da aren sesiñen narru, goigurun -kamariri ba goiguru esate tzeu te- josi eitte san, sabal-sabal ipiñi, da josi, untzakin, olan asko bari pe, ba ilbañin les, apartin les, untz puntatzuk e bera sabalik eukitteko beste.*

**ilbandu.** (ILBANDU, albaindu-bat.) Hilvanar, apuntar o unir con hilvanes lo que se ha de coser después. || *Ilbandu: ba olanik geusie, da aridxas pasau, gero josteko.* || *Ilbandu: gastaute deun erropie ilbandu, pasadie ilbandu de gero, josi trajie.* || *Ilbandu: aridxe pasau, orratzakas aridxe olanik artun, da gero makiñan pasau gure badosu, andixi arittik josi-te: ilbandu.*

**1 ilbarri, ilbarridxe.** (HIL BARRI, hil berri-bat.) Recién fallecido, -a. || *Ilbarridxe: il de ara, edo olanik, personie.*

**2 ilbarri, ilbarridxe.** (ILBARRI, ilberri-bat.) Novilunio, luna nueva. || *Ilbarridxen gaus.* || *Len materidxelako beti ilberan bota biste san, da*

*ostantzien ure, ure daidxola egoten da ilbarridxen.* || *Sitze eitte dxako ilbarrikuri, dana sulotu eitten deu.*

**ilbera, ilberie.** (ILBEHERA) Cuarto menguante, luna decreciente. || *Txarridxe ilberan il bi da.* || *Esaten dabe martidxen patatie ereitteko, ilberan esaten dabe sasoirik onena.* || *Auxe sasu inguru au ixete san paguek iñusteko sasoidxe, ilberie, iretargidxe bera yoyenien.* || *Ilberie txarridxe illteko ixeten da.* || *Ilberan landarak, arbola landara pe sartzen dire.* || *Obrarako-ero olan, suretie. Oiñ e neguen, se ori esta udebarridxen-da..., orridxe jeusitte euki bi deu, da ilberan asko be.* || *Martiko ilberie da artue konserbateko onena.* || *Oiñ estau artorik. Oiñ e garandute emon eitte dxakue. Ba ordun artapillo eundidxe oten sin. Arto asko. Da eitte san martidxen ilberan jo, da sakutan sartu edo kaixan gorde, konserbetako. Ostantzin txiripiridxe eitte dxako arturi. Txiripiridxe eskandalu ganera! Bai. Da martik-ilberan etxako ori eitten.*

**ildako, ildakue.** (HILDAKO) Muerto, -a, persona muerta, difunto, -a.

**ilgora, ilgorie.** (ILGORA) Cuarto creciente, luna creciente. || *Orre pe eukitten dabe beren sasoye, estakitt ilberie eukitten daben ala ilgori eukitten daben.*

**illabala, illabalie, illobalie.** Hilo de vela, bramante. Emiliano Arriagak *hilobala* hitza batu zuen Bilbon eta honela azaldu zuen: "Contracción corrompida de *hilo de vela*". || *Illabalie? Ba, ser dan esangot. Soki da, da meye, me-meye.*

**illada, illadie.** (ILARA) Fila, hilera, serie. || *Illadatan erein.* || *Nabarrixetik Ereñora mendi illadie dau.* || *Jitanuek pasaten siren ogetamar da berrogei-tte, illedan-da, enbra ta gixonesko.* || *Markadorak pala bi edo iru dekos illadan.* || *Len laidxetan be eitte gendun, parau lau-edo illadan, da bost-edo, da laidxak sartu barrure, erañ-eraiñ ein, de soidxe atarate san.* || *Gero segidu oneri piñu illadiri, da gero bederatzigarren piñun eskerrera korridu.* □ *Segan jarduten denean, honela esaten da: Illada ederrak atara ittus.*

**ille, illie.** (HILE, hil-bat.) Mes. || *Eitte gendun Gernikera osteri illin baten.* || *Datorren illien eitten deu onetan negue gogorau.* || *Ille gustidxetan.* || *Ni pe estaitx seiñ ille ixeten dan.* || *Ireillen dok errekie siketzen illerik erresena.* || *Ille gustidxe euritten jun da.* || *San Tomasetan batzuk pageta ben, da beste batzuk illen lelengutan, semendidxen pageta ben errentie, da San Tomasetan be bai.* || *Are lobiri errementau ein tzo untxe pasa dan illien e olako bei batek sagarra artun da iñor egon es an da pustute errementau.* || *Txofer ibili nitzen ni an ordun, baya lelengotan istrusiño ikesi bi ixte naben, soldue les bardin. Ille bi ein nittun, infanterian bertan. Da gero orduen destiñeu nenduen txofer.*

**illebete, illebetie.** (HILABETE) Mes. || *Sei illebetegarrenien.* || *Oiñ illebetetik dak beko iturridxe sikeute.* || *Oiñ illebete, illebete esta ondiño.* || *Len*

*iguel eukitte sendun sei illebetiñ ero urtebetin be artue, garandute igul sakun-ero, da areri eitte dxakon txiripidxe.*

**illeko, illekue.** (HILEKO) Menstruación. || *Illekuek euki.*

**illero, illaro.** (HILERO) Mensualmente, todos los meses.

**illeta, illetie.** (HILETA) Lamento, queja. ☐ **illetie jo.** Quejarse, lamentarse. Ik. *erostie jo, keixus egon.* || *Illetie joten beti!*

**illun, illune.** (ILUN) Oscuro, oscuridad. || *Asal illune.* || *Berde illune.* || *Gorri illune.* || *Gonie illune da.* || *Illun dau etzie.* || *Egune illune dau.* || *Erropa illune.* || *Illunetan ibilli nas.* || *Denporie illun dau.* || *Illun dxauk.* || *Begikume illune ein tzek!* || *A akena gorri-gorri ixeten da jeneral, gorri illuntxue.* || *Botaik argidxe ona, amen illun dxak eta!* || *Kotona ari bat ixete san. Batzuk ixete siriñ illuntxuau, beste batzuk argitxuau ixete sirin, da mudau eitten estana kotona ixete san.* ☐ **illun esbaidxen.** Al anochece, al declinar el día. || *Len jote san albakue, da gero jote san illuntzien, illun esbaidxen, aremaitekue esate dxakona. Da gero, gerotxuau jote san arimena.* ☐ **illunetan.** A oscuras. || *Illunetan dxauk.* || *Illunetan dxabik.* || *Gabin be bai, bat badabil biarrin-ero: "Jo, ori be badxabik biarriñ illunetan!"*

**illunabar, illunabarra.** (ILUNABAR) Anochece. *Illuntzie ere esaten da.*

**illundu, illuntzen.** (ILUNDU) Oscurece. || *Illundu deu.* || *Arimena jote benin, ba ya illundute, ta belu ixete san.* || *Negu ixeten basan, ariñau illuntze ban.*

**illunkera, illunkerie.** (ILUNKERA) Anochece. || *Gixonen erresiñoje a ixete san illunkeran.*

**illunpe, illunpie.** (ILUNPE, aizaro) Tiniebla, oscuridad profunda. || *Illunpie da illune..., olako geixa eitten daben geusa bat, da "Illunpi dxak or".* || *Geixa daun geusi be: "Illunpin dxak, argittasuni pe etxak".* || *Illunpi dau koban.* || *Illunpetan dabil.*

**illuntasun, illuntasune.** (ILUNTASUN) Oscuridad.

**illuntti, illunttidxe, illinttidxe.** (ILINTI) Tizón. || *Illunttidxe brasie dekon egurre da.* || *Illunttidxe: suten, brasias daun egurre.* || *Illunttidxe da brasi dekon egurre.* || *Illunttidxe esaten dxako txondorrien topetan danari, txondorretik atara ta igul iketza ein barik egoten da egurre, areri esaten dxako illunttidxe, ein barik garatzen dana.* || *Da illinttiri pe bape es eban bota. Iketz utze. Batzutan illinttidxe esaten da egur ondo erre bako rokie. Erdidxen-erdidxen dauna, esate baterako.*

**illuntze, illuntzie.** (ILUNTZE) Anochece. *Illunabarra ere esaten da.* || *Illuntze gorridxe.* || *Eltxuk illuntzetan batzen dire, arek geldiro ibiltzen dire.* || *Gois gorridxek dausenien, illuntzerako iturridxek (euridxek). Da illuntzien dausenien, edo gabin dausenien orrek laiñu gorridxek,*

*bidxamunerako aixiek.* || *Illuntzen juten danien, laño gorridxek agertzen dire batzutan. guk esaten du ba, "Illuntze gorridxek egon diren, da bidxer igul euridxe eingo deu".* || *Txarridxe iltten da. Partiduteku bada, partiduten da illuntzien. Aparidxe ipintten da ta jaten da da bakotxa beren parti artu te ba, etzera.* || *Illuntzen doyenien illuntzi esate dxako arixeru.* || *Da au e gabas ibiltten dana sagusarra. Aren ixena bakixu? A igul e illuntzetxun jun pasiun Lekerikera-edo, ta ure daun lekun e burun eurretik eta danin pasauko dxatzu. A da sagusarra.* || *Illuntzetxun jun giñen gora.*

**illunune, illununie.** (ILUNUNE) **1.** Zona oscura. || *Illununie leku bateri esate dxako, esate baterako, barru bateri-edo: "Illununie dau" edo olanik.* **2.** Momento de oscuridad. || *Illununias aprobetxau.*

**illustrau, illustraue.** (ILUSTRAU, ilustratu-bat.) Ilustrado, -a, culto, -a, intruido, -a. || *Illustraue: asko dakidxena, bestigandik geidxau dakidxela pentzetan deunari "A illustrau garbidxok a!". A berbetan da, "A kontus eitte dxok!". Gure modun edoser esan barik eta, olan illustraue.*

**imillaun, imillaune.** (IMILAUN) Cuarto de un cuartal. || *Anegie lau imiñe ixeten da. Da iru imillaune imiñe.* || *Len laborie oin bayo geidxau eraitte san, da artze san da meiduten. Batzuk naidxau ixete ben imillaunas meidutie, beste batzuk pixaute.* || *Imillaune da -estaitt gurin badau- da olako... au onako lusetxu olanik imillaune, meiduteko artu nai garidxe nai... meiduteko ixeten da imillaune. Da das imillaune bat txikidxena, gero imiñi ixeten da beste bat.*

**imillaunkada, imillaunkadie.** (IMILAUNKADA) Cantidad de grano correspondiente a un cuarto de un cuartal. || *Imiñi eitteko estakitt e iru imillaunkada ala bi..., estai senbat biar ixeten dirin.*

**imiñe, imiñie.** (IMINA) Cuartal (cuarto de una fanega, unidad de grano). || *Imiñe laurena.* || *Imiñie deko.* || *Imiñie da amabi kilo tterdi, gitxi gorabera.* || *Anegie lau imiñe ixeten da. Da iru imillaune imiñie.* || *Selemiñe neurridxe da. Selemiñe ixeten da granuek neurtzekue, da selemiñe ixeten da ba txikitxue, olan, selemiñek eukitten deu imiñi bat, pentzete-ot. Da imiñie da aundixae, anegiñ erdidxe neurtzen dabena. Da selemiñe da ondiño be txikidxae.* || *Imiñik eukitte ittu amabi killo t'erdi. Imiñie laborias ibilte san: indarrakin, garidxas, artuas.*

**inbidi, inbididxe.** (INBIDIA, bekaizkeria) Envidia. || *Inbididxe? Bestik dekona-da noberana be ixetie gure.* || *Inbididxe deutzet nik areri.* || *Diru inbididxe deko orrek.*

**inbididxoso, inbididxosue, inbidxosue.** (INBIDIOSO, bekaizti) Envidioso. || *Inbididxosu da.* || *Inbidxosue, "Ño orre dxekok inbididxe! Ori estok beteko"-ta. Sure... Igul sure eskiñara, sure mujoiñ e bedarra atrapetan badeu. Mujoneran be kodañas atrapaute.*

**1 indar, indarra.** (INDIAR) Judía, alubia. || *Indar klasik: erreñoa, garbantzú indarra, pinttanie edo tolosanie, suridxe.* || *Kilo bat indar.* || *Indar barridxe.* || *Indarrak beratzen ipiñi.* || *Ño, indar ederra dak or!* || *Kolore ederra deko orrek indarrak.* || *Lelengo tekada, len plasara erute ben tekada batute, indar barridxe.* || *Ba, indar klasik badas bi edo geidxau.* *Indarra badau..., len gorridxe eraitte gendun, gorridxe eta suridxe eraitte gendusen, apur bet, suridxe saltzeko eskendun eraitten.* *Saltze gendun ba gorridxe.* *Da gero agertu san, urtik direla ya, tolosani esate dxakona, da labrautxu laku-edo, erreidxialas-edo dekosená, areri tolosani esate tzeu.* *Suridxe pe badas, bai, suridxek ainbeste klase das.* *Erreñoa be badau.* *Ostantzeko txikidxe badau, eundidxe be badau.* *Ba ainbeste klase das indarrak.* || *Emen indarra iru klase, edo lau eitten dire.* *Se suridxe be bai, da beste batzuk pinttanue esate tzeu.* *Pinttanue erdi nabarra da.* *Tolosani be beste bat da a be.* *Gero suridxe be eitten dabe, gorri txikidxe be bai, gorri eundidxe be bai.* □ **indar baltza.** Alubia negra. || *Indar baltza aintxiñe e-san eoten, baya oin bai, oñ indar baltza asko ganera, ori asko eitten dabe.* □ **indar barridxe.** Alubia nueva, fresca. □ **indar gorridxe.** Alubia roja. □ **indar jana.** Alubiada. || *Indar jana dekegu.* □ **indar lapikue.** Cocido de alubias. □ **indar lorie.** Flor de la alubia. || *Indar lorie? Indarrak lori eukitten deu.* *Lora suridxe eukitten deu.* *Gorridxe, gorriskatxu eukitten deu.* □ **indar nabarra.** Alubia abigarrada. || *Indar nabarra da diferentie.* *Onek tolosanik eukitten deu pinttu-pinttu..., orrek suriunetxuk, da bestik satidxe gorriski, ta bestie suriskie: nabarra.* || *Bueno indar tolosani pe suridxe ta gorridxe dekos nastin.* *Indarra badau, amen esta eraitten, esetu estalako edo estai segaittik, da indar nabarra, asko nabarra dekona.* *Da bestie da tolosanie, nabar gitxiau dekona, naiko gorridxe.* □ **indar pinttanie, indar pinttanue, indar pinttie.** Cierta tipo de alubia, también conocida como tolosana y que es la que más se cultiva en Nabarniz. || *Indar pinttanue: arek pinttak dekes.* || *Indar pinttanie tolosaneri esate tzeu, Tolosa aldetik etorriekue-edo; emen tolosaniek korriten deu.* || *Indar pinttanue esate tzeu olan es gorridxe, ta es suridxe estanari, da baya orreri indarrori esate dxako, emen jeneral ba pinttanue esate dxako, baya esate dxako tolosanie, jeneral.* || *Ori ixeten da gorridxe, baya olako tantatxu lakuk eukitte ittu, suridxek.* *Da esate tzeu tolosanie, da indar pintti be bai, bardiñ esan leidxo, baya jeneral guk tolosani esate tzeu.* □ **indar sarra.** Alubia vieja. || *Indar sarra da eurreko urtekue.* □ **indar sasoye.** Época de la alubia. || *Indarra pe alkarren ganiñ ero olan, alkar jota badau, indar sasoin, danak esango tzue, iguel danak or planteten dire alkar joten, da "Egostu ein di danak", da a da galdu.* □ **indar seruka.** Vaina de la alubia. □ **indar suridxe.** Alubia blanca. || *Indar suridxe, potxas esate tzena.* || *Erreñoa suridxe da e!* *Suridxek daus klasik, suridxek daus erreñoa, da*

*ostantzekue, suri normala.* □ **indar tolosanie.** Alubia tolosana. || *Indar tolosanie, da indar pinttanie bat dire.* *Batzuk pinttanie, guk tolosanie esate tzeu, geuk.* *Guk geu pai beintzet.* *Amen Nabarrixen geidxenak esango tze ori tolosanie.* □ **berako indarrak.** Alubia que crece a ras de tierra, sin trepar por un palo colocado al efecto. || *Suridxek daus klasik, suridxek daus erreñoa, da ostantzekue, suri normala.* *Da erreñoa da, batzuk gorakuk eoten dire, bestik bekuk.* *Or indarrak, klase asko dau indarra.* □ **gorako indarrak.** Alubia que trepa por un palo colocado al efecto.

**2 indar, indarra, inderra.** (INDAR) **1.** Fuerza. || *Indar aundikue.* || *Indarra artun.* || *Indarrak jun dxakos.* || *Noraiñoko indarra dekon aprobetan doye.* || *Narra be ibiltte san, baya narrari indar asko ein bi dxaken.* *Leku laburrin-de, narra be bai, baya leku lusiñ ibiltteko es, se ganaduk asko kantzeta sirin.* || *Eusike bai.* *Da orrek e, bakixu, igul esteko indarrak sarran eruteko.* □ Nabarnizen izen horrekin ere ezagunak diren ortuarielik entzute haundia dute inguruko herrietan, eta hitzaren bi esanahiekin jolastuz honela esaten da: || *Ño, Nabarnixen indarra egongo do pa!* **2.** Esfuerzo. || *Endekatu: inderrik artu esiñik daun labore bat, edo arbola bat, edo esate baterako, mendaute daun sagar bat, edo fruta bat, ba "Endakatute dau, te inderri pe estau artzen".* *Endekatu ba, inderrik artu esin dabenari esate dxake endekatu.* □ **inder bakue.** Sin fuerza, débil flojo, -a. || *Inder baku da.* □ **inderra ein.** Esforzarse. □ **indar emon.** Fortalecer, reforzar. || *Olo korotza moduko estau geuserik, esebes, jeneruri indar emoteko.*

**indartu.** (INDARTU) Fortalecerse, mejorarse, sanar. *Ik. sendotu.* || *Geixue indartus doi.*

**inderka.** (INDARKA) Esforzándose; empujando; haciendo fuerza. || *Esate baterako, bei bat txala eitteko daunien, da ya inderka asten danin ba: "Inderka asitte dau beidxe".* || *Lusetu einde, inderka.*

**inderkatu.** (INDARKATU, indargetu-bat., indargabetu) Debilitarse, perder fuerza. Sin. *endekatu.* || *Inderkatu: esate baterako, ser esangot neuk?, ortun eraitten da baiñak nai asak nai ba porruk nai ortuko geusie, da indarrak siketetan-da ure bota biar ixate dxake, baya ure bota esik-eta inderkatu eitten dire, indarra galdu eitten dabe.* || *"Jose inderkatute dau", makali padau.*

**indertzu, inderdatzue.** (INDARTSU) Fuerte. || *Indertzue da indar eundikue.* || *Bota ittu sustreidxek, oiñ indertzu dau, ondo dator.* || *Pustillak: euridxe asko, indertzu eitten dabenin saparradie, orrek beyen ganin, tanti jeusten dan lekun, gero ba des eitten dire.* || *Truku-truku edan dot: apurka-apurke bayo indartzutzauau.*

**indidxa.** □ **indidxa gastañie, indi gastañie.** (INDI GAZTAINA) Castaña de Indias. || *Indidxa gastañie badau, santarra ixeten da e!* || *Indi gastañak len egon sirin.* *Oiñ estau orretariko ixenik eta es gastañarik.*

Len gure sarrak ixenakiñ eukitte ittuen gastañak. || *Indidxa gastañie da...*, gastaña normala esta, da..., da arek estan daben gastañie ixeten da au korrienti-bueno, korrienti pe txikidxauk eta aundidxau das-bayo aunditxuau ixeten da. *Indidxo gastañie esate dxakon arixerri, baya esta ixeten jatekue.* || *Indi gastañie ixeten da...*, naiko gastaña garaun eundidxe ixeten da, da nik estakitt jateku bada, personik jateku bada. Ori kaliñ oten diriñak, arek arbolak an oten diriñak alakoxi eukitten dabe, baya a estot pentzetan ixeten danik jatekue.

**indidxaba, indidxabaie.** (INDIABA, indaba-bat.) Judía, alubia. Oso kasu bakanetan entzun dut *indidxaba* berba. Gehienetan *indarra* esaten da. || *Da oiñ e, oin badakixu, oiñ estau, oiñ estau fundamenturik. Oiñ estau artori pe, nabori pes, indidxabari pes. Oin jentik erresenena emon deu. Fabrikara jun, kotxien da jornala irebasi ederra, da piñu sartu.*

**indidxano, indidxanue.** (INDIANO) Indiano, rico retirado de América. *Amerikanue* Ameriketara joandakoei esaten zaie, baina *indidxanue* bertan aberastutakoei esaten zaie. Hitz honen erabilera asko gutxitu da. || *Amen batzuk esakerie euki ben: "Indidxanue da ori", ba arek diru asko dekola esateko.*

**indidxo, indidxue.** (INDIO) Indio.

**indixiño, indixiñoie, iñixiñoie.** (INDIZINO, injekzio-bat.) Inyección. *Iñixiñoie* ere esaten da, baina *indixiñoie* da gehien korritze duen berba. || *Iñixiñoie ipiñi.*

**industridxe.** (INDUSTRIA) Industria. || *Orrek esteke... Bestin txarra, beti bestin txarra da bestin txarra, da nundik txarto ipiñiko bestie! Da gerrie, orrek gure dabe emen beti alkarras gerri atati emen! Bai, emengo industridxe ara erun, txarto esanda, eitten dabelako. Faltzidzak eitte ittues.*

**infeksiñue.** (INFEKZINO, infekzio-bat.) Infección. || *Garnuko infeksiñuentzako ona ei da.*

**infusiñoie.** (INFUSINO, infusio-bat.) Infusión (bebida). || *Oiñ esaten da len bayo geidxau. Len infusiñoie esan esaten. Edo "Mansanilla artu bi dot", edo "Teye artu bi dot" edo bai, baya oin geidxau esaten da infusiñoie.*

**injiñeru, injiñerue.** (INJINERO, ingeniari) Ingeniero.

**injiñerutze, injiñerutzie.** (INJINEROTZA, ingeniariatza) Ingeniería.

**inkesa, inkesie.** (INKESA) Ruido de respiración fatigosa. || *Inkesi deko.* || *Ganadue inkesidxas dxak.* || *Inkesi eitte dxok.* || *Inkesa eitte dxak.* || *Inkesa moduku da ori be.* || *Inkesie: amen (bularrien) sarati eitten deu kirrin-karran les-edo. Da axe da inkesie.*

**inkesaka, inkeseka.** (INKESAKA) Respirando fatigosamente. || *Inkesie? Ostantziñ ondoesa pe bai, batzuri eitte tze, da gero inkesie, igul eitte su, larri*

*dauna pe bai: inkeseka.* || *Inkesaka: olan gogo txarra dauniñ-edo inkesaka esaten da.*

**inkeu, inketen, inketan.** (INKAU, inkatu-bat.) 1. Pagar, adherir. || *Ao sabaidxen inkaute geratu dxatek.* || *Usena inketen danien, txupau-txupauten egoten ei da garatu barik, sekule es ei da beteten* || *Galdatxue da a latzari inkeute esnie egosteko usete sana.* || *Akena, amen mendidxen txakurreri inkeute dxako ori da txakurrek ekarten dabes inkeute.* || *Katiak alkarreri inkeu.* || *Pelusie inkeu eitten da.* || *Aidxen eskerra goittik eser inketako estan lekun esta asten, esteu eukitten inderrik berak bakarrik igoteko.* || *Arek apur bet ure gorriskie botaten dau, da egunkeran ontzidxeri gorridxe inkete tzo metal urek.* || *Da moskolie intxeurre pe, inketen dxakona, a intxeur berde-berdi batzen bada, dana mantxete ittu atzamarrak. Da "Bittu selako moskolak inkeu din!".* 2. Contagiar. || *Sure lagunek geixue inkeu-ste.* || *Geurin be ganaduk urte baten pasau ben naparredixe. Inkeu eskun guri-tte.* || *Ba urtete tzenin, e, olanik, oiñ estau umerik gurin baya, eskolara botau barik-edo ba eukitte gendusen beste batzuri inkeu eitte dxake-ta.* || *Da ganaduk atara barik kuarenteni eitte dxakon ordun be. Berrogei eguniñ e ganadurik esiñ eidxen atara kanpora. Da es e txakurrekiñ onekiñ animalidxeikin kuidau itzela! One pe soltau bes. Ta gero erropak, noberen erropak e etzetik sartukeran, kanbidxeu ta kortara ta bierrak ganadunak beste erropa batzukiñ ein, inkeu esteidxon orreri, kontajidxau esteidxen.* 3. Presionar, empujar, compactar. || *Ebeitten da, ebei da otzarie bete, da sobretan dan bedarragas inkau are pe, da olan tontorra inkau, da gero sartze dxako sididxe esate dxakon egur bat, punti sorrostute dekona.* □ **inketakue.** Contagioso. || *Inketaku da.* □ **inkau-inkau ein.** Pagar(se), adherir(se) totalmente. || *Inkau-inkau eimde gelditzen dana da akena.*

**inpentzan.** De sorpresa, inesperadamente. || *Inpentzan atrapau naben.* || *"Inpentzan atrapeten" esaten bosu da...* *Inpentzan, esan gu deu pentzamentun barik atrapau dosule, sorpresan ein dosule atrapau.*

**inpernu, inpernue.** (INFERNU) Infierno. □ **inpernuko diabru.** Diablo de los infiernos. || *Inpernuko diabru bayo txarrau dok ori!* □ **inpernuko katue.** 1. Cierta insecto. || *Bai, koku da ori, inpernuko katue. Orre dire serak, olan korriten dabenak, olan serien korriten dabenak. Inpernuko katue iños entzu ot. Orrek selan korriten dabe? Onek dana anki dauke serie da oten dire, inpernuko katue esate dxako.* || *Inpernuko katue? Arek e langostatxuk e. Batzuk aundidxauk tire, beste batzuk txikidxauek. Lurriñ oten dire, danak e... ser esangot neuk?, dekesenak euren e..., pintxotxuk-pintxotxuk lepun de gorputz gustidxen dekesenak. Da orrek e patatan-da jeneral oten dire, da onako luserie eukiko dabe, olakon bat. Da beste batzuk oten dire, berdetxuek ixeten dire arek, txiki-txikitxuk ixeten dire.* || *Inpernuko katue langosta modukue ixaten da.* 2.

Diablo, demonio. || *Inpernuko katue? Esakuni da ori. Txarra dalako.* || *Inpernuko katue? Bai, ori da esakera bat, asarraute daunin, ba umiri esate dxake: "Inpernuko katu!"* || *Bai, umiri be agirike, ume txikidxeri be es, baya aunditxuari-edo "Inpernuko katu ori!"-edo ba ba esate dxake, baya esta emen ainbeste ibiltten inpernuko katurik.* □ **inpernuko labie.** Horno del infierno. || *Inpernuko labie? Ori be esaten da, inpernuko labi be asarraute daunin, umiri esate dxake ori be: "Inpernuko laban erreko sarie!"* □ **inpernu sagarra.** Variedad de manzana que madura tardiamente. || *Inpernu sagarra be egon san. Orrek danak bayo geidxau aguntaten deu, garaun gorri-gorridxes-da. Da aguntaten deu, ba diñot, urrengo urterarte.* || *Inpernu sagarra ixaten da, naiku gorritxu ixaten da, ta gaun txikitxuek. Ondiño be badau ori, inpernu sagarra, etzondun. Da ixeten da..., se esangot neuk?, goxue esta ixeten, espabese garratza bayo.* || *Inpernu sagarra: ori beranduko sagarra, sagar e gorritxu, txikitxu.* || *Inpernu sagarra gorritxue da, txarbi bayo dultziaue.*

**inportantzi, inportantzidxe, inportantzia.** (INPORTANTZIA, garrantzi) Importancia. Partitiboa ezartzen den adibideetan ikusten denez, erroa *inportantzi* nahiz *inportantzidxe* izaten da. || *Inportantziri pako sera.* || *Esteko olako inportantzidxerik.* || *Abadik orreri esen inportantzi asko emoten, abadik orreri geuseri inportantzi gitxi, etxaken interesetan.* || *Baya orrek gausak di les, gitxi usetan dinak, inportantzi gitxitxue emoten dxake.* || *Orrek esteko inportantziarik kontixu.* || *Esteko inportantzirik, asaleku da ta.* || *Inportantzi bako geusie.* || *Inportantzidxerik etxako emoten.* || *Kalenturatu be igul eukitten dabe, beste batzu pe estabe eukitten, da inportantzidxeri pe estau eukitten, baya kargu apurtxut ein bi dxako.*

**inporta.** (INPORTA) Importar, preocupar, interesar. Ik. *ardure.* || *Esteutzo inporta.*

**inpresioi, inpresioye.** (INPRESINO, inpresio-bat.) Impresión, sensación; impacto, efecto. || *Ño, inpresioi andidxe emon tzo.* || *Inpresioi txarra.*

**intentziñoie.** (INTENTZINO, intentzio-bat.) Intención. || *Noberan intentziñoie.*

**interesau, interesaten.** (INTERESAU, interesatu-bat.) Interesar. || *"Interesate dxak?": Iguel seoser agintze tzue, da suk gure bosu-ero, "Ia interesate badxatzu".*

**intxaur, intxaurre, intxeurre.** (INTXAUR) Fruto del nogal y el árbol mismo. || *Intxaur arbolie.* □ **intxaur asala.** Cáscara de la nuez. □ **intxaur batzie.** Recogida de la nuez, vareando los nogales. □ **intxaur landarie.** Esqueje de nogal. || *'Pikeu' da pika-pika, jo ta jo ta markak ein. Dana pikaute itxi. Ariñ asteko, intxaurrei ein bi ixate dxako ori. Intxaur landarie ebei tte lodittu ariñau eitten da, pikeute ipintte. Asala, olan satidxe kendu. Asi, lodittu eitten da. Ori estakigu e! Ba ori baten bayo sarridxau entzu ein dot*

*nik ori, intxeurrei ein bi ixete dxakola, asala ebeidxek ein, da asala ebeitte nasaittu deidxela. Batzuk eitten dabe ori oin be. Oñ onek beste arbolak es. Piñuk eta sagarrak eta orrek es.* □ **intxaur mamiñe.** Parte comestible de la nuez. □ **intxaur moskolie.** Corteza verde que envuelve las nueces. || *Intxaur moskolie lelengo berdie egoten da, da gero baltzittu eitten da, da gero astindu eitten da, arrakaltu te a sabaldu eitten da, ta intxeurre jeusten da.* □ **intxaur oskola.** Cáscara de la nuez. || *A ganekue moskolie da, intxaur moskolie, da bestie da intxaurren asala, a mamiñen ganekue, gogorra, a da intxaur oskola.* || *Intxaur oskola ausi ein da.* □ **intxaur saltzie.** Crema de nueces. || *Intxaur oskola apurtu ta barruko mamiñe, intxaur saltzie eitteko.* || *Malmaixe: astun-astun ixaten da. Ori kobri, edo orretaiku ixaten da. Orrek ibiltten dire intxeurrek joteko, intxaur saltzi eitteko intxeurrek joteko.* || *Intxaur saltzi guk e gabonetan eitte gentzen.* || *Intxaurrek apurtu, da gero..., beyen estau baya, malmaixe esate dxakon ontzi bat... ixeten da. Da txikittu eitten dire an malmaixin, da txikittu-txikittu naiku jota. Da gero intxaur saltzie ba esate baterako dosena bat intxaur edo dosena bi, edo ba asko ein gure bada edo gitxiu ein gure bada-edo, txikittute prest ipiñi, da gero urek irakitten dabeniñ ureri botate dxako, botate dxako asukeri be gosatzeko, da ur irakiñetara, bueno ur irakiñetara botaten da. Antxe irakitten eukitten da, ta botate dxako urune, urune, urune ta irakitten-irakitten, eraitten-eraitten-eraitten, irakitten-irakitten. Da intxeurre be botate dxako, da egosi egosi ein bi dabe, urune, intxeurre, asukeri tte gatza egosi ein bi dabe, da gero denpora satixu bat eitten dabeniñ e, ordu erdi-edo irakitten, atara eitten dire, ta gero jateko modukuk eoten dire.* || *Intxaur saltzie badas esnias eitten dabena pe, da gu geuk eitteunin, uregas eitteu. Ure, asukerie da kanelie. Asukerie ba franku botate tzeu ba gosu urten deidxen. Ordu erdin bat edo olaku bi dau blin-blin-bliñ egosten, baya eraiñ ein bi dxako, eraiñ-eraiñ-eraiñ-eraiñ euki bi dau arek eta atara artien.*

**intxeska, intxeskie.** (INTXESKA) Grieta. || *Intxeskie da markie eitte dxakona. Esate baterako, egurreri be. Arrakalak esate dxako solun. Da bestie, intzebidxe esaten dan les, eitte dxako egurreri. Beres eitten da, a krakatu eitten da.* || *Intxeskie? Arrakala baten eitten dan e..., olako lekutxu bat: intxeskie.*

**intxeskatu.** (INTXESKATU) Agrietarse. || *Intxeskatute dau.*

**intxorretar, intxorretarra.** (INTXAURRETAR) Natural del barrio de Intxaurreta, que los nabarriztarras llaman *Intxorreta*.

**intzebei, intzebeidxe, intzebaidxe.** (INTZEBAGI) Grieta de la mano, hendedura. || *Intzebeidxek ein dxates.* || *Intzebaidxek: atzamartan-da eitten diñak.* || *Beidxek txala eitten dabenin, batzuri intzebaidxak eitte dxakes, alako beidxeri eratzi esin leixun. Txala pe miñ*

eitte tze edaten be. || Intzebidzek ixeten dire, a sikuas, liorras-ero arrakalatu eitten di, ba, intzebidxe. || Intxerkie da markie eitte dxakona. Esate baterako, egurreri be. Arrakalak esate dxako solun. Da bestie, intzebidxe esaten dan les, eitte dxako egurreri. Beres eitten da, a krakatu eitten da. || Bueno, intzebidxe da kortia. Kortadak. Intzebidxe di otzak eitte itunak, amen kortak, da gero ebei eitten di arek.

**intziri, intziridxe.** (INTZIRI) Gemido; aullido (de perros, lobos...). Ik. txilidxokie. || Intziridzek dire txakurrek-edo eitte itun alaruk, nai beste patari batek eitte itunak. || Alarauek, eta intziridzak alkarren antzekuk dire, bat dire kontixu.

**intzirike.** (INTZIRIKA) Gimiendo; gimoteando, sollozando. Patari nahiz lagunekin esaten da. || Penas daumin: "Intzirike dau". || Txakurrek olan eusi raruk eitte itunien: "Intzirike dau".

**iñetasi, iñetasidxe.** (INETASI) Granizo. Txingorra ere entzun daiteke, baina Nabarnizen bertako berbatzat hartzen den eta erabili ere gehien erabiltzen dena iñetasidxe da. Ik. txingorra, arridxe. || Iñetasitxu dau. □ Berri-emaile batek txingorra eta iñetasidxe berben arteko desberdintasunak aitatu zizkidan; beste batzuek diote desberdintasunik ez dagoela eta Nabarnizen iñetasidxe dela gehien erabiltzen dena, txingorra ere aditzen bada ere. || Bai, iñetasidxe be esate dxako, ta txingorra be esate dxako. Jeneral, txingorra garaun aundixauri esate dxako. Da iñetasidxe, jeneral, garaun txikidxari esate dxako. Baya bidxekiñ aitzen da. || Txingorra eta iñetasidxe bai, ba tire danak. Txingorra ba ser esangot neuk? Garaun eunditxuau dala? Baya kontixu danari esate tzeu. □ iñetasidxe ixen. Granizar. || Iñetasidxe da.

**iñor.** (INOR) **1.** Nadie, ninguna persona. || Iñor bes. || Iñor be-estetorri. || Etzekuniñ iñor etxak. || Oiñ esta iñor be bixi. **2.** Alguien, alguna persona; los demás. || Orrek biarrik eiñ es ta iñuna jan! || "Eiñ eban" iñor bada, "ein neban" neu banas. || Iñon konture bixi da ori. || Iñonak artzen baittu, lapurre esate tzeu guk. || Iñonik entzun es-ta, berena ein gure-ta: "Errukarridxe!" || Iskirimiridzek ser dire? Iñun faltak ataraten dabixenari? || Pepelue? Ba iñonik entzuten estabena.

**iñora.** (INORA) **1.** A ninguna parte (en oraciones u contextos negativos o comparativos). **2.** A alguna parte, a algún sitio (en contextos u oraciones no negativas). □ iñorako egon es. Ser imposible o inadecuado salir. || Onegas denporias iñorako eskas.

**iños.** (INOIZ) **1.** Nunca, jamás (en oraciones u contextos negativos o comparativos). || Ni sekule, iños egon nasenik argalen egon niñen. **2.** Alguna vez (en contextos u oraciones no negativas). || Neu be iños jun nas Gerniken kridxeda egonda eguen suri eitten. || Da ba geu pe iñois nabue emon, emote gentzon, baya jeneralñ erremolaxie emote dxakon txarridxeri. || Bei mantie? Iños probarik ikusi dosu? Ba beidxeri,

proban einde, ixerditute egoten diriñin lepun ipintte dxakena. || Da gero antxe sartu, amar asunbreko garrafokada ardaue. Da es eutzon ostu! Barre eitteko esta! Da Seberinak iños esan tzon Bitorreri: "Bittor, ondiño suri soñeko txapela be ostu eingo tzeu!". || Bai, iños jan dot. Baya gogorra da kaskallu bera be. Ondo ipiñi eskero, ba dana biguntzen da baya. □ iños bes. Nunca. Ik. sekula bes.

**iñun.** (INON) Ningún lugar/sitio (en oraciones o contextos negativos). || Amen Nabarrixen estau idirik iñun bes. || Iñun leku onik topaten estabena. || Negunde esta ikusi be eitten iñun. || Oiñ iketzik iñun eitten badabe estai nik, len geu pe eitte gendun de. □ iñundik. De alguna parte. || Iñundik ekarri dabe. || Iñundik etorri da. || Arrolan estau karatxik. Erun ein biko ban iñundik. Arridxe erun biko ben. Arrolan estau. Loitidxatik igul erute ben. □ iñun dixenak. Burradas, (cantar) las cuarenta. || Lelengotan jaidxokeran, umie. Da gero soldautzan be umi ixen bier, se iñun dixen orrek ei tzes, da gixonak pentzetan axe ein bittula. Ta gu soldau, kristonak eitte eskusen ba, kaguen dies, paso lijero eta kriston martxak, ya ganora bako geusak. Da a umaldidxe. Arek berak esate ban, kapitanak. Joer! Afrikan egon nintzen ni tte etxat astu eitten! || "Iñun dixenak esan": ba geusa asko esaten berbetan egin, da txarto igul. "Iñun dixenak esan dxosak a pe aregeittik nai bestigeittik!". Batzuk igul esate tze "Txakurrenak esan tzak", bestik "Iñun dixenak esan tza pa". Ori da danak txarto esati les. □ iñundipes. De ninguna manera. Ik. esetara bes!

**iñurri, iñurridxe, indurridxe.** (INURRI) Hormiga (Formicidae). Iñurridxe nahiz indurridxe entzun dut, bietara esaten da, baina iñurridxe gehitxoago esaten da bestea baino. Bestalde, txiñurridxe eta txindurridxe ere esaten da. Ik. txiñurridxe. || Amen, origaittik, geidxen ikusten dana, korrientiena, iñurri baltza. Da gorridxe ainbeste esta ikusten, baya emen be badas gorridxe pe. Ba olako arri aspixtan-edo, aspidxen lekuri badeke-edo, antxe. Orrek gorridzek, bai, aunditxuauk dire tamañun be. Baya badas, amen berton esta ikusten, baya baltzak eure pe badas tamañu aundikuek. || Iñurridzek piketan dabe. || Indurridzek abidxa eukitte ittu motetan-da. □ indurri abidxie. Hormiguro. Indurri tokidxe ere esaten da. || Indurri abidxak asko egoten dire oin motetan, saso onetan. □ iñurri arridxe. Roca poco consistente que se rompe con facilidad. || Indurri arridxe esate tze, a samurre da les, indurridxe pe sulu eitte tze areri. Bai. Indurri arridxe gero. || Iñurri arridxe: asko apurtzen dana. □ iñurri madaridxe. Variedad de pera. Emiliano Arriagak pera de hormigas terminoa batu zuen Bilbon eta definizio hau eman zuen: "(Traducción literal del e. iñurri-madari) Pequeña pera de verano, que tiene un sabor muy semejante, aunque parezca paradójico al olor de las hormigas". || Iñurri madaridxe gosu da, baya iñurridxen gustue eukitten deu. || Bai, badau indurri madaridxe be. Jateko gosu da. Len geurin be egon

san. Indurri gustu laku eukitten deu apurtxut, baya jateko gosu da. □ **indurri pillue.** Montón de tierra del hormiguero.

**iñurrondoko, iñurrondokue, iñurriondokue.** (INURRIONDOKO) Gordolobo, verbasco (*Verbascum thapsus*). Nabarnizen sapo bedarra esaten da gehiago. Sugeek jaten dutela esaten da. || *Iñurriondokue? Ori, inurriondokue..., estai salen esangoten. Iñurriondokue, orrek..., ixeten dire iñurriondokuek, garauntxu-garauntxuk ixeten diren dire, aunditxuauk-txikitxuauk, eta esate dxake iñurriondokuk eta guk amen sapo bedarra ikesi gendun.* || *Iñurriondoku tire, arek eoten dire ba, olan bide egalinde, sasi egalinde urteten dabe iñurriondokuek, da eukitten deu sustreidxe, da ixeten da mingotza. Guk iñurriondoku alakoxiri esaten tzeu.* || *Sertzuk? Olanik garaunek gorritzen dxakenak dire? Selan esate dxake?..., iñurriondokuk. Usein santarra eukitten dabe.*

**iñusar.** Acción de hocicar, hozar. Hiztegieta ez dut hitz hau aurkitu. “Indusi” eta “uxartu” berbetatik eratorritakoa izan liteke. □ **iñusarrin.** Hozando, escarbando. || *Iñusarrin? Bai, txarridxe lurrek altzau ta lurrek altzau ibiltten bada.* □ **iñusar ein.** Hozar, hocicar (el cerdo, jabalí, tejón). || *Iñusar ein: txarridxe eitten deu iñusar, eitten dabe musturke lurrin. Basurdi pe eingo deu, neuk estot ikusi basurdarik baya eingo deu. Txarridxe eitten deu ta basurdi pe eingo deu, se basurdik esaten dabe or lurrin barrun oten diriñ e geusa batzuk jan eitte ituesan-da basurdik. Musturke ein, da topau, da jan eitte itue.* || *Iñusar ein: txarridxe musturras ibiltten da basak-eta, lurrek-eta altzetan-da.*

**iñusente, iñusentie.** (INUZENTE, inozo) **1.** Inocente. || *Iñusente egune.* **2.** Idiota, anormal. || *Ni iñusenti nas ala, a siñisteko? || Soro utze dok ori, beti dxak iñusentik les-da.* □ **iñusentie sartu.** Hacer la inocentada, colgar el muñeco. || *Iñusentie sartu tzo.*

**iñusentekeridxe.** (INUZENTEKERIA) Simpleza, necedad, bobada. || *Iñusentekeridxe? Estan geusiri.*

**iñusentetu.** (INUZENTETU, inozotu) Hacerse o volverse ingenuo, necio, simple. || *“Iñusentetu ein da”:* ba asarratzen daniñ edo ba erresorik emoten estabeniñ-edo, “Iñusentetu ein da” ba edonori esate dxako.

**iñusi, iñusten.** (INAUSI, kimatu) Podar. Sin. kimau. || *Iñusi eitten da arbolie. Da adarrak ebei tte ba kentze dxakosenin ba “Iñusi ot arbolie”.* || *Paguk iñusi, ta ostabe barridxen emoten dabe adarra, andik urte batzutara.* || *Iñusi biarra deko.* || *Iñusi bakue, susen olan gora, ori da tantaidxe.* || *Arbola bateri adarrak ebaten badxakos, ba “Iñusi ein dot” esaten da.* || *Iñusi? Arbola bat e, adarrak eindde dxakosenien, areri iñusi esate dxako.* || *Bueno, paguek iñusteko oiñ esta sasoye beres, udebarridxe da ta. Da ori udegunien e, negun, negun.* || *Bueno, iñusi eitten da arbola bat, da kentze*

*dxakos noberak pentzete ittun adarrak, da isten da adar gitxiaugas.* □ *Mutildu eta iñusi bat ote diren galdetu ostean, honela erantzun didate: || Mutildu, da iñusi bat estire, baya baten antzekuek dire. Iñusti da arbola bateri adarrak ebatie, adarrak ebei, te ipiñi arbolie-ta; axe da iñustie, adarrak ebei, noberak kendu, da ba iñusitte dau, tantaidxe ba iñusitte dau, adarrak kendute dekosenin. Mutilduk geidxau esan gure deu apurtzie, apurtu, kendu orridxe-edo, adarra-edo, dekosenak, da ba apurtu, te jeurti, da ba mutildu.*

**iñusketa, iñusketie.** (INDUSKETA) Excarvadura. □ **iñusketan.** Excarvando. || *Txarridxe iñusketan ibiltten da.*

**1 iñustu, iñusten.** (INAUSTU, kimatu) Podar. *Iñustu* oso gutxi esaten da; gehienbat *iñusi* esaten da. || *Ta iñustutakuk eitten dabe arrama asko atara goidxen.* || *Tantaidxe iñustu bakue da.* || *Onek, emen deusen artiek, artiek dire onek, onek iñustutakuek dire danak. Onek eiñ espalire iñustu, onek olan egongo siren, bakarrik bat.* || *Tantaidxe da arbola iñustu baku egotie. Baya tantaidxe esta gero piñuas eitten! Ixen bi deu aetxa ero olakue.*

**1 iñustu, iñustue.** (INAUSTU, kimatu) Podado, -a. □ **pago iñustue.** Haya desmochada. || *Iñustue a adarra ebei tte baju sabaldu eitten dasenak. An pagu badaus Mugireko etatzien, are di pagu iñustuk. Da pagu tantaidxe das sekule mostu bakuek. 'Mostu' guk 'ebei' esate tzeu, da 'mostu' esate tze askok.* || *Lorategieta bayo apurtxu goratxuau egon san panaderidxe itzela. Da araxe erute ben egurre astillatu bier. Astilla metro bat eingeruko luserako astillie. Da paguk ein biste sin. Aretxak es sittuen gureisten. Pague. Da danak e olantxik e geidxenak eitte siren. Iñustu. Iñustu esate dxakon ba adarra mostu, suk esan dosuna. Pago motza esate tze batzuk, pago motza. Pago iñustu.*

**iper, iperra, iferra.** (IPAR) **1.** Noreste. Ik. *ifer, eper.* || *Or mendittik datorrena, or goittik bera joten dabena esta ixeten epela, da ba, iperra orixe ixen beingo da, mendebala betik joten deu.* **2.** Viento norte. || *‘Iparra’ esate dxako axe otzari.* || *Iparra da aixe fuertetxue, da apurtxut otza dana; da eguaixi da aixe epeltxue.* || *Onetan itxoso axe asko estau eitten. Iperra be bai, da ori nortaxie be otza da, naiku otza da.* □ **iper aixie.** Viento noreste.

**ipingi, ipingidxe.** (IPINGI, ipinki-bat.) Remiendo; petacho. || *Ipingidxe da satidxe ipintte dxakona.* || *Ipingidxe bai, amantalin be ipiñi lei, sulu euki eskerun.* || *Ipingidxe? Bueno, au. Da emen adabi esate dxako baya ipingidxe.*

**ipintxarrien.** Sin saber a ciencia cierta. || *Ipintxarrien: ba, geusa bat berak estakidxen lekure-edo jun dana, edo ba berak estakidxen modun ein dabena edo ba: ipintxarrin.* || *Ipintxarrin? Ba, ipintxarrin, “Estakidxela esan tzet” edo “Akordu barik esan tzet”. “Ipintxarriñ esan tzet”*

**ipintxiña. 1.** La preparaci3n, pago que se cobra por preparar un alimento. Ik. *preparatiña*. || *Ipintxiña, edo biarrena, preparatiña*: "Ipintxiña orrenbeste da". *Berak preparaten deun les, "Preparatie auxe da", edo "Ipintxiña onexenbeste da"*. **2.** Suficiente calidad o cantidad como para prepararlo. || *Landara eskasa bada be, esate su "Ipintxiñik etxekok orrek!"*. *Se obie ipiñi bi da les, ba ipintxiñik estekola, se esteule probetxurik eser emongo-ta*. || *"Ipintxiñik etxekok!"*: eskasa, ero esteula meresidu. *Beste batzuk esaten dabe "Etxon meresidu"*.

**ipintzaillie.** (IPINTZAILE) El que pone. || *Kosiñirie da jateko ipintzaillie*.

**ipiñi, imiñi, ipintten.** (IPINI) **1.** Poner. Gehienbat *ipiñi* esaten bada ere, *imiñi* ere entzun dut inoiz. || *Sorkidxe: burun iminttekue, kargi imiñi bayo ariñau*. || *Gatzas deun okelie nai arraiñe-edo uretan ipintten da*. **2.** Poner, plantar. || *Kipulak ipintten dabil*. **3.** Preparar, cocinar. || *Bai, iños jan dot. Baya gogorra da kaskallu bera be. Ondo ipiñi eskero, ba dana biguntzen da baya*.

**ipiñi, ipiñidxe.** (IPINI) Preestablecido, -a, fijado, -a, determinado, -a, sabido, -a. || *Sarrau danin be bai tte eskolara asten danin be bai-tte, estau eukitten ipiñirite*. *Ixeten da sartxuau danin be, mutil kaskondue edo gastetxuau danin be ba "Kaskondute dau" te ba "Eskolara abidxau da"*. || *Ba urte ipiñiri pe estau eukitten*. || *Bueno, mantxiri be esan leidxo. Ixeten da eundidxau-txikidxau, estau eukitten ipiñirik*. || *Ipiñirik estau eukitten, ixle lei txikidxau ta ixle lei eundidxau*.

**ipiski, ipiskidxe.** (IPIZKI) Estropajo que colocado en el extremo de un palo se usaba para limpiar el horno. || *Labi garbitzeko: ipiskidxe*. || *Ipiskidxe: asta luseri, olan makil bateri lotu te emen ipintten tzen, olan bedar batzuk edo seoser, naborri batzuk ipintten tzesan*. || *Da orrek ipiskidxek gixetas eitten dire. Orri txiki-txikitxuas asten da, orritzu, orritzu, dana orridxes beterik egoten da, da ixeten da gosatzue*. || *Labi garbitzeko? Aintxiñe labako sue eitten gendunien ibilte gendun ipiskidxe: olan bedar batzuk -eurek garidxo deke ixena-, bedar ligor batzuk, orri apurtxu sabalak dekesanak. Alakoxi ibilte gendun, labi garbitzen. Alakoxi batun, de aixas eiñ ipiskidxe. Makilla bateri puntan ipintte dxakon olan moltzue, da lotu eitte san, da labi arexas garbitzeko*. || *Ipiskidxe esate gentzon labako eutze-ta batzekuri, da arexas dana batu, da labie garbi-garbi ipiñi*. || *Garidxo bedarra len ibilte gendun etziñ ogidxe errete gendunin. Garidxo bedarrak batu, da ipiskidxe eitte gendun. Ipiskidxe esate dxako batu garidxo bedarrak, eta olan e ipiñi alkarren kontra, da ein moltzue, da egurreri lotu puntan e, labi garbitzek-egurreri puntan lotu, te garidxo bedarrakin labako eutze batze gendun*. □ *Hona hemen zelan bereizten diren belaididxe eta ipiskidxe*: || *Belaididxe ta ipiskidxe estire bat. Ori labasue eitte saniñ ibiltten san, oiñ estu labasuri pe eitten. Da ipiskidxe da, olan bedar*

*batzuk batze gendus, bedar sabal..., orri sabaltxu deken bedarrak batze gendus, garidxo bedarrak esate gentzen areri, da ipiskidxe eitte gendun arixekin garidxo bedarrakin. Da batze gendun labako eutze, bedarrak itxiñeko eutze ta txingerrak dana batze gendus ogidxe botateko. Da beleikidxe da, egur utzesku ixeten da, esaten da se eukitten deu kirtena da alderdi bidxetatik eukitten deu olanik alde batera ta bestera, da erdidxen eukitten deu sulu einde, da palue olan sartute, makillie, da orregas laban eitte gendun, belaididxas, brasie, labako egurrek sartze dxakosenak, erdi erreta daunien, sabaldu danin-danin dana berotu deidxen*. || *Ipiskidxe: labie garbittu-te eitteko, asmosarak kentzeko be bai. Dies arbolan sepa moduko batzuk*.

**Ipistar.** (IPAZTER) Ipazter. || *Nik pentzete dot ori, atzu-ta, aguri-ta, amen bayo geidxau Ipistar aldin-da esaten dabela ori berbiori*. || *Ipistar: Lekittotik onasku*.

**ipistartar, ipistartarra.** (IPAZTERTAR) Natural de Ipazter. || *Ipistartarrak ein dxok au*.

**ipuñ, ipuñe.** (IPUIN) Cuento. || *Orrek danak kontuek dire. Maiña bider ori ipuñ ori entzu du, egidxe dala ta. Egidxe, bai, egidxe!*

**ipurbaltz, ipurbaltza.** (IPURBALTZ) Culinegro, a. *Eperdidxe esan arren ere, ipurbaltza esaten da*. || *Topiñik lapikuri: ipurbaltz!*

**irasi.** (IRAZI, iragazi) Colar, filtrar. □ **irasi eittekue.** Pasador, colador. Sin. *pasadora*.

**irasteko, irastekue.** (IRAZTEKO, iragazki) Pasador, colador. Sin. *pasadora*. || *Irastekue alanbraskue ixeten da*.

**irastontzi, irastontzidxe.** (IRAZTONTZI) Pasador, colador. Sin. *pasadorie*.

**iraule, iraulie.** (IRAULA) Estercolero, lugar o sitio donde se echa el estiercol, situado generalmente frente a algunos caseríos. □ **irauleko satza.** Estiercol del muladar situado frente al caserío. || *Irauleko satza: ori kanpoko satza. An kanpun, len e emen be eitte san e astu egote saniñ e, da pekotza dana batu te dana leku batera ein de irauleko satza*. || *Irauleko satza? Etzaurreko satza da ori. Etziñ eurriñ eitte sana len. Botate san aspiarrixde, da urte gustidxen an dabillega ganadu edo besti dabillega pasuk-eta, axe irauleko satzak, etzaurreko satza. Baya orrek e leku gitxitten eitte sin. Orrek eitte sin... Geu pe bai. Ni txikitxu nintzenin emen etzaurrien, or be eitte san*.

**iraulikie, iraulikie.** (HIDRAULIKA) Cemento rápido. Erdarazko *hidráulica* hitzean egon liteke honen jatorria. || *Emen sementu bateri esate tzeu iraulikie*. || *Iraulikie, ariñ inkau bi danien, ensegida siketen da. Sementuen aldien arin siketen da ori*.

**iraun, irauten.** (IRAUN) Aguantar, perdurar. Ik. *agontou*. Janariei edo tresnei buruz esan ohi da. || *Esteu asko iraun*. || *Janaridxek lusero iraun deu*. || *Sekule bedarra beidxek jaten dabe. Orrek bedarrak irauten deu iru urtin bai*.



**1 irebasi, irebasten, iruasten.** (IRABAZI) Ganar. || *Jornala irebasi.* || *Dirue irebastera be alde eitten dabe etzetik estranjeridxera, olanik.* || *Irebasi deu garagarra!* || *Parra-parra dirue irebasten deu.* || *Bayetzekuk irebasi dabe.* || *Aloberin jun de diru irebasten.* || *Garagarraka iruasten dabil astue.* || *Iru jokotara irabasi tzak ganera.* || *Ta jornala da egunien iruaste suna.* || *Ori eguneko iruasten dana be: "Se jornal iruastok?"*.

**2 irebasi, irebasidxe.** (IRABAZI) Ganancia. || *Irebasidhek galdu dxusak a pe.* || *Txansan nau irebasteko.* □ **irebasidxe emon.** Hacer avanzar. || *Da igul esin mobidu (proban).* *Da gero esaten da "Eusidxe!".* *Da gero eusidxe eittosu ras!, ona ekarri, da gero ona ekarri, da arridxeri irebasidxe emon beti.* *Arridxe atzera bota barik, irebasi eurrera. Eusidxe.* || *Da gero arridxe oten da ba arridxen apur bat onan, da saposaltue esate gentzon.* *"Saposaltu emoidxok ori!".* *Dardadie, bakixu. Dardadaka. "Emoidxok e dardadie! Saposaltun eik!".* *Ta-ta-ta-ta-ta-ta, da irebasidxe emoten dau.*

**irebastzaille, irebastzaille.** (IRABAZTZAILE, irabazle) Ganador, -a. || *Irebastzaille ixen dok.*

**ireil, ireille.** (IRAIL) Septiembre. || *Ireillen dok errekie siketzen illerik erresena.* || *Orrek irailan askanekuen edo olan urtetan deu.* □ **ireil madaridxe.** Cierta tipo de pera.

**1 irekin, irekitten, irakin, irikin.** (IRAKIN) Hervir. || *Irakiñ ein deu.* || *Ur irikin bakue.* || *Irekitten dau.* || *Sagarra pe barrilera bota, ta irikiñ ein de gero ixeten da sardaue.* || *Ur irikiñetara botaten da urune.* || *Pol-pol dau irikitten indarra.* || *Porru irakitten daunin patatak sartze dxakos.* || *Da arixeri esate dxako mostue.* *Da gero ba eitten da garrastu, gero irakiñ eitten deu, da gero garrastu eitten da.* *Da gero irakitten dabenien sartzen da botilletan.* || *Da gero intxaur saltzie ba esate baterako dosena bat intxaur edo dosena bi, edo ba asko ein gure bada edo gitxiau ein gure bada-edo, txikittute prest ipiñi, da gero urek irakitten dabenin ureri botate dxako, botate dxako asukeri be gosatzeko, da ur irakiñetara, bueno ur irakiñetara botaten da.* *Antxe irakitten eukitten da, ta botate dxako urune, urune, urune ta irakitten-irakitten, eraitten-eraitten-eraitten, irakitten-irakitten.*

**2 irekin, irakiñe.** (IRAKIN) Hirviente, hervido. □ *Hona hemen txotorraren aurkako erremedioa: || Ur irakiñe, epeldunekuas garbittu, besterik es.*

**irekiñaldi, irekiñaldixe.** (IRAKINALDI) Hervor, ebullición. || *Irekiñaldixe artu deu.*

**iribidxe, irebidxeu, iribidxetan.** (IRABIAU, irabiatu-bat.) Batir, remover. || *Iribidxe arrautzie: tenedoras apurtzen danin-edo, tortillie eitteko: "Arrautzie iribidxetan dabil".* || *Esate baterako, arrautzie apurtute, tenedoras eitten danin, irebidxau esate dxako, "arrautzi irebidxau".*

**iro, irue.** (HIRO) Corrompido, podrido (referido a la madera). Sarriago *irotute* esaten da. || *Okille: orrek sulotzen dana arbola, iru, ero ya usteltzen doiña, abidxak olakuxe lekun eitte ittu orrek.* || *Iru, a barrutik usteldute-edo ori deuna, 'iru' esate tzeu guk areri. Iru da uekue, iru edo paseute dau barrue, "Barru irú dxekok".* || *Irue ixeten da barrukue usteldute dxakonin.* || *Irue badau, ak peligrú deko. Paguek iru asko. Irue, usteldute an barruen dekona, paguek. Iru esate dxako. Da kontu aundidxe bier ixeten dabe, kargu eundidxe.* || *Ure be bier ixete san, irue-ta amatetako. Ure bota bier ixete dxakon apur bet.*

**irotu.** (HIROTU) Corromper(se), podrir(se) la madera. Egurra erdi ustelduta dagoenean esaten da. || *'Irotu' da ya a, samurretute barrue, "Irotute dxak, etxok balidxo su eitteko be!".* || *Irotu: sarrak, ero sartutakuk, da ostantzin be usteldunekuri be. Ta usteldu orduko, irotu eitten da jeneralien egurre. Ariñau irotu, usteldu orduko.* || *Irotute dxauk barrue.* || *Au barrutik irotute dau.* || *Irotute dau egurre.* || *Irotute dxak barrue.* || *'Irotu' da ya usteldute.* || *"Iroute dau": a ya dau bastotute, apurtu igul broust! Eske ta narrak eta onek burdi sarrak-eta, gordeta sabaidxen-da dausenak, orrek oten dire... irotute esate dxako, arek... sitzenak, suluk eukitte itue, sitzek janda, da "Orrek selan auntauko dxok, irotute dxak ori", da broust! apurtzen dire arek.*

**irrebarreka.** (IRRIBARREKA) Sonriendo. || *Irrebarreka dxak a be.*

**irribarre, irribarrie.** (IRRIBARRE) Sonrisa. □ **irribarre ein.** Sonreír. || *Irribarre ein dxok ik, irribarre!* □ **irribarretxue ein.** Sonreir.

**irrikittu, irrikittue.** (IRRIKITU) Grieta, hendedura, rendija, resquicio. || *Andraskuk erute ben malen patrikarie, goniñ aspittik sartunde olanik. Gonik eukitte ban onek, irrikittue ametik, da gero esku sartze ben.* || *Irrikittue: arek saldidxek eukitten dabena bitz artetxun-da.* || *Ba beste noberak gure dabena mendau, arexek adartxuk sartze dxakes, gero botate dxake ba..., eitten da..., brie esate tzeu, unteu, da axe botate dxake, a irrikittutxue tapau, da, igertu esteidxen, ya gora urten deidxen.* || *Ori arboliri jeneral gastu daniñ eitte dxaken. Gastu daniñ arboliri eitten da mendau, ebaten da punti bayo beratxuatik ta ba onenbesteko lodieri edo metxuauae bardin, da ebei da eitte dxako olan barrurentz te ebaten da. Da olako lekun baten edo olako bat eitte daniñ e..., da sarte dxako mendau gure dan e..., ser esangot neuk?, beste mendu bat, gure dana, ipintte dxako. Da gero botate dxako brie, tapetako, arek irrikittutan tapetako ba brie, da artzen deu e, loratu eitten da gero.* □ *Hona hemen zelan bereizten diren arrakalie eta irrikittue: || Arrakalie ba esate dxako arrakalaten dan geusa bateri. Baya irrikittue da ba seinde saldik edo seosek bitz artetxun-bitz artetxun geusa bat, arixe esate tze irrikittue.*

**irrintze, irrintzie.** (IRRINTZA, irrintzi-bat.) Relincho del caballo. || *Saldi irrintzie.* □ Txerria edo basurdea hiltzen denean ere, *irrintzak* egiten dituzte, minaren minez. Bestela *puskeke* edo *purrutxadak* egiten ditu. || *Txarridxen irrintzak.* || (Ganadu iltteko) *Len beti orras, askorias, da txarridxe gantxuas, e kutxillu sartun. Da orreri be txarridxeri batzuk eitte tzen lelengotan askorias buru jo, satarik eiñ esteidxen, ainbeste irrintzarik eiñ esteidxen.*

**irrintzeka, errintzaka.** (IRRINTZAKA, irrintzika-bat.) Relinchando. || *Mendiko txikuek irrintzeka das.* || *Txikuek irrintzeka dabis.*

**irri-orro.** (IRRI-ORRO) Zigzag. Ik. *alboraskadie.* || *Irri-orro galantak eitte ittu.*

**irri-orroka.** (IRRI-ORROKA) Zigagueando. Ik. *albalboka.* || *Irri-orroka dau bidie.*

**irritu, irritzen.** (IRRITU) Irritarse, enfadarse. || *"Irrittute dxak": erreta personie, ernegau einde.* || *Irritzen asi da.*

**irritzu, irritzue.** (IRRITSU) Quejica. || *Umik keja dixenien esaten da: "Selako irritzue da ori!"* || *"Irritzue da": beti asarre danari-tte.*

**iru.** (HIRU) Tres. □ **iruko eskue.** Grupo formado por tres layadores. || *Laidxeketan: iru edo lau, edo bi bai.* *Baya jeneralien irutik gora. Iruko esku esate san. Igul sei lagun badas, sei barik irunal.* || *Iruko eskue: ya iru-lau bi dire iruko esku eitteko.*

**iruki, irukidxe.** (HIRUKI) Trillizo, -a. Ik. *irukotxa.* || *Irukidxek ixen dire.* || *Bai, txalak e bai jaidxoten dire baya, bai, esautu ittut etzik, etzik esautu ittut e irukidxek jaidxoten be.* || *Laukidxe da bikidxe ixeti les.* *Lau ume jaidxoten badi, laukidxe. Da bi jaidxoten badi, bikidxe. Da iru badi, irukidxe. Olan esaten da. Bateri etxako esaten bakidxe, espabe bateri ba, umie.*

**iruko, irukue.** (HIRUKO) 1. Trío, trillada, que tienen tres elementos. || *Tabanu eulidxe lakoxe, ixeten da eulidxe bayo ba biku edo irukue ixengo da eundidxaue.* 2. Triple, tres veces (más). || *Tabanu eulidxe lakoxe, ixeten da eulidxe bayo ba biku edo irukue ixengo da eundidxaue.*

**irukote, irukotie.** (HIRUKOTE) Triple, trío. Dena dela, hau erabiltzen da hiru ume jaiotzen badira edo hiru garauko fruta bada; osterantzean tabernan hiru gizon badaude, ez zaie esaten *irukoterik.* || *Irukotie da, iru sagar badas ya alde bateti be, irukotie. Iru ume jaidxoten badire, irukoti ixeten da. Bikidxek ixeten di bi, ba besti, iruri irukotie esate dxako.*

**irukotx, irukotxa.** (HIRUKOTX, hirukoitz-bat.) 1. Trillizo, -a. Hitz hau animaliekin ahiz lagunekin erabiltzen da. Ik. *irukidxe.* || *Orrek irukotxak dire.* || *Jaidxokerakuk-eta bai, badire, bikoti barik ordun bikidxek (esaten da). Da iru badire irukotxak.* 2. Cierta variedad de hierba de tres hojas parecida al trebol. Hiztegi batzuetan *irukotxa* eta *sekule bedarra* sinonimotzat jo arren, ez ei dira bat: || *Sekule bedarrak*

*eta irukotxak antzekuk dire, bedar bigunek dire, baya estire bat. Sekule bedarrak orri sabalau eukitten deu, irukotxak eukitten daben bayo, baya bidxek dire, se esango neuk?, motan barik solun eraitten dirinak.* || *Irukotxa landatan urteten deu, unekadetana-da. Irukotxa bedar ona da ganaduntzako.* || *Irukotxa gosu ixeten da ori ganaduntzako. Erein da ariñ asi.* || *Irukotxa sapraska-sapraska egoten dan bedarra da.* || *Irukotxa bedar bateri esate dxako emen, sekule bedarran antzeko bedar bateri.* || *Irukotxa ta sekule bedarra alkarren antzekuk tire, baya irukotxa esta sekule bedarra. Sekule bedarra da berde-berdie, orridxekin, bueno ba buru gorridxe asten deu, buruk urtete tzonin. Irukotxa esta sekule bedarran modukue, selaku dala esango dot. Irukotxa bedarra..., sekule bedarran antzeku da bera be, baya esta sekule bedarra.*

**irun, iruten.** (IRUN) Hilar, reducir a hilo. || *Lanie irun.*

**iruntz, iruntze.** (IRUNTZ, ihintz) Rocío, relente. Ik. *garue, lanparra.* || *Iruntze ein deu geur.* || *Iruntze dau geur.* || *Iruntzegas beye busti-bustitte egoten da.* || *Iruntze goixetan ixeten da, da illuntze-illuntzetan be bai, se gabas eitten dau jeneraliñ iruntze ta. Baya oiñ udan estau iruntzik eitten.* || *Lanparra esate tze emen be bai batzuk, lanparra. "Au da lanparra!" iruntzeari. Garue guk esate tzeu, lanparra barik geuk. Jeneraliñ emen bertokuk lanparra barik garu da. Baya suk esan dosuna, lanparra be esate tze batzuk berton be. Lanparra da dana umel garuas ta busti-busti.*

**iruntzi, irusten.** (IRUNTSI, irentsi-bat.) Tragar. *Tragau ere esaten da sarri.* || *Ik osorik iruntzi dosak arek!* || *Irusten min deket.* || *Birue da olluk eukitten dabena, iruntzi, tte olanik amen.* || *Baya kusune sotiñeri es dxako esaten, espabese esni edo soser artzen dabenien, olanik eitten dabenien e iruntzi esiñ edo iruntzi barik e olanik e sotiñe les eitten dabenien, ba kusune orrixe esate gentzon.* || *Sagar bat janda katittu, katittu saman, da iruntzi es ein. Da gero orrek, a pustuten doye, an esin deu..., ori pustu eitten da da gero errementeu. Da lagune egon balitz ordun an, da puntxeta sartun, a salbau eingo san.*

**irurogei.** (HIRUROGEI) Sesenta.

**irurogetasak.** (HIRUROGEITAZAK) Sesenta y tantos, -as. || *Berrogetasak. Nai tte berrogetabi etorten badire be, berrogetasak. Ta berrogetamar etorten badire be, berrogetasak. Da gero irurogeidxen pasau eskero, irurogetasak. Ori da ogeittik ogeire. Oiñ e ogeira arte esi lei esan. Ogetasa pai, baya amartasak esin lei esan. Ogetasa pai. Berrogetasa pe bai. Irurogetasa pe bai tte larogetasa pai. Da eundasa pe bai.* || *Onako beru da txarra bier eitteko. Dios! Ba atzo goixien radidxuk esate eki tzon rekorra iako irurogetasak urtetaku ein deula. Olan esate eki tzon. Berue! Egon be egon san berue!*

**irurren, irurrena.** (HIRURREN) Triduo. || *Irurreneko mesak.*

**irusur, irusurre.** (IRUZUR) Engaño, traición, trampa. || *Irusurre: diru kentzie, diruas tranpie eittie. || Irusurre? Bai, gusurre esaten dabenari edo lapurretan e eitteko eitten dabenari.* ☐ **irusur ein.** Engañar, traicionar, hacer trampas. || *Irusur ein deu.*

**irutike.** (IKOTIKA) Brincando (se dice cuando el cerdo o el ganado se escapa al trote). || *Txarrixde irutike doye. || Irutike? Saltoka ibilttie. Txal txikidzek be ibiltten dire saltoka lelengo kanpora urteten dabenin be. Beidxe pe bai-tte.*

**iski, iskidxe.** (ISKI) Insignificante; ligero, -a. Ik. *kopau.* || *Iski? Bai, olan ogi apur bet-edo artzen danin, bai: "Jan iski bat ein dogu. || Baskari iski bet. || Berixenda iski bet ein du. || Apaliski bat ein deu.*

**iskiribixe, iskibixe, eskibixe.** (IZKIRIBIZ, ezkel, betoker) Estrábico, -a, bizco, -a. || *Guk begidzek trabes dekosenari iskiribixe esate tzau. || Iskibixe: begidzek oker dekosenari. || Iskibixe ikuste dxok orrek. || Beidzek oten dire batzuk, albora be..., "Bei iskebix-ok ori!", albutara... Begidzek susen eurrera euki biarrin normal, albutara begire.*

**iskirimiri, iskirimiridxe.** (IZKIRIMIRI) Chisme, chascarrillo. Ik. *samarreridxe.* || *Orrek iskirimiridzek. || Iskirimiridzek ser dire? Iñun faltak ataraten dabixenari? Bueno, ori esateko estau ainbeste kostunbrerik, iskirimiridxe. Bai, esan be eitten da baya. || Iskirimiridxe? Estaipa, esaten bada iskirimiridxe, neuk dakitenik esebe esta iskirimiridxe, baya olan umiri-tte esate dxake "Iskirimiridzekas sabix"-edo, jateku elejidu esiñik dabixenin-edo.*

**isko, iskue, idiskue.** (IDISKO) Toro. || *Isko galanta. || Sekorra da iskue, da sekorra esate tze batzuk baya sekorrari iskue esate tzau jeneralien, esate baterako, isku txikidxe, edo sekor txikidxe be bai. Da urrxi bada, biai ero bintzi esate tze, da bestie, matxo bada, sekorra. || Jaidxokeran be iguel esta jakitten emi bada ala arra bada, da emi bada, "A, biei ok au", da bestiek esaten deu iguel matxu bada, batzuk esate: "Iskue ok", beste batzuk esate: "Sekorra jaidxo ok". Bidxetara esate deurie. ☐ **iskue bota.** Cruzar el toro con la vaca, echar el toro. || *Idisku bota bi tzeu, txala artu deidxen. || Bai, suse danin beidzek bestiri saltoka-ta ibiltten da, da orrek bellekatutaku beti dau olantxik, da iskue botatie alperrik, estau txalik artzen.**

**iskotu, idiskotu.** (IDISKOTU) Aparear ganado vacuno. || *Beidxe iskotu. || Beidxe idiskotu ein da, txala eitteko. || Idiskotute dau.*

**iskotxu, iskotxue.** (IDISKOTXU) Ternero. *Sekortxue ere esaten da. || Bieye ta beintxie bat dire, emie ixetie da bieye. Arra bada iskue, txikidxe bada iskotxue ero sekortxue.*

**isle, islie.** (ISLA, uharte) Isla.

**ispi, ispidxe.** (IZPI) Brizna, mota, pizca, hebra, filamento. || *Emen ispidxe esate dxako olan bedar asi txikidxe. Txikidxe bada asidxe, bedar ispidxe arixerri*

*esate dxako. || Ispidxe? Bai, bedar ispidxe. Bedar bateri esate dxako bedar ispidxe. || Bedar ispidxe: a siri bedar modun urteten deuna, bedar ispidxe.*

**ister, isterra.** (IZTER) Muslo.

**isterrarte, isterrartie.** (IZTERRARTE) Parte interior de los muslos.

**istillu, istillue.** (ISTILU) Alboroto, jaleo, bulla, jarana. Ik. *drogie.* Berba hau erabiltzen da, baina *drogie* esaten da gehiago. || *Orrek darabis istilluk! || Orrek dabis istillu klasik! || "Istilluk ein dxosak orre pe" esan eitten da, baya gitxi.*

**istoridxe.** (HISTORIA) Historia.

**ittagin, ittagiñe.** (ITAGIN, letagin) Colmillo. || *Arek dxekosen ittagiñek. || Arek basaurdin lako ittagiñe dxekosen.*

**ittaurлари, ittaurlaridxe, inttaurlaridxe.** (ITAURLARI) Boyero, guía de bueyes (o vacas). || *Inttaurlaridxe: oiñ esta usetan, ta len beidxen eurretik ibilttie sana, da a pe atzetik akuluas, da bestie eurretik makillias-ero, ya nundik jun erakusten ganaduri: inttaurlaridxe. || Beidxen eurretik ibiltten danari? Ittaurlaridxe. Da inttaurlaridxe esan da be, baya ittaurlaridxe beres.*

**ittaurreko, ittaurrekue.** (ITAURREKO) Boyero, guía de bueyes (o vacas). Idi edo behien aurretik doana da; atzetik *karreterue* doa. || *Ittaurren dabil.*

**ittaurren.** (ITAURREAN) Guiando los bueyes (o vacas). || *Ittaurren ibili: a ixeten da beidxen eurretik ibiltten dana, atzetik ibiltten da beste bat e, karreteru edo printzipala, areri buelta emon bi tzona, edo goldiri buelta emon bi tzona-edo. Da eurretik ibiltten dana ba, ittaurlaridxe. || Eurrelaridxe? Ser dala esangot eurrelaridxe dala? Beidxen aurretik ittaurren dabilena.*

**ittesurie, ittesurie, ittusurie.** (ITASURA) 1. Gotera que cae del tejado a la parte exterior del edificio. Ik. *ittoñe.* Jose Miguel Barandiaranek (*Obras Completas*, La gran Enciclopedia Vasca, II, "Tradiciones y leyendas de Euskalerrria", 218. orr.) honako hau dio: "En el "Anuario de Eusko-Folklore", t.V, pág. 62 (Vitoria, 1925) recogí los siguientes datos de Kortezubi (Bizcaya): "Itxusuria es el nombre de la gotera del tejado y de la faja de tierra donde aquella cae. En este sitio son enterrados los niños que mueren sin bautismo: así lo han oído todos los informantes. Uno de éstos, Lorenzo de Bengoetxea, presencié hace unos 25 años el enterramiento de una criatura en el *Itxusuri* del lado izquierdo del caserío *Andikoetzeta*. Otro de los informantes, Matías de Aranaz, vio enterrar a dos niños en los *itxusura* (así los llaman en Errigoiti) de dos caseríos hace unos 55 años". || *Ittesurie esate dxako tellatuk kanpotik botaten dabena, kanpotik jeusten dana; arixe esate dxako ittesurie. Barruen ya ittoñek. || Euridxe, ta euridxe danin, goitti bera jeusten dan ure da ittesurie. || Tantak jeusten diriñiñ: ittesurie. || Etze barrun esta ittesurerik, kanpun. || Tellatutik bajatzen*

dan ure da ittesurrie. || Ittesurrie esate dxako euri asko daunien, ba euri..., ser esangot neuk?, euri asko daniñ e, euridxe sendo danien ba da jeusten dire tellatuti pa ittoiñek, da arixerri esate dxako, jeusten danari, ittesurrie. || Oiñ etzik e danak eukitten dabe ori kanala. ba len bate pe es euken ori kanalik. Aintxiñe tellatik bertatik jeusten san dana ittesurrie. **2.** Alero lateral del tejado. Ik. bolaue. || Ittusurrie? Ittusuri es. Ittusuri da egala. Egal bidxe di ittusurak. Da onek dire eurriek, bolaue ta bolaupie. || Eurreri bolaue. Esate baterako, amen bolaue aixik-edo apurtu badeu, "Bolau apurtu tzo". An eitten badeu, ittusuratik dxako ure jeusi edo besti jeusi. || Au aurrie bolaue da, eurrie, arpeidxe onena etzina bolau esate dxako, orreri eurri danari. Da bolaupie, au aspidxe. Bolaupien, or tellatu eurrerau, te or aspidxen dauna amen eurrien, "Bolaupin dau", sikupiñ esate baterako. Da ittusura, ittesurrie esate dxako or jeusten da tellatutik, ormatik kanpo daun orreri. **3.** Faja de tierra donde cae la gotera del tejado. || Orrek tejamani orre pe ori estau atrapetan ittesurerik, eta ba, ori be bolaue da, bolau esate dxako urik sartzen estan lekuri. Da etarti pe olantxik bolaue. || Ittusuran galdari ipiñi, galdari ittusurik beteko dxok eta! || Amen ittusuri deku ba, a sakapi esate dxako areri. || Bai, ittesuriek atrapetan dabena, goitti datorrenak atrapetan dabena, etzin. □ Nik Nabarnizen ittesurrie berba batu nuen, baina I. Urtubik ittesurrie aldaera ere eman zidan: || Ittesurrie guk, da beste batzuk ori be esaten dabe berton ittasuri. Da ittusuri guk beti. □ **ittesurako ure.** Agua que se recoge bajo el alero del tejado. || Ittesurako ure beyen ganin sier jutun da. || Onek tellatuk dana deke egaletara. Atzin bes. Egal bidxek da besterik esteko etzik. Ur gustidxe doye egal bidxetara. Da len askok eitte ban, ure aprobetxetako depositurik eta olan manerialik-eta estekona, eitte besen depositu eundidxek eiñ or, da araxe ipiñi, ittusurako ure esate dxakon areri. Ittusurako uras eitti dxok e ori, etzeko ure useu, useu etzeko ure. □ **euridxe ittesurias ixen.** Llover a cantaros. || Bueno, euri saparrada aundidxe eitten dabendien orixerri esate tzeu guk "Euridxe ittesurias da".

**ittesurotz, ittesurotza, ittusurotza.** (ITASURA HOTS) Ruido que produce la gotera que cae del tejado a la parte exterior del edificio. || Ittusuri da egala, egal bidxek, bata nai bestie, ittusurak. Da amen euri asko eitten daunin, iguel e..., oin guk e tellatue oiñ ipintte deko olakin... "Ittusurotza! Dios, ittusurotza terdidxokue!". Euri asko danin ba ittusuk sati ataraten dau ba, da len onek..., odidxe esate tzeu oiñ orreri ipintten danari. Len odirik e-san..., iñok es eban eukin. Dana ure tellatuku bera jeuste san, da ittusuri esate dxako beti. || Ittesurotza? Ittesurotza bai, euri asko danin.

**itto, ittoten.** (ITO) **1.** Ahogarse. || Lurre ittota dau. || Ittoten plantau da. || Ittoten dau. || Len be geuk ortxe etzaurrien umik txikidxek siriñin sarratu ein gendun posu, ume bat itto esteidxen. **2.** Extenuarse, agotarse. ||

Kantzaute total jota badau, "Total etenda dxak eta! Se ingo dxo pa!", akabaute, ittota, etenda. □ **itto biarrien.** A punto de ahogarse. || Ori ointxe itto biarrien dau. || Itto biarrien dau barreska. || Itto biarrien dau negarres.

**ittoaldi, ittoaldidxe.** (ITOALDI) Ahogo, sofoco.

**ittoin, ittoiñe.** (ITOGIN) Gotera (filtración de agua). Ik. ittesurrie, tangadie. || Ittoiñe etziri jeuste dxakon tanti ixaten da. Igul e tellatuti sartze dxako da ba tantie beraiño etorten da. || Ittoiñe eundidxe dekegu. || Ittoiñen pariñ ipiñi. || Ekarri ittoiñe artzeko ontzidxe, busti esteidxen beye. || Eskapie esate dxake, esate baterako, ittoiñek nunondik-e, ure botako baleu itturridxek sabaltzen estan lekutik. □ **ittoñe artu.** Perder la cabeza, desvariar. || Ori ittoiñe artute dau.

**itturri, itturridxe.** (ITURRI) Fuente. || Ure franko deko itturridxek. || Itturridxe agortu ein da. Urik estator. Siketie dau. Agorra dau. || Agorra esate dxako amaittu dan geusa bateri: "Agortu da", edo "Agorra dau". Esate baterako, itturridxek ur gitxi emoten dabenen, "Agortute dau", edo "Agorra deko". || Gero itturri bet dau an, Meriken, Merikeko ausu akabaten danien, lengo..., oin kamiñu dau eusun erdittik les einde, baya len bide sarra, len es san egon kamiñorik, bide sarra egon san-da, antxe bide sarrin bajetu bera, da itturri etze bi das, itturi goikue, ta itturri bekue. Antxe urtetan deu urek, da axe esaten dabe Illunsarretik bajatzen dala batzuk, eta beste batzuk esaten dabe errekie agertzen da, da erreka ure Illunsarreko ure dala, itturiku barik, itturiku estala. Da itturriko ure, oin ba etziten eukiko dabe jenti paya, len andik edateko ure artzen dan itturridxe dau. || Itturridxen inkau eitten deu, inkau eitten deu, da dobeli arixerri esate dxako. || Iños entzu ot, geixu etziñ ama, da ure eskatu, ta goxaldien urten, etzien, artu ontzidxe da araxe itturrire, uretan. Amari eruten. Antxe dago itturirik onena, urik onena Nabarriskue.

**itxaron, itxaroten.** (ITXARON) Esperar. Ik. sain, begire. Itxein gehiago esaten da. || Aintxiñe beti itxaroten urridxen askana etorteko, se eskiñen emendik... Iñor es san jutun oingo modun astelenetan. Ta axe Urridxen lelengue ta Urridxen askana. Urridxen lelengue, lengo astelena. Oin be bardiñ eitten da Gerniken.

**itxaropen, itxaropena.** (ITXAROPEN) Esperanza, confianza. || Itxaropena euki bi da.

**itxartu.** (ITZARTU, esnatu) Despertar(se). Aditz hau aditzen da, baina gutxi erabiltzen da. Nabarnizen akordau edo akordau erain esaten da gehiago. || Itxartu ein ddot. □ **itxartu erain.** Despertar. || Itxartu erain tzet.

**itxasbera.** (ITSASBEHERA) Marea baja.

**itxasgora.** (ITSASGORA) Marea alta.

**itxein, itxain, itxan, itxeitten, itxaten, itxoten.** Esperar. Ik. sain, begire. || Oba ixengo litxake aparidxe jan, beti berandu datorrenari itxeitten egon

barik. || *Itxeitten dasak etorriketasen.* || *Itxeitten dasak nos etorketan Juan.* || *Luse eritxi tze itxaten.* || *Itxan apur baten, itxan!* || *Itxan ein bi tzat.* || *Itxoten dxak orreri.* || *Persona bateri itxeitten daunin ba, agiri estaniñ-edo ba, "Urriñ etorriko da", "Oneskeru urriñ etorriko da"-edo esate dxako.* □ Emakume bat haurdun dagoanean ere hala esaten da: || *Itxeitten dau.*

**itxerain, itxeraitten.** 1. Esperar. Sin. *itxein.* || *Da aillarak dire esan dotena, gastañak dauseniñ e..., lau urtekuk-edo, estai senbat, senbat urte, se len aillarak eitteko, gastañe sepak eraiñ eitte sirien, bueno, da itxeraiñ eitte dxaken. Da arixeri atarate dxake sumetza.* 2. Estar embarazada. Sin. *itxein.* || *Itxeraitten dau.* || *Datorrenari itxeraitten dau.*

**1 itxi, isten.** (ITXI) Cerrar. *Sarratu* ere erabiltzen da. || *Atie itxi!* || *Itxi txirrintxola!* || *Ati ondo itxi barik dau.*

**2 itxi, isten.** (ITXI, utzi-bat.) 1. Dejar, abandonar. Ik. *abandonau.* || *A be artu, te itxi ein dxok (neskie).* || *Len isten san batute eutze.* || *Erreteri itxi tzo.* || *Ordu bete eskero itxi biarrari!* || *Boltzie itxi or!* || *Nobidxiak ibilli san urtiitan, da nobidxiak itxi ei ban beste batigeittik, eta beste bat artu. Gero eskondu san ondio.* || *A pe latz ereitxi tzeak areri, da etxok ein, itxi tzeak.* 2. Permitir, dejar, consentir. || *Estau isten jasten.*

3. Dejar, ceder, prestar. || *Itxi nidxuan a basu.* 4. Descuidarse en el vestir e higiene. □ **ri itxi.** Abandonar algún hábito, vicio. || *Edatiri itxitte dau.* || *Negar eittiri itxi tzo.* || *Da inkaute dxake ganaduri miñe atrapau eskerun e, da jatekuri be itxi eitte tze, se aguen anpollak urtete tze miñin, da ganadu asko kostaten da alaku atrapau eskerun.*

**3 itxi, itxidxe.** (ITXI, utzi-bat.) Dejado, -a, descuidado, -a. Ik. *fandangue.* || *Geuse danak asten dxakosanari itxidxe esaten dxako.* || *"Sikiñe da!", konparatako, erropa sarrekiñ edo itxitte badau, "Ño, ori dok sikiñe!", edo "Ori dok itxidxe!"*

**itxittasun, itxittasune.** (ITXITASUN, utzitasun-bat., zabarkeria) Desidia, dejadez, abandono. || *Itxittasune: ori da bierra euki eitteko, da eiñ es, alpertasunegaittik.* || *Itxittasune da itxittie geusie ein barik. Itxittasune da nagi egotie. Nagittasune nai itxittasune ya bat dire. Nagittasune da sorra..., ba ein guresda les egotie.* || *Igul itxi tzos emen danak jeurtitte: "Beittu selako itxittasune dekon orre pe!"*

**itxosalde, itxosaldie.** (ITXASALDE, itsasalde-bat.) Costa, literal. || *Itxosaldie illune dau.* || *Itxosaldie argidxe da.*

**itxosegal, itxosegala.** (ITXAS HEGAL, itsas hegal-bat.) Costa. *Itxoso egala* ere esaten da. || *Kostie da itxosegala.*

**itxoso, itxosue.** (ITXASO, itsaso-bat.) Mar. || *Itxoso sabala.* || *Itxosue bare-bare dau.* || *Itxoso txarra dau.* || *Itxosu pikau dau.* □ **itxosun eskiñie.** Orilla del mar. □ **itxoso aixie.** Brisa del mar. || *Onetan itxoso axe asko estau eitten. Iperra be bai, da ori nortaixie be*

*otza da, naiku otza da.* □ **itxoso egala.** Costa. *Itxosegala* ere esaten da. || *Orrek txankluk ibiltten dire..., baserridxen nik estot esautu txanklurik, baya orrek ibiltte siriñ asko itxoso egalin, esaten da se txankluk itxoso egaliñ ibiltte sittuen nai mariñeruk diriñak, nai andrak, nai gixonak.* □ **itxosoko landarra.** Arena marina. || *Obratarako biosu karie. Kari bi da derrior. Aintxiñe eitte san itxosoko landarras da karias morterue. Da gero obran ormi eitteko porlana apurtxut bota.* □ **itxoso partie.** Zona costera. || *Da or itxoso partin, esate baterako, Lekitton, Lekitton-da olan arenadurak arias eitte sirin.* □ **itxos parie.** Zona costera. || *Emen esta paixanik oten. Ori itxos pariñ-edo esta ibiltten paixana?*

**itxosoratu.** (ITXASORATU, itsasoratu-bat.) Hacerse a la mar.

**itxostxori, itxostxoridxe.** (ITXASTXORI, itsastxori-bat.) Gaviota. || *Itxostxoridxe..., oiñ aspaldiko urtiitan estira etorri, len etorten siren. Denporale gogorra itxosuen eitte banien, emen gari asko ibiltten sanin, gari solutan jatekue topate ben, guk arra esate tzegune.*

**itxosur, itxosure.** (ITXAS UR, itsas ur-bat.) Agua marina.

**itxu, itxue.** (ITSU) Ciego. || *Itxu garatu da.* || *Itxu geldittu da ori.* || *Itxu dok a.* □ **itxu-itxun.** A ciegas, sin saber. || *"Itxu-itxun jun nas": ori ba, esate baterako, esate dxako ba, esjakiñin daun geuse bateri: "Itxu-itxun jun nas", edo "Itxu-itxun jun nas"* □ **itxu-itxuke.** Precipidamente, atropelladamente. || *Itxu-itxuke: bueno, aringarine erdi eser jakin barik-edo juten danari e ba.* || *Itxu-itxuke jeusi nas.* || *Itxu-itxuke jun da.*

**itxuki, itxukidxe.** (ITSUKI) Cegato, -a. || *Itxukidxe dosak arek bidxe (Igul bi dausen biste gitxikuk: itxukidxe).* || *Itxukidxe da biste gitxi dekona, ero olanik.*

**itxumustuen.** (ITSUMUSTUAN) Precipitadamente, atropelladamente. Ik. *arrapaladaka.* || *Itxumustuen jun dok, da jeusi dok.*

**itxura, itxurie.** (ITXURA) Forma, figura, aspecto, apariencia, traza. || *Itxura ona deko.* || *Erlatokidxe tellatu itxurie eukitten deu.* □ **itxurie dan les.** Según parece.

**itxuski, itxuskidxe.** (ITSUSKI, isuski-bat.) Escoba. Berri-emaille batek dioenetik gixetas eta giñerrias egiten da. Gaur egun gazteek ia ez dute esaten, *eskobie* asko zabaldu da eta. || *Eskobie, ba, erosiñekue ixete san, oin ba danak erosten dire. Baya itxuskidxe esate dxakon, asten san olako..., otiñ antzeku esta ixaten, arantzarik estau eukitten itxuskidxe-eta. Da kanpun asten dana, ba naiku aundidxe asten da, olanik, noberan gerriraiñuku igul, de aixek erein, de aixekiñ itxuskidxe eitte gendun. Da ba etartie garbittu-te eitte gendun.* || *Orrek itxuskidxe dire or beye garbitzeko, bedar ligorrak lotze sanak, itxuskidxe. Da labi-tte*

garbitze san len. || *Au itxuskidxe nok ein deu? || Labako sue eitte gendun, asunek batute, arek..., aren ixena... itxuskidxe eitteko, garidxo bedarrak esate gentzon; asunek, asunekin be eitte san, baya garidxo bedarra pa, olanik onen eingerun-edo asten dire, da ligor-ligorrak ixaten di, ta orridxe eundidxe be eukitten dabe labi batzeko-ta. Alakuri esate gentzen garidxo bedarra.* □ **itxuski garratza.** Agracejo común, arbusto de la familia de las berberidáceas, como de un metro de altura; la madera se utiliza para hacer escobas. (*Berberis vulgaris*) || *Itxuski garratzak: artik eta atxekidxe deusen lekun urteten deu orrek. Bestela esteu urteten itxuski garratzak. || Batzuk eoten dire arek arantzadunek, a da itxuski garratza; da besta ba arantza gitxikuek: itxusidxe. Len eskobarik e-san ekarten erositte, orrekiñ eitte sin geusak.*

**itxutu.** (ITSUTU) Cegar. || *Itxutu ein da || Ori itxutute dau.*

**itzel, itzela.** (ITZEL, berebiziko, izugarri) Excepcional, extremo, enorme, muy grande, terrible. Ik. *demasa, galanta.* || *Itzela ixen da! || Itzelak esan tzos. || Jeneru bat aundidxe danien, ederra danin: -Itzela da berori! || Itzela ixen dok a, itzela gero! || Sekor itzela dau kortan. || Ak mutillek esiñ esana itzela dxekok. || Ba a gure laguna da itzela! || Itzela da aundidxe. || Ordun edurtze itzelak eitte ittuasen. || Bidealdi itzela ein deu! || Da bueno, orrek, ori gatza, efetu itzela ormiri be! || Da aska itzela euki gendun einde, da an udan-da olan e erropak negun be bai, da oyetako erropak-eta daseninde ba araxe jute giñin. || Oin pentzau selan din geusak e! Nik e lengun orreri lobiri esan gentzon "Kaguen, au be itzel dok e! Guk au... Mallukiri mallu esate tze, da guk malluki!". || Gerniken jaidxek itzelak ixeten dire. □ **itzel egon.** Estar fenomenal. || *Itzel dau!**

**itzelesko, itzeleskue.** (ITZELEZKO) Enorme, imponente, terrible, impresionante. Ik. *demasa, galanta.* || *Itzelesko drogie egon da. || Ori da eundidxe-edo ixeten dana, geusie. Esate baterako, geusa aundi bat ikustos, te "Dios, itzela dok ori, itzela!"*

**itzolapiko, itzolapikue.** (ITSULAPIKO) Hucha, alcancía. || *Bueno, bai, itzolapikue len esate san oin bayo geidxau. Oiñ e umik itzolapikora bota barik diruk gastau eitte ittu.*

**ixeka, ixekie.** (ISEKA) Burla, mofa, desaire. Gaur egun nahikoa galduta dago berba hau. □ **ixeka ein.** Burlarse, mofarse de. || *Ixeka ein: estaitt oingo gastiek ori aittu be ingo badabe, baya len esautu nabem nik ori berbiori amumagandik, ixeka. Baya oiñ esta esaten ori be, da oingo gastik jakin be-estabe-ingo ser dan be.*

**ixekera, ixekerie.** (IZAKERA) Naturaleza, carácter, modo de ser. || *Aman ixekerie. || Euskaldunen ixakerie gogorra ixen da beti!*

**ixeko, ixekue.** (IZEKO, izeba) Tía. Etxe batean edo bitan hala esateko ohitura dute baina gainerakoetan *tía* esaten dute. Lehengo zaharrek ere halaxe esaten zuten.

|| *Ixekue dabillenak etze bat edo bi das ortxe, baya guk e beti tia.*

**1 ixen, ixena.** (IZEN) 1. Nombre. || *Jaungoikuen ixenien! || Ori estok ixena, albotik ipiñinekue dok. || Estai se ixen deken. || Su ondoko burdiñi da, baya orrek borren ixena deko, etxat akordetan. || Da sasi ebateko kodañe barik, ota kodañe; se aintxiñe oti ebate san orrekin txikidxeekin, da oin be axe daroi ixena. || Etxet akordetan selan ixena euken arek. || Are pe ixena badxekok. || Personigaitti pa len esan dotena, personi gogorra-edo bada, iñok ikusi gure espadau-edo, ixenak ipiñi eitte dxuse pa. Ixen txarrak, bakixu. □ Nabarnizen honako egitura hau erabiltzen da sarri: NORI + X izena + dxako + ixena. Hona hemen Alfonso Irigoienek (*Eritzi nola erabili behar den delako hauziaz*, Euskera, XXII (1977), 659-660. orr.) zer dioen honi buruz: "Hala ere Aulesti eta Lekeitio inguruetan asko esaten da *orréri selan [dž] áko iséna?* eta ene eritzian horren egitura sakonean beste hau dago: *\*orreri zelan eristen jako izena?* Gipuzkoako euskaraz egiten den alderdietako *goseak dago* esaeran *\*goseak hilik dago* dagoen bezala, edo *otzak dago* delakoan *\*hotzak hilik dago*, Bizkaiko euskaraz osorik esaten ditugunak. *Orreri zelan jako izena?*, beraz, *locutio praesens* bat besterik ez da eta Txillardegik aipatzen duen Leizarraga-ren exenploa egoki datorkigu arira: *eta hari eritziren zaio Emmanuel?* J.M. Barandiaranek (*Obras Completas* II, 430. or.) beste adibide hau batu zuen Busturiako Altamiran: "*An antxiña bizitzen ei ziran erdixe arraiñie eta erdixe kristiñau sirien pizti batzuk. Lamiñak xaken izena*". || *Txakurreri Lagun dxako ixena. || Julian dxako orreri ixena. || Oneri dxako ixena Anton. || Kurtzean: kurtzerue, ixena Kurtzean dxako. Kurtzeruk dausen les an, Kurtzean beti ixena arena. || Suidxe dxako ixena, areri, egurreskuri. 2. Fama, renombre. || Ixen aundikue da.**

**2 ixen, ixeten.** (IZAN) 1. Ser. || *Ori be estaitt nik ser ixen leidxen. || Au dok ixetekue, dana bera dalakun dxak eta! || Geldu laku da ixen be ta ba!" || Kapritxue euskerasko berbi ixen be esta. Kapritxue erderasko berbi ixengo dala pentzetot nik. || Iru iko edo lau badas baya estaitt e, batzuk e ondiño gastik dire ixen be, da eundidxe be an dau, galanta, da ori iko suridxe da beres. || Ixen lei (puede ser). 2. Estar. || *Gernikera junde daunien, "Gerniken da" esaten da. "Gerniken dau": ori ya bixi ixeten bertan badau, ya Gerniken dau esaten da. || Esara Santa Eufemian iñois ixen? || Egurre satitzen ixen gara. || Makuk geurin be badas. Da etzin be estas ganera. Len erlatokidxe ixen san lekun das. || Etorri apurtxu baten! Alberto emen da. || Ni sekule enas ixen an, baya ortik mendittik danak len ikuste siren. 3. Parir. Animaliekin euki erabili ohi da gehiago. || *Ume txikidxe ixen deu. 4. Mediante la estructura '-ten izan dot/naz'* se expresa una acción cuyo aspecto es imperfectivo y su desarrollo se encuentra ya finalizado en el omento en que se**

expresa. (Ik. Juanjo Respaldiza, *-Ten izan dot/naz aditz egituraren ganean*, Mendebaldeko Berbetaren Formalizazioa, Mendebalde 4, 2000. || *Es, emen estu guk olakorik ibiltten ixen.*

**ixentasiño, ixentasiño.** (IZENTAZINO, izentazio-bat.) Pequeña muestra o señal para probar, enseñar, etc. || *Seoser ipinttie, apur bet ipinttie da geusie, osori parik, ixentasiñoie ipiñi.* || *'Ixentasiñoie' da geuse gitxi emoti lako geusie. Amen satitxu bet emonda: "Esebe estostek emon, ixentasiñoie bakarrik".* || *Ixentasiñoixue emon tzat.* || *Bai, badau ixentasiñoie.*

**ixentau.** (IZENTAU, izendatu-bat.) Nombrar, llamar por su nombre, mencionar.

**ixepue.** (ISIPU, ihiztailu) Hisopo, utensilio usado en las iglesias para dar o esparcir agua bendita, consistente en un mango de madera o metal, con frecuencia de plata, que lleva en su extremo un manojito de cerdas o una bola metálica hueca y agujereada, en cuyo interior hay alguna materia que retiene el agua. || *Ixepue abadiñ orreri esate tze, seinde brotxi les, arexi ixepue.*

**1 ixer, ixerra.** (IZAR) Estrella. || *Norteko ixerra.* || *Sartadaka dabil ixerra.* || *Dardarka dabil ixerra.* || *Edoidxe ederto jantzitte dau ixerrakin.* || *Serue argidxe dau ixerrakin.* || *Ixerrak dabis bateri bestera.*

**2 ixer, ixera.** Diminuta mancha de aceite que flota en la sopa y caldo. Justo Mokoroak *Ortik eta Emendik* bilduman (4456 zk.) adibide hau dakar: "Salda euskalduna... izar askorekikoa" (De muchos "ojos", de mucha sustancia). || *Oridxu lapikuri botate dxakoniñ esaten da. "Ixerdi-tte atara deu, ixer asko deko."* || *Ixerra? Bai, ixertxuk ixeten dire e sopiri eitte dxakesanak.*

**ixera, ixerie.** (IZARA, maindire) Sábana. || *Ogeko ixerak.* || *Trastie erropi, nai soñekerropi ixen lei, trastiek ixen leix e tualla pe, ixen leix ixera pe.* □ **kirusko ixerie.** Sábana de lino. Sin. *liñosko ixerie.* □ **liñosko ixerie.** Sábana de lino. Sin. *kirusko ixerie.*

**ixerdi, ixedidxe.** (IZERDI) Sudor. || *Ixerdi tantak.* || *Ixerdidxe bota.* || *Ixerdis bustitte dau.* || *Ixerdidxek dana bustitte dau.* || *Ixerdidxe otzittu dxat.* || *Ixerdi otza esta ona ixaten.* || *Ixerdidxek esteust urten* □ **ixerdi bakue.** Persona que no suda. || *Ixerdi bakue: estau ixerdirik botaten-da.* □ **ixerdi larridxe.** Sudor originado por el mareo, nauseas o malestar. || *Ixerdi larridxe: ori jeneralien emakumiek enbarasada daunin, da elixan dauniñ eukitten deu ixerdi larridxe.* || *Debil daunin, edo askotan beru pasaute daunin, kanpun biarrin-edo, da bero aundidxe egonda, beru pasau-edo ein badeu, ba eukitten da ixerdi larridxe.* || *Elixara sartuten bada, "Ixerdi larridxe eukin ddot".* □ **ixerdi larridxaldidxe.** Momento de mareo, nauseas o malestar que viene acompañado por un sudor frío. || *Ixerdi larridxaldidxe pasau deu.* || *Ixerdi larridxaldidxe euki deu.* || *Ixerdi larridxaldidxe? Ixerdidxek e urteten deu nobera erdi larri daunien, da ba ixerdi larridxaldidxe.* □ **ixerditten.** Sudando. || *Ixerditten dau.* || *Baya amen*

*bestik ordun bierra gogor eitte ben, baserriidxen. Ordun atxurren da bueno bierra..., beti ixerditten. Da arek buuuuu!, bueno, a trankil.* □ **ixerdidxe bota.** Sudar. || *Da ba egarridxe..., olan egarperi dana-pa, ixerdi askota botaten danin: "Egarridxen purus ba edoser edaten da, arda, nai ure, nai sardaue, nai txakoliñe".* □ **ixerdidxe emon.** Sudar. || *Ixerdi asko emon deu.*

**ixerdialdi, ixerdialdidxe.** (IZERDIALDI) Rato de sudor, sudada.

**ixerdittu, ixerdittuten.** (IZERDITU) Sudar. || *Ixerdittu nas.* || *Egostu esaten da, selan esangot neuk?, olan eridi be esta eitten egostu. Ba beruas ixerdittuten danin-da, ba gorrittu-edo eitten danien, ba egostu esaten dxako.* || *Bei mantie? Iños probarik ikusi dosu? Ba beidxeri, proban einde, ixerdittute egoten diriñin lepun ipintte dxakena.*

**ixerditzu, ixerditzue.** (IZERDITSU) Sudoroso, -a, propenso a sudar.

**ixerpera, ixerperie.** (IZERPERA, izerbera-bat.) Sudoroso, -a, propenso a sudar. || *Ixerperi: ixerdi asko botaten dabena.*

**ixerratu, ixerratue.** (IZARRATU, izarrarte) Noche estrellada, cielo estrellado. Ik. *ixertzue.* Izen legez erabiltzen da, ez da adjetibo. || *'Ixerratu' esaten da, seinde gautute daunien, da denpora ederra daunien, ixer asko eoten da, da: "Ene, ixerratu ederra dau!". Estau ixerraturik, lañu daunin.* || *Ixerratu ona dau.*

**1 ixertzue, ixertzue.** (IZARTSU) Estrellado, -a, lleno de estrellas. Ik. *ixerratue.* || *Ixertzue: ixer asko daunin, argi dauniñ ixerras. "Ixertzue dau" aittuten da, baya emen geidxau esaten da "Ixerratu dau", "Ixerratu ederra dau", da ba "Gau aru ona dau".*

**2 ixertzue, ixertzue.** (IZARTSU) Llena (la sopa y caldo) de diminutas manchas de aceite que flotan. || *"Sopi ixertzue dau"?* Bai, *eiñ eskerun ixerrak.*

**ixete, ixetie.** (IZATE) Ser, naturaleza. □ **ixetes. 1.** Por naturaleza. || *Askonarrak? Orrek txakurkidxek dire ixetes, eurok. Txakur rasa antzekuk.* || *Ixetes esta bertoko semie.* || *Orrek angoxi di ixetes.* || *Da "Erronkaka abil!" be esan eitten da. Erronkaka ba, seinde fanfarroi eitti lakue da ixetes erronkie.* **2.** De hecho. || *Ba frontoyek, batzuk e, amen Nabarrixen elixin kontra eitte gendun, te or eskumeko ormi. Baya ixetes eskerreko ormi ixen bi deu, baya emen eskumeko ormie: "Eskumeko ormie dxekok arek"-eta.* || *Ixetes a da, ixetes, propidxue.*

**ixil, ixille.** (ISIL) **1.** Callado, -a, silencioso, -a. || *Ori mutille ixille da.* || *Persona ixille da orixe.* **2.** En silencio. || *"Es nabarmendu geusie!": apur e ixillau pasau, bakixu, nabarben-da barik, apur bet, ixillau, eskandalu gitxiaugas.* □ **ixil poltzie.** Depósito secreto de dinero. Ik. *malen partikarie.* || *Onek ixil poltzie igul eukiko deu-te.* || *Etzien be euki senei ixil poltzie, gordeta daun geusie, bestiek estakidxena.* || *Gixonan*

*ixilin, seme-alaban ixiliñ edo beste baten ixilin badabil, ba ixil poltzie esaten dxako.*

**ixildu.** (ISILDU) Callar(se). || *Ia, emoidxosu titidxe ixildu daitten.* ☐ **ixildu erain.** Hacer callar. || *Ixildu erain tzet.*

**ixilik.** (ISILIK) 1. Callado, -a, en silencio. || *Ego adi ixilik, kopletan asi barik!* || *Ixilik ego saittes txaliñori!* || *Ixilik egoten estaki tte, marmarka ibiltten da beti!* || *Ixilik egon, umiek!* || *Ixilik egon ba!* || *Ixilik doye.* || *Ixilik euen, baya arek berena goguen.* || *Aspaldi gustidxen ixilik on nas, da oin ba esan bi ot 2.* En secreto, a escondidas. || *Ori ixilik eukittekue da.* || *Ixilik ibilli dok.* || *Ego ai ixilik, sorristuori!*

**ixilin.** (ISILEAN) En silencio; secretamente; a escondidas. Sin. *ixilpin.* || *Gixonan ixilin, seme-alaban ixiliñ edo beste baten ixilin badabil, ba ixil poltzie esaten dxako.* || *Gerniketiek ekarte basan edaridxe, edateko geusie, koñaka, nai ardaue, nai..., ixiliñ ekarten basan, da atrapetan baben, orrek ipintte tzen multie pagau ein biar ixate san.* || *Ixiliñ ein dabe.*

**ixilke.** (ISILKA) En silencio; en voz muy baja; secretamente; a escondidas. || *Ixilke sartu da.* || *Ori ixil-ixilke urrunure dxoik.*

**ixilleko, ixillekue.** (ISILEKO) Secreto, -a; confidencial, privado, -a. || *'Autortu' esaten da geusa ixilleko bat agertzen daniel, urteten dabenin bistara, ba "Ixilik on da, baya autortu deu", autortu da, agertu da.*

**ixilostuke.** (ISILOSTUKA) A hurtadillas; en secreto; secretamente. || *Ixilostuke: iñok estakidxela, edo sagarra artu, edo madaridxe artu-edo, ixilostuke solotiek erremolatxi be igul-de.* || *Asukeri be, asko be, olan killu-edo eroste banari, asko be ba ixilostuke ekarri te asko be diru geidxau pagau bi ixate dxakon.* *Orrixerri esate dxakon estraperlue.* || *Ixilostuke artu lei sagar bat, eta artu lei artaburu bat eta artu lei beste edoser geusa ixilostuke, ta ba etzera erun.*

**ixilpien.** (ISILPEAN) En silencio; secretamente; a escondidas. Sin. *ixilin.* || *Ixilpien ein dabe.* || *Ixilpiñ einde dau.*

**ixilttasun, ixilttasune.** (ISILTASUN) Silencio.

**ixilune, ixilunie.** (ISILUNE) Momento, rato de silencio. || *Ixilunie? Bai, barbarik e eitten estanien-edo, barbarik nogas eiñik estauniñ edo ba, ixilunie.*

**ixo.** (IXO) So (voz que se emplea para hacer detener a los animales de carga). Ik. *arre.*

**ixotu, ixotzen, ixotuten.** (ISIoTU) Encender. Ik. *bistu, sutu.* || *Sue ixotu.* || *Argidxe ixotu.* || *Pipie ixotu.* || *Sue ixotzeko ipintten sirin txirlorak.* || *Ixoute dau.* || *Metxias ixotuten deu.* || *Prantxie? Ser da? Aulako katxarro bat lapikuri, beko suko lapikuri atziñ ipintte dxakona? Len emen be egon san, da oin Jangoikuk jakingo deu nun dauen. Se ori ba negun otz dauniñ ixotute dau, baya ostantziñ ixotu esta eitten.* || *Baya guk estetzegu ori be esaten, espabese beko sue bayo.* *Aspaldi esta ixotu be ein de, estaitt ixotzen danin se*

*eingo daben baya.* || *Txisparridxe: orrek eukitten dabena, metxeruk-eta. Bai, ixotzen deuna.* || *Metxeruguk esate gentzon areri. Alan einde, metxa gorridxe, da an ixotu te gero brasias sigarrue nai purue.*

**ixur, ixurre.** (IZUR) Frunce, pliegues menudos que se hacen en una tela frunciéndola. || *Ixurre? Estakipa, esango neke teliri josten daniel, olantxik eitte dxakosen e ixurrek dirilla.*

**ixurrau.** (IZORRATU) Fastidiar. Sin. *kalte ein.* || *Ixurrau: seoser kendu nei seoser eitten dxakonien: "Ixurrau dot ori be", ba geidxau ein tzola esateko.* || *Ixurrau: batek e esaten deu gusurre da esate tzo beste bateri gusurre da geusie, da ba berena konsegidu deu gusurre esanda. Da ba bestiek esaten deu: "Esan ustela gusurretara ein dau berak gure dabena. Ixorraute geratu dok." "A be majo kondenu dxuek!" bai. "Ixurrau dxuk" be esaten da. "Ixurrau" ba ori be kondenetie da. "Ixurrau dxuek a ederto!" Ori da eittie seinde multa bat botati les. "Ederra emon tze areri, ixurrau dxuek!".* || *A be ixurraute geratu dok.*

**ixurtzu, ixurtzue.** (IZURTSU) Rugoso, -a, rizado, -a, arrugado, -a. || *Ixurtzu: a tximurrek dekosena.*

**jaboi, jaboye.** (JABOI, xaboi-bat.) Jabón. || *Jaboyas garbittu.*

**jabola, jabolie.** (JABOLA, jagole-bat.) Guardián, -ana, vigilante, protector, -a. || *Aingeru jaboliek saindu gaittu.* ☐ **txori jabolie.** Espantapájaros. || *Txori jaboli da txoridxegandik jaboten dana da. Txoridiek pikeu eitten dabe, esta? Da a ipintten da espantetako.* || *Nabasidxe urrengo urterako ereittekoe etziñ artu bisten da, da txoridxek jaten dabe asidxe eldutakuen, bueno! Da orduen ipiñi ein bi dxako txori jabolie, guk esate tzeu, da beste batzuk txori mosolue.* ☐ **ume jabolie.** Cuidador, -a de niños.

**jabon, jaboten.** (JABON, jagon-bat.) Cuidar, guardar. || *Umie jabon.* || *Ardidxek jaboten dau.* || *Burugiñe da gixona bierra gitxi da gorputze ondo jaboten dabena. Ori da burugiñe. Guretzako e! Guretzako ori da. Biarra eta gitxi areri e... itxi ta noberan burutxu ondo jabon eitten dabena, burugiñe a da.*

**jabonadure, jabonadurie.** (JABONADURA) Colada. Hitz hau norberaren arropa garbitzen denean erabiltzen da. Gehiago bada (izarak eta), *leixibie*



esaten da. Romanek (*Berrizko Euskera*) *jabonadura* eta *leixiba* berbak batu zituen Berrizen, baina *leixiba* sarreran (85. orr.) agertzen den adibidea ikusirik, han ere horrelatsu bereizten direla pentsa daiteke: «oiñ be, ixera mordue daunien esaten da, ño, orrek deke leixibie». □ **jabonadurie jo**. Hacer la colada.

**jabonau**. (JABONAU, xaboitu-bat.) Enjabonar. || *Beres kostri be esta, ori jabonau eskerun, ba kendu eitten da, da ba jabonau, ta jabonau eiñ eskerun, eguniñ egunin, edo egun biri baten, ume txikidxeri be etxake eitten sabaloirik.*

**jagi, jagitten**. (JAGI, jaiki-bat.) **1**. Levantar(se) Ik. *altzau*. || *Jagi sara?* || *Jagi saittes ortik!* || *Barau eusi: goixiñ e otik jagitten daniñ esate baterako ba baraurik juten da, da ogi sati bet-edo, sagar bat-edo seoser jaten danin ba barau eusi*. || *Udan garidxe eraitte sanien, lelengotik jagi goixien egune eitte banien, da gari ebaten eitte san*. || *Kañie da oingo koñaka les, garratza ixete san. Ori goixin goixetik jagitte siriñak-eta edate ben, atan be gixoneskuek*. || *Igul tatarres dabil beyen, da "Eixu apa!", ba apur bat jagi deidixen gora*. **2**. Fermentar (el pan). || *Jagidxe ataraten tzos suluk ogiri*. || *Da gero joten danin-da ba, ludoye agertze dxako, ta alaku ba errotaridxe es eben gure ixaten, se urune baltzuskari ataraten deu te, da jagi be ganera esta ondo eitten ludoi deken garidixen urume*. || *Ogidxe ba ixeten da biribile ta are pe jagi ein bihar ixeten deu, baya olan tunturtu etzan eitten*.

**jagi, jagidxe**. (JAGI, jaiki-bat.) **1**. Garboso, -a. Ik. *jasue*. || *Beste batzuri persona dandarresa esate tze, erdi tatarres-ero... Bestik ondo jantzitze, ta susen, da: "Dios ori jagidx-ok!"*. **2**. Bote, salto que da la pelota al pegar contra el suelo. || *Pelotie jo, ta jagidxe esate dxako. Bote eundidxe dekona jagi eundidxe*. || *Patala da jagi txikidxe*. || *Patala esate tzeu guk jagi gitxi eitten deunari*. || *Jagi patala*. || *Jagi bixidxe dxok orrek!* || *Errebotie pilotik eitten daben jagidxeri esate dxako*. □ **adar jagidxe**. Animal que tiene los cuernos hacia arriba. || *Jeneral, adarrak ixeten dire olan gorantz, adar jagidxe esate dxako alakuri-tte. Adar apala apur bet berontz dekosen*. □ **axe jagidxe**. Viento recio. || *Axe jagidxe? Bai, axe eundidxe dabilienien axe jagidxe oten da. Axi bateri bestera kalte be eitteko moduku oten da axe jagidxe*. □ **denpora jagidxe**. Tiempo atmosférico airoso. || *Denpora jagidxe da airosue, onera, ona. Denpora jagidxe, e, iruntzik es olan, eser estaunien ixeten da jagidxe, aixi dabilienien, da aixi ixen bi deu jagidxe ixeteko; es a euski beruri, etxako esaten, denpora ona egonda be, euski beruri, denpora jagidxe danik. Ordun esaten da "Denpora beru dxak". Ba an aixie badabil, aixetxu-ero bastante aundidxe badabil, "Denpora jagidxe dxak geur". || *Denpora jagidxe da ba, denpora ona, euskidxas*.*

**jai, jaidxe**. (JAI, besta) Fiesta. || *Erriko jaidxek*. || *Gernikeko jaidxe*. || *Jaidxetan jente asko egoten da*. || *Jai deuket*. || *Jai bet atonduko du*. || *Gerniken jaidxek*

*itzelak ixeten dire*. □ **jai besperie**. Víspera de fiesta. || *Txikilimañak ixete siriñ arek kanpa txikidxek. Orrek jote sin len jai besperetan beti, ordu bidxetan*. □ **jai erdidxe**. Media fiesta. || *Jai erdidxek aintxiñe egote sirin, txikidxek. Egun batzuk elixik ipintte eukitte sittusen, ba esaterako, oin San Iñasio jai aundidxe da ta aintxiñe jai erdidxe ixete san. Baya jai erdidixen mesie entzun es arren, libre, da jai osue danien entzun ein biar*. □ **jai osue**. Fiesta de guardar, día en el cual, por mandato de la iglesia, no se debe trabajar y se debe oír. || *Urtarrille, seseille, ba seseilliñ-edo, olan kandelaridxegune ixete san, da emen jaidxe eitte san. Jai osu bes, baya ba jaidxerdidxe-edo, jaidxe. Da jenti elixara jute san kandelakin*. □ **jai ostie**. **1**. Día siguiente de la fiesta. **2**. Malestar, efecto de la borrachera. || *Orrek deko jai ostie!* □ **jai artu**. Guardar fiesta, dejar el trabajo. || *Geur jai artun bi dot*. || *Siketa eundidxe daunien, erregatibi eitte san beste erri batera. Da ango erriku pe, jute san erriku pe jai artze ben, mesi emote ben da jai artze ben are pe*. □ **jai emon**. Dar fiesta.

**jaidxegun, jaidxegune**. (JAIEGUN) Día de fiesta. Ik. *astegune*. || *Jaidxegunetan be esta biharrik eitten, oiñ eitten da, baya len esan eitten*. || *Olatak opiltxuk ixate sirien, sabaltzen sittuen domeka, da jai egun gustitan sepulturetan*. || *Da ya ba oiñ esta eitten olanik. Oiñ e eruten da domekan edo jaidxegunien, da mesatan bautixeta ittue*. || *Gorpusti egune: jaidxegune eitten da*. □ **jaidxeguneko jantzi**. Vestirse de día festivo. Ik. *domeketako jantzi*. || *Jaidxeguneko jantzi nas*.

**jaidxo, jaidxoten**. (JAIO) Nacer. || *Jaidxoteko lekue*. || *Sekorra jaidxo ok*. || *Beintxie jaidxo da*. || *Jaidxo san etzie*. || *Ni emen jaidxue nas*. || *Amen jaidxoneku nas*. || *Baya nik e surangilla kunarik e..., nik estakitt danak eundi jaidxuak-edo, ikusi be estot eitten, se denpora ederra daunin suangillak ibiltten dire baya kunarik estot ikusten*. || *Bai, txalak e bai jaidxoten dire baya, bai, esautu ittut etzik, etzik esautu ittut e irukidxek jaidxoten be*. □ **jaidxokeran**. Al nacer.

**jaidxobarri, jaidxobarridxe**. (JAIOBARRI, jaioberri-bat.) Recien nacido, -a. || *Txingilimañak ordu bixtan jote sirin. Da ume bat ilte basan jaidxobarridxe, bautixau es eser eiñ orduko, txingilimañak jote tzesan*.

**jaidxokera, jaidxokerie**. (JAIOKERA) Nacimiento. || *Jaidxokerie estau euki ona*. || *Umealdidxe esaten dabe personik iru bider umealdidxe eukitteula. Bakixu seintxu din? Iru umaldi personik. Lelengotan, jaidxokerie, umie*.

**jaidxoterri, jaidxoterridxe**. (JAIOTERRI) Pueblo natal. || *Bardiñin naidxau dot jaidxoterridixen bixi*.

**jaidxotetze, jaidxotetzie**. (JAIOTETXE) Casa natal. || *Jaidxotetzie jaidxoten dan etziri esate dxako*.

**jaidxotza, jaidxotzie**. (JAIOTZA) Nacimiento.

**jainko, jainkue**. (JAINKO) **1**. Dios. Ik. *jangoikue*. **2**. Morcilla que se hace con el intestino grueso. Ik. *jangoikue*. Bilbo aldean, *aiteterno* hitzaren berri

ematen digu Emiliano Arriagak: “Cuando se mataba el cerdo en la casa, reservaban la morcilla más gorda, para regalar a la persona o familia a quien se estaba obligado, y para ello utilizaban del difunto, el intestino más grande, al que llamaban *aiteterno*, como a la morcilla con el confeccionada”. || *Este nausidxas eitten dan mortzillie da jainko*. || *Jainko esate tzeu lodidxeri, murtzilla lodidxeri*. || *Buskentza eta jainkue bat ixango dire. Jainko, guk jangoiku esteutzegu esaten, jainko bayo, este lodidxeri jainko*. || *Bidxek esaten dire, murtzilli be esaten da, ta jainko be esate san, olan torpetxu danari ba jainko*.

**jake, jakie.** (JAKA) Chaqueta. || *Lengo sarrak ibiltte ben jakie, ba jakie normala lakoxi ixate san, nai tte ba astegunetaku ixen, jakie esate dxakon*. || *Oin gitxi useten da. Ba len jake baltza lutue san len. Len iltte basan iñor, urtebetiñ e jake ta erropa baltzakiñ ibiltte san jentie. Oiñ es. Oiñ e funerala deunin be, edoselan juten da jentie. Len es*.

**jakera, jakerie.** (JAKERA) 1. Gusto, sabor de la comida. || *Jakera ona dxekok*. || *Jakera onekue da*. 2. Postura en la que se come. || *Jakera txarra igul, alan babil, "Ori dok jakerie!", trabes-ero*.

**jaki, jakidxe.** (JAKI) Comida, alimento. || *Jakidxe? Bai, jatekuri, ogidxeri nai edoseri esate dxako jaten dan geusiri*. || *Bueno, erosi be eitten dire da ba jakidxek, ekarten diriñak kanpoti pa jakidxek*. || *Jateku be bai esaten da baya beres... Se esangot nik? Jakidxe geidxau ibiltten da*.

**jakin, jakitten.** (JAKIN) Saber. || *Kosiñan badakixu? || Nire amak es eban jakin*. || *Etze bakoitxien danak jaki eben abarkak josten*. || *Bate padaki ori ser dan*. || *Dejie? Neu baneki ser dan dejie!* || *Bai, neuk baneki segas eitte san!* || *Neuk dakitela, es*. || *Badakit su etorriko sarena fijo*. || *Bai, arpana da. Ba emen trontze serri esate tzeu. Arpana es. Arpana... bakitt arpana be esate dxakona, baya emen berton trontze serri esate tzeu*. || *Estakit ser, badakit ser*. || *Jakiñ estan geusa bat jakitten daniñ-edo: nobedadie*. || *Ikesgiñek, arpi sikiñe! Erropa sikiñe! Ene! Kolorie, afrikanu lakoxe kolorie. Orrek e igul domekan elixara esta? Da onek begidxek, begionduk garbitzen gatxak. Iketzin nor dabillen an jakitte san. Sikiñe da iketza*. || *Kari ona da fruta arbolantzat. Telebisiñoyen entzu naben lengo egunien. Bai, len be jakin dot ona dana, esta?* □

**jakiñin ganien.** A sabiendas. Sin. *ondo dakixule*. || *Jakiñen ganien ein dabe*. || *Jakiñin ganiñ ipiñi dxuat nik ori*. || *Ori jakiñin ganiñ ixen dok*. □ **jakiñen ganera.** A sabiendas. || *Jakiñen ganera ein deu*. □ **jakiñien.** A sabiendas. || *Ori jakiñien ein dabe*. □ **estakidxela.** Sin saber. || *Estakidxela ein*. || *Gixonak estakidxela*. □ **batek daki.** Cualquiera sabe. || *Batek dxakik ori be!* || *Batek jakingo dxok ori selan dan!* || *"Batek jakingo dxok ori!" Ori da eritxidxen, dudan*. □ **dakitela.** Que yo sepa... || *Ni takitela es*. || *Ni neuk takitela es*.

**jakin, jakiñe.** (JAKIN) Sabido, notorio. || *Ori jakiñe egon da!*

**jakintzu, jakintzue.** (JAKINTSU) 1. Sabio, -a, instruido, -a. || *Jakintzu da asko dakidxena*. 2. Listo, -a (irónicamente). || *Iguel gusurre ta abarra ta dana esate ittu tte bai, "Jakintzu ok ori". Danak berak jakin danak*.

**jakittun, jakittune.** (JAKITUN) Sabio, -a, listo, -a. □ *Sarritan destainaz esaten da. Ondorengo adibide honetan jakitturidxe berbari kontrajartzen zaio: || Jakittururidxe da ya eskola aundidxe eukitti lakue. Da jakittune da eser estakidxela asko esaten deuna, asko dakidxela planti ein, da "Jakittun ok ori, jakittune! Danak jakitte sak!"*. Da *jakitturirdxe da diferentie, jakitturidxe da ya eskola asko dekon personie, ero listue ixetie*.

**jakitturidxe, jakitturidxe.** (JAKITURIA) Sabiduría, saber. || *Jakittururidxe da ya eskola aundidxe eukitti lakue*. || *Jakittururidxe dxekok orrek*. || *Jakittururidxe eundidxe*. || *Ori jakittururidxe eundiku ok, orrek asko dxakik*.

**jamon.** (JARAMON) Caso. Ik. *kasue*. || *Jamoni pes!* || *Jamonik es!* || *Jamoni pes ein!*

**1 jan, jaten.** (JAN) 1. Comer. || *Txitxiek bayo geidxau estau jaten*. || *Eskasa da jaten*. || *Ague betin jan deu*. || *Badekosu jateko gogorik?* || *Jateko gogorik estabil*. || *Arto sopak? Bai, arto sopak. Eskara gitxi janekuk!* || *Jan! Jan billur parik!* || *Tripostu: gosias ibili, da tipostute. Tripi asi, da atzeri paku ixeti lakue. Da esne gitxiku txalari esate tze tripostutakue, jan gitxi eindakue*. 2. Dilapidar, malgastar. || *Etzi jan dxok a pe*. || *Diru danak jan ittus*. || *Lurrek jan dxosak*. || *Lurrek jatie da ya dirurik es, da derrigor emon biar. Da ba lurrek jan*. □ **jan bakue.** Delgado, -a. Destain moduan honela esaten da: || *Epeli jan baku dok ori!* □ **jan barri.** Recién comido, -a. || *Jan barri nau*. □ **jates.** Puestos a comer. || *Jates jango nekes olaku onek, bi nei iru be*. □ **ondo janekue.** Bien alimentado, -a. || *Asal urdiñek esan gure deu ba garbidxe, betie, asal betie. Betie ta argidxe, ondo janeku-edo: "Orrek asal urdiñe deko"*. □ **jaten emon.** Dar de comer. □ **mauke-mauke jan.** (Comer) vorazmente, a dos carrillos, devorando. □ **naidxe jan.** Comer hasta hartarse. || *Atostiek e ba, len esan detzude les, manga da garixumin sartuerie. "Manga-manga plast, tostadak sakure tas!" Tostadak jaten dire, naidxe, naidxe, naidxe jan. Manga axe da, gero garixumin penitentzidxe datorrelako da*.

**2 jan, jana.** (JAN) Alimento, comida, sustento; banquete. || *Jana ein*. || *Jan truke etorten da biarrin*. || *Eitte san jan bat, akabeta sanien karabidxie*. || *Ene baya janak! Jana bai janak arek aintxiñekuk! Eurek siren obak!* || *Jana! Bai, ero edana ero besti, trague esate tzen, baya jana, alboki*. □ **janan aldera.** A cambio de comida. || *Biarrin noye janan aldera*. □ **jan-edana.** Comida y bebida. || *Jan-edanin dabil*. □

**janiñ ibilli.** Andar comiendo. || *Salobrie: jatune, ta jan, da janin dabillenari-edo: "Salobri da".*

**janari, janaridxe.** (JANARI) Comida, alimento. Ik. *jatekue.* || *Se janari dekegu?*

**jangoikue.** (JAUNGOIKO) 1. Dios. || *Gure Jangoikue! || Jaungoikuen ixenien! || Eskerrak Jaungoikuri aulan pasau dalako! || "Marigorri txiripiri, esaidxosu Jangoikuri bidzar denpora ederra eitteko". || Len emen be egon san, da oin Jangoikuk jakingo deu nun dauen.* 2. Morcilla que se hace con el intestino grueso. Bilbo aldean, *aiteterno* hitzaren berri ematen digu Emiliano Arriagak: "Cuando se mataba el cerdo en la casa, reservaban la morcilla más gorda, para regalar a la persona o familia a quien se estaba obligado, y para ello utilizaban del difunto, el intestino más grande, al que llamaban *aiteterno*, como a la morcilla con el confeccionada". || *Jangoikue: ori da barruen dekon este bakarra esate dxakona. Jangoikua da, esan gure dau besti payo ori daula, aundixau daula. Axegeitti deko ixen jangoikue. || Este bat dau, lodidxe ixeten dana, da areri deitzen dxako jangoiko. || Aintxiñe jangoiko ixate san askana, tripiñ askana. || Da gero askanien ya poltzie eukitten deu, estien askana, da a askanari jangoiko esate dxakon aintxiñe. || Len olakoxe esti bat betete ben, da jangoiko esate tzen areri. || Jangoikue: estie dana baten egoten da, baten. Da ba estiñ askana ixeten da olantxik poltzie. || Jangoiko esate tzen areri. A be estie, baya a estie, baya a estie estaipa librun ero nun eukitte ban. Libru eukitten deu ba ganaduk. Aren kontra ero estai nun eukitte ban este lodidxe, alakoxe estie. Da eitte san beye lotun, de goittik bete. □ **Jangoikuen amoria!** Por el amor de Dios. || *Ene Jangoikuan amoria! Orrek umiok!* □ **Jangoikuen amoriarren!** Por el amor de Dios. □ **Jangoikuen etzera.** A cualquier esquina, a todos los sitios. || *Italianu mundu gustin! Juten basara Jangoikun etzera be, italianu an eukikosu!**

**janordu, janordue.** (JANORDU) Comida. *Jatordue* ere esaten da. || *Janordu iski bat.*

**jansale, jansalie.** (JANZALE) Comilón, glotón, amigo de comer. || *Jansalie da jaten gustetan dxakona, jateko ser, amorrue eukitten dabinari be bai.*

**jansar, jansarra.** (JANZAHAR) Ayuno (estado); que lleva horas sin comer. || *Jansarra? Ba jan da... Aintxiñe jandakuri esate dxako. □ jansarriñ egon.* Estar/llevar muchas horas sin comer. || *Jansarriñ enas ondo egoten. || Jansarrin dxak ori. Etxok jan ya ondiño orantzu.*

**1 jantzi, jasten.** (JANTZI) 1. Vestir, llevar puesto. || *Sapatillie jantzi. || Jasteko modue. || A modara jasten da. || Illeri erropie jasten dxako. || Ondo jantzitte dabil. || Etxure barik jantzitte doye. || Jolin, beti ori ibilttok dxaseko jantzitte be! || Umiri oin jeneralien etxake mantarrrik jasten, se ipintte dxakes plastikuk-*

*eta. || Praxak idulistara jantzi dosus. || Da arek egiñiko abarkak makiña bat bider jantzi gendusen eskolara juteko. Ointxe be -oin gomaskukiñ ibiltte nas baya-, ointxe be asko estot jansten abarkarik baya. || Aña seki da bulerrik emoten estetzon añie, aña dabillena, aña jantzitte ibiltte siriñ emen, da "Aña seka dabil", umi saintzen aña seka. || Obeto jasten da. 2. Adornar. || *Eskondu siren da etzie jantzi ben ederto. || Gorpusti egune: jaidxegune eitten da, eitten da..., ser esangot neuk?, oiñ estakitt eingo bada, se oiñ abade eskasa-ta daue les olanik e... Len jaste sirien altara bat edo bi or-emenka ta eitte sirien e..., jente, ba jenti jute san domeketan lantxik elixara, da jute sirien ba altarak jantzitte dasen lekure, baya oiñ aspaldidxon be-esta jasten altararik. 3. Florecer. || *Arbolak jantzi dira. || Asi da kanpue jasten, asi da kanpue alegreten. || Orris jasten daus arbolak. || Ta ganera olanik sasidxeas-ero jantzitte badau solu: "Jo, an dxak txerpidxe!", dana beterik daulako, sarratute daulako. □ **erara jantzi.** Vestir una prenda del derecho. Ik. *idulistara, aldrebes, aspikus ganera.****

**2 jantzi, jantzidxe.** (JANTZI) Vestido. || *Andrien jantzidxe. || Punterengo jantzidxe da ori.*

**jardun.** (JARDUN) Estar o andar haciendo algo; ocuparse (en), emplearse (en). || *Beridxendetan diardu.*

**jarleku, jarlekue.** (JARLEKU) Asiento, banco. *Jesarlekue* gehiago esaten da. || *Jarleku lusie.*

**jarraittu.** (JARRAITU) Seguir. Ik. *segidu.* || *Jarraittu: ori esaten da, baya "Jarrittuidxok lenguri!", ori be, ba gitxi usetan da ori. Jarraittu bai, esan eitten da, jarraittu. Guk segidu esateu.*

**jarri, jarten.** (JARRI) 1. Poner, colocar. || *Saldidxeri espadak arrapau te onan ekarte sittuen paperen barruen jarritte. 2. Sentarse. || Su jarriko sara emen, nire onduen. || Beyen ganien jarri saittes! 3. Prender, arraigar, agarrar, echar raíces (las plantas). || *Landarie jarri. || Berdetzen asi dok eta jarritte dxak. || Ondo jarri dire. || Landari badator, jarritte dau. || Bedar ereiñ eitten dana, solun-de... oiñ emen esta ereitten gitxi bayo, baya ereittosu te "Ño, erbatza badxekok, ta jarriko dok!" edo Badxatok!". □ **jarritte egon.** Estar sentado. □ **ondo jarri.** Sentar algo bien.**

**jasbana, jasbanie.** (JASBAN) Orquestina. || *Jasbana soñue da, tanborrak. || Jasbanie soñuri esate dxako, sein de, se esango tzu pa? Altabosas, da orrek, komofonu onen modun esateu jasbani. || Jasbana pentzetot sala... Ser esangot? Soñu-edo sarata eitten dabena jasbana pentzetot dala.*

**jaskera, jaskerie.** (JANZKERA) Modo de vestir. || *Apur bet nabarmentxuau dabillenari be: "Orrek darabil jaskerie!". || Jaskerie jantzittie da, ondo jantzi edo txarto jantzi.*

**1 jaso, jasoten.** (JASO) 1. Levantar, recoger. || *Famaue? Seri esate dxakola esangot famaue? Edo arri jasoten eitten dabena edo orretaiko bat famaue. 2.*

Levantar, mejorar, serenarse (el tiempo). || *Denporie jaso*. || *Egualdidxe jaso deu*.

**2 jaso, jasue.** (JASO) **1.** De buen porte, bien vestido, elegante, de buen aspecto. Ik. *jagidxe*. Frai Bartolomek (1268. orr., 685. lerr.) honela dio: "Batzuk edocein modutan, jaso on bagaric, soinac moduztau bagaric, botoiac euren lecuban lotu bagaric, chito nasai juaten dira comunioe santuba artutera". || *Jaso dabil*. || *Beti ibiltten da jaso*. || *Jasue esate dxako, esate baterako, ba garbi ibiltten danari, ondo, arrokeridxe barik eta ondo ibiltten danari: "Jasue da!"* || *Jasue: erdi traskille barik, ondo jantzi, edo ondo jasten dan erropie zuzen, ondo jantzi*. || *An batzuk dreust-draust erropak alderdi oker-da; da igul batzuk susen-susen ipiñi erropak-eta: "Jasu da ori!"* || *Jungo da biarrin, da jaso!; jungo da elixera, da jaso! Konpondute, da jaso erdi bat ixengo dire; bat-bat estire*. || *Elegantie espada be, beti jaso*. || *Beti jaso, ta ademas beti ixan san ondo jantzitte jutekue, edo jasue*. || *Narrasa da, esta jasue*. || *'Jaso' susena ta artesa danari esate dxako*. || *Buru jaso dxabik orre pe!* **2.** Levantado, -a, enhiesto, -a. || *Sure gixonak jaso erun deu umi ba, satorrak esteutzo atrapauko sapatarik!* **3.** Traza de mejorar el tiempo. || *Edoi asko dau, jatorik esteko*.

**jasotasun, jasotasune.** (JASOTASUN) Buen porte, buena facha. || *Jasotasune jasuri esate dxako, ya persona jasue, beti batu-batu dabillena*. || *Jasotasune deko*.

**jataldi, jataldidxe.** (JATALDI) Comida, vez o tiempo en que se come. || *A se jataldidxe!* || *Mangak esan gure deu jataldidxe eittie*. || *Basatostie da basuen eitten dan jataldidxe*.

**jateko, jatekue.** (JATEKO) Comestible, cosa de comer, comida, alimento. Ik. *janaridxe*. || *Jatekue prestau*. || *Bete-bete ei ñok jatekuas*. || *Beti erute-ot jatekue aldien*. || *An txoridxe esin jatekorik topau*. || *Se janari dekegu?* || *Naidxe ein barik jateku akabo!* || *Indi gastañie ixeten da..., naiko gastaña garaun eundidxe ixeten da, da nik estakitt jateku bada, personik jateku bada. Ori kaliñ oten diriñak, arek arbolak an oten diriñak alakoxi eukitten dabe, baya a estot pentzetan ixeten danik jatekue*. || *Gibleleku dekona pe ein bi tzo kargu. Erun bi deu jatekuas... Ser esangot? Jatekuas be kargu ein bi tzo*. || *Jateku be bai esaten da baya beres... Se esangot nik? Jakidxe geidxau ibiltten da*. || *Erbidxen gomute baukosu? Konejun antzeku da, baya a be san mendikue. Da a be eskopetias be atrapete san, baya en jeneral tranpan. A ixete san jatekue. Da one bestiok, katamixarra, basakatue, da one pa es sin jatekuk*. □ **gana jatekue.** Comida del ganado. Berez, *ganadu jatekue* behar luke, Frai Bartolomek (606. orr.) erabiltzen zuen bezala: "Vijamoneco ganadu jaatecua batceia jai domequeetan ez da ondo, chito premina andija ez dauanian". || *Gana jatekue: ori da bedarra, edo ganaduk jaten daben geusie*. || *Gana jatekue ganaduk jaten daben*

*geusi da, da ixen lei bedarra, ixen lei nabue, ixen lei arto gorridxe be, gose danin jaten deu are pa*. || *Da areri eitte dxaken, ba, estaunin gana jateko, gitxi dauniñ udan-edo, orridxe itxi dxaken, ganaduri emoteko: asmotzak*. || *Pagotxa, ori batzuk..., guk emen prantzesa esate gentzona, orreri bedarrari. Oiñ erain be esta eitten. Len eraitte san, nabu eraitte san lekun-edo, ba gana jatekue ugeritzeko*.

**jatetxe, jatetzie.** (JATETXE) Restaurante.

**jator, jatorra.** (JATOR) Castizo, -a, propio, -a, original, típico del lugar. || *Persona jatorra dok ori*. || *Jatorra: ori gitxi usau eitten da Nabarrixen, da esan eitten da e*.

**jatordu, jatordue.** (JATORDU) **1.** Hora de la comida. **2.** Comida. || *Jatordu txiki bet*. || *Jatordue emon*. || *Jatordue ein*. || *Ak asko, larogei urte! Anaidxe bidxek solteru daus, da esiñ atondu ixen biko itue jatorduk eta geusak eiteko-da*. || *Jatordu bet jan deu*.

**jatorri, jatorridxe.** (JATORRI) Ascendencia, origen, procedencia. || *Jatorri onekue*. || *Jatorridxe olakoxie da!* || *Jatorris emengoxi da*.

**jatun, jatune.** (JATUN) **1.** Comedor, -a, que come. || *Txarrixek e olanik es tire nabo jatunek..., baya egositte, ba arto urune botata, ondute emote dxako, da ba jaten dabe, baya jeneral txarrixek geuse gosauuas asten da ganadu bayo*. || *Jatun ona da*. **2.** Comilón, -a, tragón, -a, voraz. Ik. *salobrie, traganarrue*. || *A be jatune esta, miskiñe da ta*. || *Traganarru: olan jatun eundidxe danari-tte: "Traganarru lakoxi da", "Jaten, ba salobri da", edo ba, "Arin jateku da"-edo ba*. || *Gitxi jaten deu, esta jatune*.

**1 jatzi.** (JATSI, jaitsi-bat.) Bajar(se). Baina erabilagoa da erdaratiko hitza: *bajatu*. || *Jatzi saittes ortik!* || *Jatzi adi ortik!*

**2 jatzi, jasten.** (JETZI) Ordeñar. *Eratzi*, ostera, gutxiago esaten da. || *Beidxek jatzi*. || *Esne jatzi barridxe*. || *Estau isten jasten*. || *Salduteko beidxeri feridxatan, erropa aundixak jeneralin ba erakusteko; da igul erropa txikidxau bauko: "Eske, jatzi barri dau!"*. || *Lodittu estire eitten esni jasten dxaken beidxek, da ba: "Beidxe antzittu ein biou, loditu deidxen"*. *Antzittu, esnie erasti itxi, orixe da antzitzie*.

**jaube, jaubie.** (JAUBE, jabe-bat.) Amo, dueño, propietario. || *Orrek jaubi deko!* || *Orren etzin jaubie ori xok*. || *Jauberik estaben basue, erridxe arduetzen dan basue usie da*. || *Da gero ba a denpori akabautakun, bera estanin bixi, arek, gosamena artu bi dabenak, agintzen ba tzo etze jaubiek, urten ein bi dabe etzetik*. || *Bera da jaubie!* || *Usi da leku bat, ba jauberik estekona, edo beres e esteko, usiek estau eukitten usaba bat, espabese usi dan terrenu da, geidxenbaten da erridxena, edo gobernuna: usie*. || *Bueno, pribauk, emen dausen baso-mendidxek danak dire pribauk, danak deke jaubie*. || *Maletadune? Bai, soltera bateri esan leidxo, badeko maletie da esteko jauberik*. □ **jaube bakue.** Sin dueño. || *Usak? Bai,*

usie. Arbolik e, espadau emen etziek bakotxe beren e terrenun jaube eindre das lengo etzik e, baya badau nonun arbola bat da jaube baku lakue, useko arboli da. □ **jaube ein.** Aduenarse, apoderarse de. || *Alabie pentzetot ein dala aren etzin jaube.* || *Orrek erriku dire. Emen danak euki besan orrek errikuk. Da oiñ e dana erridxe dau jaube einde orrekin. Da a sartu sin piñuk ixen sien parte geuk eitteko, aprobetxau. A parti ju san. Geuk sartu gendusen piñuk esaskuen ba kobrauko gendula onek saltze siñin. Ori parti ixengo gendula. Trosu esate gentzon.*

**jaubedun, jaubedune.** (JAUBEDUN, jaubedun-bat.) Que tiene dueño, -a, que es propiedad (privada).

**jaubetasun, jaubetasune.** (JAUBETASUN, jabetasun-bat.) Dominio, posesión, propiedad. □ **jaubetasun ein.** 1. Apoderar(se), adueñar(se). || *Erri basuk oin be ongo dire. Oin jaubetasunik esteutzeu eitten, baya erri basuek ixate sirien erridxena beres, baya arek erri basuk ibiltte sittunak ba urtien, segun selako kantidadi dabillen, arek erridxeri pagau ein biar ixate dxakosen.* 2. Amparar, ayudar, socorrer; hacer caso. || *Sata solidxek eitte ittu, te seoser pasetan dxako. (Jaubetasune eitte dxako).* || *Jaubetasune eitti da nok jaso estekon ume bateri-edo, jaubetasune. Noberak etziñ artzi-edo, eukitti-edo, laguntzi-edo, seoser emoti-edo.* 3. Dar la razón. || *Jaubetasune eitti da, esate baterako, gixon bateri jaubetasune emoten deutzo, erreso antzien emotie, jaubetasune. Gu gaus diskutiduten, esta?, onen ganien, da beste batek esaten deu, "E jaubetasune emoten deutzo", edo suri edo niri. Jaubetasune da ba erreso, erreso sera emotie.*

**jaubetu.** (JAUBETU, jabetu-bat.) 1. Apoderarse. || *Noberanas jaubetu.* || *Orreas jaubetu nas.* || *Jaubetu deidxela bera, berena da te!* || *Oin ya esta trosorik usetan, oiñ erridxek berak dekos danak, onek guardaketa, onek ei ben..., forestalekuk jaubetu sin, da oiñ onek etzik bate pe-esteke.* || *Sokias lotu alderdi bistatik trontziri, da (Airoko pague) arrañe sa les, trontzie, da jan ein tzen asko, da sokakin batetik amar lagun igul, da bestetik beste ainbeste, da ondias ebei san, keye daridxola trontzian. Da gero eun lagun eingeru sokakin tireka. Aixen san, bai, astokeridxa! A egur otza! A ixen san! Geur ixen balitz, Diputasiñoi jaubetuko san.* 2. Atender, hacer caso, auxiliar. || *Jaubetu: diarres daunari entzun, edo "Ser gurosu?" edo "Ser biosu?" ba preguntu ein, gure dabena, edo laguntzi gure badau. Esate baterako, emen ausuen-da, bei bat edo beintxa bat lelengo txala eitten daunien, la lelengo txala aiñ erresa estabe eitten, da igul ba noberak e allemorik es, norbera bakarrik atrebiduten estanien, ya eusue batzen da, da diar, diarrari ba entzun eitte dxako. Jaubetutie orixe da.* || *Jaubetu: ba diarres daunari erantzun, da ia ser gure daben-edo preguntu ein: jaubetu.*

**jaun, jaune.** (JAUN) Señor, dueño. □ **gure jaune artu.** Comulgar. || *Untziñoie: olanik e, geixorik txarto*

*dasenari, gure jaune artzeko geuse estiriñari emote dxakena, bai, untziñoie esate dxako.*

**jauntxu, jauntxue.** (JAUNTXO) Señorito (generalmente con sentido peyorativo). || *Agintzen dabenari 'jauntxue' esaten dxako, beran burue aintzat dekonari; berak dakidxela dana, berak dana dakidxela, da ba bestiek estakidxela; da ba jauntxue da ori.*

**jemesa.** El camión GMC (General Motors Company). || *Lelengo-lelengo jemesa etorri sanien, Masandeiko Txarrik ekarri ban jemesa basora, Argaisburu, milla errill eguniñ irebaste basan.* || *Jemesa: kamioi nausidxek, orrek amar erruedakuek.* || *Jemesa kamioie da. Amarrekue. Lau biñakan atzien, or bidxetan, lau, de bi eurrien, amar, amar errudako batzuk esate tzen. Baya jemesi danak kontixu. Jemesirik es euen amar errudaku estanik. Oiñ ipintte sittun batzuk, lau kendute, bestin modura. Orrek euki ban olan, Intxaustik, ori geure sasoiñ amen, da es eban erresultau. Apurtu eitte basen palierrak. Da bestela orrek gerraku di orrek danak.*

**jeneral, jenerala.** (JENERAL) General, común. || *Alta da arbola bat, beres etorten dana jeneralin, da egur fiñeku be esta ixeten, estau balidxo ixeten..., olan konstrusiñoik edo olan eitteko estau balidxo ixeten. Su eitteko jeneral ixeten da.* □ **jeneralien.** En general, generalmente. || *Ori beti entzu ot, es isteko urkuladun piñurik, al bada beintzet kendu, naitte lodidxe da ederra egon, a urkuli boko, andik eitten da apurtu... Jeneralien e! Batzuk es, baya eunetatik larogetamar apurtzeko.*

**jenero, jenerue.** (JENERO) Género, mercancía. || *Baserriko jenerue.* || *Jenerue lorrindu.* || *Jenero esiñ obie artu dxuatek.* || *Da jentie erute gendun, igul lau lagun, de plasarako jenerue, sagarra, olako karruas.* || *Ollo korotza onena! Edosetako, jeneru e... artzeko, baya urridxe. Ollo korotza modukorik estau esebe jeneru bisteko.*

**jenidxo, jenidxue.** (JENIO) Genio, carácter, índole. || *Jenidxo txarreku da.* || *Jenidxo txarra deko.* || *Jenidxo euki.* || *Jenidxo geistoku bada, berbete satarrekue, "Ago berue da", esaten deu edoser, da ago bero bat da.* || *Bai, jenidxo alkarren antzeku badeke, "Mendu batekuk dire" esaten da.*

**jenidxoko, jenidxokue.** (JENIOKO) De mal genio. || *Aman jenidxuku da.* || *Persona salobrie: bueno ixen lei jenidxokue, ixen lei jatune be.* || *Salobrie jenidxokue da, da erres belarriondoku emoten dabena, esate dxako salobrie, erres berak pentzaten dabena eitten dabenari.*

**jenidxotzu, jenidxotzue.** (JENIOTSU) De mal genio. || *Solidxe: seinde jenidxotzuri-edo esate dxako. Jenidxo dekonari, edo ba ernegetan daunari-edo, ba "Solidxe da" edo "Soli sabis" edo.*

**jentarte, jentartie.** (JENTARTE, jendarte-bat.) Público, concurrencia. □ **jentartien.** En público, entre gente. || *Jentartiñ olan nastin dabillena nastasalie da.*

|| "Bastarrak lorrindu" da iguel drogak-eta ipintte itunari be. Areri be "Bastarrak lorrindu dxosak". Jentartien igul eitte ittus lorriñek, da "Danak bastar gustik lorrindu dxosak ak bastarrak!". Iguel emen be eitte ittu e ganadu batek e jan da gero lorrie ta "Bastarrak lorrindu dxosak".

**jente, jentie.** (JENTE, jende-bat.) Gente. || Uriko jentie. || Kaleko jentie. || Badaespako jentie. || Jaidxetan jente asko egoten da. || Jente aldri dire. || Jente pillue. || Geur jente asko ixen da. || Nabarnixek senbat jente deko? || Jente artin gustaten dxako. || Bai ba jenti alakoxi emen baya! Emen jente kondenu lakoxie! Ai emen, emen, emen... Da ostu tzen! || Jente txarra beti egoten da! ☐ **jente modue.** Tipo de gente (generalmente cuando se le aplica alguna cualidad negativa). || Au jente modue! || Jesus, ori da jente modue! || Jente modue? Ba gusurak esate itunari be esate dxako, jente modue: "Egirik eleke esango!", "Gusurre bayo besterik estau esaten!", "Esebe esin leidxo siñistu be ein!". || Igul kuadrilli-ero beti txarto esaten origeittik e bestigeittik: "A dok jente modue!". || Jente modue! Txarra leku askotan dau e! Jente txarra. Guk estu pentzetan, emen berton useute. Baya motillak! Bai, alakorik e! ☐ **jentetan.** En masa, en multitud. || Nabarrixen estaipa, jentetan etorten diren indarra jaten, edo goso emon edo merke emon, bat edo bestie eitten dabe, se asko etorten da. || Oin be Santa Eufemia egunien ainbeste jente juten da ara. Len diferente. Len jentetan eskandalu te danak dantza solti te erromeidxak.

**jentetza, jentetzie.** (JENTETZA, jendetza-bat.) Gentío, multitud de gente. || Jentetza aundixxe egon san Gerniken.

**jentetzu, jentetzue.** (JENTETSU, jendetsu-bat.) Concurrido. || Jentetzue: jente asko batu eskero, ba jentetzue, edo jente pillue-edo. || Jentetzue ixen da.

**jentil, jentille.** (JENTIL) Avispado, -a, vivo, -a, que tiene malicia. || 'Jentille' da abille, erdi geistotzue danari esaten dxako.

**jeranidxue.** (GERANIO) Geranio. || Jeranidxue: nai suridxe be badas, gorridxe be bai, illuntxuau, argitxuau.

**jérsa, jersie, jertzíe.** (JERTSE) Jersey. || Nire jersa ekarri! || Nire jersi ekarri! || 'Idulidxetara' aspikus ganera dauniñ esate dxako. Au jersie kendu, te aspikus ganera ipintte bosu: "Idulistara dekosu", "Idulistara ipiñi dosu". Edoser be, jersias, edoser, ropie be bai. Praka pe bai, alrebes jasten bosus, idulidxetara. || Ño, au dok epelunie, jertzíe kendu ein bi dxuat.

**jesarleku, jesarlekue.** (JESARLEKU) Asiento. Jarlekue ere esaten da, baina askoz gutxiago.

**jesukristo.** (JESUKRISTO) Jesucristo. ☐ **jesukristonak.** Pestes. Sin. txakurrenak. || Jesukristonak eiñ ittue. || Jesukristonak esan ittue.

**jeurt.** (JEURT) Atrás (para retroceder dando la vuelta). ☐ **jeurt ein.** Dar la vuelta, volver hacia atrás. Ik. buelta ein, buelta emon. || Atzera jeurt eindde etorri nas bide erdittik.

**jeurti, jeurtitzen, jeurten.** (JAURTI) 1. Lanzar, arrojar. || Arridxe jeurti. || Arridxe jeurti-ste. || Tronpi batze dxako alanik e, kordela da dra! jaurtitzen dabe, ri-ri-ri-ra ibiltten da, da. 2. Desechar. || Emen tangarru esate tzeu, seinde tomate lata bat, nai piper lata bat utzittute jeurten dan bat, tangarri arixe esate tzeu. || Garrantzixue: esate baterako, garrantzixue, ba okela sati bet-edo garrastute dauniñ-edo, jeurtitzeko moduku dauniñ-edo garrantzixotute. || Mutxikiñe: sagarra edo madaridxe janda, a gelditzen dan ondakiñe, a jeurtitzen dana. || Traste moskolak jeurtixek orra, etxu balidxo ta! Moskola tosak eta! 3. Abandonar, dejar desordenado. || "Emen dxak trasteteidxe!": amen geuse asko, ta emen dana jeurtitte ta guk e beti e... oin be bai, ba igul eukitte sus jeurtitte orrek erreminttak-eta, klasik igul bota berton danak nastaute. ☐ **jeurti por jeurti.** Tirar por tirar. || Ametik tiruk entzute sin. Bai, or frenti lusero on san or e Gipuskuan. Ba, amendik entzute sin tiruek. Ta Illunsarretik, bueno! Klaru-klaru-klaru. Da lantzin tiro bat botate ben, paute ta paute! Tiruek nik pentot jeurti por jeurti, eiñ esteidxen bata bestiri kruseu-ero. Gero apurtu saniñ e, bueno! Ordun gero dana! Ordun bai tirue! Ba aman berton es san bota.

**jeurtike.** (JAURTIKA) Arrojando. || Arri jeurtike dabis.

**1 jeusi, jeusten.** (JAUSI, erori) 1. Caer. || Edurre jeusi. || Orbela jeusi. || Orridxe jeusi. || Arbolatik jeusi. || Trumonada galanta jeusi. || Txingorra jeusten da. || Selan jeusi dxako ulie! || Estrepesu einde jeusi dok. || Jeusi biarriñ aulan badabill au: "Dios, esbaidxen dxak, jeusi ein bi dxok!" || Eperdidxen ganera jausi da. || Oso-osuen jausi de. 2. Derruirse. || Amen San Migel egon san, oin jeusitte dau baya, oindiño ointxe jeusi da ermittie. || San Migel erreminttie jeusitte dau. Antza, altzau ein bi dabe. || Tellatuk-eta jeusitte ta dana deseinde. 3. Caer, estar situado. || Egue nundik jeusten da? Arrolatik? Estakit nundik jeusten dan. || Ori kobie Ereñoko partin jeusiko da. 4. Cuadrar, tocar. || Atzegiñe: geuse posgarri bat jausten danin-edo ba. 5. Inclinarsen. || Jornala, esate baterako, erderas geidxau jeusiko da, da alobera ba euskerasku. 6. Quedar. || Geuse bat ondo gelditzen estana bada, ba noberak gure daben geuserako ba: "Esain gelditzen da". Edoser geusari, ipintten dan geusi pe, ondo espadxako jeusten, esain gelditzen da. 7. Parecer. || "Txar uste barik esan deu": berba bat esan igul, ondo..., bestiri, entzun dabenari ondo jeusi es, da ba "Txar uste barik esan deu".

**2 jeusi, jeusidxe.** (JAUSI, erori) 1. Caído. 2. Decaído, -a, postrado, -a, triste. || Jeusidxe dau. 3. Caída. || Bei bateri be bai. Adarra apurtzen badxako, igul jeusi-edo,

deskoideten basan-edo, jeusi txarra-edo eukitten badeu: adarmotza.

**jiboso, jibosue.** Giboso. Ik. konkorra. || Etorri dok jibosue txaletan. || Jibosu da.

**jibue.** Giba, joroba, chepa. Ik. konkorra, lepotie, txontxorra. || Jibu deko.

**jilgerue.** Jilguero. (*Carduelis carduelis*). || Arte txoridxe, jilgerue, txantxagorridxe, orrek txori txikidkek tire, da orrek emen asko ibiltten dire. || Jilgerue? Txoridxeri? Bai, txori bateri, txori txiki bateri.

**jira, jirie.** (JIRA) Giro. □ jira ein. Girar(se), dar(se) la vuelta. || Ein jira! || Oin jirie ein!

**jiraka.** (JIRAKA) Dando vueltas, girando. || Jiraka dabil.

**jirasol, jirasola.** Girasol (*Helianthus annuus*). || Emen estau jirasolik.

**jirau.** (JIRAU, jiratu-bat.) Girar(se), dar(se) la vuelta. || Au jirau eitten da nai batera nai bestera.

**jittano, jittanue.** (JITANO, ijitano-bat., buhame) Gitano. Hitz zaharra ikittanue da. Motzailak ere esaten zaie, baina gutxiago. || Jittanuek iñurridxek les pasaten sirin, iñurridxe pe usaiñera, bestien usaiñera. || Jittanuek len ibiltzen siren. □ Edonork zer edo zer asmo txarrez egiten duenean honela esaten da: || Ori jittanu kastie da.

**jittanokeridxe.** (JITANOKERIA, ijitanokeria-bat.) Jugada, trampa. Kittanokeridxe ere esaten da. || Jittanokeridxe da ba geusa bat eiñ e, da edo jugadan bat-ero, da jittanuk beti be lapurretan edo jugadatan, "Jittanokeridxe, jittanuok ori jittanokeridxe ein dxok!".

**jitxe.** (JIT) Vicio, propensión, curbatura de ramas, cuerdas, etc. || Jitxe da okertu. Okertute geratu badxatzu geusa bat e berdi-ero, "Kaguen, onek jitxe artu dxok koño ba alhora!". Jitxe ba, okertu! □ **jitxe artu.** Tomar curbatura de ramas, cuerdas, etc. || Ta gero askanengo ortzak eruten deu burdiñi olan altuau goitti bera sartzeko eskue. Aresku esate tzon ari. A eitten da berderik e jun de sepi artu, da euki olan lotute. Batzuk amarrau esaten dabe. Da gero artzen deu jitxe antxe.

**jo.** (JO) **1.** Golpear. || Alkar jo dabe. || Ostikos jota bota dabe. || Aintxiñe jote gendusen sokillek. Oiñ estire joten baya. || Aixi pe joten dxok an gogor! || Mendidxek su artzen dabenin, jentie batu, te gardosti ein, de jo, ta jo ein, de amatau. || Guk emen etzaurrien senbat paluas igul jo (kakalandrue), ta bera! || Maixuk asko jote ittu. || Baya saldidxek nobera ganiñ eruten dabenien, estau biar jotekorik. || Planti ein tze baya jo etxok ein. **2.** Lindar, limitar estar contiguo a. || Kanpasantue elixi joten egon san. || Moltzun dxesak, alkar joten. || Urzara joten daun etzie dana bota dabe, da barridxe ein bi dabe. **3.** Tocar, hacer sonar. || Sagarrasko ejie san txistu elegantieta jote bana. **4.** Ir, acudir. || Frantzire jo suan arbolak botaten. **5.** Quedar

(se) extenuado, -a. Ik. uketu, eidxota egon. || Jota dau. **6.** Golpear, cascar. || Beidxeri eskentzen joten, garidxe eraitte san len, da beidxeri eskentzen joten, baya txalari emoteko galtzue, antxe lasto serran jo eitte gendun, olantxik, ebei eitte gendun, da ebeite naiku satitxu txikidkek ein be bai, txalak jan deidxen. Beidxeri es, beidxeri osorik emote gentzen. **7.** Hacer la colada. || Orraxe, ortxe Ururutik e beyen dau errekie. Da araxe. An estakitt e oiñ e badau. Len arridxe ote san an joteko, trasti joteko, ta eitte san e lekutxue, ure geldittu deidxen, ure jun esteidxen. Da antxe jote siriñ erropak. □ **beye jo. 1.** Arruinarse. || Jo dxok beye are pe! **2.** Adelgazar, menguar, demacrar(se). || Beye jota dxekosak ganaduk. || Len argala! Oin be argala dau, baya len olakotxi egon san or ospitaliñ egonda etor sanin. Total jota! Bai, mejorau ein da, bai. □ **jo goidxe ta jo beye.** Sin poder sosegarse. || Jo goidxe, ta jo beye, an dabil sosegau esiñik. || Asarratute dabixenin bakik eiñ esiñik goidxe jo ta beye jo ibiltten dire. □ **jo ta ke.** Dale que te pego, sin descanso. || Jo ta ke dabil ori. □ **jo ta su.** Dale que te pego, sin descanso. Ik. su ta gar. || Jo ta su dxabik (topetan geuse bat, edo aringaringe). || Or dabil jo ta su! □ **satorrak jo.** Socavar el topo. || Satorrak jo dxok amen be. || Satorra joten dxak.

**jo.** (JO) Jo! (exclamación). || Jo, basamortun dxak!

**joille, joillie.** (JOILE, jole-bat.) **1.** Intérprete, músico, -a. Ik. jotzailie. **2.** Pegador, -a, golpeador, -a. □ **gari joillie.** Persona encargada de desgranar el trigo a golpes. Ik. jotzailie. || Batzuk eote sirin gari joillak, segun jenti selan daun, iru edo lau joillak. Da bestiek, etze bi-edo batu alkarregas da bestik gari eruten solotik goiburure, kamarara eruten. Asaue eruten, garaune kentzeko. Da gero gari joillak, ba, batzutan e atzentxu eitte ben da soser artu, trago bat-edo, da leña gari joten! Da bueno, artzalde bakotxin ba etze bat jote san. □ **soñu joillie.** Músico, -a, instrumentista. Ik. soñu jotzailie. || Orrek soñu joillak-eta bai. Orrek e ganera pagau ein biste ben plasie. Bueltie, artu terrenue eurentzako, se an seusen iru lau leku on-onak, da besti lekuk igul goi bera-ta dana, jantzan ben esin leidxen -guk dantzan esateu, bestik jantzan esaten dabe-, da aretan ondo eiñ esin leidxenak presi gitxiau. Da arek leu-leunak eta onak arek pageute euki bixete besan. Da soñu te panderu ixete sin, oingo trikitalidxen tipora. Da kobrau, kobralaridxe bat, da dantzako kobrau beti.

**jokaldi, jokaldidxe.** (JOKALDI) Partida de cartas. || Jokaldi bei ein deigun!

**jokatu, jokatzen.** (JOKATU) Jugar, apostar. || Ereñarrak jokatzeke etorri suasun. || Bolalekue egon san or. Gure denpori bayo ariñau. Apostuk-eta eingo sittuen, or jokatu diru-te. || Santa Eufemia egunien bolaka diru jokatzen dabe sano. || Musin jokatuko dxuat ain geuse. || Armilla bidxek dana ogis beterik. Jokatuko neke axe dala.

**jokera, jokerie.** (JOKERA, jaidura) Inclinación, afición, tendencia, propensión. || *Jokerie da, iguel su leku batera soyas beti, araxe dekosu jokerie. Esate baterako su juten sara, emen e iru taberna daus ta beti batera juten sara, "Arek araxe dxekok jokerie".* || *Orraxe jokera aundidxe deko orrek.* || *Tabernara jokerie deko (: sarri juten danari).* || *Jokerie eukitten dabe batzuek. Batzuk esate tze enbrari ba estona eta badona. Enbri da ta badona eta estona.* || *Jokerie araxe dxekok.*

**joko, jokue.** (JOKO) 1. Juego. || *Jokun ein, ibilli.* || *Jokora goyes.* || *Anka jokun jun da.* || *Ein du jokun kartakin.* || *Iru jokotara irabasi tzak ganera.* || *Da musin be iru jokora. Musiñ esate baterako, laure, bire nai batera eittosu ba, jokutara. Nai briskan, nai edosetan. "Joko bire eingo dxuau au". Jeneralin musin ba iru jokutara ixeten da. Ba iru joku orniduti da ori da, iru klasetara.* 2. Apuesta. || *A beti jokotan dao.* □ **joko berue.** Juego en el que se arriesga mucho. || *Joko berue: bero dabixenien jokatzen da.* □ **joko estue.** Partida apurada, arriesgada. || *Joko estue: eiñ esiñik eta serin dabixenien.* □ **jokue ipiñi.** Apostar. || *Jokue ipiñi, da atzera ein.* || *Jokue ipiñi dxok.* □ **jokue ornidu.** Depositar el dinero que se juega a las cartas. || *Joko bat orniduti da nik e suri jokutako deutzut, da ba joku ornidu dirue depositu ipiñi bi da, jokorako.* || *Jokue ornidu? Joku ipintien dabenien, alderdi bidxetakuk ba bateri emote tze diru, ornidu. Are bestik gorde eitten deu a diru joku eiñ arte, seiñek irabasten daben berari emoteko. Joku ornidu oixe.*

**jokolari, jokolaridxe.** (JOKOLARI, jokolari-bat.) Jugador. || *Aintxiñeko sarrak, batzuk siren jokolaridxek.*

**jorgoso, jorgosue.** Juerguista, parrandista. || *Bromantie? Bai, jorgosu ero juergan dauna ba bai bromantie.*

**jornada, jornadie.** Cantidad de trabajo realizado en un viaje, o tanda. || *Jornadi da burdidxe kargeten dabe bedarras, jornada bedarra. Edo jornada aspiarridxe. Osterie, bijie.* || *Jornadi? Burkada aspiarridxe be esate gentzon guk e, jornada bedarra, burka bedarra, burkada bedarra esati les.* || *Da orreri saldu eitte gentzen lantziñ e olako... Jornadie esate dxako, burdidxas eruten danari (karie).*

**jornal, jornala.** (JORNAL) Jornal, sueldo del día. Ik. alogera, egunsaridxe. || *Eguneko jornala.* || *Jornalien jun.* || *Eguneko onenbeste pagaten dau jornala.* || *Jornalin dabil ori.* || *Ta jornala da egunien iruaste suna.* || *Ori eguneko iruasten dana be: "Se jornal iruastok?".* || *Senbat biosu jornala?* □ *Gaur egun jornala entzuten da sarri, baina lehen alabora esaten zen.* || *Oiñ esate dxako ba jornala: "Jornalin dabil".* || *Da len esate san alaborin.* || *Jornala, esate baterako, erderas geidxau jeusiko da, da alobera ba euskerasku.*

**jornalero, jornalere.** (JORNALERO) Jornalero. || *'Jornalere' da jornala irebasten datorrenari.*

**jorra, jorrie.** (JORRA) Escardadura, deshierba. || *Jorrrako erreminttie.* || *Jorrie atxurras eitten da, jorraidxas.* □ **jorra atxurre.** Escardilla, azadilla. || *Jorra atxurre ago batekue, kirten lusetxuas ixeten da.* || *'Jorratu': atxurras ebei, an tarra-tarra-tarra-tarra, ganetik eitten dana, jorra atxurre esate dxako orreri, atxur txiki orreri. Da bestik ixeten dire basatxurrek, orrek lusiauek.* || *Jorra atxurre: asal eitteko asalien, barrure barik, asal ein.* □ **jorran.** Escardando. || *Jorran dxabixek arek.* || *-Nora soyas? -Jorran.* □ **jorran ein.** Escardar. || *Artajorraidxek dire orrek atxur meyek, jorran eittekuk.* □ **jorrie emon.** Escardar.

**jorrai, jorraidxe.** (JORRAI) Escardillo; azadilla, almocrafe. Hau zabalagoa da basatxurre baino. || *Emen jorraidxe esate dxako olan atxurreri, asko ibiltten danari solun, lurriñ ibiltten danari.* || *Jorrie atxurras eitten da, jorraidxas.* || *Atxurkulie ortz bikue da. Jorraidxe, a osokue.* || *Jorraidxe ixeten da jorran eittekue, artajorran eittekue.* □ *Ondoren azaltzen den bezala, saraketako atxurre ere esaten zaio, nahiz eta gehien erabiltzen den izena jorraidxe izan.* || *Atxur neusidxas atxurren eittosu. Da ba saraketakaxurre edo jorraidxe esate dxako orreri. Atxurre ba, igul askok e jorraidxe esan biarrin ba saraketako atxurregas, baya jeneralin jorraidxe.* □ *Hona hemen jorraidxe eta atxurkulie izenen arteko desberdintasuna:* || *Jorraidxe da artue jorratzeko, jorraidxe atxur normala. Da gero badas atxurkulak, ainka bikuek. Atxurkulak atxurren eitteko, soidxek atarateko, ta sera mamiñe eitteko solun.* □ **atxur jorraidxe.** Escardilla, azadilla. Sin. *jorraidxe, jorra atxurre.* || *Atxurre, da atxur jorraidxe bat be estire, bat be badire. Atxur jorraidxe, ba jorran eitteko ixeten da. Baya atxurre eoten da, basatxurre be badau, seinde mendiko bidiek..., oingo mendiko bidik estire konpontzen, oin kamiñotzak badaus ba. Da atxur sabalak ixeten dire, sabalak; bera atxurre ago sabaluku ixeten da jorraidxetan bayo.* || *Atxur jorraidxe ekarrik!*

**jorratu, jorratzen.** (JORRATU) Escardar, quitar las malas hierbas. || *Jorratu atxurreas: lurre arrotu, bedarrak galduteko-ta, bedarrak galtzeko.* || *Ak jorratu dxok arto saille!* || *Bermio bedarrak ariñ erneten dire da beti jorratzen egon biar!* || *Artue erne, ta jorratu, da gero ya ondio denporie biar ixeten da elduten.* || *Jorratu ein biyou.* || *Jorratu: arek (bedar txarrak) atara, da itxi bertan siketzen euskidxek. Siketu eskero, estire arek asten.* || *Masuas lurre jotie, a be eitte san len, lurre apurtzeko, da gero jorratu ganetik.* || *Artuk, danak jorratu eitte sirin.* || *Arturi be esate dxako (lapan), bedartzu badau. Artu eraiñekutan bedarra edoselaku etorten da, da "Lapan dau bedarras", "Bedarres beteri dekeu"-edo, "Jorratu bierrin dekeu"-edo.*



**josi, josten.** (JOSI) 1. Coser (con hilo). || *Josteko makiñie.* || *Berak josten sittuen etzien.* 2. Fijar, clavar. || *Kurtzien josi.* || *Perri da geusa bat dana burdiñeskue, ta beidxeri anka aspidxen ipintte dxake, da eukitten deu olanik, e miñe olanik eukitten deu, da untzekin josten dxako.* || *Da naiku untze eundidxe ixeten da. Puntti be eukitten deu biribille, da bera untze estutues-estutues juten da, sartzeko, da punta estue eukitten deu betik, josteko goitti bera.* || *Angaillie bakixu ser geusa ixeten dan? Taketak, olanik taketak, da lau albutan, da aritxe albutatik egurrek joste dxakosan da ori ixete san ba, olan eskutan ibiltteko, arridxe eundidxe siriñin-de, lagun biren artiñ artu, de beste leku batera arridxe eruteko-edo, olan ibiltte san angaillie.* || *Beidxe e perretan diriñien okertu eitte dxako, emen e buelta gustidxen untzak joste dxakos beidxeri, da perrie olantxik e, e an goidxen eukitten daben gantxue okertute ipintte dxako.* □ **jositte.** Repleto, -a, cosido, -a. || *Ardi ainkadas jositte dau.*

**joskera, joskerie.** (JOSKERA) Costura, manera de coser. || *Txamarriek joskera diferentie eukitten deu.*

**joskure, joskurie.** (JOSKURA) Costura de la ropa. || *Da sorkidxe da olan trapu satitxukin-de eitten dana ixeten da sorkidxe, da olan biribille, erdidxen sulu eukitten deu, da olanik joskurie, joskurak eukitte itu, da biribille ixeten da, da kargi burun eruteko ibiltten da.*

**jostorratz, jostorratza.** (JOSTORRATZ) Aguja de coser. Ik. *albandorratza.* || *Jostorratzan sulue.*

**jostun, jostune.** (JOSTUN) Costurera, modista; sastre. || *'Jostune' da josten dabena.* || *Titerie? Jostunek atzamarriñ ibiltten dabena.*

**jota, jotie.** (JOTA) Jota (baile, música). || *Jota dantzan.*

**jotaldi, jotaldidxe.** (JOTALDI) Intervalo de tiempo en el que se golpea el trigo para desgranarlo. || *Jote san e, eitte gendun jotaldidxe ta ba buruxak soltau eitte dxakosan galtzuri. Da axe soltete dxakosen serak ixete sin buruxak.*

**jotzaillie.** (JOTZAILE) 1. Intérprete, músico, -a. Ik. *joillie.* 2. Pegador, -a, golpeador, -a. □ **soñu jotzaillie.** Músico, -a, instrumentista. Ik. *soñu joillie.* || *Len jentetan eskandalu te danak dantza solti te erromeidxak. Lau-bost soñu jotzaillak eurek kobretan, eurentzako korruk einde, da bakotxak beren selaidxe artute, da an.*

**jubilasiñue.** (JUBILAZINO, jubilazio-bat., erretiro) Jubilación. || *Ondo meresiko jubilasiñue.*

**1 jubilau.** (JUBILAU, jubilatu-bat.) Jubilar(se).

**2 jubilau, jubilaue.** (JUBILAU, jubilatu-bat.) Jubilado, -a. || *Jubilauen etzie.*

**judidxu, judidxue.** (JUDIO, judu-bat.) 1. Judío. || *Judidxu asko dau aretan e. Judidxuk negosiantik. Orrek dendak eta orrek judidxunak geidxenak. Emen judidxu txarrari esate dxako. Emen bai. Estosu entzuten? "Ori*

*judidxori! Kaguen dies!". Da an judidxuk, ostera, denda itzelakin.* 2. Usurero, -a.

**juen.** (JOAN) 1. Ir. || *Pasa dan urtien bixi ixeten juen nitzen ara, beste errire.* || *Jun seittes, estau ardurerik eta!* || *Sois arantza!* || *Juadi aratz!* || *Bueno, sue bidxok soix esta?* || *Esara jun andik?* || *Da juten basara, antxe topauko su.* 2. Pasar, irse; morir(se). || *Ibiltten dire tranpak emen, aseridxe atrapatoko. Se geurin be len euki gendun txakurre, tranpak atrapau eskun de guk soltau genduneko junde egon san.* || *Apurtxut e sertute egon san, da beren buru botako ban arek. Estaki ser ei ban arek. Ondo gixon ona ixen san a, ondo alegrie-ta, baya a ju san.* 3. Caer. || *Legana ori, seinde, geixu da ori, inketen dana or, edonun legana eukitten deu. Ganadu pe, ulie jute dxakuen leganas.* □ **jukeran.** Al ir. || *Olan kargetan bosu narra, gero etzera jukeran buelta eingo tzu.* □ **jun-etorri.** Ida y vuelta. || *Jun-etorriko da ori.* □ **jutekuen.** Con la intención de ir. || *Jutekun ixen nok baya!* || *Jutekun ixen nok, baya berandu ein dxatek.* || *Ya jutekun egon nok.* □ **-ten jun.** Ir a, tener intención de. || *An esate baterako, "Enoye emoten" edo bestie ta an bra! emote tzunak "Konprimentu barik emostek".*

**juerga, juergie.** (JUERGA) Juerga. Ik. *errondie, olgetie, parrandie.* || *Kristolako juergie.* || *Gau gustidxe juergan pasau deu.* || *Da gero juergi ein, denpori badeke.* □ **juergan ein.** Hacer juerga. || *Or dau ori mamu les, atzo juergan egingo ban.*

**juergalari, juergalaridxe.** (JUERGALARI) Juerguista, parrandista. || *'Juergalaridxe' asko juergatan dabillena da.*

**jues, juesa.** (JUEZ) 1. Juez. || *Juesak setentzidxe emon deu.* || *Juesak agindu tze ta eiñ ein bier.* || *Juesak deittu tzo.* 2. Juzgado. || *Áti ipiñi eskerun juesara jun bi ixaten da.* □ **juesak altzau.** Citar el juez. || *Juesak altzau deu.* □ **juesetik eskondu.** Casarse por el juzgado.

**jugoye.** (JUBOI) Jubón. Berba hau ezagutzen bada ere, Nabamizen barrukue esaten da: || *Jugoye? Emen etxako esaten, baya leku batzutan esate dxako barrurenguri. Lelengo jasten dabena gixoneskuek, emen ba barrukue esate dxako. Baya jugoye arixerri esate tze.* || *Jugoye? Buruti bera jantzitte, mangatxue dekosenena, nai estekosenena, nai dekosenena.* || *Jugoye esate dxako gixoneskuk jasten daben kamixetiri. Oiñ axe esta esaten, len esate san, jugoye.*

**juisidxo, juisidxue.** (JUIZIO) Juicio. || *Mal bakue: ainbeste juisidxu estekona.* □ **juixidxo agiñe.** Muela del juicio. || *Juixidxo agiñek, askanengo, orrek ya agiñek urten, da geruau urtete dabe orrek, igul aundittu danin be igul.* || *Juixidxo agiñe: ori agiñe, urteten dabena gero, atzerengue.*

**jukixun, jukixune.** (JOAKIZUN) Tendencia de ir a un sitio. Berriemaile batek eman zidan berba honen berri. Beste guztiek *jokerie* esaten dute. || *Guk ara Boluntara esteku jukixunik eta.* || *Ara jukixunik esteku.*

**jun, june.** (JOAN) 1. Gasto. Ik. *juen.* || *Igul gastu eundixek-ero boukos, juten badxako, ba june, gastu eundikuri, ero olan, bai "June dxekok aundidxe!", iguel geusa asko pagau ein biar-da, june.* || "June deko": *Gastu eundidxe dekola.* || *Jun eundidxe deko.* 2. Flujo, emanación. ☐ Emakumeek hardunaldian izan ditzakeen odol jarioei buruz esan ohi da. || *June deko.*

**junkure, junkurie.** (JUNGUDE) Yunque. || *Suteidxe: errementaridxena, errementaridxek sue eukitten dabena, sue eukitten deu, da burdiñi an berotu, te gero an junkuran jo ta saplastau ein.*

**juntetan.** (JUNTAU, *juntatu-bat.*) Juntar(se), reunir (se). || *Gaubelan emen e mesarik egon be esta eitten. Erresaidxu erresetan da, bat nai bi nai senbat jente juntetan dan, da esta egoten besterik e, erresau te gero etzera juten da.*

**junture, junturie.** (JUNTURA, giltzadura) Articulación. || *Junturan min deko.*

**juramentu, juramentue.** (JURAMENTU, biraio) Juramento, blasfemia, maldición.

**juramentuke.** (JURAMENTUKA, biraoka) Maldiciendo, blasfemando. || *Juramentuke eki tzo, bai, asarraldidxen.*

**justu.** (JUSTU) A duras penas, justo. ☐ **justu-justu.** Justo justo, a duras penas. Ik. *osta-osta.* || *Jsutu-justu entzun deu.*

**jutaldi, jutaldidxe.** (JOATALDI, joanaldi-bat.) Tirada, distancia que hay de un lugar a otro, o de un tiempo a otro. || *Jutaldidxe: ibillaldi aundidxe.* || *Emendik Elantxobera jutaldidxe dak.* || *Lusie (kobie), bueno! Da gero jutaldidxe ein, de erreka bat deko, da errekie pasau esiñe ixete san batzutan iguel ur geidxaugas.* || *Emendik ara kilometro erdi badau-ero mendire, jutaldidxe!* || *Jutaldidxe dau, e!*

**ka.** ¡Ca!, ¡quia!, voz familiar con que se denota incredulidad o negación. || 'Ka' aintxiñe esetzari esate dxakon.

**kabaliñe kabiñie.** (KABELIN, *krabelin-bat.*) Clavel (*Dianthus caryophyllus*). || *San Juanetan elixara erute san lora kargatxue, lorakin: liridxuek, kabiñiak, larrosak, ta bedeinkatu eitte sittuen.* || *Da rebentoyek esate tze batzuk. Arek nauku kabiñie eundidxek ixeten dire, rebentoyek esate tzeu.* || *Kabiñiak? Bai, kabiñiak e errebentoi badas, bai. Ixeten dire besti payo eundidxauek, da se esangot neuk?, alderdi batetik apur bet erremetau les eitten dabena. Kolorie? Gorridxe, gorri-gorridxe, suridxe be euki leidxe. Kabiñiak ainbeste koloretako taus ba.* ☐ **larra kabiñie.** Clavel silvestre. || *Larra kabiñiak ainbeste koloretakuk egoten dire, kolore bi emote ittuna pe bai, gorridxe pe bai, da gorri illunek egoten dire, gorri argidxe pe bai, pardiñak. Ba badas kolora bat bayo geidxau.* || *Arek kabiñiak batzuk ixeten diren aundidxauek, beste batzuk txikidxauek. Da ori larra kabiñie ori asten da mendidxen, olan or-emenka asten da. Da kabiñiek eukitten dabe eundidxe.*

**kaballeridxe.** Caballería, cualquier animal solípedo que, como el caballo, sirve para cabalgar en él. || *Karrue esate tzau kaballeridxan serari ta beidxenari burdidxe.* || *Kaballeridxe da igul saldi bi, ero asto bi, ero igul mula bi boukos be, kaballeridxe.* || *Txintxi da olako sabala, narru-edo bidau, an aspittik e gerridxen miñ eiñ esteidxon asturi nai kaballeridxeri, beti gora lotzen deu a, da goidxen sokias.* || *Eusike bai. Da orrek e, bakixu, igul esteko indarrik sarran eruteko. Edo kaballeridxek... Da kaballeridxe bakixu ser dan, astue, ta saldidxe ta orrek. Da kaballeridxe pe igul esteko, da kaballeridxe pe "Eusike-eusike eik!".*

**kaballu, kaballue.** Caballo. *Saldidxe* ere erabiltzen da. || *Kaballu ganin.* || *Gernikera noye kaballun.* || *Oneri kaballuri, biorra, emie, da bestie da..., kaballue danak dire, kaballue da emie, biorra da, da bestie enterue.*

**kabesera, kabeserie.** Aparejo que se les coloca en la cabeza a las caballerías. || *Kabeserie da asturi nai muliri nai saldidxeri ipintte dxakona, apareju bet, da ugel utzeskue ixeten da. Sartze dxako olanik, olanik eukitten deu bat, olanik, gero emendik okospetik, emen musturrin be bai, da emen kabeseri arixe esate dxako, astu kabeserie edo manduna edo saldidxena.* || *Saldidxen kabeserie da ugelas eitten dan kabeserie.* || *Astun kabeserie.*

**kabide, kabidie.** Capacidad. || *Onek deko kabide txikidxe!*

**kabidu, kabiten.** (KABIDU, kabitu-bat.) Caber. || *Traktora juten da, lengo bidin kabiten dan les, se lengo bidiek dire traktortxuk kabiteko bestekuk, baya kamioi-eta estire kabiten.* || *Fraketan be kabidu esiñik dabil.* || *Emen artze siriñ arto pilluk, kamaran kabidu esiñik ibilte gendusen, da oiñ apurtxut, asitterako.* || *Ba ostantziñ e len berton be etzondutan sei tte sortzi meta-ta bueltan egote siren. Barrun kabiten es, da kanpun ein. Eitte basen. Se askok e etze bixitza bikuk sabaidxe-eta txikidxek eukitte ittu ba bintzako.* || *Metro kuadraun onenbeste kabitok.*

**kadera, kaderie.** (KADERA) 1. Cadera. || *Operasiño be kaderakue esate dxako mokorrari be. da Ostantzin belauneku esate dxako.* 2. Parte del pie, comprendida entre la rodilla y el pie. || *Ño, kaderan katidxu dxatek alanbrie!* || *Kaderie belauetik berantza.* || *Kaderie beyeri esate dxako, ya orkatilletik au beye.* || *Kaderie apurtu dxako.* || *Kaderako asurre.* || *Kaderie da ankie.*

**kafe, kafie.** (KAFE) Café. || *Kafie pasau.* ☐ **kafe landarra.** Poso del café. || *Kafie eitten danin, da kafeteri garbitzen danin, kafe landarrak.* ☐ **kafe txanue.** Colador de trapo para el café. || *Kafe txanue irastekue da, a telaskue.*

**kafeontzi, kafeontzidxe.** (KAFEONTZI) Recipiente en el que se guarda el café. || *Kafeontzidxe: kafie egoteko ontzidxe.*

**kafesne, kafesnie.** (KAFESNE) Café con leche.

**kafetzako, kafetzakue.** (KAFETZAKO) Bebida que se da como café y cuya calidad es pésima. || *Goixien kafetzakue. Ure. Axe bakarrik. Axe edan da "Ala, juen!". Bueno! Baya gosie ordun gosie!*

**kaide, kaidie.** Caída, inclinación, pendiente. || *'Kaidie' da ya alborantz eitten deuna.* || *Arbolik kaidie euki dxok.* || *Kaidie: olan deuna, alderdire, nibel estaun geusie "Kaidan dxak". Au onanik egon biarrin, "Apur bet kaidi dxekok".* || *Onek e basun piñu botaten-da ibilte giñenien, usete gendusen sididxek. Igul, piñuek, igul piñu pe kaidi eukitten deu ba bera edo gora. Da igul e, estosu gure bera juterik. Edo*

*alanbrie, edo kalti eingo deu te ona gurosu bota edo ara. Ordun sartze dxakos e... Ara gure bosu, emendik. Da a joteku be porri da.*

**kaidxola, kaidxolie.** (KAIOLA) Jaula. || *Txirritxirridxen kaidxolie.* || *Kaidxolatxu, alanbrasku, txiki-txikidxe. Da jate emote dxakon letxugie (txirritxirridxeri).* || *Kaidxolan sartu dot.* || *Kaidxoli be sotzesku eitten da, sotz utzekin, alanbrarik barik.* ☐ **kaidxola txoridxe.** Pájaro de jaula.

**kaiku, kaikue.** (KAIKU) 1. Recipiente en el que se llevaba agua al monte. I. Urtubik dio ez duela zentzu honetan erabiltzen, baina izan litekeela Nabarnizen beste batzuek hala esatea. Berak horri *potiñe* esaten dio. Metalezkoak edo plastikozkoak izaten ei ziren. || *Kaikue da ontzi bat, uras ibilte genduna. Ba esate dxakon, mendire-ta ur eruteko ibilte san, da kaiku esate gentzon arixeri.* || *Kaiku ixen lei aundidxau, ta ixen lei txikidxaue, da senbat kabide egongo da? Iru asunbre? Edo iru asunbre bi'tterdi. Da kaiku arixeri esate dxakon. Guk arixeri esate gentzon. Da mendire erute san jeneral be. Lusetxue, beren tapatxuas, da beren astatxuas.* || *Kaiku emen..., a ontzidxe be estau geurin baya, kantin txikitxu bateri esate gentzon len, kaikue. Ure edateko ekarten da iturririk, kaikue. Da kaikue oin, ba alakuri estot pentan esate dxakenik, espabese ba, ondo konpontzen estitiñari-edo ba.* || *Kaikuk ixate siñ eunditxuauk, eta ixate siñ asunbrekuek, edo asunbrerdikue pe bai.* || *Kaikue da..., amen estau baya, len geurin be egon san kaikue, ure ekarteko iturririk, ta kaiku esate gentzon.* || *Orrixeri esate gentzon kaikue, da esnias be ibilte genduen, da uras be ibilte genduen baya a ba aundidxe-edo ixete san. Da txikidxauk eta eundidxauk ote sirin.* 2. Tonto, -a, necio, -a, majadero, -a. || *Ori kaiku da!* || *Kaiku: ori esesana modun esate dxako igul: "Ori kaikuori or dxabik!"*

**kaixa, kaixie.** (KAXA) Arca. Ik. arkie. || *Kaixak-eta bille etorri dire Pamplonatik.* || *Kaixik alun eukitten deu kajatxue, tiradora.* || *Urume isten dan kaxie da.* || *"Sorgiñek eta lapurrek erre, ondo-ondo erre, artuk eta garidxek kaxan gorde, sorgiñek erre...".* || *Len es eun es neberarik es frigorifikorik es konjeladorarik. Da orrek txorixuk kuretako, galtzu ebei se-se da kaixan, orrek aintxiñako kaxan barrun danak nasteute egote sin.* || *Arkie kaixiñ antzekue da. Kaixie txikidxaue da. Arkatan garidxe, artu, laboriek gordete siren, lurriñ artzen dana gordete san. Da kaxatan erropie.* ☐ **arto kaixie.** Arca para maíz. || *Arto kaixie: artu egoten dan kaixa bat; garandute, edo urunin.*

**kaja, kajie.** (KAJA, kaxa-bat.) 1. Caja. || *Lustre kajie.* || *Galarraiñ olako kajatxu bet dau ipintte, orrek doixenak mendire, ta ba iguel iste tzu tarjetatxu-edo eskribidute, sein-nor egon dan, edo olan.* || *Guk basue Galarregin bertan ur-urran deku. Or kaji daun lekutik ensegida.* 2. Hospicio. || *Urikue? Ume bat, ume txiki bat ekarten danien -oiñ esta entzun be eitten ekarten dani pe-, ekarten danien kajatik, ba noberana il de*

*ekarten danien, arixe esate dxako urikue. Noberana estana, ekarten dabena asteko, urikue.* **3.** Caja del carro. || *Burdidxen kajie, axe kajie, ta gero arexe darois orrasidzek.* || *Igul burdi bi-edo usete sin len. Bat usete san satzetako, kajias. Da bestu usete san e asparritteko.* || *Burdi subillek onek... Kaji-eta eitten di ba? Burdidxen kajie? Are burdidxen kajik erute dxuan ori, ointxe suk esan dosuna. Subille. Da gero eitte dxuen ba kajie. Gero arek subilleri eitte tzesen ba suluek, da gero an ipintte tzesen arek e...* || *Burdidxen kaji burtoldun burdidxe esate tzeu. Guk burtolduneri burdidxen kaji esate tzeu. Alan oten da les, burdidxen kaji guk. Ba beste askok esate tze burtoldun burdidxe. Burtola dire egaletakuek. Burto-ola dire arek, burtol-ola. Ola bakarrik esan barik, burtolen... Burtolak.*

**kajako, kajakue.** (KAJAKO) Hijo o hija adoptiva, niño, -a del hospicio. *Urikue ere esaten da.* || *Kajakue san.*

**kajoi, kajoye.** Cajón. Ik. *tiradora.* □ *Hona hemen kajoye eta tiradora hitzen arteko desberdintasuna:* || *Kajoi da... Esate baterako, olako kuadru ereittosu te kajoi da. Ba tiradora da sartu te eittekue. Kajoye suelti be bardin da. Ta tiradora es. Tiradorak esan bi deu or sartute egotie, edo armaidxu baten. Da kajoye es. Kajoye a solte be... "Or e kajoin sartidzek erremintak!" Kaja solte ba dekesu, ta kajoye esate tzeu areri. Da bestu tiradora da, astias, sartu-atara eitten dana.* || *Kajoi da edoser. Eta onek e ba tiretzeke eukitte dabe les, orregaitti dala pentzetot nik erdi euskera-erdera, tiradora.*

**kaka, kakie.** (KAKA) **1.** Excremento humano o de insecto; al del ganado se le llama *pekotza* y al del resto de los animales *korotza*. Lekuko batek barrezka kontatzen zuen euskaraz ondo ez dakitenek honela esaten dutela: *Onek estakidxenak esaten dabe ganaduna be, "Amen kaka ein deu onek beidzek!"* || *Euli kaka.* || *Indurri kaka.* || *Kaka sundi dau.* **2.** Mierda (expresa indignación o contrariedad). || *A kaka zarra!* **3.** || *Kaki alaku!* □ **kaka daridxola.** Muerto de miedo. || *Kaka daridxola jun dok a be.* □ **kaka mokordue.** Cagada. || *Ori da kaka mokordo!* □ **kaka moltzue.** Excremento blando, en forma de plasta. □ **kaka mutikue.** Burla moduan esaten da. □ **denpora kakie.** Tiempo lluvioso. || *Denpora kakie: denpora txarra, euridxe-ta, denpora kakie. Kaskarra dalako kaki esate dxako.* □ **kaka atara.** Dar una tunda. || *Sakaten batzat, kaka atarako tzat!* □ **kaka ein.** Cagar, defecar, evacuar el vientre. Honela esatea arruntagoa da *obramentu ein esate baino.* || *Praketara kaka ein deu.* || *Kaka eitten dau.* □ **kaka siriñetan ibili.** Tener disentería. Ik. *beraskue euki, beraskuas ibili, pirrierie euki, pirripirridxe euki, siriñetan ibili, tripetatik egon.* || *Igul e obrementu eitten sunin be, "Kaka siriñetan abil"-edo, bakixu. Edo "Pirripirridxe dekek"-edo. Bakixu pirripirridxe be igul, tripetatik saseni, txorrun saseni.*

**kakalamuste.** Volatín, voltereta. || *Bueltaka, igul landan bera, ta len mutikutan: kakalamuste.* || *Ai, kakalamusteko denpori aintxiñe pasau dxaten ba!* □

**kakalamuste ein.** Dar volatines, dar volteretas. || *Kakalamuste ein? Aulanik e parau te buelta emon.* || *Kakalamuste ein? Geuk eitte gendun aintxiñe umik ixen giñenin, goitti bera.* || *Kakalamuste ein dxok.*

**kakalamusteka.** Dando volatines, dando volteretas. || *Kakalamusteka dxoik.* || *Kakalamusteka dabil.*

**kakalarri, kakalarrixe.** (KAKALARRI) **1.** Ganas de evacuar el vientre. || *Kakalarrixdas dau.* **2.** Nervioso, -a, impaciente, que se apura fácilmente. || *Kakalarrixe esate dxako aringaringe dabilenari beti, ein biar bat eta beste bat eitteko, ta garatu barik orra ta ona.* || *Beti kakalarri badxabik!*

**kakanarru, kakanarrue.** (KAKANARRU) Persona pequeña, pequeñajo, -a. Ik. *kokonarrue.* Emiliano Arriagak *cacanarru* batu zuen Bilbon eta definizio hau eman zuen: "Un ente pequeño, sucio, antipático". || *Umi pa bakik, atrebidu dosa pa, edo persona neusigana juteko, "Aldeik umemokuorrek! Aldeik emendik!". Umemoku da, ba gastu edo edukasiño bakue edo bakixu. "Aldeik, umemokuorrek, kakanarruorrek!"*

**kakanastau.** (KAKANAHASTAU, kakanahastu-bat.) Embrollar, desordenar, enredar; estropear, embadurnar. Ik. *lorrindu.* || *Dana kakanastau da.* || *Lorri dabilenari: "Dana kakanastau!"*

**kakanaste, kakanastie.** (KAKANAHASTE) Enredo turbio o inmoral. || *Or kakanaste aundidxe dau.*

**kakapirri, kakapirridxe.** (KAKAPIRRI) **1.** Diarrea. || *Kakapirridxe dxekok orrek.* || *Kakapirriten nabillek.* **2.** Persona de carácter inquieto, de mal genio. || *Geraki da ba, Dios, estu olan dabilena. Da kakapirridxe ernegetan dabilena. Ya bi dire orrek, bata geldi egote-stana olan, ba garakie alaku ixeten da. Kakapirridxe da estue, edosegas piketen dana.* || *Kakapirridxe da ori.* || *Kakapirridxe ernegaue danari esate dxako.* || *Kakapirridxe esate dxako geuse estanari berbetan, da esan, da igul kontestasiño ganorabakue emon, da ernegaui.* || *Kakapirridxe esate dxako ernegaui danari, beti ernegetan: "Kakapirridxori!"*

**kakarraldo, kakarraldue.** (KAKARRALDO, kakarraldo-bat.) Ciervo volante. || *Onetan baserridxetan iguel mobidu barik eukiten bosu or sokondun bat, or kakarralduek egoten dire.* || *Adardun kakarraldue, da adarri pakue.* || *Kakarraldue, beru jotakun, agustue, julidxon.* || *Kakarralduek negu partien da olan, illuntzitan da olan geidxen ibiltzen da, da arek adarrak oratzen badeutze noberan atzamarrari be, miñ eitte tze.* || *Kakarraldue: arek illuntziñ ibiltzen di jeneral, illuntzetan, klaru badau ganera, asko! Guk emen etzaurrien senbat paluas igul jo, ta bera!* || *Kakarraldue: ori da koko baltz bat, adar oker batzuk dekosena.* || *Kakarraldu egan be ibiltzen da, ta asko*

*atik-eta sabalik egon eskerun, asko igerri barik barrun be sartuko litzake. Oiñ oindiñokoarren esta ibiliko ori, edo nik estot ikusi oin dabilenik kakarraldorik.*

**kakaskeridxe, kakaskeridxe.** (KAKAZKERIA) Villanía, canallada, ruindad. Ik. *sapokeridxe, aserikeridxe.* || *Kakaskeridxe esate dxako bata batek lagunek izen, da ba olako sapokeridxatxu bat alkarrerri ein, da "Kakaskeridxe ein deu are pe!" ba esate dxakon.*

**kakastu.** (KAKAZTU) **1.** Ensuciar(se). Ik. *basatu, osalatu, sikindu, loittu.* **2.** Estropear, echar a perder. || *Geusie lorrintzen badeu, ero konbertzasiño bat-ero: "Kakastu dxok dana! Oiñ arregletie dxekok orrek!" || Kakastu dxok a pe geusie!*

**kakasto, kakastue.** (KAKASTO) Sucio, -a, guarro, -a.

**kakati, kakatidxe.** (KAKATI) Cagón, -ona.

**kakatza, kakatzie.** (KAKATZA) Montón de excremento. || *Amen dau kakatzie!*

**kakue.** (KAKO, gako-bat.) Vara, palo, derrengo. Ik. *kakutue.* || *Kakue palu aundi bateri esate dxako, intxaurrak-eta botateko.* || *A kakue palu aundi bat ixeten da ta aregas jo eitten dire adarrak, intxaurrak-eta botateko. Da olanik, intxaurrak es, baya sagarrak nai beste geuse bat atrapau gure bosu, olanik puntie okerra dekona, da aregas tiretu eitten da, da kakutua aixe, tiretutekue.* || *Jo, ta bota kakuas bera.* || *Da kakukiñ eratzi eitte sirin gastañak, da jeusten sirin lakatzak-eta.* || *Guk kakue esate tzeu egur luse bateri, eratzi leix e sagarrak, madaridxe pe bai, te kakue olanik, te intxaurre pe bai, ta kaku.*

**kakutu, kakutue.** Torcido, -a, arqueado, -a, combado, -a. || *Surre apur bet okerra-edo dekonari "Sur kakutu deko".*

**kakutu, kakutue. 1.** Vara o palo que tiene la punta en forma de gancho. || *Kakutue tiratutekue da, gantxu dekona, adarra bajatuteko, noberak artzeko.* || *Kakutue: ori egur okerrari esate dxako, kakutue, olan e puntias olan atrapek-edo ibiltten danari-edo.* || *Bai, adarra bajateko ibiltten da kakutu.* || *Kakutu da ori, urkule... olan egur batek, berak eukitten deu ona susen, auxe eukittie, betik eldute. Sagarrari e adarra bejatzeko be, aras eldu, da txa! tirete tzeu bera, kakutu guk arixerri.* **2.** Pértiga, colgadero. || *Kakutu da, esate baterako, baserridxetan kamaretan indarrak eskeitteko, kakutu, inketan deuna. Da kakutue arixe esate dxako. Kakutute. Sokiri be, len bedarrak lepun-de ekarte gendunin-ba, sokiri be kakututxu ipintte dxakon, estutzekue.* || *Kakutue? Makilla bat, urkula bi dekosena jeneral ixeten da, olan eskeitteko kakututan.* **3.** Gancho que se añade al extremo de una cuerda, para que otra corra más fácilmente a través de aquél. || *Kakutu dok ori, gibiliñe, sokik erun bidxok gibiliñe. Amen erun bidxok, gero pasetako. Da kakue. Batzuk kaku esate tze, da bestik gibiliñe.*

**kakutudun, kakutudune.** Dotado de cuña. || *Kakutudun sokie: sokiri ipintte dxako egurre, kakutudune.* □ **kakutudun sididxe.** Palo que tiene una pequeña cuña para sujetar la carga de hierba en la que se introduce. || *Kakutudun siridxe da... Siridxe bakixu selaku dan? Siridxe? Siridxe da, len siridxe esate gentzon e bedarra eruteko otzari, bueltan-bueltan kargete dxakon bedarra, bueltan-bueltan, da siridxe, kakutudune. A kakutuas euste tzo a gero. Bedarrak berak euste tzo, sokarik es esebe barik. Len bueno, len beti usete siñ orrek. Oiñ esta usetan. Oiñ es kakuturik es siririk, esebes.* || *Lepuen sididxe, esate gentzon, sididxe. Kakutudun sididxe da a be. Kakutu eukitten deu olan.* □ **kakutudun sokie.** Cuerda a la que en un extremo se le añade un gancho, para que otra corra más fácilmente a través de él. || *Ori da soki apurtu esteidxen, da korridu erres. Egurrin korriten deu te. Egurrei dau lotute soki, da kakutu da amen deuna, da auni lotute dau ta emen soki, tiretzeko korridu ein deu erres, da soki apurtu bes.* || *Da beste batzuk ipintte tze oue, burdiñesku be ipintte tze, alako oue, soki bueltan dabela. Ba beres-beres-beres kakutu da aintxiñe... orrek barridxau dire orrek oguk eta onek burdiñak-eta..., eitten da ba, baserritarrak propidxu da kakutu egurresku.* || *Sokiri be kakutu eitte dxako. Kakutu, sokik e... egurri korritiarren, kakutudun sokak.*

**kala, kalie.** (KALA) Cala, planta arácea de adorno con hojas radicales de peciolos largos, del centro de los cuales sale la llamada flor, que tiene un tallo grueso y está formada por una gran espata blanca en forma de cucurucho dentro de la cual hay un espádice amarillo. (*Zantedeschia aethiópica*).

**kalabasa, kalabasi.** (KALABAZA) **1.** Calabaza (*Curcubita pepo*). || *Kalabasi pe aidxenak emote ittu.* **2.** Desaire, calabaza. Ik. *kuladie.* || *Kalabasak emon.* || *Kalabasi be asaltzu ixeten da.*

**kalabasin, kalabasiñe.** (KALABAZIN) Calabacín (*Curcubita pepo* var. *oblonga*). || *Kalabasiñak ixeten dire biribiliek, ixeten dire lusetxuek.*

**kalamatrike, kalamatrikie.** (KALAMATRIKA) **1.** Clamor en la conversación, griterío. Bat ernegatuta txarto esaten hasten denean esaten da. Ik. *saparradie, sirriparrie.* || *'Kalamatrikie': olan berba asko eitten dabenari, ixildu barik berbetan: "Orrek dabil kalamatriki!" || Kalamatrikie esate-u ba, ixildu bako erresoidue, asarratute, igul enbri-ero: "Orrek kalamatrikie!" || An saparradak-eta, igul: "Kalamatrikie are padxabik!"* **2.** Hablar torpe de los niños que aún no saben hablar bien. || *Olan ume txikidxe-edo, gaste batek e, berbetan ondo estakidxen bate pa nastau eitte ittu berbak, da estittu esaten susen be, da kalamatriki aixeri, alantxe umik eitten daben berbeti.* || *Kalamatrikie: ixildu bako erresaidxue. Bai, benetan be axe da, baya ba kalamatriki jeneral ba ume gastik eitten dabe berbetan ikesi-ikesi barik dasenak eitten dabe, da nastau eitte ittu geusak, da ba batzuk*

esango itue susen, da beste batzuk okerrau, te ba, kalamatrikie.

**kalanbre, kalanbrie.** Calambre. || *Kalanbri da dardadi-edo, "Kalanbri dxekok". Eskutan, eskuk eukitte itue batzuk olan ba, da areri kalanbri esate tzeu. || Baya kalanbri diferenti de ixetes, se kalanbri da dardadie, da ori lo artzi da, "Luk artu-sku besuek", "Kalanbrik artute dxekat" guk jeneral esan eitteu. Bai. Ba esta ixetes. || Kalanbra die dar-dar-dar-dar-dar eukittie. Ori da kalanbri ixetes. || Kalanbri artu-ste esku.*

**kalbaridxo, kalbaridxue.** (KALBARIO) 1. Calvario, via crucis. || *Estau emen. Ba egoten di kalbaridxu pe bai. Ba emen berton estau kalbaidxorik. 2. Calvario, sufrimiento, adversidad. || Au dok kalbaridxue, esin dxuat eser ein de!*

**kalbo, kalbue.** 1. Calva. || *Kalbue eitten asi dxako. || Uli ya juten asittakun apur bet: "Kalbue eitten asi dxakok orreri be!". 2. Calvo. || Kalbo geldittu da.*

**kalbodun, kalbodune.** Calvo, -a.

**kalboso, kalbosue.** Calvo. || *Kalbosue? Bai, kalbu dekonari.*

**kale, kalie.** (KALE) La calle; lo urbano, la villa en oposición a *baserridxe: kaleko jentie. || Kalerik kale. || Kale bittartie. || Kaleko gastiek baserridxetara kastaña jaten jueten siren. || Len kridxeu jute siriñin, ni enas sekule jun, baya amen baserridxetatik mutillek jute siriñ orra kalitara, arako ortu barridxu, da ortulau. || Emen kalerik estau ba, da Nabarrixen kalerik esta esaten. Da Allustin bai. Allustiñ egondaku sara. Allustin danak arek, Narik, arek goikuk-eta: "Kalera!". Emen es. Esta usetan amen Gernikera jutie be kalera doiñik, espabe "Gernikera". Da Allustiarrak "kalera". Allustiko areri, beyeri, kalie esate tze, danak, Narikuk... □ **kale baserridxe.** Caserío que a pesar de estar en la calle se dedica a actividades agropecuarias. || *Kale baserridxe: kalie, da ganadu igul bat, ero beste, ta kale baserridxe. Bai, kalien dauna, ba baserridxe, ganadu bouko, ba ganadu baserridxena dan les, kale baserridxe. || -Su kaletarra sara? -Ni kale baserriku nas. □ **kale ein.** Faltar, no venir uno cuando se le esperaba, amagar, echarse atrás. Ik. *atzera ein, uketu. || Juteko ixen da, da jun es: kale ein. || Etorteko esperantzan egon da, baya etorri es: "-Arek kale ein deu". || Jokue ipiñi, da kale ein. □ **kale gorridxe.** Miseria, pobreza, necesidad extrema. || *Kale gorrire jun dok a be, biarrik es esebes! || Kaliñ esta jenerorik artzen. Kale gorridxe dau, kale gorridxe! □ **kalera bota.** Despedir. □ **kali betin. 1.** Siempre en la calle, de calle en calle. || *Ori beti dau kali betin. || Beti sabis su kali betin! 2. Ocupando toda la calle. || Kali betin: bai, albalboka badabil, kalin doyela, "Kali betin dxoik ori", moskorras.*****

**kalentura, kalenturie, kallenturie.** (KALENTURA, sukar) Fiebre. || *Desosigue da, esate baterako, kalentura aundidxe daunin, edo ba artekau gorputze*

*dauenien, ba "Sosigu barik dau", "Desosigu dau"-edo bai esaten da. || Kalenturi deko. || Da asto naparredixe da jeneral nausidxe parik, umik eukitten dabena, jeneral urtete tze umiri, da bai egun bi, edo iru danak onak estittue pasetan, se kalenturatxu be igul eukitten dabe, beste batzu pe estabe eukitten. || Se betenaidxuk esate tzu "Eusnarra eitten deu?". Da ordun e ba "Estot ikusi ba". "Se eske kallenturi ero ori deko ta". Gero erremedidxuk emon tzos.*

**kaleratu.** (KALERATU) Salir a la calle. || *Kaleratu esaten da kalera-edo jun biarra euki eskero.*

**kalero, kalerue.** (KALERO) Calero hecho con carbón. Ik. *karabidxe. ota karabidxe. Nabarnizen karabidxe eta kalerue bereizten dira. Karabidxen, antzinako usadioari jarraiki, otearekin egiten da karea. Kaleruen ikatza erabiltzen da, eta sistema berriagoa da. Kaleru arrastoak daude Lekerikako Ardantza ondoan, Telleridxen, Arrolagoiko ondoan, Loittidxan, Airon eta Berroidxan. || Baten bayo sarridxeu ein dot nik kari kaleruetan. Sulo bat eitten da lelengo, sulo aundidxe, lusie, esta?; da gero botaten da kapie egurre, gero osta be arritxue, arridxe, kari eitteko, gero osta be beste kapa egurre, osta be beste kapa bat arridxe botate dxakon. Da aspittik eukitte ban atakie, olan, pali sartzeko, esta?, da a eindakun, andik aspittik atarate dxako karie. || Kalerue: aspittik atara, karie eiñikue, da egurre da arridxe bota, ostabe andik ordu bi edo senbat denpora dan, ostabe aspittik atara eiñikue, da aren berutz juten dire eitten. || Karabidxek garra bideu, baya kaleruek brasie bideu. || Karabidxe ixeten da otias, da egurras eitte sana len. Ta kalerue da, ba, ultimamente guk ein duna, arriketaz. || Kaleru txikidxe da. Kaleru da oixe posti lako bi-iru bueltan, sera, bokie. Da areri bota biar ixate dxakon egunaro egurre ta orretarik, egurre ta geusie. Baya karabidxe baten kargaute, arik eta dana eiñ arte, sue! Beti atakatik. Dosena-amabost egun-de erreten, gau te egun. || Kalerue Loittidxan be bai. A len egon san ba an beyen ori eskonbrerie. Antxe euen bat famosue. Da kaleruek eitte siren. Kalerue Telleridxen be badau. || Da beste bat egon san, kalerue, or Berroidxa esate dxakon lekuen. An aldatzin gora. An arridxeekin-de einde badau sera. || Bueno, oiñ esi leike ein kalerurik egurrik estaulako. Da tiru botaten da jornalekin, erositte merkiau asko be. Orrek e... geusie gora jun danin, imposible di orrek. Suk gixona orduko mille peseta pagetan basoyes, da an arridxe ataraten basaus tiruek eta abar, au te ori-tte arek egurrek ipintten-da urteten tzu... Da alan itxi sin, alan itxi ban jentiek. Kostue, da bier gogorra. Da oiñ e, oin badakixu, oiñ estau, oiñ estau fundamenturik. Oiñ estau artori pe, nabori pes, indixabari pes. Oin jentik erresenena emon deu. Fabrikara jun, kotxien da jornala irebasi ederra, da piñu sartu.*

**kaletar, kaletarra.** (KALETAR) Habitante del pueblo o de la ciudad, en oposición al *baserritarra. || Orrek kaletarrak dire, orrek estauke biarrik.*

**kallo, kallue.** Callo. || *Kallue iguel eittosu atxurras-  
edo ibiltte. Kallue da, gogortu eitten da kallue. Da  
pusli ein de batera eitten dana, puslik urteten deu.  
Pusli guk arixi esate tzeu.* || *Kallue ataraten da  
biarregas.*

**kalmu.** Amainar el tiempo. Ik. *eusittu.* || *Bai, guk  
esateu... Jeneralien esateu "Kalmu ein dxok", baya  
beste batzuk suk esan dosuna, "Eusittu ein dxok". Ya  
epeletara, otzetik epelaure.*

**kalte, kaltie.** (KALTE) Daño, perjuicio. Ik. *mesedie.* ||  
*Nai kalterako nai mesederako, bidxetarako ixa lei.* ||  
*Da one bestiok, katamixarra, basakatue, da one pa es  
sin jatekuk. Bronkuek. Orrek siren atrapau tranpan,  
da afesiñau ixate sanak eitte ittuen etzerik etze ibili,  
eskien. Orrek kalte eundidxek eitte bese les, ardidxen  
da olluen da orrek, txitxan-da. Orrek txitxe erute ben.  
Da ordun ibiltte siren eskien. Bakixu arek etzerik etze.  
|| Onien, onien arregleu eskero, asko be obeto  
urtengo leuskidxu geusi, baya dana eurentzako gure  
one pe! Da estai, orrek gerrik beintzet oiñ arte  
danentzako kalti ekarri deu. □ **kalte ein.** Dañar. Ik.  
*ixurrau.* || *Onik estein (ez deuste egin), kalte eiste  
(egin deuste).* || *Erroidxek kalte eitte dabe, kalte  
baserridxen.* || *Matxixaltuk Australian kalte itzelak  
eitte itue, etorten dire bandak.* || *Kalte ein tzo.* ||  
*Beidxeri be kalte eitte batzo seosek, pustu eitten da.* ||  
*Orrek (txomin bedarrak) uden urteten deu. Da kalte  
eitte tzo ixen bi dabenari, ixen bi daben geuseri, nai  
indarrari, nai arturi, nai edoseri.* || *Gorriñe da geixo  
bat, etorte dxakona. Indarrari be etorte dxako. Arturi  
be etorte dxako. Arturi ainbeste kalte estetze eitten.  
Indarrari gorriñek naiku kalte eitte tzo. Patatiri be bai.  
|| Laguneri etxako esaten, baya ba jaten dabenak kalte  
ein batzo, ba tripalak, edo seoser.* || *Axe jagidxe? Bai,  
axe eundidxe dabillenien axe jagidxe oten da. Axi  
bateri bestera kalte be eitteko moduku oten da axe  
jagidxe.* || *Sator sulu bai, bakit ser dan! Bai, kalte  
eitten deu, se asko egon es arren, ba ataraten daben  
lurre... moltzuek, emen pillo bat, an pillo bat or pillo  
bat eta arek e kalte eitten deu, arek e bedarra ixeteko,  
nai edosetan eitten deu kalte. Segaittik? Ba hurrek  
atarate itzulako gora-goraka eta bertan on dan geusiri  
estetzolako isten asten.* || *Onek e basun piñu botaten-  
da ibiltte giñenien, usete gendusen sididxek. Igul,  
piñuek, igul piñu pe kaidi eukitten deu ba bera edo  
gora. Da igul e, estosu gure bera juterik. Edo  
alanbrie, edo kalti eingo deu te ona gurosu bota edo  
ara. Ordun sartze dxakos e... Ara gure bosu, emendik.  
Da a joteku be porri da. □ **kalte eittailie.** Perjudicial,  
malhechor. || *Ori personie da kalte eittailie. □ **kaltien  
alderako.** En compensación de los daños.***

**kaltegarri, kaltegarrixe.** (KALTEGARRI)  
Perjudicial, dañoso. || *Kaltegarrixe dok ori.* || *Egurre  
gitxi da arrixke asko, noberan kaltegarri da. Gero  
ganie erreko dxako baya barru etxako erreten. Frakasu  
deko.*

**kaltzada, kaltzadie.** (KALTZADA, *galtzada-bat.*)  
Calzada, empedrado. || *Kaltzadi da bide bat, arrix  
einde dauna. Nabarrixen be, bai, lengo bide sarretan  
badau ondiñokogarren. Oin kamiñuk daus, eta asko  
eskara ibiltten bide sarretatik.* || *Kaltzadan naiku arri  
dau, arrixkekiñ orniduneku da.* || *Andik bidetik, esate  
baterako, oiñ esta iñor ibiltten, da ba, kaltzadie, bide  
kaltzadi da || Kaltzadi arrix eiñeko bidi da. || Kaltzadi  
dau.*

**kaltzau.** Introducir una cuña entre dos cosas. ||  
*Kaltzeti da..., bai burdidxeri-edo, seoser, ipinttie ixeten  
da.*

**kaltzerdi, kaltzerdidxe.** (KALTZERDI, *galtzerdi-  
bat.*) Media. Emakumezkoek *kaltzerdidxek* jantzen  
dituzte, gizonezkoek *kaltzerdidxek* nahiz *txapiñek.* ||  
*Kaltzerdi lanaskuek.* || *Kaltzerdi utzik.* ||  
*Kaltzerdidxek jantzi.* || *Bueno, orrek gixoneskuk ibiltte  
dosuesenari geidxau esate dxake kaltzetiñek. Da  
kaltzerdidxek dire onixek, gorau etorten diñak.* || *Goru  
san, da emengo amumak gorutan ein, da aridxe eitte  
ban, a kaltzerdi-txapiñak eitteko. □ **kaltzerdi  
gorakuek.** Calcetines hasta la rodilla que usan las  
mujeres. || *Kaltzerdi gorakuek: enbrak onaiño, gora,  
belaunerarte ibiltze ben, da areri gorako  
kaltzerdidxek. Da guk gixoneskuok laburrek.**

**kaltzetin, kaltzetiñe.** Calcetin. Ik. *kaltzerdidxe.* ||  
*Bueno, orrek gixoneskuk ibiltte dosuesenari geidxau  
esate dxake kaltzetiñek.*

**kaltzotorratz, kaltzorrata, kaltzetorrata.**  
(KALTZORRATZ, *galtzorrotz-bat.*) Aguja de hacer  
punto, de media. || *Kaltzotorratzak: kaltzerdidxek  
eitteko orratzak.*

**kaltzue.** Cuña para hacer espacio entre dos cosas. ||  
*Kaltzue ipiñi anka laburrien.* || *Kaltzu diferenti da,  
kaltzu da atzerantz, da eurrerantz jun esteidxen. Baya  
altzagarridxe da nibel erripin bada, oneri sartu eitzesu  
apurtxu bet, amen begittu: "Ipiñi dok altzagarridxe? Au  
emendikue altzau ein bi dxakok-eta. Altzagarridxe gora  
eitteko da. || Kaltzu ein biko dxako. || Kaltzue da  
sartzen dan takue. || Egurtxu, sospal bat-edo, egurtxu  
bat-edo sartze dxako: kaltzue. || Kaltzue burdidxeri be  
eitte dxako.*

**kaltzutzik.** (KALTZUTSIK, *galtzutzik-bat.*)  
Descalzo. Ik. *oiñutzik, ortosik.*

**kama, kamie.** Base del carro. Ik. *burkanie.* ||  
*Burdidxen erreillen ganin deuna kamie da.*

**kamañe, kamañie, kamiñie.** (KAMAINA) Lecho de  
hojas o de paja, camastro de carboneros. || *Kamiñan  
egon nitzen.* || *Emen kamañie esta usteian, baya ba, len  
iketza, geurin be eitte ban, neure gixonak eitte ban, da  
ni pe laguntze netzon, da ba, arek lo be basun eitte ben  
ikesgiñek, ba antxe ipintien dan oltxuri kamañe: "Emen  
ipiñiko tzut oltxu bat, edo kamañetxu bat". Idie badau  
basun, ide siku bedarra, idi ipiñi aspidxen, da ba  
ganetik e bei manti-edo botate dxakon, da beste manta  
sar bat, edo bi badas, arixekin tapau, da ba olantxik.*

**kamara, kamarie.** (KAMARA, ganbara) 1. Desván. Zaharrek goiburue esaten zioten. *Ganbarie* ere entzun dut inoiz. || *Kamarie gorengo plantie da.* || *Amen esaten da...*, *amen, lengo berbie, ta oingo umiek axe be estakidxe, emen kamariri esate dxako, beti esan dxako goiburue. Da oin ba kamarie esaten dabe.* 2. Cabeza, sentido común. || “*Kamarie ibilli bi da ondo*” esaten da sur ibiltzeko.

**kamarote, kamarotie.** Camarote. || *Amen guk esateu goiburue. Kamari be esaten da, kamaroti be esaten da. Da guk guk goiburu ibiltteu.*

**kamiñeru, kamiñerue.** (KAMINERO) Caminero, obrero destinado a la conservación de los caminos. || *Emendixik eta Uerkararte euki ban Nabarrisko kamiñeruk.* || *Nire tio egon san kamiñeru.* || *Kamiñeruk kamiñuk arreglau eitte ittuen, eskiñetako bedartxuk ebai, de urek juteko sangatxuk ein, garbittu kamiñuk.*

**kamiñerutze, kamiñerutzie.** (KAMINEROTZA) Oficio de caminero.

**kamiñu, kamiñue.** (KAMINO, kamio-bat.) Camino. Lehengo bide zaharrei *bidie* esaten zaie, berriei, asfaltatuei, ostera, *kamiñue.* || *Kamiñu kurutzie.* || *Kamiñue garbittu.* || *Kamiñuek dire kotziek-eta dabixenak, ostantzin, propidxue da lengo bidie. Onek bestiek esaten dxakue eskabadoriek-eta eindeku ori, ba pistak.* || *Oin kamiñuk daus, eta esta asko ibiltten bide sarretatik.* || *Ikusten dosus arek, kamiñutik datosenak?* || *Trangus beterik dau kamiñue.* || *Oiñ etzera bidi ba kamiñotxu einde dekeu, te beste asko pe alan deke, da mendire bidin ba estau kamiñorik, espabese ba arrisko bidik, eta ba basasko bidik dire.* || *Au lelangos jun san baso bidiean, arik eta Gostidxara arte estau kamiñurik eta.* || *Intxorra, segidu aurrera ta kamiñun goitti dau. Da beste ba tau a bayo arintxuau, kamiñun betik, A Sabalintxorta, Sabalintxaurreta.* □ **kamiño basterra.** Margen del camino.

**kamiiodun, kamiiodune.** (KAMIOIDUN) Camionero. *Kamiiodune nahiz kamionerue* esaten da.

**kamioikada, kamioikadie.** (KAMIOIKADA) (Contenido de) un camión. || *Kamioikada egurre ekarri dabe.*

**kamionero, kamionerue.** Camionero. *Kamiiodune nahiz kamionerue* esaten da.

**kamixe, kamixie.** (KAMISA) Antigua camisa interior que llevaban las mujeres. || *Kamixi da aspirengo ibiltten dan erropa bat, da len kamixie ibiltte san aspirengo, ba ixate san suri-tte, da ixate san...*, *selaku esangot?*, *aridxe eitte san, neuk enaben ikesi, neure ama pe eitte ban, da emeng-ama pe eitte ban, da ardidxen ulias eitte san aridxe, da aras aridxas eitte san telie, da gero telias ebaitte san, ixera pe eitte sirin, da kamixa pe bai, da arkondara suridxe pe bai gixonentzako, da ba olantxik eitte sirin.* || *Ori kamixie andraskuk jaste ben. Gixoneskuk arkondarak-edo,*

*barrukuek jaste sittuen. Askotan arkondarak e barruku barik bai, gixoneskuk makiñe bat bider ibilliko sirin.*

**kana, kanie.** (KANA) 1. Cana, medida longitudinal. || *Kanie, medidie, metruue bayo satitxu bat gitxiau da.* 2. Cierta variedad de manzana. || *Kanie sagar klasie da, sagar bat goixetikue.* || *Goixetikuk ya beiñ agusture eskeruen eoten dire jateko moduen, agustu, ireille, urridxen, ya semendidxen, ba semendidxen be batzuk eukiko itue, baya kanak berandukuk dire.* 3. Canilla de la pierna.

**kanal, kanala.** (KANAL) 1. Canalón que baja del tejado. Ik. *odidxe.* || *Oiñ etzik e danak eukitten dabe ori kanala. ba len bate pe es euken ori kanalik. Aintxiñe tellatik bertatik jeusten san dana ittesurie.* 2. Canal radial de las piedras de los molinos. || *Kanalak? Arnasi artu deidxen. Kanal barik itto eitte san. Arridxe berotu eitte san, da gero orie, masie eitte san.* || *Bufardie? Orrek kanalak atateko ta gero pikau bixate san, da piketako, arridxe.*

**kanbidxeu, kanbidxe, kanbidxo, kanbidxetan.** (KANBIAU, kanbiatu-bat.) Cambiar. Ik. *aldatu.* || *Biximodue kanbidxeu deu beste erri batera.* || *Au kanbidxosue ara.* || *Denporiek kanbidxo ein bi deu.* || *Beti kanbidxetan dabil.* || *Igul burdi bi-edo usete sin len. Bat usete san satzetako, kajias. Da besti usete san e asparritteko. Idie. Idie bakixu ser dan suk. Idetakota. Da gero ein biste san kanbidxau. A satzetakue iste sendun kortan edo tejamanan, da inkete sentzon beste.*

**kanbidxu, kanbidxue.** (KANBIO) Cambio. || *Denporak kanbidxue dakar.* || *Beti kanbidxun dxabik.* || *Arreskero kanbidxu bakue da ori.* □ **egun kanbidxukue.** Día variable.

**kandela, kandelie.** (KANDELA) Vela, candela. || *Kandela argidxe.* || *Kandeli bistu.* || *Sepulturetan kandelak ibiltte sin. Da oin be bai.* || *Da a ixeten da barridxe suri-suridxe da. A da ikusgarridxe! Da gero baltzittu eitten da. Abaidxe esate dxako arexeri. Elixako onek kandelak-eta eitteko-ta.* □ **kandela negarra.** Lágrima de la vela. || *Kandela negarra, an daridxola dana.* || *Kandelan negar anpulue.*

**kandelaridxo, kandelaidxu.** (KANDELERIO, kanderailu) Fiesta de la Candelaria (2 de febrero). || *Kandelaridxegune? Estai pasaute badau be. Kandelaidxu, kandelak erute gendusen guk elixara, mesetara, Ba nik estaitt e baya bai pasaute dau. Urtarrille, seseille, ba seseilliñ-edo, olan kandelaridxegune ixete san, da emen jaidxe eitte san. Jai osu bes, baya ba jaidxerdidxe-edo, jaidxe. Da jenti elixara jute san kandelakin. Ba mesetako denporan ba kandelakin jute giñen.*

**kandelero, kandeleroe.** (KANDELERO) Candelero. || *Kandelero: plataformatxue beye, sosteniteko, da gora kandelie eukitteko lekue. Orrek oin, jolin, afan aundikuk dire! Egon be-estau oin. Elixan len egote sin, da iltte saniñ alakoxe bat ipiñi.*



**kandeloi, kandeloye.** (KANDELOI) 1. Carámbano de hielu. || *Kandeloyek tellatutan dingiliske egote sirin.*  
2. Estalactita.

**kanela, kanelie.** (KANELA) Canela. || *Da onenbeste esneri onenbeste arros botate dxako, asukeri be botate dxako, kanelie be bai.* □ **kanela madaridxe.** Variedad de pena. || *Kanela madaridxe bertoku da.* || *Kanela madaridxe da ba, aiñ eundidxe be esta, txikidxe be esta, trokotxu ixeten da, ba dultze-dultzi da, kanela madaridxe, ta kolori be apur bet kanela antzeku-edo, onakoxe antzeku eukitten deu, alderdi bateti bayo espada be.*

**kangrejo, kangrejue.** Cangrejo. || *Errekako kangrejue.* || *Kangreju pe badaus, baneka, baya oiñ atrapetarik estau.* □ **Lehengo kangrejuk** galdu egin ziren, baina orain erreketan sartu direnei *botatakuk* esaten zaie. □ **kangreju lekue.** Zona abundante en cangrejos. || *Kangreju leku ixen san! Obarik es munduen! Biberu lakoxi! Da asko, kangrejuk, eta onak!*

**kankallu, kankallue.** (KANKAILU) Grandazo, -a, desmañado, -a. Ik. *gangille.* || *Kankallu: eundidxe, da anka aundidxeekin da kankallu.* || *Kankallu alakue!* || *Ori da kankallue!* || *Ori kankalluori!* || *Ankak eundidxe eta: "Kankallue ori be!"* □ *Gangille eta kankallu bat ote ziren galdetu nion berri-emaile bati eta honela erantzun zidan:* || *Bai, kontixu, bat dire, gangille, da kankallu ba eundidxeri esate dxako, normala bayo aundidxau danari, estaipa nik. Da gangille be ba antzeku da.*

**kankan, kankana.** 1. || *Kankana esate dxako geuse bat, almidoyas plantxetan dana, astin-astin gelditzen da.* || *Almidoyas plantxetan dan tranba bat, edo prenda bat, almidoye gelditzen da astin. Esate baterako, umiñ arropa pe plantxetan dire apur bategas, astiñau egon deidxen.* || *Kankana: ori ote san gona bat, aspittik jasteku ta, plantxeta ben, uretan busti, da almido frankuas, da astiñ-astin planteta san.* 2. Grandazo, -a, desmañado, -a. || *Aundidxe danari "Kankan alakue!" esate dxako.*

**kankarro, kankarrue.** (KANKARRO) Recipiente. || *Kankarro bat ure ekarrixu!*

**kanpa, kanpai, kanpaye.** (KANPAI) 1. Campana. Ik. *txiliñe, txikilimañie.* || *Torreko kanpaye.* || *Kanpai txikidxe.* || *Su kanpaye.* || *Oin jo be esta eitten kanparik.* || *Mesetarako kanpayek jo ittus.* || *Aremaittekue kanpayas joten da.* || *Kanpai jo tanga-tanga.* || *Aramaittekue illunkeran jote ben da bederatzi kanpaye dire da goixien albakue, sei kanpa.* || *Kanpaye eguen santus, kanpaye geldittu eitten da, baridxe ku santus estau kanparik. Da joten dabe tarratarran olan, karraki lako geuse bat traka-traka-traka erain, de aixe esate dxakon matrakie.* || *Da ori aingeru basan, kanpa nausirik etzen joten, txingilimaña payo.* || *Aste Santun-de jote san karrakie. Kanpayak jo biarrin, karrakie jote san Bariku Santun da olan.* 2. Campana (instrumento, objeto con forma de campana).

|| *Tximidxen kanpaye.* □ **kanpa saratie.** Sonido de la campana. □ **kanpa otza.** Sonido de la campana. || *Kanpa otzak dire.* □ **aingeru kanpaye.** Toque de campana que anuncia la muerte de un niño. □ **il kanpaye.** Campanas que tocan a muerto. || *Baten bat il da, il kanpaye joten dau te.* □ **sei kanpa.** Seis campanadas que llaman a misa. Hauen ondoren *altarakuk joten dira.* || *Len jote san, oin ba abade gitxitte dau te, oin ba kanta asko estabe joten, baya len jote san, ariñau sei kanpak. Sei kanpa esate dxakon. Gero mesie, sartu bi dabenin, jote sirin -oin be joten dire- iru kanpak, altarakuk esate dxake orreri.* □ **su kanpaye.** Campanadas que alertan de la presencia del fuego.

**kanpasantu, kanpasantue, kanpesantue.** (KANPOSANTU, hilerrri) Cementerio. || *Kanpesantu sarra eta barridxe.* || *Kanpasantue elixeri deutzela egon san.* || *Da gero neure denporan ein san beste kanposantu ori. Da elixan tellatuas tapauneko lekue egon san elixien albotxuen, bertan elixiri segidxen egon san, da a kendu ei ben, da kanpun ei ben.* || *Kanpasantue egon san..., bueno neuk ostostan esautu naben neu eskolara asi netzenin, kanpasantu sarra esate tzen, a len dotreiñi antxe ikesten gendun gero ba, da dotreiñi ikesteko leku ei ben an, da altzeu ei ben dana, ta ango asurrek eta danak atara sittuen.* || *Ume bat bautixau barik ill eskeruen, kanpasantun egoten da lekue, da araxe eruten da.* || *Gorpu altzau: iltten danin personie, ba kanpasantun sartu, de kanpasanture eruten dabe. Emen lelengo elixara eruten da, elixaku eitte dxako, da gero kanpasanture erun, da gero sulun sartzen da.*

**kanpaso, kanpasue.** (KANPAZO) Capazo, espuerta de esparto. Sin. *sestokapelie.* || *Kanpasue: aintxiñe sestuk einde, sumetzakiñ es, galtz modukukin, errekaduk eitteko.* || *Sestuek, otzarak eta kopaletak sumetzakiñ eitten dire; kanpasuek geuse bigunas, galtzu modukuas.* || *Guk len sestokapelie esate gentzon, da oingo umiek estetze esaten kanpasu bayo, da oiñ ibili be esta eitten kanpasori pe.*

**kanpasukada, kanpasukadie.** (KANPAZOKADA) Carga de un capazo. || *Kanpasukadak ekarri.*

**kanpatxu, kanpatxue.** (KANPAITXU, kanpaitxobat.) Campanilla.

**kanpo, kanpue.** (KANPO) 1. Fuera. || *Kanpora.* || *Edurek nabartu deu kanpue.* || *Asi da kanpue jasten, asi da kanpue alegreten.* || *Ori kanputara jun dok.* || *Kanpotik etorriñiku da.* || *Estakit nun daun, ia kanpun badau.* || *Laidxetan geuk kanpoko jenterik eskendun iños ekarten, etzekukin konpontze giñin, baya batzuk e kanpoko jenti be erute ben.* 2. || *'Kanpu nabartu' da ebaitten istie, dana suri barik, apur bet surittu. Da esaten da "Nabartu ein deu". Da nabarra ixate da les suridxe, da baltza, ba kanpu erdi egote dan les, ori illune, ba nabarra esate dxako areri be.* || *Euridxe ein bierrixena dau. Euri apur bet ingo baleu, kanpuk presketako-edo!* || *Kanpu premiñan dau, te euridxe*

*ingo baleu!* || *Eurtie? Eurre plasta-plasta goitti bera eur eitten dabeniñ eurti axe da, da kanpu surittu.* □ **kanpo artue.** Maíz que se traía de almacén. || *Kanpo artu bai. Ori almasenatik ekarte san artue, berton artzen sana barik almasenatik ekarte san. Pentzureko.* □ **kanpo-ederra.** Persona afable con forasteros o extraños. Ik. *eusoederra.* || *"Kanpo-ederra ta etziñ akulari" da esakunie. Da ba kanpos ederra, geusa pe ondo, da ba etziñ akulari e, etzin jenidxo txarras.* □ **-tik kanporakue.** De fuera de, no originario de. || *Erbestekue da errittik kanporakue; estranjeru da Españatik kanporakue.*

**kanpokalde, kanpokaldie.** (KANPOKO ALDE) Exterior, parte exterior. || *Kanpokaldie: esat baterako, atetik kanpora juten danién: "Kanpokaldin dau".* || *Kanpokaldera jun da.*

**kanpokalderengo, kanpokalderengue.** (KANPOKO ALDERENGO) El situado más al exterior.

**kanpoko, kanpokue.** (KANPOKO) Extraño, -a, extranjero, -a, forastero, -a. || *Orrek kanpokuk dire.*

**kanpotar, kanpotarra.** (KANPOTAR, arrotz) Forastero, -a. || *Orrek kanpotarrak dire.*

**kanpotorre, kanpotorrie.** (KANPANDORRE) Campanario. || *Da onek bestik ibiltten dire elixara bueltatan, kanpotorrera. Elixé txoridxe esate tzeu guk, elixin bueltan ibiltten dire orrek, kanpotorretan, da ortan.*

**kanta, kantie.** (KANTA) Canción, canto. || *Orrek kantarik esteu gure.* □ **kanta papela.** Hoja suelta que contiene versos. || *Kanta papelak: bertzuek-eta atarate tzesan asarratzen sirinin.* □ **gabon kantie.** Villancicos. || *Gabon kantie, gabonetan kantetan dan kanti da ori.*

**kantari, kantaridxe.** (KANTARI) Cantarín, cantor. || *Da artetxoridxe da ba, jilgerun moduko kantaridxe be-esta, baya ba ser esangot neuk?, etze ondutan-da asko ibiltten dan txoridxe ixeten da.*

**kantarille, kantarillie.** Alcantarilla.

**kantau, kantetan.** (KANTAU, kantatu-bat.) Cantar. || *Erreminttan mesie emote san, da atzera bardin kantetan elixera, da amaittu.* || *Enerak emen ibilli dosak kantetan.* || *Txoridxe kantetan dau.* || *Marti sosu entzu su kantetan? Estosu entzu e! Marti sosu sati entzu ot nik ointxe amabost-edo.*

**kantera, kanterie.** (KANTERA) Cantera. Ik. *miñie.* || *Lamiñak kantera suluetan egote siren, kobatan, aintxiñeko persona klasie, personan antzekuek.* || *Baten batek ekarri biko eban beidxe kiñ Ereñoko kanteratik.* || *Dana arridxe, dana kanterie da!* || *Loittidxaku arri ona, esate ben, Loittidxako kanterakue arri ona sala kari eitteko be... Dana apurtzen be bastante, sera, arpi askokue ta erresa, erresau leku askotakue bayo, erresau.* || *Arrastilli? Kari atateko guk au usete gendun. A olan txapa sabaltxue die, sei ortz*

*eukitte ittu, da aren bittartien arridxe, kanterako arridxe be jotén diñin pilletako-ta arrastilli.*

**kantin, kantiñe.** (KANTIN) Cántaro (de leche). || *Kantiñetik daridxola daroik.* || *Ondiño esta denpora asko, ondiño iru urte edo lau urte arte kantiñe usete san.* || *Kantiñek-eta idxe akabo dire ba, ya orrek badois akabetan.* □ (Tanketerie Bermeon) || *Kantiñe: ori jeneral, guk alanik ibiltte giñen, esnie portziño txikidxen nonora, albora-edo, eusoko etzera erun biar bada, olakoxe kantintxue ibiltte gendun.*

**kantinplora, kantiñplorie.** (KANTINPLORA) Recipiente con una sola asa y que se utilizaba para llevar la leche, aceite o agua.

**kantiñera, kantiñerie.** Cantinela, cosa que se repite pesadamente. □ *Batek miseriak edo gaisotasunak beti ahotan erabiltzen ditueñan, honela esan ohi da: || Orrek betiko kantiñerie!*

**kantoi, kanto; kantoye.** (KANTOI) Cantón, ángulo. Ik. *ertza.* || *Kantori parik, biribil.* || *Lau kantoiko sulue.* || *Etzi pe kantoye eukitten deu.* || *Kantoye baouko, "Orreri txafлана atara idxok!" apur bet josteko.* □ **kantoi arridxe.** Piedra angular. □ **tella kantoye.** Teja que hace cantón. || *Tella kantoye? Telliri esango dxako tella kantoye, pentzetot nik kantoye eitten daben telliri.* || *Tella kantoye? Etzi tekón tellatun kantoye, axe.*

**kantu, kantue.** (KANTU) Canto. || *Elixa kantuk.* || *Txori kantue.*

**kantuke.** (KANTUKA) Sin. *kantetan, kanturriun.*

**kanturrada, kanturradie.** Canturreo. || *Da kantau te beti kanturradak. Erresaidxuk eukitte ittusen.*

**kanturriue.** Canturreo. || *Kanturriue: saparradie, da burrundadi-da...: "Arek dxak kanturriue!"*

**kantzaugarri, kantzaugarridxe.** Molesto, -a, pesado, -a. || *Kantzaugarridxe da.*

**kantzakixun, kantzakixune.** Cansancio. || *Selako kantzakixune dekot.* || *Buruko kantzakixune.* || *Gorputzeko kantzakixune.* || *Kantzakixune artu deu.* || *Arek kantzakixun galanta artuko ban, etorri Lekittotik arraiñes beterik, egunen bi, saldues-saldues, da mendi gustidxe pasauko eben ona erre etorteko.*

**kantzasiñoye.** Cansancio. || *Kantzasiñoye dekot.*

**kantzau, kantzeu, kantzaten, kantzetan, kantzeten.** Cansarse. Ik. *nekau, toton ein, uketu, ok ein, eten, lusetu.* || *Leku baten, bierrien arin kantzaten dana.* || *Kantzau nau.* || *Kantzeute doye.* || *Asko kantzau nas.* || *Sitz kantzau nau.* || *Kantzau total geratu da, uketu ein deu.* || *Kantzau total jota badau, "Total etenda dxak eta! Se ingo dxo pa!", akabaute, ittota, etenda.* || *Palanka jokue aintxiñe eitte san, oin jentik estau olan kantzau gure.* || *Narra be ibiltte san, baya narrari indar asko ein bi dxaken. Leku laburrin-de, narra be bai, baya leku lusiñ ibiltteko es, se ganaduk asko kantzeta sirin.* □ **kantza-kantza ein.** Extenuar (se). || *Ibiltaldi ederra ein dot, kantza-kantza einde*

nator. || Kantzau-kantzau einde nau. □ kantzau-kantzau ein. Agotar(se). Ik. neke-neke ein. || Kantzau-kantzau einde dau.

**kantzontzillue.** (KALTZONTZILO, galtzontzilo-bat.) Calzoncillo.

**kaña, kañie.** (KAINA) 1. Caña (de cerveza). || *Kaña bat ataraik!* 2. Caña, aguardiente de caña. || *Kañie da oingo koñaka les, garratza ixete san. Ori goixin goixetik jagitte siriñak-eta edate ben, atan be gixoneskuek.* 3. Caña de azucar. || *Jenti gitxi ganera bixi be, aretan. Se an len makiñarik egon es sa-les, jentie dana eskus ebei bier kañie.* 4. Tibia. || *Kaña asurre.*

**kañe.** (KAIN) Niebla. || *Kañe egon.* || *Geur biste laburre daket, geur kañe dak.* || *Sargoridxe dauenien, geidxau egoten da kañe.* || *Trumonada galanta jeusten bada, bidxamon goixiñ egoten da emendik Reinosarartekue bistan, kañerik esta egoten.* || *Geur bastante badau kañe.* || *Denporik kañe deko, estau argidxe.*

**kañeda, kañedie.** Hueso de la pierna de la vaca que guarda el tuétano. || *Bai, asurre artzen da. Da asurre batzuk e kañedi gure ixeten dabe, ta beste batzuk e ba kañedi barik e ostantzekuau. Se esangot neuk? Kañedi ixeten da ba asur txikidxe bayo eundixauri esate tzeu, kañedie. Da eukitten deu barruen, arek eukitten deu asurrek barruen une, da une bakixu ser dan? Ba eukitten deu une. Da ba asurre ba karnaseridxara juten danin be igul “Une dekona ekarrixu!” edo “Une dekona estot gure ta ostantzeku ekarrixu!”.*

**kañeka, kañekie.** Canica. || *Potxike: potxitxu bat ein, da antxe potxidxen sartu kañekie, kañeki-edo, intxaur-edo, kañeki-edo.*

**kañekaka.** Jugando a canicas. || *Kañekaka dabis.*

**kañera, kañerie.** Tibia. Intxaurraga baserriko berriemailearen arabera, *kañerie* baino gehiago *berna asurre* esaten da. || *Bernako kañerie.* || *Kañerie asur ba pe bada, asurre, da kañeri esate dxako.* || *Kañerie astildu dxakok.*

**kañobera, kañoberie.** (KANABERA) Caña. || *Txilibitue kañoberias len eitte ben antxiñe berton. A kañoberakiñ an suluk einde. Txilibitu esate tze areri be.* || *An aldatza daun lekun bertan dau ba. Bai, an naiku, ainbeste sepa dekona. An dau kañoberie elegantie. Da emen bestela esta... Orrek ona tie bañantzako ta indarrantzako ta sartzeko.* || *An peska sasoin libre dauniñ e are danak beti egoten dire egalak euren kañoberakin.*

**kaño, kañoie.** (KANOI) Cañón. || *Kañoiek amen berton on siñ ara tirezeko. Akordan. Akorda bakixu. An e badau erreminttie? Antxe atzetxun egon sin kañoiek jaurtite besan Sollubera tiruk. Nabarrixen es, es san egon kañoirik.*

**kaño naso, kaño nasue.** Cañónazo.

**kañu, kañue.** (KAINU, kainozulo-bat.) 1. Caño. || *Sanji da kañu bet.* 2. Sumidero, escape de la cuadra. || *Garnue juteko kañue.* 3. Caño del calero. || *An sulu egote san. Da ak kañu eukitte ban aspittik, arena, aixi artzeko. Aixi. A tapau gero.* || *Aixi artzeko tunela da kañue.*

**kapa, kapie.** (KAPA) 1. Capa, envoltura. || *Pastoriek ebate tzon ardidxeri kapie.* || *Baten bayo sarridxeu ein dot nik kari kaleruetan. Sulo bat eitten da lelengo, sulo aundidxe, lusie, esta?; da gero botaten da kapie egurre, gero osta be arritxue, arridxe, kari eitteko, gero osta be beste kapa egurre, osta be beste kapa bat arridxe botate dxakon.* || *Metal ure esaun dekosu. Kobri lakoxie, kobrie, urre, kapie dana, bera pasetan dana, dana inkete tzos. Arridxeri be danak emote tzos, dana. Inkete tzo magrie. Neusidxe emote tzo! Da bera ona. Kendu ein bitzesu ba, kapi eukitten deu te, kapie lantxik.* 2. Capa, prenda que vestían antiguamente los hombres para ir a misa. || *Luto bankuek oin be badas. Oin lengo modun estire, baya len lutu dekona eurreko bankutan egote san lutue saintzen, gixoneskuek, da kapak jaste sittun. Oin kaparik ikusi be esta eitten, da oingo unik selakuk diriñ estabe jakingo.*

**kapadore, kapadorie.** Castrador. *Kapadorie nahiz kapatzaillie esaten da.* || *Oiñ estaitt kapadorerik egongo bada be.*

**kaparra, kaparrie.** (KAPAR) Garrapata muy pequeña. || *Kaparrak inkeute geratzen dire ankakin, bertan inkeute geratzen dire.* || *Kaparra: astuek eukitten daben sorridxe. Da txakurre pe bai. Akenak dire orrek. Batzuk esate tze kaparrak, eta beste batzuk esate tze akenak.* || *Oiñ akena be aintxiñeko modun estaules, eta kaparrari olan astuk-eta, saldidxek-eta dekenari, kasik kaparra geidxau esaten da.* || *Kaparrie: euli bat, ganaduri-tte denpora beru daunin-de errimeten dxakenak: kaparrari.* || *Kaparrie emen esate dxako, seinde ganaduk..., agertze dxake olan sorri moduko bat, da bat bayo geidxau be igul, da arixeri esate dxako “Gure beidxek edo txalak kaparrak tekos”.* || *Akena inkau eitten da. Da kaparra txikitxauu ixaten da, sapaltxauu.*

**kapas.** (KAPAZ) Capaz. Ik. geuse. || *Basara ala kapas ori eitteko?* || *Enas kapas etzetik urteteko.*

**kapasa, kapasie.** Capaza, capaceta, capa de hojas grandes que envuelven las mazorcas. Con los forros de la mazorca se hacían antiguamente los jergones o lastamarrak. || *Arto kapasak.* || *Kapasa bigunekin, ganeko arek gogorrek eta kendute, kapasa gosatzu eta bigunas beteten san koltxo asala.* || *Antxiñe-antxiñe artaburuen barruko a kapasa, mi-mi-meye, atunek arrapetako itxosuen, mariñeruek.* || *Kapasi esate gentzon ganekuri, artaburu ganekuri, da kendu, te axe artue sartze gendun laban, igertzeko.* || *Artaburue, artu asitte daunien, ya eldute daunien, artaburue, a bera, burue tapaute eukitten dabena, guk kapasi esate tzeu.* || *Or egon san oe eundi bat, eta mollarik estekona;*

*aspidxen olak- olak eukitte sittun, da ganin gero, lastamarra esate gentzon, kapasakin, artaburun ganeko asalas, lastamarra esate gentzon, da gero ganetik koltxoeye eukitte ban. Da umik lo eitteko-ta ortxe egote san.*

**kapatas, kapatasa.** Capataz. || *Da suen Esteban kapatas. Da onek Pako ta Andres-da sortzi peseta eguniñ irabasi. Da kapatasak peseta bi geidxau, amar. Kapatasak amar. Peseta biñ aldie.*

**kapatzaillie.** Castrador. Kapadorie nahiz kapatzaillie esaten da.

**kapau, kapetan. 1.** Castrar. || *Kapau ein bi de, ididxe ixeteko. || Saldi enterue? Ba saldidxe kapau bakue, da saldi enteru alakoxiri esate dxakon. || Kapatzaillie? Bai, oiñ e nok kapetan deu? 2.* Arruinar(se). Ik. lumetu. || *Diru dana gastaute, "A be kapaute itxi dxok".*

**kapau, kapaue.** Castrado. || *Ididxe da kapaue, ya kapau bakue esta ididxe.*

**kapela, kapelie.** (KAPELA) **1.** Sombrero. || *Kapeli da burun ibilttekie, kapela bat, kapeli esate dxakona. || Kapelie: burun jastekue. || Txotie? Bai, orreri egaberari be txotie, txotie esaten da onek burun dabixen kapelari be bai. Onek amen, e onek mutil onek emen e beti ibiltten deu, oin be erungo ban. Da txostie. Kapelie esate tze batzuk. Txoti da txikitxu ba. Da kapeli ba aundidxau ixeten da. 2.* Caperuza, cubierta de la punta o extremo de una cosa. || *Ongue jakingo su ser dan. A kapeli dekona. || Au kapelie egaberik eukitten deu, au txolotxue. || Txafiana: gorun ganetik ipintte san kapelatxue, sujetako lanie. 3.* Tejado. || *Kapeli? Ba tellaturi. || Etze kapeli tellatue da. 4.* Estructura exterior de la casa, formada por el tejado y sus paredes exteriores. || *Etze kapelie beres? Etzie, ormak, da tellatue. Da barrun dausenak ba barrukuek dire. Da kapelie kanpotik esaten da. || Aundidxe da etze kapelie! || Au etze kapelatxue! || Etze kapelak, orrek bakotxak onenbestekuk badekes. || Etze kapelie iñor bari dau. || Etze kapelie? Ba esate baterako, auxe etzie, osue, etze kapelie. Da ori etzie be etze kapelie. || Etze kapelie esate dxako etziri, etze bateri, baya etze kapela bi dire..., seinde apartamentu bi euki eskeruen, etze kapela bi dire. || Onenbeste etze dau, onenbeste kapela das.*

**kapelera, kapelerie.** (KAPELERA) Carga que se añade al cesto, carro o cualquier otro recipiente, una vez que se encuentre ya lleno, y sobrepasa, por lo tanto, su límite. Ik. *ganerakue, gorakue. || Kapelari da, esate baterako, otzarak. Otzari bakixu ser dan. Otzari bete arte, otzarakadi da, ta besti gero andik gora... baitte burdidxe, nai beste geusa bat gora eitten badxok, "Joder, kapelerias ipin dxok!". Gorakue, a sobrie. Kapelari esate dxako areri. Geuse askotan bardiñ antzin. Nai tte burdidxe ixen, nai tte narra ixen, nai tte ori ixen, da otzariri ba kapelerie, andik gorakuri. Da ori be, esate baterako, eitten bosu*

*sagarra be otzarias da gero gora... "Eske kapelerias on dok. Ganerakue dxekok". || Sididxe karga bedarrari esarte dxakon. Bedarres bete, da gero ba karga aundidxaue ekarteko, ba kapelari esate dxakon, bedarrak ipiñitte sididxe esarte dxakon, kapelari jeusi esteidxen. || Bueno, lotu be esta eitten. Ebeitten da, ebei da otzarie bete, da sobretan dan bedarragas inkau are pe, da olan tontorra inkau, da gero sartze dxako sididxe esate dxakon egur bat, punti sorrostute dekona. Goidxen arek egurrek e eukitten deu..., ser eukitten dabela esangot..., onako bat-edo eukitten deu, olan, makillie, da onako bat-edo eukitten deu ba kapelerie sujetetako. || Kapelari esate gentzon, a sididxe euste tzona. Bedarra ixete san. || Kapelerie: bedarrak, otzarie beteta, alan ganiñ ipintten dxakona muturretan, sartze dxakonin siridxe, jeusi esteidxen: kapelerie. || Kapelerie? Bai, bedar e asko ebeitte danin be, otzari ipintte dxakonin, gora, tontorra, siridxe sartute.*

**kapellau.** (KAPERAU) Capellán. || *Elixako kapellau.*

**kaperidxu, kaperidxue.** (KAPIRIO, gapirio-bat.) Cabrio, viga más delgada que la central llamada gallurreko agie que van desde ésta a las paredes de la casa. || *Kaperidxue da goidxagie te eitteko, atxa da onena, obrarako. || Kaperidxue onan doye, da au bestie, gallurren klasera doyena goidxagie. || Gallurreko agie esaten da nausidxe, araxe doyes orrek kaperidxuk. Da gero aren ganin latie, da latin ganien tellie. || Kaperidxuk? Orrek tire ba age txikidxauek, baya etziri ipintte dxakosan agiek, printzipalak. Erdi-erdiku da printzipala, goidxen, gorengo eukitten dabena, tellatun aspidxen. Da gero are payo txikidxauek ixengo dire baya eukitte ittu..., senbat age eukitte ittu? Alderdi bakotxiñ olantxik, nik estaitt kontau badi senbat eukitte ittun bein, astute deket. Alderdi bakotxetik eukiko ittu bat, bi, iru, lau edo bost trabeseko eukiko ittu agik, age nausidxe. Da gero beste age bat eukitten deu, olan trabes, erdi-erdixen, areri agiri eusteko trabes eukitten deu beste bat. Da andik erdiko agetik atzeko partera be, ba olantxik eurriñ eukitte ittun moduen atzeku pe ipintte tzes.*

**kapoye.** (KAPOI) Capón. || *Kapoyek: orrek ollaskuek edo gabonetarako aparte asten diñak. || Kapoyek egoten dires gabonetan, ollaskuk aundidxe, ollasku lakuk baya apropos aundidxe asten diriñak. Kapoyek gero plasan saldu eitte ittue.*

**kapritxue.** Capricho. || *Kapritxue euskerasko berbi ixen be esta. Kapritxue erderasko berbi ixengo dala pentzetot nik.*

**kapritxoso, kapritxosue.** Caprichoso.

**kara, kara.** (KARA) Superficie de alguna cosa. Ik. *arpeidxe. || Ori mallue da eundidxena. Burdiñesku burue. Seinde porri edo masi esate tze ba, igula baya*

*alderdi bidzek karak, sorrotzak, onen tamañoko sabalerakuk.*

**karabaka, karabakie.** (KARABAKA) Juego del escondite. || *Karabaka olgau.*

**karabi, karabidxe.** (KARABI, karobi-bat.) Horno de cal. *Karabidzek* orain 60 bat urte galdu ziren Nabarnizetik. Ik. *kalerue*. Nabarnizen *karabidxe* eta *kalerue* bereizten dira. *Karabidxen*, antzinako usadioari jarraiki, otearekin egiten da karea. *Kaleruen* ikatza erabiltzen da, eta sistema berriagoa da. || *Karabidxe otias eitten da; kalerue iketzas.* || *Otias aspixue, beti aspidxen sartun de sartun, garatu barik; a da karabidxe.* || *Karabidxe ixeten da otias, da egurras eitte sana len. Ta kalerue da, ba, ultimamente guk ein duna, arriketzas.* || *Kaleru txikidxe da. Kaleru da oixe posti lako bi-iru bueltan, sera, bokie. Da areri bota biar ixate dxakon egunaro egurre ta orretarik, egurre ta geusie. Baya karabidxe baten kargaute, arik eta dana eiñ arte, sue! Beti atakatik. Dosena-amabost egun-de erreten, gau te egun.* □ **karabidxe, karabidxie.** Amaia Olañeta eta Argiñe Urkiolaren *Txondorrak, Karobiak, Elurzuloak* liburuan aipatzen da Bergarako berriemaileei mugagabeen *karabi* nahia *karabixa* jaso zitzaizkiela, eta mugatuan ere *karabixa* nahiz *karabixia*. Nabarnizen ere *karabidxe-karabidxie* bikotea eman didate berriemaile batzuek. || *Montxorra be esaten da. Esate baterako, montxorra, len karie -neuk esautu naben etzin kari eitten-da-, karabidxie, karie, arridxe errete sanin, ba karabidxie amatau eitten da. Eitte san jan bat, akabeta sanien karabidxie, ba karabidxie errete san, da karie gelditzen da atarateko modun karabidxiatik, eta eitte ben ba aren askanin, ba aparidxe: montxorra.* || *Da ladrillu barik, troski bakixu ser dan, troski gogorra. Alakoxitan eitte ben jeneralin. Aintxiñeko karabidxa sarrak arexas einde egote sin bakarrik. Lurrin bakarrik... Lurras esi lei ein, se lurre umedu da, da errementa eingo leko. Da eskojidute euki san.* || *"Ño, o, or solun be txongu dxak. Or solun kari biok". Se karik kentze ban a. Kari bota soluri... Aintxiñe kari eitte dxuan ba Loittidxan. Loittidxa bakixu nun dauen? Antxe on san karabidxie. Beidxeikiñ ekarte gendun.* □ Isaac Urtubik, berriz, otea erabiltzen denari *ota karabidxe* esaten dio, eta ikatzarekin egiten denari *karabidxe*. □ **ota karabidxe.** Horno calero a base de argoma. || *Ota karabidxe oteyas eitte san len. Oiñ egurresku pe badaus. Guk egurreskue eitte gendun, baya ori da kalerue; da bestiri karabidxak, aintxiñe eundidzek, sabalak. Areri ein biste dxakue lelungotan arridxeekin kargie ipiñi, seinde laba bat eitti les, da arridxen an. Da gero betik sue ta sue ta sue ta sue, erre. Da bestik es: kalerue eitte dxako, emon sue, berotu, bota egurre, da ya beru-beru-beru einde daunin, egun baten berotzen euki, da gero eitte dxako egurre, mukurre, esate baterako, metro ta erdi-edo, bete a sulue; gero, arridxe ba meidie, ba iru-lau botzak arri, da pekatzen bada asko, ostabe, egurre ta arridxe; da erres, erres,*

*erres, betik atara. Da besti etxak ataraten, bestien ein bi deu, dana erre arte.* || *Ota karabidxak ixen siren arek eundidzek, sabalak.* || *Ota karabidxe pe, es ainbeste, baya luganetan einde. Oiñ ota karabidxa bajuau ixate sales, ak e, esate baterako, olako montor baten kontrara ein leidxen.* || *Amen berton bat ganera urran, Kurtzianetik e ona datorren e bidin. Oin be esa netzon semiri selan ota karabidxie an esautu naben suten.*

**karakol, karakola.** (KARAKOL, karakoil-bat.) Caracol (*Helix*). Ik. *marraskulue*. || *Karakol baltzak.* || *Karakol kunak.* || *Karakolan kaskarie.* || *Domekan jan bious karakolak.* || *Karakolak danak dire emik.* || *Bai, orrek karakolak dire, da beste batzuk dire oriskak, oridzek, arek suridxen klasekuk ixaten dire, ta arek karakolak, olako karakolari, ba orrek beste karakolak, arek karakol eundidzek edo, areri karakolari, ba aprobetxetakuk, edo ba lagunek jatekuk e, norberak jatekuk dire, baya orrek oridxok, eta orrek suridxok ba estire ya jatekuk, esaten dabe, ta ba orrek aprobetxau estire eitten, batu eitte us, jan esteixan indarrak, edo baiñak, edo ba, kalte eitten dabelako ortun.* || *"Karakolan denpori dau", edo bari-tte jakingo su ser diren, "Aren denpori da" ta ba. olakoxi (maskala).* □ **karakol suridxe.** Caracol blanco. Berriemaile baten arabera, honelakoei *jateko estan karakola* esaten zaie besterik gabe. || *Karakol suridxe da jate estana, areri emen, areri be karakola esate dxako, baya estaipa se ixen dekon arek esate dxako. Ba estire jaten arek, arek suridxe dekenak. Arek, amen be egoten dire aretarikuk; ba aretarikuk esti batzen jateko.* || *Karakol suridxe jateko esta. Guk estu jaten. Arek nabarrak. Da besti karakola illune da guk jateuna emen.*

**karatx, karatxa.** (KARATX, karaitz-bat.) Piedra caliza. *Karatxarridxe* eta *kare arridxe* ere esaten da. || *Karatxa da arri bet kari eitteku, karatxa.* || *Karatxeskue.* || *Karatxak ixen bi deu arri gogorra.* || *Karatxa da atxegidxe, arri utze.* || *Karatxa ixengo da ori, kari eitteko arridxe ixengo da ori.* || *Arrolan da ortan ari lurre dau, ta emen es. Emen goitti dau... au bustiñi esate tzeu, bustiñi lurre, bustiñe lurre. Karatxan lurre dau emen. Da an ari lurre esate tze Arrolakuri. Arrolakue, arridxe be ari arridxe da, gorriski.*

**karatxarri, karatxarridxe.** (KARATX-HARRI, karaitz-harri-bat.) Piedra caliza. *Karatxa* eta *kare arridxe* ere esaten da. || *Karatxarridxe daun lekun askos be geidxau urteten deu lengua de vacak.*

**karburo, karburue.** (KARBURO) Carbuero; lámpara de carburo. || *Karburo argidxe.* || *Karburu geu pe euki gendun makiña bat urtiñ arik eta argidxe ipiñi artin.* || *Karburu bai, karburu esautute dekot. Karburu da or karburu eitten dana, ipiñi ontzidxe urega, da arek emoten daben gasagas... bai, karburu bai.*

**kardo, kardue.** (KARDU) Cardo (*Cynara cardunculus*). Ik. txori kardue. || Kardue da bedar bat, asten da solun, da bedartzan be asten da, da a ixaten da ba beste bedarrak bayo aundidxaue, te altuau asten da. Da ba esate dxako arixeru kardu. || Karduk e ba se esangot neuk? Ba payo geidxau daus karduk. Latzak estiriña pe bai, kardu badaus solun urteten dabenak eta olan arantzarik estekena pe. ☐ Hona hemen kardue eta kardulatzak arteko desberdintasuna: || Kardulatzak arantzi eukitten deu asko. Da karduk esteu eukitten arantzarik. ☐ **kardu lorie.** Cardo rizado (*Carlina acaulis*). || Da a loratxue asten daben kardue eundidxe esta ixeten, txikitxu ixeten da. Bedar moduku ixeten da, ta bedar artiñ asko egoten da ori, lori ori, kardutxue, kardu txikidxe. ☐ **txori kardue.** Hierba cana, cardo enano (*Senecio vulgaris*). Unedek argitaratutako *Bergarako Euskera* liburuan definizio hau ematen da: "Beste karduak baino txikiagoa, eta ez hain latza. Lore asko ditu, txikiak eta horiak. Urte guztia dago loran eta txoriek gustora jaten dituzte. Sororako kaltegarria da." || Txori kardue: orrek kardo txikidzek dire. Lora oridxe eukitten dabe, da gero surittu eitten da, iltten diriñin. Txori kardue aixe esate dxako.

**kardulatz, kardulatz.** Cardo (*Cirsium* sp.). || Kardulatz da arantzak-arantzak dekosana. || Kardulatz txarra da. Arek arantzak dekos, da lorie, da sabaldu eitten da. || Bueno, kardulatz da kardue estire bardiñak. Kardulatz da..., alderdi bidxetatik..., olan alderdi bidxetatik kardulatzak eukitte ittu arantzak, arantzi eukitten deu. || Kardulatzak eukitten daben lorie ona esta ixeten, sabaltzen bada, asko urteten deu te.

**kare, karie.** (KARE) Cal. || Kare eutze. || Ixete san kostunbre arridxe erretie, kari eitteko. || Letxadie kariegas eiñekue da. || Kaleruek betik eukiten deu (sulue), andik aixie artzeko, da karie atarateko. || Len garidxe eraitte sanien, garidxe ondo erreten espada, usaten da emen karie, ekarri karie, da karie nastete dxakon eraitteko garidxeri, erain bi danari. || Txongu geixu da, ori kentze tzo karik. Soluri kari asko botaten badxako, txongorik estau. || Karias ori txongu kentzen da, erre lurre, da estau urteten. || Suritzeko kari ona, a ona ixate san. || Arridxe sartu goidxen, da karie otzittute beyen agertu. Eundidxe san, eundidxe. || Karias e surittu eitte sin bera sagar eperdidxe, kokorik eta eser sartu esteidxon. || Guk e urte bireko kari eitte gendun. Ein biarriñ urtaro, urte biri paten ein. ☐ **kare arridxe, kararridxe.** Piedra caliza. Karatxarridxe eta karatxa ere esaten da. || Solue karetu? Lur gogorra samurtzeko. Lurre erre, erre eitteko. Kare arridzek lurre erre eitten deu. ☐ **kare bixidxe.** Cal viva. || Kare bixidxe ixeten da barridxe daunien, solun ya bota bi danien, einda ya, a ixeten da kare bixidxe. || Kare bixidxe arridxen modun etorten da. Botaten dosu ure, da siiiissh eitten deu, des eitten da gero, ure botata. Orreri kare bixidxe esate tzeu. Lurrentzako-da

ixeten da ona. || Kare bixidxe ona da ortuaridxentzako. || Ba botate dxako karie, kare bixidxe, ekarten da, da botaten..., botate dxako garidxeri kare bixidxe, ta nastau-nastau-nastau eitten da kare bixitten, da botate dxako, olan apurtxu bet botate dxako, asko barik apurtxu bet, garidxe erreteko beste, garidzek ekarri esteidxen ludoye. || Karik espiritutu emote tzo lurreri. Erre eitten deu lur gogorrien-da, erre eitten deu dana. Karie... Kare bixidxe esate dxako, esta? Kare bixidxe ta kare ille daus. Da suk eruten dosu kare bixidxe, da euridxe eitten badeu apur bet, sue deko ak, errementeu, esplotau eitten deu. Blab! Emote tzo sue edoseri. || A kare bixidxe bota biosu soluen. Da ak eitten deu, lurrek dekon umedasiñoye -euri apurtxu bet ein lei esta?- ak eitten deu dana erreta itxi. Errementau eitte tzo lurreri. Kare bixidxe da. || Anak e, apatxiñ-ero eridi euki eskero, a apatx bittarteku esate dxakona, kari ixete san ona, kare bixidxe. || Suk esan dosune karabidxe da, ataraten dabe karabidxatik. Ni ikusitte bau, se ni aste nendun lekun e euki ben karabidxe ederra. Airon karabidxa bi. Bueno, kaleru esate tzen. Eitte san karie, eta gero aterpera erute ben. Bakixu, atara arridxe, erre, eta suri, suri, suri eitte san e. Karie, kare bixidxe. Axe bai, bixidxe! Eta gero ixite san a, bakixu, olanik, etartien edo olanik, montaut, da montoi einde. Da gero arek perforau eitte ban, errementau. Dana irakitten lantxik, dana astildute, ederra, suri-suri-suri-suridxe. || Da gero solora botate ben karie, palias sabaltzen ben burdittik, danin-danin-danin. Itxi gero errementetan. Errementete ban arek eta. || Ein barridxe ixeten da kare bixidxe. || Kara bixidxe ein bi da artu kalerutik eta solora erun segidxen, errementau deidxen. ☐ **kare ille.** Cal muerta. || Karie, berotasunik estekona. Eutze. Ille deuna. Se iguel lurren ganiñ lusero badau itto, eitte san karie, ille, ildu. A berotasunik es. || Kara ille san. A kara bixidzek es eban balidxo pinttetako. Aintxiñe eskatzak-eta be karias eitte suasen.

**karetu, kareten.** (KARETU) Encalar, dar cal. || Oin solorik esta kareten. Karie len eitte san. Ein karie, da solora bota ta nastaute inddarra artzeko ta geusi artzeko len konpontze sirin soluk eta. Oiiñ e lengo erdi esta... lauren solo badabis, se geu pe satitxu ba tabigu bakarrik eta.

**karetsu, karetsue.** (KARETSU) Calcáreo, que contiene cal. || Emen estau lur karetsurik. Karie emen bota ein bi dxako.

**karga, kargie.** (KARGA, zama) 1. Carga, peso. Ik. lepadie. || Egur kargie. || Kargie lepun daroi. || Siridxe karga bedarrari aintxiñe sartze gentzon. || Kargi deko aldekor. || Aldias dau kargie. || Kargi aldias dekosu, apurtu eingo dxatzu, estekesu ondo. || Kargik alde okerra deko. || Ori susenduidxok, se alderdi dxok ori kargi tte! || Takue? Frenue. Ori e eitte san piñuten edo karga astune ekarten basendun edo goitibera aundidxe ta esiñ eutzi ganaduek, ipintte

sentson tragie. Guk tragi esate gentzon. **2.** Ramo. || Sintte bedarra ixeten da suri-berdie, sinttak eukitte ittuna, San Juanetan karga loran ibiltte genduna. || Da adarrak ebate dxakos, ipintzeko larrosakin-edo, eitteko kargie dotoretu, ba ipiñi eitten dire sintte bedarrak. **3.** (lgart.) Borrachera Ik. moskorra. || Kargie be ederra daroye. □ **karga bedarra.** Carga de hierba. || Bedarrak ebaitten diriñiñ asemeldu eitten dire karga bedarrak eitteko. □ **karga lekue.** Sitio de carga. || Karga lekue: basun-de dabixenin. □ **lora kargie.** Ramo de flores. || Osasun bedarra ibiltte san len, da oiñ asko esta ibiltten, San Juanetan elixara erute san lora kargatxue, lorakin: liridxuek, kabeliñak, larrosak, ta bedeinkatu eitte sittuen, da gero a, oiñ esta ainbeste eruten baya, ori gero orrek lorak bedinketu, te ba gorde, gorde edo kamarara-edo altzau eitten dire, enbasu eittekestan lekure ta. Orreri bedarrari eitte dxaken, olan trumoye geistue daunien-da, ekarri apur bi, bajatu goitttik, da ortun-edo su apur bet trumoi kalmetako eitte san.

**kargau, kargeu, kargetan, kargeuten.** (KARGAU, kargatu-bat.) **1.** Cargarse. || Burdidxe bedarras kargau deu. || Olan kargetan bosu narra, gero etzera jukeran buelta eingo tzu. || Aldekorras: oker kargeuten bosu burdi bat, nai narra, nai otzari, nai sestu olan kargau te jun de jeusi, igul ilan eittosu de "Aldekorras kargeu dxok eta!". || Sardias simeurre-edo kargetan deutzonin: sardakadie. || Bedarrari eusteko, kargie otzaran karge eitte san, otzari olan biribille da, da bedarra bueltan-bueltan-bueltan-bueltan-bueltan ipiñi, da gero axe goitti bera sartun. **2.** Montar o cargar el calero o la pira para hacer carbón. || Baya bier asko aintxiñekuk. Txondorra, txondorra kargeti be bromi es san e! Trongo aundidxe lelgotan, jeneralien. Orrek sididxe kin jota. || Baya karabidxe baten kargaute, arik eta dana eiñ arte, sue! Beti atakatik. Dosena-amabost egun-de erreten, gau te egun. || Karabidxen betegarrixue botata, arku ein. Sulu eundidxe ixete san, da ak ertza, esta? Da arku imintte su. Da gero arkure kargau, da andik gero. Da an beyen ueku dau, andik arkuti bera. Da andik betegarrixue ota sarragas. Bier gogorra a be. || Kargauko senke txondorra seuk? **3.** Dejar encinta. Mutil batek neska bat haurdun utziz gero, honela esaten da: Kargau ein dxok! || Kargaute dxekok!

**kargu, kargue.** (KARGU) Cuidado, atención. || Iruie badau, ak peligru deko. Paguek iru asko. Iruie, usteldute an barruen dekona, paguek. Iru esate dxako. Da kontu aundidxe bier ixeten dabe, kargu eundidxe. □ **kargu artu.** Tener cuidado con, cuidar. || Kargu artu katarruri! □ **karguen egon.** Estar al cuidado de algo. || Geusa ba ein bi dabenin, seoser saindu-edo ein bi dabenien, "Enau karguen". □ **kargu ein.** Tomar cuidado de alguna cosa. Ik. kargutu. || Kargu eidxosu lapikuri! || Kargurik eiñ es-da jeusi ein da. || Txinpertak dabis, da ba suek urten esteidxen, kargu eittera txinpertari! || Burugiñe da kargu ondo eitte

tzona noberan bururi. || Eidxosu kargu umieri! || Eidxosu kargu erroperieri! || Kargu ein: geusa bateri, edo olluk nundik dabixen, edo saldidxe nora doiñ, edo ba arixi kargu ein, edo beidxeri, edo ba "Eidxosue kargu mudi nora dabixen". || Kalenturatxu be igul eukitten dabe, beste batzu pe estabe eukitten, da inportantidxeri pe estau eukitten, baya kargu apurtxut ein bi dxako. || Gibelegu dekona pe ein bi tzo kargu. Erun bi deu jatekuas... Ser esangot? Jatekuas be kargu ein bi tzo. || Eingo tzesu txondorrari kargu? || Burugiñe da... Ondo kargu eitte tzesu ba bururi, bakixu, busti be ein gure es, edo pintxu es, da arexe persona esate tzeu guk "Ño, ori dok burugiñe!". || Orrek eingo tzo bururi kargu!

**kargutu.** (KARGUTU) Darse cuenta de, fijarse en. Ik. kargutu. || Kargutu ei tzesu Mariri? || Txakurrek jaten dabe bedar klase bat, ni enas kargutu sekule be selaku jaten daben, da gero gomittau eitten dabe. || Ni enas kargutu erreidxegas.

**karieu.** (KAREAU, karetu-bat.) Abonar con cal. || Da kari emote esik, kendu esta eitten txonbue. Da kari emote eskerun estau urtetan orrek. Gure solutan sekule estau urten, beti kariente egon dilako. Da beste eusutan igul askok txonbue, "Nabuk txonbu dxekok".

**karinkara.** Cara a cara, frente a frente. || Karenkara plantau dire. || Karinkara: alkarrerri begire, arpeix arpei.

**karixidxe.** Cariño, caricia, halago, agasajo. Ik. enbusteridxe. || Karixidxe? Ba esan biarrik estekolakun ondo esaten dabenari edo engañetan les dabilenari. || Adorau: Ondo esan ero karixidxe eiñ-ero, adorau.

**karkaba, karkabie.** (KARKABA) Cárcava, foso, zanja. Ik. lugana, sanjie. || Baso karkabie. || Mendi karkabie. || Karkabie ein. || Uidxelak karkabie ein deu. || Da len egote sirin, olan lagunek einde, olan karkaba itzelak noberan terrenuen, olan, eitte siren karkaba itzelak eta sarratue esate dxakon areri. || Ure juteko karkabatxu bat ein dot. || Satorra da lurren aspittik ibiltten dana, karkabak eitte ittuna albuen, aspidxen. || Basamortu da "Basamortu garbidxen dxak a!", es serik es esebe-ero, karkabi ero sakona bateri, esate baterako, e Oman a etze txatxarra, nai e Gostika ero etze bakarra, olanik basun-ero deunari, "Jode, basamortun dxak!"-eta. Basu da les, esate dxako basa mortu.

**karkaixa, karkaixie.** (KARKAISA) **1.** Cacareo. || Karkaixie da ba, olluk karkaixak eitte ittue, ka-kaka-ka-kaka. **2.** Carcajada. || Da igul barrik-ero urtete tze ta "Karkaxak on dosak are lagune pe!" || Arek eitte ittu kargasak! || Kargasa aundidxe eitte ittu orrek. □ **barre karkaixie.** Carcajada.

**karkaxaka.** (KARKAISAKA) Cacareando. || Olluk karkaixaka dauseniñ eitten dabe karraskadi be bai. || Esate baterako, olluna be karkaixi da. Da igul "karkaxaka plantaute", se olluk eitten deu les. □

**barre karkaixaka.** Riéndose a carcajadas. || *Barre karkaixaka dabil.*

**karnabalak.** Carnavales. Ik. *atostie, basatostie.*

**karnal, karnala.** Carnal. □ **lengusu karnala.** Primo o prima carnal. || *Gure aittas lengusu karnala ixen san Seberina, da ba sure amumas be ixengo san.*

**karnasera, karnaserie.** Carnicera.

**karnaseridxa.** Carnicería. || *Txorixuk eitteko-ta, este siku eskatzen da karnaseidxen.* || *Da ordun denporan, lengo denporan oingo modun ba okelarik-eta e-san ekarten karnaseridxatik.* || *Da ba asurre ba karnaseridxara juten danin be igul "Une dekona ekarrixu!" edo "Une dekona estot gure ta ostantzeku ekarrixu!"*.

**karnasero, karnaserue.** Carnicero. || *Len mutikutan, oiñ esta ainbeste usetan, baya len karnaseruri esaten: "Es pikau gero pusikie!". Atara, da pustu eitten da.* || *Baya karnaseruk neurtuneko txalik-eta estabe artu gure isten, arek eurok neurtu gure ixaten dabe.* || *Karnaseruas eskondu san.*

**karrajue. 1.** Carrejo, pasillo estrecho entre dos casas. || *Karrajue da bittarte bat, olan, seinde, tunelaren antzera deuna, karrajue esate tzau. Etze bin bittartien iguel egongo dire iru metro ta karrajue areri.* || *Etze bi alkarren ondun badaus, karrajuen aixe otza.* || *Oin be esaten da ori, karrajue, etzin bittartie..., emen bateti bestera igul olako sabaleran e..., "Ori da karrajue" esate tzeu, libre daun geuse bateri.* **2.** Pasillo, corredor. Nabarnizen honela ere esaten bada ere, *askaurrie* da gehien erabiltzen den berba. || *Edo amen berton etzin barrun be bai. "Karrajuen egongo da" igul esate tzu, olan karrajue, e selan esango tzu pa?* || *Emen bidxen bittartiñ askaurri esate tzeu orreri. Da batzuk karraju esate tze.*

**karraka, karrakie.** (KARRAKA) **1.** Carraca (instrumento). || *Aste Santun-de jote san karrakie. Kanpayak jo biarrin, karrakie jote san Bariku Santun da olan.* **2.** Freno del carro. Ik. *dragie.* || *Karrakie: orreri burdidxeri aintxiñe ipintte dxaken goittik bera juteko, ya dragie.* || *Karrakiek tar-tar-tar-tar eitte ban.*

**karrakadun, karrakadune.** (KARRAKADUN) Se dice del que toca la carraca en Semana Santa, que solía ser el sacristán.

**karraska, karraskie.** (KARRASKA) Rechinamiento de dientes. □ **karraska ein.** Crujir los dientes, chasquear los dientes. || *Es eik karraskarik eiñ olakorik!*

**karraskada, karraskadie.** (KARRASKADA) **1.** Crujido, chasquido. || *Age bat olanik apurtzera doyenien: "Karraskadi ein deu."* || *Karraskadi ein deu olak.* || *"Karraskadi ein dxok" esate baterako, apurtu edo ori eitten dire.* **2.** Graznido, grito estridente. || *Olluk karkaixaka dauseniñ eitten dabe karraskadi be bai. Erroidxek eitten dabena be bai, karraskadie.* **3.**

Ruido estridente producido en la garganta. || *Kurrumuskadie: ba estule eitten daniñ olan gorru-da atarateko, aaahhh! eraitten dan karraskadie.* **4.** Ruido que hacen con los dientes. *Kirriskadie* ere esaten da. || *Diois, karraskadak eitte dxosak!*

**karraskadaka.** (KARRASKADAKA) Grazniendo, gritando estridentemente. || *Da karraskadi da... Eskillasue bakixu ser dan, txoridxe, eskillasu eta, nai erroidxak "Karraskadaka dxasak", krrraaa-krrraaaka eta, karraskadak. Edo entzuten bosu kraaaa!, "Koño, karraskadi ein dxok!". Da ori da karraskadi.*

**karraskillo, karraskillue.** Informal. Sin. *geusestana.* || *Karraskillu da geustana esati les, "Karraskillo garbidxe!".* || *Karraskillu da beti kirri te mirri te eskapa, ta or dabillena. Karraskillue. Formalidaderi pakue esati les.* || *Karraskillu da ori!* || *Karraskillu garbidxok!* || *Karraskillu, seinde normal estabillena lakue. Karraskillue. Batera nai bestera. Karraskillu garbidxe.*

**karrera, karrerie.** Carrera. || *Asto karrerie.* || *Saldi karrerie.* || *Datorren domekan karrerie dao, Gerniketiek juen da etorri Nabarnixera.*

**karreteridxe.** (KARRETERIA) Porte, transporte. || *Da trakulu da burdidxe, da erreilla bi alderdi banatan ibiltte ittu, da arbolie ba eunditxuau nai txikitxuau ganiñ ipiñi, da beidxek karreteridxe eitten dabe.* || *Beidxek, karreteridxe beidxek eitte tze.* || *Karreteridxe: beidxek eitten daben bierra.* || *Karreteridxan dabix.* || *Karreteridxe? Beidxeikiñ eitten da. Karreteridxe len eitte san, mendittik e ekarten e kantaidxek-edo.*

**karreteru, karreterue.** (KARRETERO) **1.** Idi edo behien atzetik doana da; aurretik *ittaurrekue* doa. || *Ittaurren ibili: a ixeten da beidxen eurretik ibiltten dana, atzetik ibiltten da beste bat e, karreteru edo printzipala, areri buelta emon bi tzona, edo goldiri buelta emon bi tzona-edo. Da eurretik ibiltten dana ba, ittaurlaridxe.* **2.** Carretero, persona que guía las caballerías o los bueyes en las apuestas. || *Domekan etorriko dire ididxekin proba eitten karreterurik onenak.*

**karretille, karretillie.** Carretilla.

**karridxeu.** (KARRIAU, *garraiatu-bat.*) Portar, transportar, carrear. || *Jenerue karridxeu.*

**karriu, karriue, karridxue.** (KARRIO, *garraio-bat.*) Porte, transporte. || *Karriue da ba olanik..., esaten da ori be, karriue, igul e soser eruten-edo, karriue.* || *Baya karriue ixeten da, igul e tatarres-ero, jenerue... tatarres ero bijan doina, "Karriun dabis karriun".* || *Karridxu aundidxe.* || *Emendik dakasu intxaurre, emen dakasu garidxe, da a leku batera ta: "Arek ein deu karridxue".* □ **karriun.** Transportando. || *Karriun dabis.*



**karro, karrue.** (KARRO) Carro tirado por las caballerías. Ik. *burdidxe*. || *Saldi karrue*. || *Karrue esate tzau kaballeridzan serari ta beidxenari burdidxe*. || *Bueno, emen e asto karro asko esta ibili*. *Es, amen e, olan, karrue or e jeneral betik, esate baterako, Beledix edo Gernike partiñ-edo ortik ibiltten da karrun, ta saldidxe be bai, saldidxas ibiltten dabe ta*. || *Emen Nabarrixen es san on karrori pes*. *Es. Emen karrorik es eon*. *Da or beyetan danin, Kortasubi, Belendis da orretan karrue, danien*. *Da geuk erosi gendun karro bat*. *Saldidxe ekarri gendun*. *Da ordun, or gerra denporan es ebillen autobusik es esebes*. *Kotxeri pe eseuen*. *Da jentie erute gendun, igul lau lagun, de plasarako jenerue, sagarra, olako karruas*. *Da gero a karrue saldu gentzon...* Antonio Bollarrek ori taberni euki ban ba, onen Julianen anaixdie. Arixerri saldu gentzon karrue.

**karta, kartie.** (KARTA) **1.** Carta (escrito). || *Karta bat eskribidu, ein*. **2.** Carta (naipe). || *Ein du jokun kartakin*. || *Se batzu pentzate eukitten dabe*. "Bueno, suk erregi dekesuniñ e ipiñi karta bat olan, ero trabes bestie ero bestie. Joku dekesuniñ olan". *Da orre di kiñu faltzuk*. *Olakuk atrapau eskero, nulo*. □ **kartetan.** A las cartas. || *Kartetan ein, jokatu*. || *Karteran ein biou*. || *Kartetan noye*. □ **kartak bota.** Dar cartas. || *Atzesku esate dxako...* *Esku da bat, kartak bota ittun urrengoku esku da*. *Da atzesku da aren urrengu*. □ **karta partidak ein.** Romper la amistad. || *Karta partidak eiñ ittue*. || *Esate baterako, diskutidu, te gero, igul beti lagunek ixen, da gero ba asarratu-edo eiñ eskero, ba askok esaten dabe: "Karta partidak ein dxosak are pe!"*

**kartola, kartolie.** (KARTOLA) Cartola, adral, cada una de las tablas que se ponen en los costados del carro para que no se caiga lo que va en él. || *Burdidxen olanik eskiñan betik gora doixen olak dire kartolak*.

**kartzela, kartzelie.** (KARTZELA) Cárcel. || *Kartzelan sartu dabe, ia ontzen bada*. || *Kartzelara erun dabe a be*. || *Oiñ e kartzelie, estai senbat urteko kartzeli emo tzen*. *Da daus karselan oin*. *Txarto dausela, geur goixiñ eki tze esaten famelidxe be txarto, da eurek txarto dausela*.

**karu, karue.** (KARU, garesti) **1.** Caro. || *Karu eritxi tzet eta estot artu*. || *Len bayo karueu dau*. || *Karutxu dau*. || *Karu da, asko eskatzen deu*. **2.** Carero, -a. || *Dendero karue*.

**karutu.** (KARUTU, garestitu) Encarecer, aumentar el precio. || *Presidxue karutu da*. || *Karutu ein da geusie*.

**kasa, kasie.** (KAZA) Caza. || *Kasa txakurre*. □ **kasan ein.** Cazar. □ **kasan erakutzi.** Enseñar al perro a cazar. Baita *txakurre esi* ere. □ **kasan ibilli, juen.** Ir de caza. || *Len e, kasan jueten nintzen ara sarri*. || *Birritten ikusitte deket orrek, olanik kasan junde*. ||

*Ara astaro juten nitzen ollogor sasoyen, kasan sasoyen beti andik albotik pasau*.

**kasero, kaserue.** (KAZERO) Cazador. || *Badxusek kaseruek or*.

**kaskabel, kaskabela.** (KASKABEL, kaskabilo-bat.) Cascabel. || *Kaskabela: olan e kilin-kilin-kiliñ e txakurrek saman dekona edo katuk badeko katu be igul-de*.

**kaskabeldun, kaskabeldune.** (KASKABELDUN, kaskabilodun-bat.) Provisto de cascabel. □ **sube kaskabeldune.** Serpiente cascabel. || *Kaskabeldunek aspidxen eukitte ittu orrek, kaskabel modukuk*. *Emen estire ikusten orrek*.

**kaskaju, kaskajue.** Estúpido. || *Buru gitxikuri kaskajue esate dxako*. || *Kaskajue: buru eskasa, ya biarrik ein gure esteuna*. || *Kaskajue emen okerreidxak eitte ittunari-edo esate dxako: "Kaskaju alaku!"-ta*.

**kaskajukeridxe.** Canallada, maldad. || *Kaskajukeridxe ein tzok areri*.

**kaskallu, kaskallue.** (KASKAILU, ezkailu-bat.) **1.** Pez pequeño, bermejuela. || *Kaskallue arraiñe da, eskallu pe egoten dire oin be Oman*. *Kaskalluk, arek txikitxuk, bilinbolun antzekuk*. *Ba, kaskalluk Oman eoten dire*. *Kaskallu janak-eta eitten*. *Oiñ es ainbeste, baya len asko atrapate gendun*. || *Kaskalluk, jolin, Oman kaskalluk jaten! Neu be ixenda nau, Oman bertan atrapate*. || *Baldias ure kentzen sanien, arrankaridxe da kaskallue baldias ureas batera jausten san*. || *Da oin kaskallurik, oin be egongo dire kaskalluk an!* || *Bai, iños jan dot*. *Baya gogorra da kaskallu bera be*. *Ondo ipiñi eskero, ba dana biguntzen da baya*. **2.** Persona sin fundamento. || *Kaskallu: erdi txoriburu, estan tipoko bat, "Kaskalluori!"*. *Se kaskallu bakixu one erreketan selakuk oten din*. *Axe esate tze askori*. *Esan gutena "Kaskallu garbidxok ori!"*. *An erdi bururi pako, or detzonari esate dxako kaskallu*. || *"Kaskallu garbidxe!": ba esate baterako, geusestan geuseri-edo olan, "Kaskallu ixen dok ori!", seinde persona kikiñ antzeku orreri be igul: "Kaskalluori!"*. || *Kaskallu be bai*. *Txikidxeri, ta kaskamorruek eitte ittunari*. *Kaskallu ba okerra-edo da ixen, "Kaskallu garbidxori!"*. □ **kaskallu jana.** Comida a base de bermejuelas. || *Bai, len kaskallu janak-eta eitte sittuen orrek*.

**kaskamarru, kaskamarrue.** (KASKAMARRO) Persona sin fundamento. || *Kaskamarrue: da ba erdi formala estan...*, *kaskamarrue esate tze, "Kaskamarruori!"*. || *Ori kaskaute dau, kaskamarru da ori*. || *Erdi kaskaute badau, "Kaskamarru dok ori"*.

**kaskamarrukeridxe.** (KASKAMARROKERIA) Locura, travesura. Ik. *sorakeridxe*. || *Kaskamarrukeridxak: sorakeridxak eitti les, seinde "Sorakeridxak eitten dxosak", kaskamarrukeridxak*.

**kaskamotz, kaskamotza.** (KASKAMOTZ) Pelado, -a, rapado, -a, de pelo corto. Ik. *burumotza*.

**kaskañeta.** (KASKAINETA) Castañeta (sonido de los dedos). || *Kaskañeta jo*. || *Kaskañetak jo, da dantzan ein, aintxiñe eitte san*.

**1 kaskar, kaskarra.** (KASKAR) Cabeza, cráneo. Ik. *burue*. || *Kaskarreko miñe deket*. ☐ *Buru gogorrari Kaskar gogorra nahiz Kaskar gogorrekue esaten zaio*.

**2 kaskar, kaskarra.** (KASKAR) Ruín, pequeñajo, -a. Ik. *eskasa*. || *Baserri kaskarra*. || *Ori da kaskarra!*

**kaskara, kaskarie.** Cáscara. ☐ **arrautze kaskara bakue.** Huevo sin cáscara. || *Arrautzi kaskara bakue? Oten da arrautze kaskarabakorik? Bai. Ollue apur bet ondo estauñiñ edo olan geixori les-edo dauniñ-edo, ba olluk arrautzie kaskara bakue eitten dabe. Eitten dabe bigune, barruku dekona bakarrik*. || *Arrautze kaskara baku da e... ori mitze, arrautzik barrun dekona da mitze. A, tela bat deko, da aregas dauna esaten da arrautza kaskara bakue dala, a mitze, ondo eiñ estabelako e olluek edo ondo sertu estabelako da. Mitze mintze esaten da*.

**kaskarreko, kaskarrekie.** (KASKARREKO) Golpe dado o recibido en la cabeza / en la crisma. || *Kaskarrekie emo tzet txotxolori alakori!*

**kaskarrillue.** Casquivano, -a, ligero, -a de cascós, cabeza de chorlito. Ik. *txoriburue*. || *Ori da kaskarrillue!* || *Kaskarrillu utza da*.

**1 kaskau, kaskau, kasketan.** (KASKAU, kaskatu-bat.) Perder la cordura. || *Apurtxu bet kaskaute dau (ba normal-normal estaula)*. || *Kaskeute dau*.

**2 kaskau, kasketan.** (KASKAU, kaskatu-bat.) Cascar. || *Kaskau: esate baterako, eskutik jeusten dan geusa bat, arrautza bat esango dot, golpi artu eskero ba, kaskau eitten da apurtxu bet. Sagarra be bai, artzen badau golpie, au be mallotu, edo kaskau eitten da sagarra be*. || *Ta bai, ta neu pe ekarte ittut arek, goxetik etorte dirin kipula suridxe, baya are buru eundirik-eta esta ibiltten, se kaskau eitteus de*.

**kasket, kasketa.** (KASKET) Parte posterior de la cabeza. || *Kasketa atzeko partiri esateko dxako*. || *Orrek deko kasketa!*

**kasketeko, kasketekue.** (KASKETEKO) Cachete, puñetazo. || *Kasketekue esaten da emon eskeruen baten batek saplasue*.

**kasko, kaskue.** Pedazo, trozo, fragmento. ☐ **tella kaskue.** Fragmento de teja. || *Tella aputuneko satidxe da tella kaskue*.

**kasko, kaskue.** (KASKO) Casco (protector). || *Kaskue ixen lei aserosku edo olan burun ibiltten dabena, olan piñi botaten dabixeniñ-edo, norbera asartau esteidxen-edo, burun ipintten daben txapel bat. Txapela be esta ixaten, bueno a be metalesku edo a be apurtzen estana ixaten da*.

**kaskondu.** (KASKONDU) Crecer, desarrollarse. 2 edo 4 urteko umeei buruz esaten da. || *Kaskondu: esate*

*baterako, umie txikitxue bada, asidxes-asidxes juten danien, ba: Ba, ya kaskondute dau*. || *Mutille kaskondute dau*. || *Mutille kaskondu da*.

**kaskondu, kaskondue.** (KASKONDU) Joven que ha dejado la infancia, hasta la adolescencia. || *Bueno, mutil kaskondue ba, umetako denporie ya juti dxakoniñ edo, eskolara abidxetan daniñ-edo, ta or dosena bat edo amalau-amabost urte eukitte itun artin, mutil kaskondue*. || *Mutil kaskondue? Bueno, ixe lei sartxuau. Esteko, esteko serik*. || *Mutil kaskondue ba ya dosena bat urteti goraku edo olaku da*. || *Sarrau danin be bai tte eskolara asten danin be bai-tte, estau eukitten ipiñiri-tte. Ixeten da sartxuau danin be, mutil kaskondue edo gastetxuau danin be ba “Kaskondute dau” te ba “Eskolara abidxau da”*. || *Ya mutil kaskondu, amabost urte bueltie, ortik e dabillena*.

**kasta, kastie.** (KASTA) Raza, casta, linaje, ascendencia. || *Euskaldun kastie*. || *Ikittanu kastie da ori*. || *Kastakue dok ori*. || *Kasta gogorra*.

**kastau, kastetan.** (KASTAU, gastatu-bat.) **1.** Gastar, consumir. Ik. *gastau*. || *Ixeten da olan kastetako-ta, patata gorridxe obiau ixeten da olan ariñ kastetako. Suridxe ostantziñ e luseruau, a barru oriskatxu dekon suridxe luseruau eukitteke ixeten da*. || *Okelie..., bera nekesau eingo da igul, okelie baya olanik e garrastu eitten da, jateko modukue plantau, da espada kastetan ba garrastu eitten da*. || *Baraka: geuk kastata duna orixe da ta*. || *Ba nik estaitt senbat klase dasen baya emen guk geidxen ibilteuna kipula gorridxe da, da suridxe be oten da. Da lelengotan kastetan dana..., ba ser esangot nik? Areri lelengotan kasteta danari ser esate tzeu? Borru-edo, olako ixen bat esate tzeu baya ba kipulak goixetik urtete ban lekue, axe ibiltte gara gu te*. || *Orain mantzeliñe kasteteu*. || *San jun makatza: goixetik eltzen dana, da makatza apurtxu sosu ixeten da, da ba ba kastaten da, umik-eta estimau eitten dabe, nausidxe pe bai*. || *Senoridxe? Ba untxe edo udegoniñ-edo, da ya ude gustiku emoten deu, nai udegoneku be bai. Da kastetan da bi danin, noberak*. || *Kastau? Nabu kastetan danien, ba gelditzen da eser barik. Arixeri esate dxako nabondue*. || *Bueno, bai erain be eitten da ta geuk estou asko kastetan, da onetan asko esta kastauko baya eskaroli ba seinda asi moduku edo ser esangot nik ba?* **2.** Gastar, usar. || *Bueno, esta..., materidxelerako esta ainbeste kastetan, baya kastau be eingo da materidxelerako edo etxako isten berari arboliri... selan esangot neuk? Lexarra da arbola bat eta emoten deu untxe udebarridxen edo untxe udan, lori be emoten deu lexarrak. Estakitt nik materidxelako kastetan badabe*. **3.** Gastar. *Gastau ere esaten da*. || *Beseru da, esate baterako, niri kasteta-stasu suk geusie*.

**Kastilla.** Castilla. || *Len emen e, esate baterako, Euskalerridxen es euen jenterik, bertoko jenti bakar-bakar-bakarrik. Gero, bi dan beste es, ta asi sin,*

*emendik e Kastilla erridxetatik, ortik jenti ekarten ona fabrikatara-ta.*

**kastillue.** Castillo.

**kasu, kasue.** (KASU) Caso. || *Kasurik es!* ☐ **kasu baterako.** Por ejemplo. ☐ **kasu ein.** Hacer caso, obedecer, prestar atención. || *Milloi bider esan duat eta esta kasurik ein!* || *Kasurik es ein!* || *Orreri es ein kasurik.* || *Estau kasuri pe ein.* ☐ **kasureko.** Por ejemplo. || *Kasureko, au ein leike.*

**kasule, kasulie.** (KAZULA, kazola-bat.) Cazuela. || *Kasulie lapiku estana ixaten da. Kasulie emen onakoxe lurreskuri esate dxako.* || *Topiñi ibiltte san, edo ibiltte gendun, da beste lekuten be alan ibiliko san, morokille eitteko, morokille-ta. Kasuli, ba kasulan ainbeste geusa ipintten da.* || *Da gero eitten da..., ure ipintte dxako aspidxen e kasulie edo palankani edo soser da urtu te artu burduntzalias edo sosegas da araxe uretara bota. Gero a siketzen danien koipe opille einde gelditzen da.*

**kasulekada, kasulekadie.** (KAZULAKADA, kazolakada-bat.) Contenido de una cazuela. || *Jan deu kasulekadie.*

**katakorotz, katakorotza.** (KATAKOROTZ) Excremento de gato. || *Katuk eitten badeu, katun tantu (esaten dxako), edo katakorotza be igul.* || *Txakurren tantuk.*

**katakuna, katakunie.** (KATAKUME) Gatito, cría de gato.

**katakosiñie.** Especie de gato montés. || *Katakosiñie basoko katue da. Bidi ikesi eskeruen etzera..., geuri be, untxe ondiño, untxe-untxe, aintxiñe estanien, illabetes onantzien atrapau ei ben gero, mutillek, ta ba tire ba ill eben, ollo bi garbittu eskusen. Olluk atrapeta ittu, gabiñ etorritte.* || *Katakosiñie da -neuk estot iños ikusi baya- esate baterako kanpun, kanpoko katu dana, katakosiñi. Klase bat payo geidxau egon bi dabe, batzuk eundidxe pe bai, da beste batzuk e txikidxe ei dire. Orrek emetik egoten dire, se aintxiñe estaniñ e... bai, urtie be igul ixengo da, olluk atrapaten asi dxakusen, ollotokittik sartu albotik orrek e, batzuk e, arek e txikidxauk tiriñak e, leku asko be kontixu estabe biar ixaten, da ollotokire sartute, gabin-da origeittik atrapau gendun tranpi ipintte, berak saltote ban lekutik, saltote ban madaridxen adarretik edo olanik, saltoteban, da atrapau ein gendun.* || *Katakosiñie beste ba ta, katakosiñi da lengo katu klasen bat, kanpokue.*

**katame, katamie.** (KATEME) Gata.

**katamixar, katamixarra, katomixarra.** (KATAMIXAR) Especie de gato montés. Beste toki batzuetan *katamixarra* esaten ei zaio Nabarnizen *ardillie* esaten zaionari, baina hemen *katamixarra* *basakatuari* esaten zaio. || *Katamixarra? Bueno, oinguk katamixarra..., oinguk basakatu geidxau esate tze, baya katamixarra basakatu da. Da ixeten da ei diri tamañun -neu pe estittut esautzen tamañun- batzuk ixaten ei dire eunditxuauek eta beste batzuk*

*txikitxuauek.* || *Katamixarra: orrek baso katuk tire.* || *Katamixarrak? Ortxe basutan ibiltten diñak.* || *Da one bestiok, katamixarra, basakatue, da one pa es sin jatekuk. Bronkuek. Orrek siren atrapau tranpan, da afesiñau ixate sanak eitte ittuen etzerik etze ibili, eskien. Orrek kalte eundidxe eitte bese les, ardidxen da olluen da orrek, txitxan-da. Orrek txitxe erute ben. Da ordun ibiltte siren eskien. Bakixu arek etzerik etze.* || *Ba ordun bakixu se pasete san? Ordun es euen aseridxerik eta olakorik, ta orrek (katomixarrak) asko geitze sin. Da gero basutan metak ote sin. Da arexetan metatan barrutan-da ote siñ orrek. Onek Julianek bueno atrapete basen! Orrek katomixarrak esate tzen batzuk, basakatuk bestik. A papar suridxe diruten eskandalu! Narru.*

**katamotz, katamotza.** (KATAMOTZ) Lince. || *Katamotza tropie ixeten da, aundidxe.* || *Katamotza ta orrek pentot klase deusela iru-edo klase be.* ☐ Emakume motzei buruz honela esaten da: || *Katamotza bayo motzaue da!*

**katanar, katanarra.** (KATANAR) 1. Especie de gato montés. *Katanarra eta basakatue ez ei dira bat.* || *Katanarra da patari bet. Katanarra da katue, baserriko katun antzekue. Oiñ esta ikusten. Aintxiñe bai. Aintxiñe ikuste siñ asko, baya emen esta oiñ ikusten katanarrik.* || *Katanarra da mendiko ori, patari bat. Katue, katu bakixu, baya katu bronkue, mendikue. Onek e esi bako katue, eskure etorri bako katue.* || *Katanarra da... Arek e... Onek olluk-eta, aspidxe jate tze lelengo, erropie. Arek erropan asten di jaten. Erropie, da lakunie. Lakunie bakixu ser dan? Lakuni da atzeko eperdiko sulue eta atziñ animalidxe boukos arek kunak-eta eitteko, beran txixe-da eitteko. Arexe jate tzes lelengo.* || *Katanarra? Estaipa selan esango tzuten katanarra ser dan. Katanarra... basakaturi-edo esate dxako katanarra.* 2. Trepatroncos (pájaro). || *Da katanarra be badau, katanarra esate dxakona be. Txoridxe be badau, arbolan ti-ti-ti. Txoridxe, txori txikitxu da.* || *Katanarra da txori bat, txori eundidxe be estan bat.* || *Da katanarra da arbolan gora ta bera ta daniñ ibiltte dana, katanarra.*

**katar, katarra.** (KATAR) Gato macho. || *Kunek artzeko sasoye-edo etorte dxakenin be bakidxes marrau galantak eitten-da, katarra etorten dxakena.*

**katarro, katarrue.** (KATARRO, hotzeria, marranta) Catarro. || *Katarrue deko.* || *Katarruas dau beti.* || *Katarro utza da ori.* || *Apur bet katarrantza deket.*

**katarroso, katarrosue.** (KATARROSO) Propenso a acatarrarse. || *Katarrosu da.*

**kate edo katie.** (KATEA) Cadena. Nabarnizen “*Katerik esteko*” nahiz “*Katieri pe esteko*” esaldiak batu ditut. || *Katias lotu.* || *Txakurrek katietik eskapeu deu.* || *Engantxate dxako katie bat, larran euki gure bosu, sokie lotze dxako ara, ta egoten dire.* || *Trallan erun: ganadu bat e, nai astu, nai saldidxe, nai mandue, eruten dana artute, katiatik edo sokatik eruten dana:*

trallan. || Oneri (sesturi) katiak ipintte dxakos, emendik edo emendik, da arridxe ipintte dxakos ganien, da bei busterridxe ibiltten deu. || Nardekie? Beidxe busterridxe solun biar eitteko ipintte san a. Egur bat, busterritik. Partiki da osokue, da nardeki txikidxe. Nardeki katayas. ☐ kate maillie. Eslabón de cadena.

**katenorratz, katenorratza.** (KATEORRATZ) Púa de la cadena. Katorratza ere esaten da. || Katenorratza: ganadun saman lotzen dire katias, da arun sartzeko olako katxarro bat eukitten dabe, a jarzen da aruen, da sarratzen dxake. || Katenorratza? Bai, kation orratza, katiak, beidxe lotzen din katiak, aren orratza, ba arexe katenorratza.

**katigaridxe.** Obstáculo, impedimento, escollo. || Tubo bat katittute badau, esate baterako iturridxe, nai... "Katigaridxe deko, urik estau botaten, katigaridxe deko". || Tubo bat, ure pasetako katittute badau ba, katigaridxe. || Katigaridxe? Ure bi dan modun botaten estaben iturridxe-edo ba katittute egoten dana. || Katigaridxe? Lurrek eukitten dabena edo urek katittuten dabena edo...

**katigu.** (KATIGU) Cautivo, -a, preso, -a. Ik. preso. || Katigu dau ori.

**katidxu.** Trabrar, prender. || Bedar sari ixeten da a liute dauna. Esan gutena, sakatu, katidxute dauna, bedar sarie.

**katillu, katillue.** (KATILU) 1. Taza sin mango. Ik. tangie, tasie. || Esnie ipiñi katilluen. || Katilluek astarik esteu eukitten. || Katillu asta baku ixeten da. 2. Rótula, hueso de la rodilla. || Katillue da belauneko asurre.

**katillukada, katillukadie.** (KATILUKADA) (Contenido de un / una) tazón, taza.

**katorratz, katorratza.** (KATEORRATZ) Púa de la cadena. Katenorratza ere esaten da. || Ganadun katiri, ba, ganadu lotzeko katiri, ba, katorratza esate dxako.

**katiotz, katiotza.** (KATE HOTS) Ruido de cadenas. || Katiotza iguel e kortan-ero, bran-bran "Katiotza ixen dok!", txalak-ero "Soltau eñ ete da?".

**katittu, katittuten.** (KATIGATU) 1. Trabrar, prender. || Katittu dok ori alanbrien. || No, kaderan katidxu dxatek alanbrie! || Suri katittu dxatzu sasi bet. || Engantxaten da egal baten edo, ta "Katittu ein da" || Sasi baten edo eitten bada, "Katittu ein da" edo "Katittute dao". || Baya erute san atxur me bat. Mendire, edo basora-edo doixenien, esate baterako, bidie katittute badau ureas, edo basias-edo, axe libretako, arixeri pasu eitteko. Basatxurre esate dxakon. || Txirriki da biribil bet, sokiri gibilidxe eitti lakue: txirriki. Sertako? An korridu deidxe sokik erres. Se an sokik ostantziñ espouko, lotu eitten da asko, katittu, da esta libretan. || Beidxe, olanik, iños neuri be asartau dxaten iños solun katittu, ba aringaringa dabixela-edo, bata bestin kontra-edo, ankak, serak, deken katias edo lasuas-edo katittu eitte itue igul, da

ba lasaute gelditzen dire, librau ein biar ixaten da. || Sagar bat janda katittu, katittu saman, da iruntzi es ein. Da gero orrek, a pustuten doye, an esin deu..., ori pustu eitten da da gero errementeu. Da lagune egon balitz ordun an, da puntxeta sartun, a salbau eingo san. || Broki ostantzin beittu se eitten deun. Amen espokosu e sulotxu einde, broki lelengotan esta an katitzen, olan ibiltten da bata nai besti. Amen sulotxu einde boukosu ori punteruas, punterutxuk eitten deu olakoxe igul-igula. Da gero an sulotxun inketen da brokie. 2. Encadenar.

**katoki, katokidxe.** (KATUKI) 1. Felino. || Katokidxe, katanarra. || Katokidx-ok ori. 2. Persona de mucha resistencia. || Bai, ori e esakera, persona pe bai. Igul e edo gogorra bada, edo au edo ori, "No, ori katokidx-ok!", "Ori estok kantzetan", edo "Ori gogorr-ok!" edo... Beste geusa bat esan biarrin ba, "Katu arrasi ok ori!", "Katokidx-ok ori!". Edo eskasa, edo nerbidxu utze bada, da "Katokidx-ok ori!".

**katu, kato, katue.** (KATU) Gato (*Felis catus*). || Katu korotza. || Katu burrukie. || Kato mantzue. || Mieuke dau katue. || Katu sistriñe. || Da bat egon san goixaldien Lekeittora juteko. Bat oiñes, da urte tzo katuk. "Katu, aldeixu ortik!" esan tzo, da jau! Makillias emon tzo saplasue, ta alborau. ☐ baserriko katue. Gato doméstico. || Katanarra da patari bet. Katanarra da katue, baserriko katun antzekue.

**katuke.** (KATUKA) A gatas. Ik. taka-taka.

**katxarreridxe.** Utensilios de cocina. || Katxarreridxe len ote san. Ba olan denda txikitxu bat eukitte ittuna, orrek e batsotxuk-edo. Ser esangot neuk? Olako, orren natilli eitteko katxarruk-edo, olakuk eukitte sittuna.

**katxarro, katxarrue.** (KATXARRO) 1. Cacharro, utensilio. || Berba eitteko katxarrue. 2. Vasija o utensilio para usos culinarios. || Ori suteko katxarrue alborau! || Onakoxe katxarruri esate gentzon, aundidxau nai txikidxau, edamena.

**kaxarranka, kaxarrankie.** (KAXARRANKA) Kaxarranka, danza vasca originaria de Lekeitio. || Kaxarrankie? Estaitt oiñ eitten bada be. Len Lekitton eitte san. Kaxarrankie, emen e kaxie, bueno kaxi etzan izengo beres, baya ba antxe dantzan ein, eitte ban gixonesko batek, da axe ikusten egote giñen. || Kaxarrankie dantzan eitteko ixeten da.

**ke, kei, keye.** (KE) Humo. || Keye daridxola. || Txorixue keyegas siketu du. || Ke artin dabil. || Keyas dana baltzittute dau. || Au eskatza dana dau ketan! || Iketza egosittakun keye botatie amaitzen da. || Keye susen doye gora. || Keye da ba suek ataraten dabena. || Ke eundidxe dau. || Keye dxatort. || Jeneral keirik baserriidxe esta sabaltzen, denporali-edo egon esik, tximinidxe gora jutun da ta. Baya ostantzin ba, keye olan sabaltzen, iños sabaltzen da, denporali-edo, aixi-edo daunien, da keye sabaltzen da, ta ba ordun ati sabalteu, kanpoko atie, edo au atie, gelakue, sabaldu,

da au gelako bentani sabaltzeu, da keye beres eskapeten da. || Keyas esin lei egon, ate-mentana sabaldu bi dabe. || Bai, basan e keye ta basan e su eta abarra an karabidhan, Jesus! Baya asko biar! ☐ **keye atara**. Golpear. Ik. berotu. || Keye atarako tzut. ☐ **ketan**. Echando humo, ahumado. || *Ketan dau*. || *Ketan dekeu txorixue*.

**kedarra, kedarrie**. (KEDARRA, kedar-bat.) Hollín, tizne. || *Kedarrie da suena, or tximinidhen-da egoten dana*. || *Kedarrie eitten dxako*. || *Kedarrie da tximidhen barrun egoten dan baltza*.

**keixa, keixie**. (GEREZI) 1. Cereza. Motak: *anpolaidxe, kexa baltza, kexa morau, txori keixie*. || *Keixa asurre*. || *Keixatan jun*. || *Emen oiñ esebe esta egoten; len aintxiñe keixetan egote san, bueno...! Ixen giñenien eskolan, an ibilli giñenin, bueno!, keixa lapurretan!* || *Keixa pe badas*. *Baltza dau*. *Gorridxe badau*. *Beste bat e olan morau-edo badau*. *Anpolaidhek len egon sirin baya oiñ estai bape gelditzen bada*. *Anpolaihek be naiku keixa aundidhek ixaten dire*. *Besterik e ba estai nik*. *Da gero badau keixa bat e...*, *alakorik estot pentzan gelditzen danik, morau esate gentzona da berandutxuau, gorridxe bayo berandutxuau eltzen ei xan, baya oiñ e, alan da gusti be piñuk sartu sirin de galdu ein sirin*. ☐ *Gabonetan keixak!* *esaten da, gabonetan ez delako keixarik egoten*. Era horretan aditzera ematen da eskari bat epez kanpo egiten dela edo ez dagoela egiterik. 2. Cerezo. || *Keixie loratzu dau*. || *Erroidxe pe keixara ariñ etorten dire*. || *Keixa arbolak das an*. ☐ **keixa anpolaidxe**. Cereza ampollar. || *Anpolaidxe da andidxaue, bestiek bayo*. || *Keixa gustidxetatik onena anpolaidxe da*.

**keja, kejie**. (KEXA) Queja, objeción. Ik. *ser esanak, esan biarrak*. || *Kejie emon dau*. ☐ **keja ixen**. Quejarse. || *Umik keja dixenien esaten da: "Selako irrirtue da ori!"* ☐ **kejias**. Quejándose, lamentándose. || *Ori beti dak kejias*. || *Errenkuretzu? Bai*. *Errekuretzu kejetan dabillena beti*. *Beti kejias, da beti errekuretzu*.

**kejau, kejetan**. (KEXAU, kexatu-bat.) Quejarse, enojarse, irritarse. || *Ya edadie euki arren, kejetan egon da gau gustidhen*. || *Beidxe estau ondo, kejetan dau te*. || *Beti dau kejetan!* || *Da emon netzon, da karneserue kejau jakun: okeliek usiñe artzela*. || *Errenkuretzu da beti kejetan dauna, beti ayenaka-ero deuna*. || *Jentie kejeute*.

**kejoso**. Quejoso, -a, lamentoso, -a, quejumbroso, -a. || *Kejoso dau*.

**kejure, kejurie**. Queja, lamento. || *Kejuri: ori miñeri eitte dxakon sera*. *Esate baterako, pena baten, kejurie, "Kejuri deko", agiñeko miñe dekesu, ta ba kejurie dekesu*. *Sufrimentuen sera, kejurie*. *Edoser, buruko miñe nai e...* *Kejurie, bai, esaten da*.

**kendu, kentzen**. (KENDU) 1. Quitar, arrancar. || *Asala, narru kendu*. || *Konortie kendu*. || *Bai, oneri*

*euneko amarra kentze tzen*. || *Ño, niri askotxu kendu sta arexek mendie*. || *Letaiñak aintxiñe kendu siren*. || *Edurre kendu ein da*. || *Areri kendutaku dirue emon bi tzat oindiño*. 2. Apartarse de un sitio. || *Paretik kendu seittes!* || *Kendu seittes ortik, uger ori!*

**kentzaille, kentzaillie**. (KENTZAILE) Que quita, desposeedor, -a. || *Kentzaillie, kentzen dabena da*.

**kepidxe, kefidxe**. Visera, parte de ala que tienen por delante las gorras. Azentua lenengo silaban du: *kéfidxe*. || *Kepidxe andalusek erabilten dabe*.

**keska, keskie**. (KEZKA) Preocupación, desasosiego, inquietud, angustia. || *Keska bakue*. || *Orrek keskie deko*. || *Keskarik etxekok orrek esegaitti pe*. || *Keskias geratu dok*.

**keskatu**. (KEZKATU) Inquietar(se), preocupar(se). || *Keskatu esate dxako, ba ser esangot neuk?, "Keski deko", edo "Keskatu eitten da", ba dauniñ olanik e geusa bat e, ondo estatorrena-edo, "Keskature ibiltten dire", da "Keskatu eitten da"-edo*. *Bai, keskatu esaten da geusia ondo etxatorkalako-edo, keskatu*. || *Bai, biarregas be, estu daunin, bai keskatu esaten da*.

**keskatzu, keskatzue**. (KEZKATSU) Preocupado, -a, intranquilo, -a, inquieto, -a.

**ketzu, ketzue**. (KETSU) Humeante, humeoso. || *Gastañie ketzue ixeten da, gastañiek sue gitxi eitten deu ba, keye asko, ketzue da*.

**kibi, kibidxe**. (KIWI) Kiwi (*Actidinia deliciosa*). || *Kibidhen parrelak*.

**kiebre, kiebrie**. Quebrar, arruinarse. Ik. *bei jo, lurre jo*. || *Kiebre jota dau*. || *Kiebri joten deuna*.

**kikil, kikille**. (KIKIL) 1. Apocado, -a, cobarde. Ik. *espela, txakille*. || *Kikille as, kikille!* || *"Kaskallu garbidxe!": ba esate baterako, geusestan geuseri-edo olan, "Kaskallu ixen dok ori!", seinde presona kkill antzeku orreri be igul: "Kaskalluori!"*. || *Txakiltasune: ori da kikille les egotie, txakiltasune, geixorik egoten dana, buru altzau esiñik, "Txakillau!", ero "Txakiltasune dekek", "Fulano txakil dxak", ero olanik*. || *Espille kkilleri esate dxako*. *"Espillori!", alan kikildute daunari, "Espil garbidxas i, espille!"*. *Brabotasune bakue*. 2. Pene.

**kikildu**. (KIKILDU) 1. Encogerse, entumecerse de frío. *Kukildu nahiz kukuldu nahiz kikildu esaten da*. || *Otzas kikildute egon dok*. || *'Konortera ekarri': iguel otzagas kikildute, aguenteu eiñik te, 'konortera, ekarri': berotute ipiñi*. 2. Amedrentarse, achantarse. || *Billurres kikildute geratu dok*.

**kikili-kokolo**. (KIKILI-KOKOLO) Sostenerse a duras penas, con fatiga, penosamente. || *Kikili-kokolo etorri: erdi alba-balboka badabil*.

**kikili-mokolo**. (KIKILI-MOKOLO) Flojo, -a, enfermizo, -a. || *Apur bet, geixo antzin dabillanari esate dxako: "Kikili-mokolo dabil, sendo estabil"*.

**kili-kili, kili-kilidxe**. (KILI-KILI) Cosquillas. || *Dios, kili-kilidxe eistek!* ☐ **kili-kili utze**. Cosquilloso,

sensible a las cosquillas. Ik. *kili-kilitzue, gilberie.* || *Ikutu te kili-kilidxe artzen deuna, batzuk estabe artzen, beste batzuk ikutuas batera: "Ori kili-kili utze dok".*

□ **kili-kili ein.** 1. Hacer cosquillas. || *Kili-kili ein tzue.* || *Kili-kili eidxok!* 2. Agradar. || *Kili-kili ein tzo, ta erosiko deu.*

**kili-kilitzu, kili-kilitzue.** (KILI-KILITSU) Cosquilloso, sensible a las cosquillas. Ik. *gilberie.* || *Ori kili-kilitxu dok.*

**kili-kolo.** (KILI-KOLO) 1. Oscilante, tambaleándose, suelto, -a, a punto de caer. || *Maidxe kili-kolo dxabik.* 2. Algo enfermo, -a, pachucho, -a, indispuerto, -a. || *Kili-kolo dabil (ondo topaten estalako).*

**kilimolo.** (KILI-KOLO) (Andando) a pasitos, costosamente. || *Txaka-txaka: curioso dabilenari.* *Pausu txikidxe, "Txaka-txaka-txaka dabil". Kilimolo dabilena les.*

**killo, killue, kilue.** (KILO) Kilo. || *Kilo bat urun.* || *Lau kilo argaldu da.* || *Lau kilo lodittu ein da.* || *Killuek libra bi dekosa. Killoerdi, librie.* || *Suk eskatzos, por ejemplo, bost peseta, killoko, edo amar.* || *Anegi berrogetamar killoku nik beti esautu dot. Da sakuna, sakuna ba kendu eitte tze konpradoriek, da batzuk killo bat kentze tze, da beste batzuk killu bi.* || *Txingie erutie? Ori plasan eitten dabe. Onenbeste killo erun bayetz da esetz. Oratu andik txingetatik-eta.* || *Nai killokue, nai e killo bikue, nai e librakue, sakutue ixete san.* || *Lau arruk kinttela eukitten deu. Da arrobi amabi killo terdi. Da ogetabost killo arro bi. Da berrogetamar killo. Kinttela esate dxako.* || *Diru apurtxut artu, bost txakur-de iguel killue eitte ban da.*

**killoka, killuka.** (KILOKA) A kilos. || *Saku nausidxetatik e taberneruk amen Nabarrixen be...* *Tabernatan ote san asukeri saltzen. Eurek eukitte ben eun killoko saku, edo berrogetamarreku, da gero killoka saldu, sakututan.*

**kilometrari, kilometrarridxe.** (KILOMETRO HARRI) Hito kilométrico.

**kilometro, kilometrue.** (KILOMETRO) Kilómetro. || *Emendik ara kilometro erdi badau-ero mendire, jutaldidxe!*

**kimau.** (KIMAU, kimatu-bat.) Podar. Sin. *iñusi.* || *Kimau: adarra kendu arboliri.* || *Orridxe kimau.* || *Kimautie? Ba ser dala esangot? Aulanik e satitxu kentzie, da satitxu kendu, da otzarara ein, de gero kimautakuen beidxeri askara emon.*

**kimu, kimue.** (KIMU, altsuma) Renevo, brote, retoño. || *Kimuek: esate baterako, ba piperra be sartute dau, tomati be bai. Arek dekesan orridxek, esate baterako eitten dau arridxen saparrada bat, arri saparrada bat, da arek kimuek kendu tzos, apurtu eitte tzos, da gelditzen da sostorin.* || *Arriidxe eitten dabenin-edo, olanik dekosen kimu gorridxek kentze tzosenin-edo, bai, sostortute gelditzen da.* || *"Arbolie sostortute gelditzen da": Arriidxe ein de ba... ser esangot neuk...?, arbolie*

*isten deu ba billosik les-edo. Orridxe kentze tzo, orridxe ta adar kimutxu pe iguel, olan e denporali dauniñ e, denporale txarra dauniñ e.* || *Adar kimu da adarrari puntan dekosen orridxek edo lorak kentzie, adar kimue. Adarrak kimaute.*

**kinkille.** (KINKILA) Quincalla. || *Aintxiñe orrek kinkilleruek... Kinkilleru da orrek kinkillak saltze ittunak, etzerik etze.*

**kinkilleridxe.** (KINKILERIA) Quincalla, mercancía de los quincalleros.

**kinkillera, kinkillerie.** (KINKILERA, kinkilari-bat.) Quincallera, vendedora ambulante de cacharros. || *Kinkilleridxe amen esate dxakon..., oiñ esta etorten, baya len etorten sirien, ba ser esango neu?, olan santaderinak-edo sirela esate ben-da, saltzen etzitara, olan aridxe-ta, kaltzerdidxek-eta, saltzen etorten sin, da kinkillarak arixei esate tzen emen.*

**kinkillero, kinkillere.** (KINKILERO, kinkilari-bat.) Quincallero, vendedor ambulante de cacharros. || *Kinkilleruk: serak saltze ittusenak: orratzak, artasidxek, eta titerak, eta olako geusek saltze ittunak.* || *Kinkilleruek astelenetan etorten dire Gernikera.* || *Emen e or e aintxiñe-ta oten san kinkilleru, esta? Or Munttitarren bixi san, da a orra berruten etorte san.* || *Traperue esate dxakon sakuk-eta saltzen ibiltte sana, arek "Hay sacos, hay trapos!"-da pregunta ibiltte suan ba, da gero etzitan basengos edo arek... Saltzen ibiltte suasen, dana ibiltte dxuan. Edo kinkillere. Kinkilleru bakixu ser dan? "Txirrit-txirrit!" eta kutxillu sorrostu te askorak eta dana eitte ban ak.*

**kinsena, kinsenie.** Paga que se recibe cada quince días. || *Kinsenie: ori jornala kobrau, amabostari baten, kinsenie.*

**kintto, kinttela.** 1. Quintal, cincuenta kilogramos. || *Lau arruk kinttela eukitten deu. Da arrobi amabi killo terdi. Da ogetabost killo arro bi. Da berrogetamar killo. Kinttela esate dxako.* || *Kinttela da 'quinta parte'.* *Axe da kinttelak esan gure dabena.* || *Arrua, amabi killo terdi. Kinttela da lau arru, berrogetamar killo.* || *Eukitte ban bolantik e ba kargatan erute ban burdidxe lako lau bider geidxau. Akorten nas burdidxen, ba geidxen be, amabi kinttel, tonelada erdi pasautxu ortxe. Da orrek erute sittuen lau tonelada be bai.* 2. Cesta de mimbre. Ik. *otzarie, bedar otzarie, leixibe otzarie, sestue, kanpasue, kopaleta, sesilie.* || *Bueno, esango tze batzuk kinttel otzari be igul baya oneri jeneral kinttela esate dxako, da otzarie da onen doblekue edo eundidxaue.* || *Otzari esate dxako aundidxeri, da txikidxeri kinttela edo kintteltxue.*

**kintto, kinttue.** (KINTO) Recluta. || *Soldau kinttue.* || *Kintto lagune.* || *Neure kinttue da.* || *Talletzie deke geur an kinttuk.* || *Kinttuk soldau jun bi dabena tire.* || *Orrek esate ban, baten moskorras a, Elixaldekie, gure kinttue, Elispekue. Arek e ari Rupertori, taberneruri, ba beti a idietan, da geusak esaten, da au*

te, "I, ididzek asko! Ididzek asko!". 'Idie' esateko, 'ididzek', moskorra eukin izela. "Ididzek, ididzek!"

**kinttopeko, kinttopekue.** (KINTOPEKO) Joven que aún no ha sido llamado a filas. || Ondiño a kinttopeku ixengo da. || Kinttopekue: kinttu ixen bakue.

**kiñu, kiñue.** (KEINU, imintzio) Gesto, señal; guiño. || Orrek eitte ittu kiñuek! || Kiñue: begidzek sarratzie. || Txistadie? Esate baterako, Txiiiiissss! einde, txistadi orixe da, nai fisis! txistutxue. "Txistadi ein tzek" eta. Besti, kiñu da ba begidzas ero orras, edo igul eskuas be. Baya kiñu da begidzas ein bi dana. Kiñu, propidxu, begidzas ein bi da. Ori oin be useten da. Musin-de, edosetan or, "Kiñu ein tzek". Bestik esaten dabe "Seiñi ein tzek?" eta. || Da orre pe kiñue die abuas eitten dana be bai. Musikuek kiñurik... Mus, propidxun, kanpeonatu daunin, kiñuri parik esaten dabe jokatu bi dala. Kiñu artzen badau, nulo. Da kiñu da nai abuas, nai atzamarras edo bestias. Faltzu di orrek e. Kiñu naturala da abuas da begidzekin. □ **kiñu faltzue.** Señal falsa (en el juego de las cartas). || Se batzuk pentzaute eukitten dabe. "Bueno, suk erregi dekesuniñ e ipiñi karta bat olan, ero trabes bestie ero bestie. Joku dekesuniñ olan". Da orre di kiñu faltzue. Olakuk atrapau eskeru, nulo. □ **kiñu ein.** Gesticular, hacer señas; guiñar.

**kiñuke.** (KEINUKA) Haciendo gestos, señas. || Kiñuke dabil.

**kiñulari, kiñularidxe.** (KEINULARI) Guiñador, -a, gesticulante.

**kipule, kipulie.** (KIPULA) Cebolla (*Allium cepa*). || Kipula burue. || Kipula txortie. || Kipulie doretan asten danien. || Kipula landarie ipiñi eitten da. || Kipulak ipintten dabil. || Kipule klasiek emen asko ibiltte una gorridxe da, kipula gorridxe. Da gero beste bat tau suridxe dana, ensaladan-da jaten dana, bigunau dana. Da gero beste bat tau, gorridxe be esta, suridxe be esta, apur bet oriskatxu da ta ligorrau dana. A pentzetot a kipulie or erdalerridzen ibiltten dala. || Ba nik estaitt senbat klase dasen baya emen guk geidzen ibiltteuna kipula gorridxe da, da suridxe be oten da. Da leलगotan kastetan dana..., ba ser esangot nik? Areri leलगotan kasteta danari ser esate tzeu? Borru-edo, olako ixen bat esate tzeu baya ba kipulak goixetik urtete ban lekue, axe ibiltte gara gu te. || Borrue entzu ot. Baya kipulek borru esate dxako..., len esate gentzon kipule suridxe ariñ etorten danari.

**kipurre, kipurrie.** (KIPURRA) Nata de la leche. Telie ere esaten da. || Kipurrie beres formaten da, selan otzitten doyen, alan sertzen da. || Bitze leलगo sertzen dana, a bitze kendu. Esnie egote san latzien len da a bitze kollarias kendu ta katuri emon, da gero kipurrie formate san, kipurre ederra. || Len, aintxiñe kipurrerik es san esaten, oin bai, oiñ esaten dana ori kipurri, ori barridxe da. Len esne telie, beti len, es kipurrie. || Kipurri? Batzuk esnin ganiñ eitten dxakon serari esate tze. Kipurri esate tze. || Kipurre? Guk seri

esate tzeun bakixu kipurre? Esnin natiri. || Teli, esnie otzittukeran beti eitte dxako. Kipurri esate tze oin danak. Danak kipurrie. Sarias kentze tzo dana egosidzas-egosidzas. Da ba "Kipurre dana kendute dau" esaten da. Baya areri gero otzittukeran beti eitte dxako telatxue. Da len e, len esate baterako es kollarie, baya eulidzek an telin ganiñ ibiltte siren. Esnie gogortute e! Gogortute es, baya telik itxi es. A da koipetzue eukitti esnie. Esne koipe askokue.

**kiputz, kiputze.** (KIPUTZ) Guipuzcoano, -a. || Kiputze ixen san a be, bertoko-bertoku barik, Gipuskuatik etorrineku. || A kiputze? Bai. A Gipuskuakue ixetes, ba amen egon san eskondute. Morrosko mutil bet. Kiputze, pastori sana. Berton bixi san, an Arrolan, an tontorrien, basuen, antxe bixi san. Beren denpora gustidxe..., nik an esautu naben. || A bai, Lusio pastorie. Bai, bai, Lusio. A kiputze san, Mendaroku-edo, orku. || Kiputze esate gentzon areri Arrolakuri. Arrolako kiputze beti. Ixenik e Lusio dxakon ixena. Baya beti ori, kiputze. Emen e, or Gipuskuatik etor di gitxi, da ortik etorritakuri ba beti ixenas barik 'kiputze'. □ **kiputz ein.** Hablar la variedad dialectal guipuzcoana. || Kiputza da, kiputz eitten deu.

**kirieleixon, kirieleixona.** (KIRIELEISON) Kirie, kirieleison, invocación que se hace al Señor, llamándole con esta palabra griega. || Siketiri be eitte dxako, da letaiñie denpora onari be eitte dxakon. Neu pe baten esautu naben letaiñi... Da kirieleixona berak abadi e esate sittusen bai, santun ixenak esaten sertute san, da Santo Domingo ta SantiMateo-ta atate sittun santu ixenak esaten jute san, da ora pro nobis bestik atzetik segidzen.

**kirikidxolatz, kirikidxolatz.** (KIRIKIOLATZ) Erizo (*Erinaceus europaeus*). || Ulie deko kirikidxolatzak les. || Kirikidxolatz biribiltzen da, dana arantzia. Dana pintxue deko. Len asko ibiltze san emen, oin gitxi ikusten da. || Kirikidxolatz biribildu eitten da, eser estrapesurik, da eser topau eskerun, da eser ikusi eskerun, a biribildute gelditzen da, arantza utzin. || Baya kirikidxolatz bakiit selan biribiltzen dan, ikusitte dekot. Uretan sabaltzen da, uretara botata. || Berari kolpe eiñ eskerun bai, se a arantza utziñ eoten da. Da neusidzek es e, kuna txikidzek diriñin be, abidxe be baten bayo geidxautan topau dot olan leku eskututan-edo, dana eskutu estan lekun be bai, abidxa itzel-itzel dabe, da ainbeste kuna eukitten dabe, da aixe pe biribildu eitten dire.

**kirikilloye.** Preparado de friegas. || Kirikilloye: ori da botika modukue, aintxiñe eitte ben aintxiñek-andrak, edo gixonak. Bai, ikusi dot neu pe iños, da ixaten da suridxe beres. □ Berba hau gutxi erabiltzen da eta batzuek ozta-ozta ezagutzen dute; esaterako, hona hemen Andere Goirienak esan zidana: || Kirikilloye lengo jentik esate ban asko, da ni pe entzunde deket kirikilloye amari-edo. Oiñ kirikilloye eta olakorik estaitt pa esaten da be. Ori igusteku-edo ixengo da etziñ eitten da botikan bat.

**kirimillau, kirimillaue.** (KIRIMILAU, kirimilatu-  
bat., kiribildu) Enroscar(se), enrollar(se). ||  
"Kiskildu" da ya enkojidu edo dana kirimillaute  
deuna. ☐ **ule kirimillaue.** Pelo rizado. Ule kispau  
gehiago esaten da. || Ule kirimillau deko. || "Txirikillus  
beteneku deko" be esaten da, baya ule kirimillaus  
ibiltten da.

**kirri, kirridxe.** (KIRRI) Corpúsculo, molécula,  
elemento. ☐ **kirri te mirri.** Entre sí y no, a medias; sin  
fuste. || *Karraskillu da beti kirri te mirri te eskapa, ta  
or dabillena. Karraskillue. Formalidaderi pakue esati  
les.* || *Kirri tte mirri: batiñ au te bestiñ ori dabillena,  
esbaidxen.* ☐ **kirridxe ein.** Volverse arenosa o dura la  
fruta. Nabarmizen ari ein esaten da gehiago. || *Kirridxe,  
ba, frutiti, edo seri, sagarrari be eitte dxako,  
madaridxeri be bai.* || *Ari les-edo eitte dxakona,  
enbarasu eitten dabena, edo frute batzuk badas, olan,  
geuse, sati unekada gogorak eukitte ittuena; da ba  
"Kirridxe eitte dxako"-edo.*

**kirrikarra, kirrikarrie.** (KIRRIKARRA) Carraca,  
matraca. Ik. *matrakie.* || *Ori e len amen be jote san  
baridxeke satus e, da kirrikarri esate gentzon,  
kirrikarrie, olan kirrikarra, kirrikarra, baridxeke  
santus-da, sera Jesukristo il dala ta kirrikarri jote san.*

**kirrikirri, kirrikirridxe.** (KIRRIKIRRI) Ternillas de  
la carne, cartilago. || *Kirrikirridxe asurre da, maiñek  
eukitten daben asurre, ser esangot neuk? asur gogorra  
estana, apurtzen dana: kirrikirridxe. Txakurrek jaten  
dabe.* || *Kirrikirridxe da asur bat, gogorra estana, baya  
ba mamiñe ba egositte jan eitte dxako. Kirrikirridxe ba,  
txakurrek eta katu pe jaten deu.* || *Asurre gogorra  
ixeten da, baya ori kirrikirridxorreri oten da mamiñeas,  
da jaten deu animalidxeke, e txakurrek nai katuk jaten  
dabe kirrikirridxe. Da erres apurtzen dana. Asurre ba  
esta erres apurtzen, baya kirrikirridxe.*

**kirrikorro, kirrikorrue.** (KIRRI-KORRO) Ruido  
que se produce en el aparato respiratorio cuando se  
está acatarrado. || *Selako kirrikorrue dekot!* || *Saman  
eukitten danin kirrikorrue, a saratie; katarrue-edo  
daunin-de eitten da saratie emen saman; areri esate  
dxako kirrikorru.*

**kirrin, kirriñe.** (KIRRIN) Crujido, rechinamiento.  
*Txirriñe* ere esaten da. || *Burdi kirriñek.* || *A sebue  
asko eitten badxako, ak kirriñik esteko.* ☐ **kirriñe jo.**  
Hacer chirriar el carro que lleva el arreo para celebrar la  
boda. || *Arridxue eurteko-ta, kirriñak jote siren, arek,  
grin-grin-grin...*

**kirrin-karran.** (KIRRIN-KARRAN) 1. Rechinar del  
carro. || *Kirrin-karran eitten deu.* 2. Juego de los niños  
en el que uno de ellos se coloca sobre la pértiga y los  
otros en la parte trasera y suben y bajan sucesivamente  
al primero. || *Umetan geu pe asko eitte gendun. Bat  
paretan da partikan, puntan, partikan e laakue da  
olan sartute dekona puntan, da arixeru oratu de bat e  
burdidxen gora ta bera, gora ta bera ibilttik.* || *Kirrin-  
karran, bai, burdidxas eitte gendun. Bueno, joku bat*

*san da etzan, olgetan ibiltte gendun, burdidxen atzin  
plantau lagun bi edo iru edo lau, dana dalakue, da  
beste bat eurreko partikan plantau, da axe altzetan,  
gora ta bera, kirrin-karran.* || *Peru sapataridxe: ori  
guk burdi ganin plantaute, bat burdidxen partikan  
pareta san, oratu larakuri -laku ori ixeten da bateri  
bestera partiki illun eitten dabena- da atzin plantau  
sirin beste kuadrillatxu bet, da kirrinkarran arixeru  
esate gentzon, kirrinkarran.*

**kirriskada, kirriskadie.** (KIRRIKADA) 1. Dentera.  
2. Ruido que hacen con los dientes. *Karriskadie* ere  
esaten da. || *Bai, agiñeri be kirris-kirriske eraitte  
dxakenen, bai, kirriskadak, agiñen kirriskadak.* ||  
*Gustora estaunin-de ganaduk eitten dabes eurok  
(kirriskadak).* ☐ **kirriskadie erein.** Producir dentera.  
|| *Agiñeri kirriskadie ereitte tze orrek sarati orrek.* ||  
*Kirriskadie ereitten deu orrek saratik.*

**kirriskadaka.** (KIRRIKADAKA) Crujiendo los  
dientes, chasqueando los dientes. Behiak gustora ez  
daudenean egiten dute. || *Beidxe kirriskadaka dau.* ||  
*Ganadu pe igul agiñekiñ eitte ittue kri-kri-kri!,  
"Kirriskadaka dxak".* || *Lagune pe bai, batzuk, kra-  
kra, "Agiñeri kirriskada au, agiñeri kirriskadaka".  
Agiñek igul krak-krak eitten dabe ba.* || *Bai,  
kirriskadie guk a. "Kirriskadaka dxak agiñekin", kri-  
kri-kri, beidxe-eta eitten dabe.*

**kirru, kirrue.** (KIRRU) Cerro, estopilla, lino superior.  
|| *Kirrue selan esango pa ser dan? Kirrue da... Neu  
pe esautu naben a bedarra da. Bedarra da, da a  
bedarra... Selan esangot nik? Bai, liñu da. Liñuas  
eitten dana da kirrue.* ☐ **kirrusko ixerie.** Sábana de  
lino. Sin. *liñosko ixerie.*

**kirten, kirtena.** (KIRTEN) 1. Mango, asidero. *Astie*  
ere esaten da. Erreminten kasuan *kirtena* esan ohi da.  
|| *Askora kirtena.* || *Atxur kirtena.* || *Eskoba kirtena.* ||  
*Aidxotza da, esate baterako, serriñ antzekue, olantxik,  
deko beren formie, ta barrutik ague deko, da gero  
kirtena ipintte dxako egureskue.* 2. Estúpido, -a,  
majadero, -a, tonto, -a; gandul, -a, holgazán, -ana. Ik.  
*gangelue.* || *Ori kirtena!*

**kirtenkeri, kirtenkeridxe.** (KIRTENKERIA)  
Necedad, majadería, gansada. Ik. *satarakeridxe.* ||  
*Kirtenkeridxe? Ba geuse susena estanari.*

**kiskaldu, kiskildu, kiskeldu.** (KISKALDU) Abrasar  
(se), requeamar(se), tostar(se), calcinar(se). || *Kiskaldu:  
erre larrei.* || *Etzie kiskeldu.* || *Kiskildu ein dok total.*  
|| *"Kiskildu" da ya enkojidu edo dana kirimillaute  
deuna.* || *Kiskeldu: erre, alperrik galdu. Seoser  
botaten bada sutera be, ba kiskeldu.*

**kisket, kisketa.** (KISKET, txinget) Pestillo, pequeño  
pasador que se cierra a modo de cerrojo. || *Atie itxixu  
kisketagas!* || *Kisketi da, kisketik deko a rak! altzetan  
dana.*

**kiskor, kiskorra, kiskerra.** (KISKOR) Tostado,  
arrugado al fuego. || *Kiskorra da erretakue. Erreta  
badau, esate tzu "Dana kiskortu dxok". Geuse bat*



erreten batzu, edoser geuse, okeli be bardin, nai edoser, suten-ero: "Dana kiskortu dxok". || Kiskorra geuse igerrari esate dxako, siku-siku danari. □ **arri kiskorra**. China, piedrecilla. Arri koskorra esaten da gehiago. || Arri koskorra esate tzeu guk arri koskorra jeneralin, arri kiskorra be bai, baya ostantzin kiskorra ixates da erretakue. || "Arri kiskorra sartu dxatek ankan!" esaten da. Sapatillan-edo seoser bokosu arri olako: "Kaguen, arri kiskorra dxekatek!". Arri grijue barik. Arri griju da ba asko egoti les, da bat sartzen badxatzu, arri kiskorra. || Iguel apartan saus, eta: "Dana arri kiskorra!". Da onek igul ekarte ittue bakiek, kanpotiku dan babiek, da artuk-eta, es emen berton artzen danak e!: "Kaguen, arri kiskorretan euki dxok, arri kiskorretan!". Arri griju barik, ordun esaten da arri kiskorra. || Da gero arexe garbitzeko usete gendun lurre. Lurre eta ori arri kiskorra.

**kiskortu**. (KISKORTU) Tostar, asar, abrasar, requemar, achicharrar. Sin. larrei erre. || Kiskortu da bi dan modun. || Kiskortute geratu da. || Dana kiskortu dxok! || Okeli kiskortu da.

**kispau, kispau**. Rizado. Ule kirimillaue ere esaten da, baina gutxiago. || Ule kispau.

**kittano, kittanue**. Gitano. Hitz hau galduz doa. Gaur egun jittanue entzuten da gehiago. Ik. ikittanue, motzailie. || Kittano antza. || Gusurrek esate itunari e esate dxako "Kittanu alakue! Esan be edoser eitten deu!"-te.

**kittanokeridxe**. Jugada, trampa. Jittanokeridxe ere esaten da. || Kittanuk tratuk eta orrek, "Kittanokeridxe ein dxok orrek, kittanokeridxe!".

**kittarra, kittarrie**. (KITARRA, gitarra-bat.) Gitarra. Gitarra ere esaten da. □ Txakurrak ardiak kentzeko atzeko hankaz hazka egiten hasten denean, honela esaten da: || Kittarri joten boutzo orre pe!

**kittu**. (KITU, kito-bat.) En paz, sin deudas, saldado. || Kittu da enpate. || Kittu: igul e soser bakixu e, diskusiño ta "Be, kittu ordun!" Bertan bera akabau. Ori da akabo bertan bera. || Da oin dirukin-edo guk amen eitte du errepartue, bidxok bardin, da: "Kittu gaus oin!" □ **eta kittu**. Se acabó, no se hable más. || Akabo ta kittu. || Konprimenturi pe esteu ein, konprimenturi pes! Alan dala ta kittu! || Estañue: sulu dekon tanga bateri eitte dxakona, suten berotute an, botate dxakona sulotxun. Oiñestañori pe etxake botaten. Sulotute daunin jeurti, te kittu. || Olanik igerte dxakeniñ e "Axe ollu motela dau", ba ill eitten da, da kittu, kendu enbasutik. || Da garbittu eskuen, ostu, nun itxi san, se ein san, da kittu! Galdu. || Axete baten, denboralie egon san baten axik (mimosie) jaurti ban, da kittu! || Ni e tabernatan enas oteko. Bidxar mesi ordu batan. Da andixik urten, da iru txikito edo lau edate dus etzera orduko, da kittu. □ **kittu ein**. Quedar en paz, sin pérdidas. || Kittu ein: igul leku batetik seoser erosi, erun, erun artunde, da berak emoteko euki ban: "Kittu ein deu".

**kittutu**. (KITUTU, kitotu-bat.) Quedar a la par. || 'Kittutu' da par eittie. "Kittutuko atau!" igul saplasu ataraten deu batek, eta "Kittutuko atau!". 'Kittutu' da beste bat berak emongo tzola, ta parra. || Galtzen egon dok, baya kittutu ein dxok. || Musin, nai jokun be, iguel lelengotan jute sara irebasten, edo galtzen, da "Ba, kittutu ein dxuau", lauten juten bada, da gero irebasi. Da parra eitten badeu, ba kittutu. 'Kittututie ixen bi de parra'. || Kittutu: ya atzetik jun, de gero atrapatzen badabe, parra eitten badabe, "Kittutu du". Diru galdutaku atzera irebasi, parra ein. □ Karina Zabalak beste definizio bat eman zidan: || Kittutu parreittie esta. Kittutu da parra bayo..., selan esango dot? kittutu da ein barik kittutu, "Kittutu nau", me ha dejado sin nada. □ Karina Zabalak ondoren datorren adibidea azaltzeko esan zidan jokoan dihardutela, bata besteari diru barik utziko diola esaten dela: || Neuk kittutuko saittut! || Onek ni kittutu nau.

**klarion, klariona**. (KLARION) Tiza. || A da eskolatan ibiltten dana. Klariona esate tzen maistrak.

**klaru, klaru**. (KLARO) Claro. || Aseridxe, bai, ori bai bada aseridxe, ori klaru dau ba. || Guretzako ori da klaru. || Ño, edoidxe klaru dxak gaur! || Da seru garbi-garbi daunin, "Ño, klaru dxak geur serue!". || Emen klaru-klaru dau, euski ederra, da an Barakaldon euskidxe bai, baya kañe. || Ametik tiruk entzute sin. Bai, or frenti lusero on san or e Gipuskuan. Ba, amendik entzute sin tiruek. Ta Illunsarretik, bueno! Klaru-klaru-klaru.

**klase, klasie**. (KLASE) Manera, clase, tipo. || Klase bire. || Aintxiñeko klasera. || Olantxik ein bi san, es beste klasera. || Ori ikittanu klasi da! || Orre klasetan badau arridxen be, bueno!

**klaudi, klauidixe**. (KLAUDI, klaudia-bat.) Ciruela claudia. Klaudi okana esaten zaio. || Klaudi okana, amendik untxe esautu dot. Arrautze okana, asto okana, da andraiñe lengo sarrak dire. Klaudi okana gero urteneku da. || Klaudi okana be suridxe da. || Klaudi okana gosu da. Da beste bat dau, arrautze okana be bai, asko be aundidxae.

**klo**. (KLO) Onomatopeya del sonido que produce la gallina clueca. || Ollolokie: geusa epelari. Orrek miii-miii "Olloloki laku dok ori!". Ollolokak ibiltten dire klo-klo-klo! txitxa saintzen ba, da olloloki lakue. || Lokie da olluk klo-klo-klo eitten dabenin, arrautza ixagitten, ollu lokie esaten da ordun.

**koba, kobie**. (KOB) Cueva, caverna, gruta. || Kobak dire trabes dausenak eta leixak dire bera dausenak. || Aintxiñe sarrak Santimamiñeko koban bixi xixi sin. || Sorgiñek kobatan. □ **Ondaroko kobie**. Cueva de Ondaro. Ondaro kobie ere esaten da. || Ondaroko kobie esate tzau orreri, Ondaroko kobie. Ondaro etzi dau or, Gabike bakixu sein dan, au Gabike, elixiñ urren daun etzi arantz, axe da Ondaro, da arixen basu-edo da kontixu ba kobiduna. Da Ondaroko kobi beti, Ondaroko kobie. Koba aundidxe da bai, Nabarrixen

*kobarik aundidxena. Ta emen be, ori Lesikeku-ori ixen esik aundidxena emen bueltan be. || Au koba aundidxe Ondarokue esate dxakona da aundidxe, or beyen.*

**kobarde, kobardie.** Cobarde. Ik. *bilddurtidxe. || I kobardi as! || Kobardiau da!*

**kobardetu.** Acobardarse. Ik. *bilddurtu. || Kobardetu da.*

**kobralari, kobralaridxe.** (KOBRALARI) Cobrador. || *Da soñu te panderu ixete sin, oingo trikitilaridxen tipora. Da kobrau, kobralaridxe bat, da dantzako kobrau beti.*

**kobrau, kobraten.** (KOBRAU, kobratu-bat.) Cobrar. || *Alogera kobrau. || Estaitx se kbrate ben arto sorroko. || Geuk sartu gendusen piñuk esaskuen ba kobrauko gendula onek saltze siñin. Ori parti ixengo gendula. Troso esate gentzon.*

**kobre, kobrie.** (KOBRE) Cobre. || *Ixeten da (malmaixe) kobresku, ori katxarru, pixutzu-pixutzu. Da ixeten da katillutxu lako ontzidxe. || Malmaixe: astun-astun ixaten da. Ori kobri, edo orretaiku ixaten da.*

**kodainkada, kodainkadie, kudinkadie, koreinkadie.** (KODAINKADA) Golpe de guadaña.

**kodainkaso, kodainkasue.** (KODAINKAZO) Golpe de guadaña. || *Ta kodañe beti jute da les tatarres, arrastadi. "Senbat arrastada emote tzesak?". Beste batzuk esaten dabe kodainkasu ederrak emote tzesak!. Ba jeneralien, "Arrastada ederrak botate tzesak!".*

**kodainketa, kodainketie.** (KODAINKETA) Labor de corte con guadaña. □ **kodainketan.** Segundo. || *Len aspiarridxe naiku ekarte gendun etzera, kodainketan einde.*

**kodañe, kudañe.** (KODAINA, sega) Guadaña. || *Kodañik estau? || Kodañe sorrosteko arridxe. || Kodañas nebillen berton, etze sarran atzien, ta kendu neutzen burue. || Poteidxe gerridxen ipintten siren, arridxe sartun de kodañe sorrostuteko-ta. || Bedar sail bat ebaten da bedarra. Len e serrias ebate san da oin kodañas ebaten da. □ kodañen lepue.* Parte posterior al filo de la guadaña. □ **ota kodañe.** Rozón, guadaña tosca, gruesa y ancha que se usa para cortar argoma. *Sasi kodañe ere deitzen zaio, baina izenik zabalduena ota kodañe da. □ sasi kodañe.* Rozón, guadaña tosca, gruesa y ancha que se usa para cortar zarzas y argoma. *Dena dela, izenik arruntena ota kodañe da, baina bat dira.*

**koipe, koipie.** (KOIPE) Grasa. Ik. *sebue. || Koipie emon. || Ogidxe untetan deu koipetan. || Koipie urtute eitten dana da. Oin koiperik esta lengo modun eitten. Len koipie urtu eitte san, sebuk-eta, txintxerrak-eta eitte sirin. A koipie da ya grasa-da, da bestie sebu da, gogortute egoten dana. || Saiñe ballenien koipie da. || Koipe gasie urtu. || Koipe asko dekesu suk! || Koipie dxok onek asko! || Koipie, ako..., lijerueu ibilli deidxen, an ardatzien koipie ipiñi bi dxako. || Orrek makiñik koipin premiñie badxok! || Makiñie ligorra*

*badau, koipik gosatu eitten deu, bigundu. || Askonarrak? Orrek txakurkidxe dire ixetes, eurok. Txakur rasa antzekuk. Jateku-te orrek estire... Dana koipie, koipetzu lakuk ixeten dire orrek. Iños jan dabe emen askonarra. Baya dana sebue!, txarra! || Gixena? Emen geidxen koipiri esate dxako, gixena. || Burduntzidxe? Txarridxe il, de txarridxen urdeidxe suten e koipi bota eraitte dxakona, ta gero ogidxen barrun sartu ta jaten dana. Da axe burduntzidxe, burdiña bat ixeten da. □ Txahalek sebue nahiz koipie egiten duela esaten da, txerriek, ordea, koipie bakarrik. □ Tratantea txahala erostera etortzen denean ere honela esaten du batzuetan: Joe, koipetan badxok onek, koipetan! □ koipe gasie.* Grasa que se extrae del cerdo y una vez troceada y diluida se guarda para cocinar. || *Txarridxen koipiri koipe gasi esate tzeu. Da axe urtu, da gero txintxerrak eitten dire, txingerrak-edo, guk txintxerrak esate tzeu, ta ba txingerrak esate tze kontixu. Da axe koipie, txingerrak apartau, da axe koipe garbi-garbidxe pasau serien, pasadorien, onakoxe pasadorien, da koipe gasie botate san orretara pitxar morkutara. Da gasteta san ba eitteko, nai lomo patatiri, nai ba seoseri kipulie dorau bertan, da berakatzta, da botateko ixete san seoseri. || Morkokadie ixete san e koipe gasie. Koipe gasi, ta patatak brijidu eitte sirien, lapikuri botate dxakon sustantzidxe euki deidxen. Baya oin txakurrentzat-edo, oiñ aprobetxau esta eitten. || Koipe gasie txarri sebue da, txarridxen koipe gasie. Txalana sebue, bortzegidxei-tte emoteko sebue ixate san. || Koipe gasi ixeten da: koipie eitten da, txarridxen koipi eitten da, geu pe eitteu te, satitxu-satitxuk ein, de urtu, ba gordeta eukitteko urtu, te gero botaten da lapiko batera edo lurreko ontzi batera. || Bueno, ori geu pe usau gendun edo geu pe ikusi gendun, baya ori da txarridxen koipe gasie, da urtu, da daun modun ba erretirau, ontzitzu baten artu, ba orixe emote dxaken sapatari-tte. || Koipe gasi txarridxena ixeten da. Da ganaduma ixeten da koipie. □ koipe opille.* Grasa que se extrae del ganado y una vez troceada y diluida se guarda para cocinar. || *Koipe gasie txarridxeri eitte dxakona da. Da beidxeri be eitte dxaken, edo txalari, sesiñeri be, baya ixete san e..., koipe opille esate dxakon areri. Da a eitte san e kasuela aundi baten-edo urtze sanien, ba botate san e kasuela aundi batera, da serak, arek txingerrak apartau eitte sirien, da bera, garbi-garbidxe, kasuela aundi batera botate san, da okitzen ixete san, da gero andixik lapikuri, indarrari-tte ba lantziñ apur bet eitte dxakon, gastau eitte san da. || Koipe opille? Ba, len..., oin be bai, iltten da sesiñe, da len be bai. Barrun eukitte itue estartien koipik, eukitte ittu. Arek koipiek eitten dire urtu. Suten ipiñi de urtu. Da gero eitten da..., ure ipintte dxako aspidxen e kasulie edo palankani edo soser da urtu te artu burduntzalias edo sosegas da araxe uretara bota. Gero a siketzen danien koipe opille einde gelditzen da. Da len aprobetxau eitte gendun axe be ta oiñ esta aprobetxetan. || Koipie eitten dana estitan oten da, bueno ori estin ganin-da oten da ori,*

*ori koipe opille. Opille eitten da, koipe opille eitten da ganaduk nai txarridxe barrun eukitten daben koipie urtu, da arek e txintxortak esate tze areri, serari e..., urtu te ara ba gatzan apurtxut einde, ogidxen barrun sartute, len jan eitte gendusen arexe pe. Da aexe esate dxaken txintxortak. □ koipe sarie.* Capa fina de grasa que cubre la tripa del ganado y del cerdo. || *Mantillie da sesiñeri kentze dxakona, tripe..., sabaltze sanien, tripe ganiñ eote san olan koipe sare-sarie ixete san. Ixeten da, ganaduk, nai txarridxe pe bai, arek tripak, estik, eta danak tapaute eukitte ittu koipe sare-sare batas. || Koipe sarie? Bueno, neuk estaitx txarridxe koipe sarerik eukitten badeu eta. Ori be txalak eukitten deu, txala illten danien. Tripin ganiñ eukitten deu koipe sare-sarie, tapaute eukitten deu arexas sare-sarias. || Bai, batzuk eukitten dabe tripin ganien ba sari lakoxie, da axe da koipe sarie. Da mantilli be bardñ esate tzeu, lengo andrak mantilli esate tzeu.*

**koipeki, koipekidxe.** (KOIPEKI) Grasa, cosa grasienta. || *Urdeidxe koipekidxe da.*

**koipelustre, koipelustrie.** 1. Sucio, -a. || *Koipelustrie: sikiñeri.* 2. Adulador, -a, lisonjero, -a. || *Ori da koipelustrie!*

**koipestau.** (KOIPEZTAU, koipeztatu-bat.) Untar, pringar, engrasar. || *Koipestau dosu erropa gustidxe!*

**koipesto, koipestue.** (KOIPEZTO) Pringoso, -a, grasiento, -a, mugriento, -a. || *Ori da koipesto sikiñe! || Koipestu: dana musturre-ta koipes beterik daunin, "Koipestu-ori!", dana sikiñe, musturre iguel sikiñe koipes beterik-ta.*

**koipetzu, koipetzue.** (KOIPEZTU) 1. Graso, -a, grasiento, -a, pringoso, -a, mugriento, -a. || *Au koipetzu dxak au! || Teli, esnie otzittukan beti eitte dxako. Kipurri esate tze oin danak. Danak kipurrie. Sarias kentze tzo dana egosidxas-egosidxas. Da ba "Kipurre dana kendute dau" esaten da. Baya areri gero otzittukan beti eitte dxako telatxue. Da len e, len esate baterako es kollarie, baya eulidxe an telin ganien ibiltte siren. Esni gogortute e! Gogortute es, baya telik itxi es. A da koipetzue eukitti esnie. Esne koipe askokue.* 2. Secoso, -a. || *Da koipetzue da beste geuse bat, sebotzue esate dxako ganaduri be. Lodi badau, gidxerri bayo geidxau koipi eukitten dau: "Jo, ori koipetzu dxok ori ganaduori!". Koipetzu, edo sebotzu, bat, edo besti.* 3. Fritada, fritanga. Emiliano Arriagak coipachu hitza batu zuen Bilbon eta definizio hau eman zuen: "Tocino o *guiarra* que se pone dentro del talo y sabe muy bien con él". || *Aintxiñe esate san, sartenekue eitteko – txorixu, te urdeidxe, te orrek–, ba koipetzu esate dxakon areri. || Len esate dxakon sartenekuri: "Koipetzu jango dxuau?" || Lengun be gure andrie be inbiteu ben, taluekin koipetzu, txorixue ta pernille ta jateko. || Koipetzu jan biou geur. || Koipetzue guk esate tzauiñekuri, an urdeidxe, ta txorixue, te mantekias eindekuri.*

**koittada, koittadie.** (KOITADA) Pobre, infeliz, referido a la mujer. *Koittadu* legez erabiltzen da.

**koittadu, koittadue.** (KOITADU) Pobre, infeliz. *Gixajue* baino leungarriagoa da eta batez ere, umeei edo zaharrei esaten zaie. Amultsutasunez edo maitasunez esan ohi da. || *Koittaduori! || Umi dau negarres da ba koittadu-edo ba esate dxako. || Ori koittaduori asko jan bari dxak geur! □ Zaharrari: || Au koittaduo makaldu dok! || Koittadue esate dxako, ba sartute dau ba "Ori koittadu be badabill e!"*

**kojo, kojue.** (KOJU) Cojo. Ik. *errena, tringue.* || *Kojue ixen arren, beste batzuk bayo ariñau igoten deu mendire, biskorrau. || Biriki: an urtete tze or, da tontor eitte dxakue, da gero kojo oten die beidxe pe. □ kojo ibili.* Andar cojeando. || *Kojo dabil.*

**kojoka.** (KOJUKA) 1. Cojeando. || *Baya 'tringu' da ostantzin kojoka dabillena.* 2. Saltando sobre un pie. Ik. *koskorrinke.*

**kokaldi, kokaldidxe.** (KOKALDI) Decaimiento, malagana, enfermedad. || *Geixotasune pasate su, de: "Pasau dxako kokaldie." (osaten danin). || Kokaldidxe deko. || Kokaldidxe? Malagani-edo. || Bueno, kokaldi edonok euki lei. Su pe bai, neu pe bai, edonok euki lei kokaldi.*

**kokarra, kokoarra.** (KOKO-HAR) Gusano, lombriz de tierra. Ik. *arra, arreidxue.* || *Kokarra da lurrin dabillena. Goldaketan, lurra astintzen bosu, barrun urteten dabe. Orrek arraintako-ta batzuk usete ittuena. || Bai, guk usau emen, bai, kokarra bai da arra be bai, te guk geidxau arras ibiltteu, lurrin botaten diñ arrakin.*

**koko, kokue.** (KOKO, zomorro) 1. Insecto en general. || *Txoridxe, sosuk da one pe, koko asko jaten dabe. || Sagarrak kokue deko. || Karias e surittu eitte sin bera sagar eperdidxe, kokorik eta eser sartu esteidxon. || Marigorringo da kokotxu bat, gorritxue, baltzuna txikitxu batzuk dekosana, egas ibiltten dana.* 2. Fantasma. Ik. *mamue, mamorru.* □ Jende gaiztoari ere esaten zaio: || *Koko txarrok! □ koko baltza.* Insecto del estiercol. □ **koko txarra.** Mote que aplican los nabarniztarras a los de Aulestia y, especialmente, a los de Narea. Ik. *nariarra, narikue. || Narikuk di koko txarrak. || Koko txarra nariarrari tte allustiarrari-tte. || Morokillerrikuk eta olako geusa pai. Emen ba morokillek len fami. Ta nabarristarrak koko txarrak nariarrari tte orreri. Erridxe, Nari ba berton jaten dau. Da koko txarra. Danari. □ Berriemaile baten arabera, aulestiarrek ere esaten diete nabarriztarrei, azkeneko hauek heritik irteten direnean. || Gu ara bajatu eskeru, an esateskue "Amen datos koko txarrak! Goidxen denporalie da ala?" □ **piñu kokue.** Procesionaria, orugas de distintas especies de lepidópteros que causan estragos en los pinos, encinas y otros árboles, que caminan enlazadas una tras otra, formando filas de gran longitud. || *Piñu kokuk, gero, jeusittakun, kordan juten dire beyen. ||**

*Orrek piñu kokuk, bai! Jolin, orrek egoten dire..., oiñ es ainbeste, oin botikie botaten dabe. Len pitan, da alkarren jote juten dire orrek illadan. Ba moltzun egoten dire danak, olantxik. Da beye jote danin, dana sabalduten di, da gero illadatan juten dire. || Piñu kokuek geittu sak eurtan be. Siketie eitten badeu, negu ona eitten badeu, geitxen dire orrek asko. □ kokue ein. Criar pequeños insectos que atacan a plantas y árboles. || Eperdidxen eukitten dau, ba, au da beye, eperdiko trongue, da a trongue karias ein, surittu. Da arek eitten ei dau kokue il, se eperdittik juten ei da gora kokue, eta gero sagarrari-tte andixi eitten ei dxake kokue.*

**kokodun, kokodune.** (KOKODUN) Que tiene gusano (generalmente referido a la fruta). || *Sagarra kokuas dau, kokodune. Da len e ba olako kokodune pentzeu bes. Plasan nok artun olaku gero! Ikuste tze kokuna ori sulu edo besti ta.*

**kokola, kokolie.** (KOKOLO) Boba, sencilla, cándida.

**kokolo, kokolue.** (KOKOLO) Bobo, sencillote, cándido.

**kokolotu.** (KOKOLOTU) Embobar(se), alelar(se), atontar(se). || *Kokolotute dxak.*

**kokolomendi,** . (KOKOLOMENDI) Tontolaba. Umeari esaten zaio.

**kokomarro, kokomarrue.** (KOKOMARRO) Espantajo, enclenque. Umeen artean erabiltzen da hitz hau. || *Kokomarrue bai esaten da emen be. Kokomarrue olako esetako estana lakuri: "Ori kokomarru ori!" || Kokomarro: patari modun, umiñ artiñ esaten dan geusa bat, umik bata bestiri txarto esatiarren esate dxakona, orixe berbetie da. || Kokomarru dok! || Kokomarrue ixeten da erdi espeloidxe ixetie les. Txikidxe, edo olan erdi ganorabako modukue bada: kokomarrue. || Ori kokomarru ori!*

**kokot, kokota.** Cogote. (KOKOT, lepondo, garondo) || *Kokota atzie da. || Ediek etziñ eitte sirien narruas, da edik lusik ixeten dire, da bustertzeko beidxek, edikin bekokittik burure, kokotera. || Kokotiñ erun. □ kokoteraiño egon. Estar hasta las narices. || Kokoteraiño dau.*

**kokoteko, kokotekue.** (KOKOTEKO) Golpe dado o recibido en el gogote. || *Kokotekue emon.*

**koliñeta, koliñetie.** Colineta. || *Koliñetie? Ori amasie, serten dana. Amasa bat. Koliñeti. || Bai, pastela eitten dana, ba koliñeti. Txokolatiri eitte tzasuna ba koliñeti. || Koliñeti da geusa bat bigune, pastelari botate dxakona.*

**kolko, kolkue.** (KOLKO, golko-bat.) Seno, regazo, pecho.

**kollar, kollarra.** Collar que se coloca a la caballería. || *Kollarra da saldiri, da asturi saman ipintten dxakena. || Narrak eukitte ban espatie. Da gero eukitte ittun barak, asturi inketako edo saldidxeri inketako. Da*

*eukitte ban kollarra. Kollarra bakixu ser dan. Da arexe kollarrin sartze sin barak, edo aparaju pe bai. Aparaju batzuk eukitte ben katiakin lotute narrari. Da gero erute ittun basetak. Basetak. Aspidxen.*

**kollara, kollarie.** (KOILARA) Cuchara. || *Egurresko kollarie. || Urre surisko kollarie.*

**kollarakada, kollarakadie.** (KOILARAKADA) Cucharada. || *Au dok kollakadie! || Oridxu botate sus kollarakada bi edo olanik sarten baten.*

**kollue.** Cuello de un vestido. || *Arkondara kóllue.*

**kolore, kolorie.** (KOLORE) Color. || *Kolore gitxikue. || Aseittune kolorekuk. || Da besti da gibela. Gibelan kolorekue. Baltzuskie, baltz-gorri. || Koloresko erropie. || Kolorie galdu. || Kolore txarra deko. || Gorrístie edo kolore onakin dau. || Kolore ederra deko orrek indarrak. || Orittute deko kolorie. || Kolore oridxeekin plantau da. || Perretxiku be urdiñe egoten da ba, kolorie eukiten deu, urdiñe, se eutzen kolore antza da urdiñe. || Emengo lurre da, se esangot neuk?, bata bayo bestie oritxuau ixengo da, edo batzuk argitxuauk ixengo dire, beste batzuk illuntxuauk, baya kolore bateko egoten da. || Ori, gardostu eitten da ba esate baterako, egur bateri ba, igul, baltzen kolori emoteko, edo esetasune kentzeko, edo orretakoxe. || Ikesgiñek, arpi sikiñe! Erropa sikiñe! Ene! Kolorie, afrikanu lakoxe kolorie. || Es, kolore bat deke, baya durduri aundixau da. Bai. Kolore igul-igula, baya aundixau, asko aundixau.*

**koloredun, koloredune.** (KOLOREDUN) Coloreado, -a, de color.

**koloretzu, koloretzue.** (KOLORETSU) De gran colorido, de colorines. || *Koloretzu da.*

**kolorga, kolorgie.** (KOLORGE, margul) Pálido, -a, lívido, -a, descolorido, -a. || *Kolorga dau. || Selako kolorgie dau! || "Kolorga dau": kolor naturala estekolako personik, edo "Suriskatute, edo normala bayo oridxau dau". || Edo kallenturi deko, edo kostipau deko, beren koloretik urtenda badau, lengo normaletik aixe esaten da "Kolorga dau", da igerri eitten da.*

**1 kolpe, kolpie.** (KOLPE) Agarre. || *Kolpie bauko, bastoye da; da makillie da okerri pakue. □ kolpe ein. Agarrar, echar mano. Kolpe, gauzei egiten zaie, pertsoneri, ostera, oratu: besotik kolpe. Gauza bati eutsi eta geldi eduki nahi bada, honela esaten da: -Ja, kolpe eidxok oneri! || Lur likiñe: eskukin-de kolpe eskero, ba sera, bigune, da sikiñe. || Kolpe iste.*

**2 kolpe.** (KOLPE) Agarrar, echar mano. || *Anketatik kolpeta. || Alkarrerri kolpe tze. || Goru ipintte san, jeneral paparriñ ipintte san, jeneral paparriñ ibilte ben, olan paparrin, da amuri esku batas kolpe, da bestias tiretu, da bueltaka-bueltaka, ardatza bueltaka-bueltaka-bueltaka dala, aridxe itte san. || Kirtena lusetxu eukitten deu kolpeteko. || Arku laku eukitten deu, ta areri ba aresku esate dxako se norberak andixi*

*kolpeta ibiltten deu atzetik. || Aresku noberak kolpeteko useten da. □ kolpetekue.* Asa, agarradero.

**kolpeleku, kolpeleku.** (KOLPELEKU) Mango, agarradero, empuñadura, asidero. Ik. *astie*.

**koltxa, koltxie.** (KOLTXA) Colcha.

**koltxillie.** Colcha, cobertura de cama que se coñoca sobren el clochón. || *Koltxilli da oyen ganien ipintten dana, mollien ganie. Koltxilli axe da. || Koltxilli da oyen eukitten dana.*

**koltxoye.** (KOLTZOI) Colchón. || *Or egon san oe eundi bat, eta mollarik estekona; aspidxen olak- olak eukitte sittun, da ganin gero, lastamarra esate gentzon, kapasakin, artaburun ganeko asalas, lastamarra esate gentzon, da gero ganetik koltxoye eukitte ban. Da umik lo eitteko-ta ortxe egote san. □ koltxo asala.* Funda del colchón. || *Kapasa bigunekin, ganeko arek gogorak eta kendute, kapasa gosatzu eta bigunas beteten san koltxo asala.*

**koltza, koltzie.** (KOLTZA) Compartimento que se encuentra entre el pajar y las habitaciones, nada más subir las escaleras, y en el que se guardan trastes viejos, ropa para el trabajo, etc. Baserri askotan koltzan gelak ateratzen dituzte. || *Anaidxeri kuartu bi atara leyo koltzan, da oindiño geratzen dxako satidxe. || Onek arkoidxek koltzan dekeus.*

**komada, komadie.** Cómoda, mueble para guardar la ropa. || *Gurin badau bat, goidxen egongo da, goiko armaidxun ganien, komadin ganien, antxe egongo da.*

**komediante, komediantie.** (KOMEDIANTE) Chistoso, -a. || *Komediante bat da!*

**komedidxe.** (KOMERIA) Comedia (lío, enredo). || *Nabue saman inkete badxakon pustu eitten sirin, da es atzera, es eurrera, da gero komedidxek egote sirin. || Igul, esate baterako, ganadue be esi esiñik ba dabil, domiñeu esiñi pe, esaten da: "Komedidxak ein dxusak a pe, komedidxak!"*

**komenentzidxe, komentzidxe.** (KOMENENTZIA) 1. Oportunidad, posibilidad. Ik. *erie, eukerie.* || *Komenentzidxe euki dot bakasiñotan juteko. || Igul seoser artuteko txantxie ona, da ba: "Komenentzidxe euki dxok, eta aprobetxa ei dxok".* 2. Al alcance, en abundancia, en condiciones de poder recogerse fácilmente, surtido. Ik. *komentzie, komentzioso, elejidxe.* Emiliano Arriagak *comenensias* hitza batu zuen Bilbon eta definizio hau eman zuen: "Comenensias (del c. *conveniencia*). Facilidad, comodidad, desahogo, ganga". || *Ba urrun badau, estau komentzidxan. Komenentzidxan ixen bi deu urran. Da ori esate dxako egurre nai geusie... Guk esate baterako, or e urran dekun solotik e ekarri bier bidu geusie, esango deu batek "Jo, komentzidxe itzela dxok andik!", "urran dxekek eta". Urran deke, ta komentzidxe. Komentzidxe da geusie erres ekarteko modun dauna, urran dauna. Urrun badau, "Bai, arek e andik ekarteko urruidxak, deskomin dxauk". Urrun. || Komentzidxan dxekek.*

**komeni.** (KOMENI IZAN) Convenir, ser coveniente. || *Etxatzu komeni euskidxe artzerik. || Berak leges esteko pasorik, baya pagau eitten deu, berari komeni dxakolako.*

**komentze, komentzie.** Al alcance, en abundancia, en condiciones de poder recogerse fácilmente, surtido. Ik. *komenentzidxe, komentzioso, elejidxe.* Emiliano Arriagak *comenensias* hitza batu zuen Bilbon eta definizio hau eman zuen: "Comenensias (del c. *conveniencia*). Facilidad, comodidad, desahogo, ganga". || *Komentzien esate dxako fasilidadie-ta dekon serari. || Komentzia? Ba sera, urran eukittie. || Bertan komentze osun daun lekuen, egurre bertan komentzean.*

**komentzioso, komentziosue, komentzosue.** Al alcance, en abundancia, en condiciones de poder recogerse fácilmente, surtido. Ik. *komenentzidxe, komentzie, elejidxe.* || *Iguel eitte ben egurrek ganadukin-de batu, komentzio oniñ ipiñi, batute ipuñi de ure be komentzioso. || Antxe baso barrenien, da erreki be bertan euen komentzoso, premiñi egon eskero. || Komentzioso deke.*

**komidau, konbidau.** (KOMIDAU, gonbidatu-bat.) Convidar. || *Konbidau ein dabe ta jun dxake.*

**komidau, konbidau, konbidaue.** (KOMIDAU, gonbidatu-bat.) Convidado, -a. || *Kanpoko jenti dekonak esaten deu 'komidauek'. || Paskutan konbidauk-eta askok eukitte basen. □ komidau egune.* Día en que se recibe a convidados en casa. || *San Kristobal or atzien dau. Orixe usete-u guk konbidau egune, te ori. Onek kopradidxe danak eitten dau orixe. || Komidau egune dxekuk geur.*

**komidautzie, konbidautzie.** (KOMIDAUTZA, gonbidatutza-bat.) Acto de reunirse todos los convidados. || *Komidautzie ba da ba an dekot aistie, edo nebi, edo ixeku, edo osabie, ta ba emengo egune ixeten danien, da batu, te ba baskari bat eitten da familidxen artien. Edo seme-alaban artin kanpun eskondute badas, edo loban artien-edo, komidautzie. || Konbidautzie? Ba, beste leku batekuek e, edo anaidxari edo arrebie edo lobak edo nonor etzera etorri, da ba baskari bet jatie: konbidautzi. || Konbidautzi deke.*

**komitxau.** (KOMITAU, gonbidatu-bat.) Invitar, convidar. || *Komitxate dxak a be.*

**komitxe, konbitxe.** Convite. □ **komitxe ein.** Convidar, invitar. || *Komitxe ein tzat pa! || Etorreko konbitxe ein, edo baskari bat emoteko edo beidxenda bat eitteko edo aparti bat jateko.*

**komun, komune.** (KOMUN) Retrete. || *Komuneko papela. || Komunerako gogue deket. || Len orañela kuarture beti. Len ademas es euen komunik-eta etzin barruen. Komunek beti kanpuen. Kanpuen, edo arek ormadun eundidxek gorarte, da araxe jun biar.*

**komuniñue.** (KOMUNINO, komunio-bat., jaunartze) Comunión. || *Elixik eskatu eitte tzen danari ya komuniñu einde dasenari ia se dotriñe dakidxen edo*

*ba eitte tzen, da axe txartela. Da emote ban... olako orritxu bat emote ban: txartela.*

**konbensidu.** (KONBENTZIDU, konbentzitu-bat., gogatu) Convencer. || *Askanien konbendidu dxok.*

**konbertasiño, konbertasiño, konbersasiño.** Conversación. Ik. *autue, barriketie, berbaldixde.* || *Konbertasiño autue batzuk esaten dabe. Konbertasiñoi da ba kontuk esaten ibiltti les. Guk geuk esateu.* || *"Konbertasiñoen deutzek", igul bk ekitte tze, "Eske orrek konbertasiñoen detzek, euren konbertasiñoen".* || *Konbertasiño eukiko ban orren ganin be.*

**konde.** Exclamación equivalente a demonios, caramba, rayos. || *Ene, konde!* || *Konde, etorri as!*

**kondo, kondue.** (KONDO) Pequeño, -a, pequeñajo, -a (con sentido despreciativo). Askotan atzizki moduan erabiltzen da. Ik. *adarkondue, ogikondue, umekondue.* || *Kóndue geuse txikidxe edo apur bet ixengo da, kondue. Ogi sati bet-edo.* || *Kondue? Kondue geusa apurreidxe ixeten da, txikidxe-edo.* || *Adakie, jeneral, adar loditxuri barik, konduri esate dxako.*

**kondenau.** (KONDENAU, kondenatu-bat.) Condenar. || *"A be majo kondenau dxuek!" bai. "Ixurrau dxuk" be esaten da. 'Ixurrau' ba ori be kondenetie da. "Ixurrau dxuek a ederto!". Ori da eittie seinde multa bat botati les. "Ederra emon tzek areri, ixurrau dxuek!"*

**kondenau, kondenaue.** (KONDENAU, kondenatu-bat.) Condenado, -a. || *Bai ba jenti alakoxi emen baya! Emen jente kondenau lakoxie! Ai emen, emen, emen... Da ostu tzen!*

**koneju, konejue.** (KONEJU, untxi) 1. Conejo (*Oryctolagus cuniculus*). || *Koneju tokidxe.* || *Konejuk txixe eitten deu asko. Kaka be bai, baya txixe asko, ta busti eitten dau les, "Ño orre dxek basatzie!".* 2. Especie de orinal. Ik. *orañela.* || *Konejuk txixe eitekuk dire. Onek oingo barridxeri koneju esate tze. Orañela barik, orrek beste tubo modun deusenak, orreri ba ori esate tze. Da orañela da seinde ontzi bet biribile.*

**konfesau, konfesetan.** (KONFESAU, konfesatu-bat.) Confesar(se) (los pecados). || *Pekatu ixate san baltzigun eittie. Oiñ iñor esta konfesetan, da aintxiñe konfesetan jute sin.*

**konfesiño.** (KONFESINO, konfesio-bat.) Confesión. || *Se arik eta, konfesiño ta onek eiñ arte, "Aingerue ixen da" esate ben len, oiñ estau olakorik baya, da a il arren esate ben: "Aiñgerue il da".*

**konfesor, konfesorie.** Confesor. || *Konfesetaku jute danin, konfesorik -oin konfesorarik estau baya-pregunteten deu ba: "Damutzen sara ein dosusen pekatukaittik?"*

**konfiantza, konfiantzie.** (KONFIANTZA) Confianza. || *Eurrerakuntzi da konfiantzi esate batera, eurrerako emoteko les, eurrerakuntzie. "Eurrerakuntzi*

*emostek". Da besti, atzakuntzi da ba ya geldi ero atzera. Da eurrerakuntzi da ba ondiño emote tze konfiantzie edoser eitteko.*

**konfidxau, konfidxetan.** (KONFIAU, konfiatu-bat.) Confiar. || *Konfidxetan da.*

**konforme.** (KONFORME) Conforme. Ik. *ados, batera egon (orretan).* || *Orregas conforme dau.* || *Ni sure esanas conforme nau.*

**konformidade, konformidadie.** (KONFORMIDADE) Conformidad, avenencia. || *Gaseku da etxure onekue, konformidade danak dekosana, ona.* || *An estau gero pasorik. Arregluas ein bi da ori, danan konformidadias.*

**konformidadeko, konformidadekue.** (KONFORMIDADEKO) Persona de buen conformar. || *Konformidadeko personi da.* || *Konformidadeku da, persona ona da.*

**koniflor, koniflora.** Coliflor. (*Brasica oleracea botrytis*). Ik. *asalarie.* || *Susterra jeneral esate dxako ba, ortun ipintten diriñ e..., porruneri be sustreidxe esate dxake baya, asari-tte, nai koniflorari be beyen lurriñ oratute dekenari susterra esate dxako.* || *Euskeras da asalarie, da koliflora da ostantzin, erderas. Oiñ asalarari pe-etxake esaten, koliflora bayo.* || *Batzuk asalori esate tze. Emen guk estou esaten asalarie, koniflora esate tzeu.*

**konjeladora.** Congelador.

**konjurue.** Conjuro. || *Konjuruek eitte siren diabruk atarateko.*

**konkor, konkorra.** (KONKOR) Joroba. Ik. *jibue, lepotie, txontxorra.* Konkorra duenari esateko, Nabarnizen jibosue erabiltzen da. || *Ño, orreri urte tzek konkorrak!* || *Konkorra deko.* || *Gernikan egon san e, txarto ibiltte san bat, da sera aundidxe euki ban, txepa aundidxe euki ei ban, da konkorra esate dxakon.*

**konkortu.** (KONKORTU) Encorvar(se), corvar. || *"Makuletu" ba esate baterako, erdi konkortute-ero einde daunari bai. "Makuletu ero makal dxabik" ero "Makuletute dxak".*

**konorte, konortie.** (KONORTE) Sentido, conocimiento. || *Konorte barik dau.* || *Konortie galdu deu.* || *Konorte barik garatu dok (ser dan estakidxela).* || *Igul golpe bat artze su, dios, konortie jun dxako!* || *"Konortie kendu" da kentze tzusunien medikuk orras; golpe batas edo olanik da "jutie".* □

**konortera ekarri.** Hacer recuperar el sentido. || *'Konortera ekarri': iguel otzagas kikildute, aguenteu eiñik te, 'konortera, ekarri': berotute ipiñi. Da igul arnasari parik badxeu pe bai: "Konortera ekarri dxuo". 'Konortera' da, ya ba normalera plantetie.* □ **konortera etorri.** Recuperar el sentido. || *Etorri dxako konortie.* || *Etorri da konortera.*

**konparasiño, konparasio, konparasiño.** (KONPARAZINO, konparazio-bat.) Comparación. □ **konparasiño baten.** Por ejemplo. □ **konparasiño**

**batera.** Por ejemplo. || *Erdikindu: bueno, sagar beteri be, konparasiño batera, esan leidxo, ainkadak einde isten dan sagar bat, ume batek isten daben sagar bat, ba "Erdikindu deu sagarra, baya emen itxi deu".*

**konparau.** (KONPARAU, konparatu-bat.) Comparar.

**konpidxantza, konpidxantzie, konfidxantzie.** (KONFIANTZA) Confianza. || *Esteko konfidxantzarik. □ konpidxantzara esan.* Decir algo a alguien con quien se tiene cierta confianza. || *Konpidxantzara esan tzet.*

**konpidxantzadun, konpidxantzadune.** (KONFIANTZADUN) Persona con la que se tiene suficiente relación o confianza. || *Kanpokuk deittu leidxo ori konpidxantzadune bada, baya olan etorritte edonor, "Atzue!" deittu, asarratuko litzeke.*

**konpidxentzidxe.** (KONFIANTZA) Confianza. || *Konpidxentzidxe euki eskero bai, baya konpidxentzidxe espadau, txartzat artu igul, ori ya motza, olan kanpokuk deittutie.*

**konpleto.** Totalmente. □ **konpleto bertan il.** Matar en el acto. || *Oñestue sartu da kortara, da mutille konpleto bertan il.*

**konplikasiño.** (KONPLIKAZINO, konplikazio-bat.) Complicación. || *Konplikasiño asko deko.*

**konpondu, konpontzen, konponduten.** (KONPONDU) **1.** Arreglar, reparar, componer. || *Erribidiek konponduten doixenak bidegiñek dire. || Geuse bat esin konpondu danien modu batera: "Bierleku txarra deko konpontzen". || Da an basun e arbolak botaten ibil siriñak konponduko bela esa ben baya es eben aski ori konpondu gurarik. || Orrek arridzek atara kanteran, da konpondu eitte itue. || Asurre pe bai. Bai, nik auxe ausi ñaben da ondiñokogarren estaitt osatute daun e, estaitx, trakadarik ein barik e euki ñaben e apurtute. Anbulatoridxora jun biar ixa naben da antxe konpondu eusten. **2.** Arreglarse, llevarse, congeniar. Ik. *arreglau, ondo artu. || Baya eurek ondo konpontzen sin; nai Gixaburukuk ixen, nai Aulestikuk ixen, nai Nabarriskuek ixen, ondo konpontzen sin. || Eusuk ondo konpontze gara. || Eusuk ondo konpontze gara. || Ondo konpontzen dire alkarregas. || Estire ondo konpontzen. || Ondo konpontzie, eusukiñ edo danakin ba, ondo dau ori be. **3.** Arreglarse, apañarse. || *Laidxetan geuk kanpoko jenterik eskendun iños ekarten, etzekukin konpontze giñin, baya batzuk e kanpoko jenti be erute ben. || Gela baten sartzen basara, ta argi illuntxu badau, e beras konpondu! **4.** Arreglar, acicalar, componer. Esate baterako, *ondo preparaute esateko, ondo konpondute ere esan daiteke. Ik. 2 jaso. || Ondo konpondute jun da. || Marrasa? Ondo jantzi barik eta erdi or dabillenari, erdi dingiliske erropak eta olan dabixenari marrasa esate tzeu. Ondo konpondu baku. **5.** Arreglarse, ponerse de acuerdo. Ik. *arreglau. || Asarratute egonda be konpondu dosak. □*****

**or konpon.** Ahí te las arregles. || *Or konpon Mari Anton!*

**konpondure, konpondurie.** Arreglo. Ik. *errematxie. || Konpondurie? Bai, seoser konpontzen bada.*

**konponerre.** Hojalatero. Andere Goirienak dioenez, bere amumak *konponerre* esaten zion *ojalateruri*. Ik. *ojalaterue. || Ojalateru esaten da ta esangot nik oiñ e... Bai, ojalaterue, da len nire amumari baten bayo geidxauten entzun neutzon konponerre. Baya oiñ estaitt oiñ iñok aittuko baban.*

**konponidie.** (KONPONIDA) **1.** Arreglada, modosa, que viste con propiedad. **2.** Prevenida. Hona hemen X. Amurizak (*Bizkaiko Bertsogintza: Izengabeak I. 77. orri*) berba honez dioena: "Konponidea: *konponidua*'ren femeninoa. Gauzak neurritz, alperrik galdu gabe egiten dakiena. Baita gauza gutxiz txukun jazen dakiena". Bertan azaltzen duen koplá honako hau da: "*Marixu tabernerea, txikitxu konponidea, hiru kuartilut'erdigaz, egiten dau azunbrea*".

**konponidue.** (KONPONIDO) Arreglado, modoso, que viste con propiedad. || *Konponidue da ori!*

**konpontzailie.** (KONPONTZAILE) Reparador, -a. || *Tella konpontzailiak batu, da gabiñ aparidxe emote dxake. || Konpontzaili etorri dxat, eta asta barridxe ipiñi tza.*

**konpontziñoye.** (KONPONTZINO) Arreglo. || *"Barru txarra dako etzik" esaten da konpontziñoyen premiñan badau, estue edo gela txikidzek dekoselako.*

**konporta, konpuerta.** (KONPORTA, uhatea) Compuerta que regula el agua que entra en la presa del molino. || *Konporta ireitten dauenien, asten da ure ari bueltak emoten, da goidxen, gero goidxen urune eitteko arridzek, arei bueltak emoten. || Konporta errotatan e ogoten da. || Urbide bat, baya konpuerta bi. || Konpuerta sarratu ei bixate san ur larrei etorri esteidxen.*

**konpota.** (KONPOTA) Compota. || *Sagarran konpota. || Niri gustate dxaten (masandei sagarra) konpota eitteko, gordiñik jateko es.*

**konpridu, kunplidu.** (KONPRIDU, konplitu-bat.) Cumplir. || *Konpridu deu berak pentzate euki dabena. || Munduko aldidxe kunplidu deu.*

**konprimentu, konprimentue.** (KONPRIMENTU, konplimendu-bat.) Cumplimiento de la obligación de cortesía que se tiene para alguien por algún motivo. Ik. *atxekidxe. || Emoidxesu konprimentue. || Alantxik alan, da konprimenturi pes! || Neure konprimentue emon tzet. || Konprimentue: seoser emoti les. || An esate baterako, "Enoye emoten" edo bestie ta an bra! emote tzunak "Konprimentu barik emostek". □ Esaterako, alanbrada-edo apurtu eta alde egiten dizute: || *Konprimenturi pe esteu ein, konprimenturi pes! Alan dala ta kittu!**

**konprimentuke.** (KONPRIMENTUKA, konplimenduka-bat.) Dando cumplimiento de la

obligación de cortesía que se tiene para alguien por algún motivo. || *Konprimentue?* "Emen eskabix e konprimentuke"-ta igul esate dxako seoserreri, geusa gitxidxeri. || *Konprimentue?* Esaten da askotan ba "Konprimentuke esti ibiltten"- da ba.

**konprometidu.** (KONPROMETIDU, konprometitu-bat.) Conprometer, prometer. || *Konprometidu dxakon beste laguneri, Amerikan obeto ixengo dala, ta juteko ara.*

**konsegidu.** Conseguir, lograr. Ik. *lortu.* || *Konsegidu: norberak estekon geusa bat norberagantzen daniñ-edo, konsegidu.*

**konsejal, konsejala.** Concejal.

**konserbau, konsebeten.** (KONTSERBAU, kontserbatu-bat.) Conservar(se); preserbar(se), mantener(se). || *Da ure antxe potiñien freskuau konserbete san beste lekutan bayo.* || *Martiko ilberi da artue konserbateko onena.*

**kontaduridxe.** Contabilidad.

**konteu, kontetan.** (KONTAU, kontatu-bat.) Contar. || *Pasadixu kontetan dabis.*

**kontentosa, kontentosie.** Mujer de fácil conformar. || *Kontentosi da.*

**kontentoso, kontentosue.** Hombre de fácil conformar. || *Kontentosue: beti konforme dauna-edo.*

**kontentu.** (KONTENTU) Contento, feliz. || *Ainbeste diru ta ondiño kontentu estau.* □ **kontentus.** Contento, feliz, a gusto. Ik. *posarren.* || *Kontentus bixi dok.* || *Kontentus dau.* || *Kontentus egoten dan personi da.*

**kontixu.** (KONTIXU, nonbait, hurrean, ziur asko) Más o menos; seguramente; al parecer, por lo visto. || *Sasi okanak? Bai, kontixu, bat dire sasi okanak nai baso okanak. Bateri esate tzeu. Batzuk dire, ser esango neuk?, txikitxuauk ixengo dire, batzuk aundidxauek ixengo dire.* || *Gardatu, neuk estot iñois ein, de nire denporan bes, konteixu.* || *Ara juteko kontixu be, jun ingo nok neu be.* || "Kontixu" da fiju barik, badaespada les. Sigur esan barik, dudan, segurantzaz fiju barik. || *Da ardidxek jan esteidxen, ordun bai ormie eitte dxakon bueltan, kontixu.* || *Alarauek, eta intziridxak alkarren antzekuk dire, bat dire kontixu.* || *Basatostie, da atostie, ba kontixu alkarren antzekuk dire.*

**kontra.** (KONTRA) **1.** En contra (de). || *Gure kontra dabil ori.* || *Nik ori gogus kontra ein dot.* **2.** Contra, apoyado en. || *Errekin kontra dau kuadro bat.* || *Esate baterako, an badaus bost-sei txori, danak alkarren kontratxu, "An dxesak moltzun".* || *A (kalerue) ladrilluas ei ben. Da gero Airon be bai. Airoko etzin kontra-kontran.* □ **kontra urten.** Oponer(se), posicionarse en contra. □ **kontra ein.** Impedir. || *Arexek ein tzo kontra.* || *Bide baten pasetan, da itxi eitte espeutzo: "Kontra ein tzola, ba bidin pasetako".* || *Areri kentze batzo, eskontzeko errekadue ein, da*

*sertute badau, da kentze botzo beste batek, ori bai bada kontra eittie: "Kontra ein tzo".*

**kontrabentana, kontrabentanie.** Contraventana. || *Kontrabentanie: orrek tapak sarratzeko.*

**kontrabiste, kontrabistie.** (KONTRABISTA) Ganado que padece estrabismo. || *Kontrabisti bai. Ganaduk olan dekena, kontrabistie. Begidxek susen-da esteunari ta kontrabisti esate tze.*

**kontrara.** (KONTRARA) A la contra, al revés. || *Eutzi ein tzo ukondun kontrara arpi.* || *Ota karabidxe pe, es ainbeste, baya luganetan einde. Oiñ ota karabidxa bajuau ixate sales, ak e, esate baterako, olako montor baten kontrara ein leidxen.*

**kontrarengo, kontrarengue.** (KONTRARENGO) El situado más a la contra. Ik. *bestaldekie.*

**kontraridxue.** (KONTRARIO, aurkari) Contrario, -a en el juego. Komunikabideetan zabal-zabal dabil *areridxue* berba, kiroletan beste taldekoei esateko, baina Nabarnizen behintzat, beste taldekoak, berez, *kontraridxuk* dira. || *Kontraridxue? Norberen kontra dauna.*

**kontrasol, kontrasola.** Paraje sombrío, umbría. Ik. *geispie.* || *Kontrasola da euskidxek joten esteuna, gitxi joten deuna, joten badau be.* || *Kontrasoleko bedarra esta ona, euskibegittekue obie asko be.* || *Kontrasolien bixi dok.* || *Kontrasolien geidxau tardeten deu edurre juten.* || *Kontrasola be esaten da. Ondo pentzau eskero, erderas da, "Contra sol". Geispie esan gure dau kontrasol.* || *Leku umela da euskidxe gitxi sartzen dana. Kontrasola esate tze askok. Kontrasola... Euskirik sartu es, da.* || *Axe leku sulun daula, sakonien, euski gitxikue. Kontrasola ori be.*

**kontrasu, kontrasue.** (KONTRASU) Contrafuego. || *Kontrasue emon bi dxako, sue geratu deidxen.* || *Kontrasue esate dxako: emendik datorren sue, emendik beste partetik emoten dxako, da orreriesaten dxako kontrasue. Igul mendi batetik, edo espalda batetik dator sue, da beste partetik emote utzesu sue, areri kontra eitteko, arek bat ein deidxen, ori ixeten da kontrasue.*

**kontribusiñoie.** (KONTRIBUZINO, kontribuzio-bat.) Contribución.

**kontu, kontue.** (KONTU) **1.** Cuidado, cuenta, tino. || *Euki kontu.* || *I, kontun ibilli adi, orrek peligrue dxok aspiñ arrapetako ta!* || *Txo, kontun orreas, peligrusue dok eta!* || *I, kontun, krak ein dxok!* || *Salta ein dxok eta kontun!* || *Apapuen? Nos jeusiko. "Kontu txo, apapun dxak eta!". Bakixu e peligrusue esan biarrin, "Kontu, txo, apapun dxak ori tte!". Bakixu, 'apapun' da antxe es jeusi es... 'Apapun' da ortxe dingiliske dauna. Arbola bat edo adar bat. Adarra bakixu ser dan, arbolin adar bat, "Txo, kontu, apapun dxak ori tte, ori badxatok eta!".* || *Iruie badau, ak peligrusue deko. Paguek iru asko. Iruie, usteldute an barruen dekona, paguek iru esate dxako. Da kontu aundidxe bier ixeten dabe, kargu eundidxe.* **2.** Cuento, narración, historieta. ||



*Kontu sarrak. || Aintxiñeko kontuek. || Kontuk esaten daus. || Sorgiñen kontuk ordun be bakixak! || Kontu asko esaten deu orrek, ixildu esta eitten-da. Aintxiñekunak be, amuma olakoxi euki ban orrek, amuma borrona. Da arek esanikuk-eta. || Sorgiñen kontu pa, plantxiñ aspidxen eukitte bela unturatxue gordeta ta axe eskutan eitte bela plantxias, da gero tximinidxen gora igote bela sorgiñek-eta, bai esate ben.*

**3.** Cosa (de); asunto, cuestión, tema. || *Baserriko kontuek dire orrek. || Ori esta kontue! || Nik estaitt aintxiñeko konturik e! || Larogetasak urtetako kontu di orrek.*

**4.** Crítica, murmuración. || *Kontuk esan.*

**5.** Cuento, embuste, mentira. || *Orrek danak kontuk dire ostin, sorgiñek egote siña ta au selako sorgiñek... || Kontuk dire orrek sorgiñenak danak.*

**6.** Cuenta. || *Kontuk atara, ein. || Ori kontuen sartu! || Kontue totaleku auxe da. □ kontue eta abarra.* Cantidad de cuentos, historias. || *Barretzu da beti ri-ra-ri-ra-ri-ra, kontue eta abarra esaten deu. □ kontu artu.* Txakur emearen aluari zelan esaten zaion galdetuta, honela erantzun zidaten: || *Txakur emie, konturik artu bes! □ kontu atara.* Echar cuentas, pensar, imaginar. || *Kontu atara ixu senbat denpora egon dan. □ kontu ein.* Suponer. || *Esate baterako eingo u kontue auxe dala arie, da olan doye ta, amen atzien olan eukitten daben... aresku esate dxako. || Da oin ba ein kontu areri pe esta ibiltten. □ kontun ein.* Imaginar(se). || *Serena? esate baterako, animali txiki bat, ein kontun ikusi be eitten estan bateri. □ kontu euki.* Tener cuidado. || *Kontu euki orras, peligrosue da ta! || Kontu euki ik orras! || Txala santartute dau, da kontu euki! □ kontuk eskatu.* Pedir cuentas. □ *kontun itxi.* Dejar a deber. || *Ori kontun itxi, ordainduko tzut. □ kontun jeusi.* Darse cuenta. || *Setan euki dosu burue kontun es jeusteko? □ kontutan artu.* Tener en cuenta, tomar en consideración. □ *bayesko kontue.* En que sí. || *Iguel dudau dau bat, eta geidxau emoten dau etorko dan kontue, estana bayo, da: "Bayesko kontue ein dxok!" || "Etortekun geratu dok" esan biarrien, ba igul esaten dabe: "Bai, bayesko kontun geratu dok" □ || Iguel dudau dau bat, eta geidxau emoten dau etorko dan kontue, estana bayo, da: "Bayesko kontue ein dxok!" || "Etortekun geratu dok" esan biarrien, ba igul esaten dabe: "Bai, bayesko kontun geratu dok".*

**kontulari, kontularidxe.** (KONTULARI) Cuentista, charlatán, -a. || *Kontularidxe da berba asko eitten deuna, beti kontuk esaten. || Kontulari egon da.*

**konture.** (KONTURA) A cuenta de. || *Iñon konture bixi da ori. || Sure konture, e! Su arduretu orras! || Bai, suek ondo bixi sarie gure konture! || Basauntze da etziñ eoten estan euntz bat, basun-edo, basutan-edo ibiltten dan..., edo mendixetan, beren konture ibiltten dan euntz bat, basauntze. || Diru eskatu dabe etzin konture.*

**konturetu, kontureten.** (KONTURATU, ohartu) Darse cuenta, percatarse. || *"Konturetu" da ya fijau*

*eitte sarenien geuse batas, su astute saus iguel, da konturetu ein sara, ya akordau ein dxatzu. || Enas konturetu. || Oin momentuen enas kontureten, entzunde sarri dekot.*

**kontus.** (KONTUZ) **1.** Con cuidado, con atención. || *Kontus ibilli.* **2.** Cuidado, ojo, atención, alerta. || *Sopreixe da balantzan daun geusa bat, sopreixiñ edo indar eitten deun..., etengo balitz: "Sopreixin dau de kontus!" Se sopresixak igul soltaukeran bu! Da sopreixe esate tzeu guk orreri.*

**kontxo.** (KONTXO) ¡Hala!, ¡ahí va!, ¡huy! (interjección que denota sorpresa).

**kontzeju, kontzejue.** (KONTZEJU) Concejo. || *Batzarra kontzejuen da. || Kontzejun akordun pasau da geuse bat. || Erridxen e, onetan erridxetan e kontzejue oiñ estaitt esaten batze be nik. Kontzeju egote san sala bat eta an eitte sittuen juntak-eta, gero esate sittuen ser esan daben edo ser ein daben edo.*

**kontzesiño egune.** Día de la Inmaculada. || *Gabona payo ariñau ixeten da kontzesiño egune. Jaidxe ixeten da.*

**koñak, koñaka.** (KOÑAK) Coñac. || *Kañie da oingo koñaka les, garratza ixete san. Ori goixin goixetik jagitte siriñak-eta edate ben, atan be gixoneskuek.*

**koñeta, koñetie.** (KONATA) Cuñada.

**koñetagei, koñetageidxe.** (KONATAGAI) Futura cuñada.

**koñetu, koñetue.** (KONATU) Cuñado.

**koñetugei, koñetugeidxe.** (KONATUGAI) Futuro cuñado.

**kopa, kopie.** (KOPA) **1.** Copa. **2.** Copa (carta y palo de la baraja española). || *Biko kopie.*

**kopalet, kopaleta.** (KOPALET) Cesto pequeño. Nabarnizen *sesto kinttela* esaten da gehiago. Ik. *otzarie, sestue. || Aintxiñe nabue apurtute emote dxaken beidxeri, da araxe jo nabue, da askara botateko useta sin kopaletak. Sesto kinttera edo kinttel otzarie ere esaten zaio. || Kopaleta otzara txikitxuri esate dxako. || Sesto kinttela auxe da. Da leku batzutan kopaleti esan eitte tze. Amen etxake esaten.*

**kopau, kopaue.** (KOPAU, mokadu, ahamen) Bocado, piscolabis. Ik. *iski. || Beridxenda kopau bet. || Kopaue artu. || Kopaue jaten noye. || Kopaue da, esaterako beiddendie edo amaiketakue. || "Kopau jan": beidxenda apur bat-edo jaten dani'edo, amaiketako apur bet-edo: kopau jan. □ baskari kopaue.* Comida ligera. || *Baskari kopaue? Ba se esangot neuk? Olan baskaridxe trankil barik e ba apur bet jati-edo.*

**kopeta, kopetie.** (KOPETA) **1.** Flequillo. || *Kopetie uliri esate dxako, ule kopetiri. || Bueno, trentzi be trentzi ixeten da ta baya, kopeti jeneral guk e soltiri esate tzeu, ule soltiri. || Kopetie? Bai, laguneri be, len eukitte ben gixoneskuek, mutille pe bai, mutil txikidxek-eta, nausidxau eindakun gero ba uli arrasto eitte ben, baya amentxe (bekokidxen) olanik ulie onaxaiño,*

*olantxik ebeite, da onixeri, amentxe eukitten dabenari esate dxako kopetie.* **2.** Barba de la cabra. □ Kokospean bizarra dutenei buruz ere honela esaten da: *Orrek dxekok kopetie!*

**kopla, koplíe.** (KOPLA) **1.** Copla, verso. Ik. *bertzue*. **2.** Copla, cuento, broma, historia. || *Ego adi ixilik, kopletan asi barik!* || *Papliñe da seinde enbustereu ixeti les. Enbustereu esate dxako ba, antzin. "Papliñak eittera", "Koplak eitten". Igul esate tzu batek "I panpliñetan abil" edo "Koplatan abil".* **3.** Evasiva. || *Geuse bat gure dosu suk lortu, da bera pa, aiko-maikotan, estabela emon gure, osea kopla asko ipiñi.*

**kopradi, kopradixe.** (KOFRADIA) Cofradía, barriada, núcleo de más de cuatro casas. Ik. *barriadie*. Gurutzi Arregik ("Función de la Cofradía en el municipio de Zeanuri" in *Etniker Bizkaia* 2 (1976) 59. orr.) honela azaltzen du: "Aunque el término de Cofradía sugiere en principio una asociación de carácter religioso, en la zona que he investigado tiene un carácter primordialmente civil que denomina una agrupación de personas -propietarios- que en ciertos aspectos se auto-administran. Por derivación, el término de Cofradía viene a significar en ciertos casos un grupo territorial (Barrio o Barriada). Muchas veces los términos de Barriada y Cofradía se confunden". || *Lau etzetik gora bada, barriadie, kopradixe; orrek ixen bidxek esaten sirin berton.* || *Arbiñe beko kopradixen dau.* || *Danak? Bueno, tamañokotxuek ixete giñenien, olanik-edo, esate baterako, emengo kopradixekek -oiñ umeri pe-estau lengo modun-kopradixekek batzen giñien, emengo kopradixekek, eta bueno ibilte giñin.* || *Ordun jote gendusen garidxek, makiñan bai, baya esate baterako, emengo kopradike gustidxek batze giñin, da ensegida, garidxek e ordu ta erdidxen, ordu bidxen da iru orduen.* || *Bueno, Santidxau selebreten da. An e Lekeriken e, Lekerikeko kopradixen dau erremintatxu bat.* □ **kopradixe gunie.** Barriada, núcleo de casas. || *Etzeartie? Ba emen etze bi das -origeitti bidxok geu tabigus-, baya etzeartie euso bateri edo kopradixe gune bateri edo alkarren urriñ etzi dasenari.*

**kordie.** (KORDA) Ristra. || *Berakatz kordie.* || *Txorixo kordie.* || *Kordie esate dxako, esate baterako, piperrak, igul ba piperrak siketzeko kolgatu eitten dire, gorritzeko. Ba arexek kordatzen dirinien, kordi arexi esate dxako, piper kordi.* || *Piñu kokuk, gero, jeusittakun, kordan juten dire beyen.*

**kordatu, kordatzen.** (KORDATU) Enristrar, ensartar. Karina Zabalak dio berak *berakatza batu* esaten duela, *kordatu* baino gehiago.

**kordel, kordela.** (KORDEL) Cuerda, soga. || *Kordel bias lotu.* || *Abaille, kordel bi tte narrutxue ipiñi, ta an ipiñi arridxe ta emon bueltak.* || *Txintxi narru da ero kordelesko masi eindakue, baya es soki. Ixen bi deu biribille barik, sartu es eitteko beyen.* □ **abarka kordela.** Cuerda para atar las abarcas. □ **neurri**

**kordela.** Cuerda con la que se mide el grosor del ganado. || *Neurri kordela ganaduk mediteko ibilte san. Ganadu danak, txarridxe, nai..., txarridxe gitxi useten dire, onek beste ganaduk, danak. Len tantora botze san ganadue, pixure barik.* || *Neurri kordela da ganadue mediteko sinttie.* □ **sapata kordela.** Cuerda para atar los zapatos.

**kordoye.** Cordón. || *San Blasko kordoye bederatzi egunen eukitten da.*

**koroye.** (KOROA) Tonsura de figura redonda que se hacía a los eclesiásticos en la parte superior de la cabeza, rapándoles el pelo, en señal de estar dedicados a la iglesia. || *Koroye? Uli ebeite, buelta. Estosu ikusten obispuek eta bestik amen. Koroye aixe esate tzen. Berak ebeite eukitten deu. Biribil, koroye.* || *Koroye: an abadik eukitte bena. Oiñ estau olakorik, baya len abadik danak a eukitte ben, aintxiñe.*

**korotz, korotza.** (KOROTZ, gorotz-bat.) Excremento de los animales, a excepción del del ganado vacuno, al que se llama *pekotza*. || *Euntz korotza.* || *Txakur korotza.* || *Asto korotzak esate tzeu, baya ganadunari pekotzak.* || *Ardidxena be satza da, ardi korotza esaten dxako.* || *Ardidxek korotzak eitte ittu.* || *Ollun tripak: ollu ilde ba, tripak kendu, te jeurti eitte us. Ollun tripak esate dxake ba jeurtitzen diriñ estiri, da ba berako dekosan barruko loidxeri, korotzak-edo.* || *Txuringie, ori txuringie, txarridxen txuringie, askanengo estie, korotza eitten daben lekuko axe da.* □ *Txakur edo katuenei tantue ere esaten zaio.* || *Txakurrek eitten dabenien korotza: "Txakurrek tantuk ein ttu".* □ **ollo korotza.** Excremento o estiércol de las gallinas. || *Ollo korotza onena! Edosetako, jeneru e... artzeko, baya urridxe. Ollo korotza modukorik estau esebe jeneru bisteko. Au beste... simeurren aldiñ ona. Ba ollo korotza guk Australian... Australian kamioyas nik ainbeste bija eitte naben ollo korotzetan granjara. An granja ikeragarridxek! Se bi mille ta iru mille ollo dekesenak, korotza ser parriletan, da bera. Da an artun, bier txarra! Sakutan sartu te kamioye kargau ollo korotzas. Da a botate san tomatiri. Tomati erregadidxun.* || *Ollo korotza moduko estau geuserik, esebe, jeneruri indar emoteko.*

**korredorie.** (KORREDORE) **1.** Persona que por oficio interviene en apuestas. || *Korredorie: trabesak eitte ittuna.* **2.** Corredor. || *Korredorie? Bai, bixikletan korriten dabena-edo.*

**korrenta.** Agua que va al molino.

**korridu, korriten.** (KORRIDU, korritu-bat.) **1.** Correr. || *Gabilloidxek ariñau korriten dabe.* || *Askonarrak korridu gitxi eitten dabe. Olan korridxen sorrak dire, nekes.* **2.** Usarse, ser habitual. || *Emen (indar) tolosaniek korriten deu.* **3.** Andar, moverse. || *Piñu kokuk beyen ganin bajatu-edo eitten dire, ta beyen ganien korridu eitten dabe.* **4.** Deslizarse. || *Sertako (txirrikie)? An korridu deidxen sokik erres. Se an sokik ostantziñ espouko, lotu eitten da asko, katittu, da esta*

libretan. || Ori da soki apurtu esteidxen, da korridu erres. Egurrin korriten deu te. Egurrei dau lotute soki, da kakutu da amen deuna, da auni lotute dau ta emen soki, tiretzeko korridu ein deu erres, da soki apurtu bes. **5.** Correr, fluir. || Sikunie da iguel amen korriten deu urek leku baten da bestiñ es, da andi geratzen dan ori, igul esate tze, "An be sikuni dxak".

**korridxen.** (KORRIAN) Corriendo. || Askonarrak korridu gitxi eitten dabe. Olan korridxen sorrarak dire, nekes.

**korrinte, korrintie.** **1.** Corriente, normal, habitual. || Age untzie, selan esan biko tzut? Da untze bat, baya orrek untze korrintiñ aldiñ untze eundidxe da, eundidxe. || Esta..., esta sagar elegantie, sagarra... korrinte bat. || Badau keixa bat, garau korrinti bayo txikidxaux emote ittuna-edo. || Beidxe aixetu? Bai, según selako jateku emote dxakon. Bedar korrintias es. || Onek e etze korrintiok ur biko tellatuek, alderdi batera bata ta beste alderdire besti. **2.** Corriente eléctrica. || Petroliuas usau gendun korrinti ipiñi orduko. || Birbikiñe: eskus eitte dxako. Da taladru da elektrisidadias, korrintias. □ **korrintin.** **1.** En la corriente. || Ur ondatue? Amen berton dau, amen etze barridxe badau or ba, ortxe parin goikaldin dau solue, or sarri eitten deu urek ondatu. Arri bittartie kontixu topeten deu, da ure korrienten datorrenak, aspittik datorrenak gero kabeten tzo bera da goidxe bera, sulue bera. **2.** Habitualmente, generalmente. || Sabela tripiri esate dxako. Emen korrintiñ esta esaten sabela, baya ba aitzen da ta ba noixipein batzuk e soltau eitten dabe sabela. □ **ur korrintie.** Agua corriente. || Da pernille pe kurau ein bi dau, bierbada euki biosu aixetan edo beintzet, batzuk e ur korrintin be ipintte ben gatza kentzeko ta kuretako, kuretako. Olan itxitten da bai.

**korrokada, korrokadie.** (KORROKADA) Eructo, regüello. || Korrokadie ein deu.

**korrokadaka.** (KORROKADAKA) Eructando. || Ori korrokadaka dau. || Su korrokadaka saus, ser dekosu?

**korru.** (KORRO) Corro. || Len jentetan eskandalu te danak dantza solti te errameidxak. Lau-bost soñu jotzaillak eurek kobretan, eurentzako korruk einde, da bakotxak beren selaidxe artute, da an. || Ori auresku, korrun eitte sana, da bat e lelengo ta besti askanengo, ta beste danak bidxen bittartin. Atzesku da auresku bik eitten dabe. Da batak auresku eitten deu, lelengo eitten deunak. Da gero bigarena, atzeskue.

**korta, kortie.** (KORTA, ukuilua) Cuadra. || Txarri kortie. || Kortako satza. || Kortan useiñe deko. || Eskekuk len, lantzien baserri baten eskatu lo eitteko kortan, negu partie basan, kortan gure ben, kortan epel, ganadu asko-ta, da korta gure ixete ben. □ **asto kortie.** Cobertizo para el burro. || Asto pekotza, bastue. Amen asto pekotza ba emen es san aparte eitten. Da a ba asto korti esate gentzon, astu apartaute

egote san ba. Labelan-ero, tejamanan-ero olanik. Baya asto pekotza bastu da.

**kortada, kortadie.** Cortada, sesgadura. || Da osasun bedarra esate tzeu. Ori e atzamarrin kortadi-tte einde be, ipiñi eitte ben, seinda kipuli moduen, txarrikeridxe atateko.

**Kortasubi.** Kortezubi.

**kortatxur, kortatxurre.** (KORTA ATXUR, korta aitzur-bat.) Azada de dos púas. Sin. Sardatxurre sinonimoa da, baina gehiago esaten da Nabarnizen. || Kortan egote sinak, len kortatxurrek. aintxiñe or bikuk egote sin, biribilek, or biribilek dekenak. Oiñ ikusi bes. Arek sin kortatxurrek. || Sardatxurre: sardi da susen dauna; da sardatxurren, onan ortzak dekosena, atxur tipora, sardatxurre esate tzeu guk areri. Beste batzuk kortatxurre be esate tze, guk sardatxurre. || Kortatxurre diferenti dau. Ori be... ditxu taus. Batzuk berton esate tze sardatxurre, batzuk esate tze; ta bestik kortatxurre. Da bat da. Guk e, guk e, geuk etzien sardatxurre. Beste batzuk berton be esate tze kortatxurre. Da gu geuk beti e sardatxurre.

**korte, kortie.** Corte. || Prantzesak e bai, baya korte bat bakarrik. Solun erein biste san, da olaku aste san, ederra! Bai, sekule badarrak len emote basen iru-lau korte, ondo. || Negu bedarra esate dxakona ba oiñ erain be esta eitten, baya korte asko estaitt emoten badxake be. Korte bi-edo, bi edo iru altuena emote dxakos.

**koru, korue.** (KORU) Coro.

**korupe, korupie.** (KORUPE)

**kosiña, kosiñie.** (KOZINA) Cocina. Ik. eskatza. || Apariketan: unik ibiltten dire apariketan. Olgetan ibilte sirien, apraidxek ipintten-da, baskaridxek ipintten-da, euren kosinatxukin-de ibilte sirin. Oingo umiek esteke alako kosiñatxurik baya. || Amantalak e kosiñarako. Oiñ etxok iñok useuko baya onek aintxiñeko usedidxuku pai. □ **kosiña-arridxe.** Fregadero. □ **kosiñan.** Cocinando. || Gasi-gasan probati da kosiñan dabillanak artu saldie, kaldue, da ona gasi-gasan ia ondo badau espadau, asko badeko ala gitxi badeko ala. Gasi-gasan. Ori esaten da. □ **kosiñan jakin.** Saber cocinar. || Kosiñan badakixu?

**kosiñera, kosiñerie, kosiñirie.** Cocinera. || Kosiñirie da jateko ipintzaillie. || Ardau -esan tzet oneri-ardaurik onena ikesgiñek, eutze sartzeko barrure. Indarra, lapikokue gosuena ikesgiñena. An, kosiñera txarrik es euen an. Jan datorrena!

**kosiñero, kosiñerue.** Cocinero.

**koska, koskie.** (KOSKA) **1.** Hueso saliente del tobillo. || Orkatilleko koskak. || Illunsarretik bera atorrela, ankako koskie okertu naben. || Ainkako koskatakoko miñe. **2.** Prominencia del yugo. || Bustarridxen koskie, adarlekue apurtu dxako. **3.** Nudo de árbol. Sin. adapue. || Koskie arbolin serari esate dxako. || Arbolan koskak? Bai, ser esangot neuk? Adarra bayo

*txikidxau dana-edo. Koskie, aundidxauk eta txikidxauk oten dire.*

**koskue.** (KOSKO) **1.** Saliente, resalte; abultamiento, protuberancia. || *Arbolie podeten danin, koskuk ixeten diren areri isten dixen satitzuk.* **2.** Articulación, coyuntura de los huesos. *Koskie gutxiago erabiltzen da.* || *Atzamarreko koskuek.* || *Ainkako koskutako miñe.* **3.** Pequeña protuberancia de la pezuña del ganado. || *Koskuk? Guk e ori esate tzeu koskuk e, ganadun apatzaren are atzeko txikidxeri esate tzeu guk.*

**koskor, koskorra.** (KOZKOR) **1.** Bulto, abultamiento, chichón, bollo. Ik. *tokorra, tukurre.* || *Koskorra deket.* **2.** Pedazo o extremo duro de algo. **3.** Mazorca de maíz desgranada. || *Koskorra artaburuei esate dxake garauk kendute gero.* || *Paputze bai, a paputze, onek esate baterako, artaburuk egoten dire burue koskorra bakarrik eta garaurik es, da "Paputzek e desak".* || *Da makiñakiñ eitten da ori be. Olako taket bana artun, de goitti bera plast eta plast eta plast-eta, garaunek bera, da koskorrak e ganin. Gero arek koskorrak artun, de... bera be koskorrak igul batzuk pasetan dire iguel. Baya ugerittesuna auri ixete san.* **4.** Pequeño, -a. || *Neska koskorra.* || *Pintxie esan leidxe mutil koskor bat-edo, dana seoser ikesten dabillena, edo pintxe modun dabillena-edo.* □ **koskor batzie.** Juego que consiste en recoger una hilera de mazorcas de maíz e introducirlas en un cesto. □ **arri koskorra.** China, piedrecilla. || *Arri koskorra esate tzeu guk arri koskorra jeneralin, arri kiskorra be bai, baya ostantzin kiskorra ixates da erretakue.* || *Arri koskorra esate dxako arri txikitxuri, arri koskorra, "Dana arri koskorres beteri dau".* Grijue arri koskorren antzeku da. Bueno, grijue apur bet aundidxau laku ixengo da arri koskorra bayo. □ **mutil koskorra.** Mozalbate, hasta hacia 10 años. || *Orrek mutil koskortxuok.*

**koskorreko, koskorrekue.** (KOZKORREKO) Golpe dado o recibido en la cabeza.

**koskorrinke.** A la pata coja, a coxcox. || *Koskorrinke da anka baten ganin jutie.* || *Koskorrinke dabil.*

**kosta, kostie.** (KOSTA) Costa. || *Kostie da itxosegala.*

**kosta, kostaten.** (KOSTA, kostatu-bat.) Costar. || *Au eittie kostako san ba!* □ **kosta bakue.** Sin esfuerzo. Ik. *beres.* || *Kosta bakuk esan gure detzu debaldekie.* □ **kostanekue kostata be.** Aunque a duras penas, costando mucho. || *Kostaneku kostata be ein dogu.*

**kostata.** (KOSTATA, kostarik) Con dificultad, con mucho esfuerzo, a duras penas. || *Ondo kostata!* || *Ondo kostata ein dus.* || *Ondo kostata allegau nas.* || *Atara ben askanin, baya atara ben kostata. Atara ben, baya estakitt e es sittuen ekarri Bilbotik edo nunondik olantxik e, olakoxik atarateko.*

**kostipau, kostipau.** Constipado, resfriado. || *Sandxi da, iguel kostipauas dabil jente asko ta "Bai, sandxi da!"*

**kostue.** (KOSTU) Costo. || *Suk gixona orduko mille peseta pagetan basoyes, da an arridxe ataraten basaus tiruek eta abar, au te ori-te arek egurrek ipintten-da urteten tzu... Da alan itxi sin, alan itxi ban jentiek. Kostue, da bier gogorra.*

**kostunbre, kostunbrie.** (KOSTUNBRE) Costumbre. || *Usedidxeke kostunbriek.* || *Aintxiñeko kostunbriek dire.* || *I aintxiñeko kostunbretan abil!* || *Usualeko kostunbrak.* || *Mermeladie ba eitten da, esate baterako, botate dxako asukerie beren tamañun, masustran tamañun-edo, da egosi eitten da ordubetiñ-edo, ordu bidxen-edo, nik estaitt. Neu pe esteket kostunbrerik itteko ta.* || *Jaten da, jaten dabe emen batzuk baya amen kostunbrerik estau amen erridxen berru jateko.* □ **uso kostunbrak.** Costumbres, usos. || *Orrek aintxiñen uso kostunbrak e, bat eskontzen sanien, ba arriu ekarteko, beidxekin, de txirriñe joten, da musiki joten an rin-rin de rin-rin de rin-rin-de, gixonak ipintte ban, estutxu-edo ipiñi selak, sati ein deidxen. Txirriñak.*

**koton, kotona.** Cotón. || *Atauteko trapuk egote sirin, trapu jeneral asulas, kotonak esate dxako arek berdetute sirin sepulturenetakuk, asulegas. Da gero suridxe egote san. Kotona estekonak trapu baltza ipintte ban aspittik, ganetik suridxas, da sabaltze sittuen domeketan, da jai egunetan... olatak esate dxaken, opil modukuek.* || *Kotona: erropa suridxeri e..., oiñ estakitt alakorik badau, baya bai neu pe gordeta deket koltxo asal bat. Kotona ari bat ixete san. Batzuk ixete siriñ illuntxuau, beste batzuk argitxuau ixete sirin, da mudau eitten estana kotona ixete san. Da oyetako erropari eitte dxakesan kotonak.*

**kotxe, kotxie.** (KOTXE) Coche. || *Fulanok kotxe barridxe ekarri deu.* || *Fulano kotxias pasau da.* || *Kotxik, fenomenu kotxi gero! Negargarrixek kotxik!* □ **erriko kotxie.** Autobús que hace años conectaba Nabarniz con Gernika. || *Erriko kotxiñ es ete sin jun? Amen autobus antzeku euen da.*

**krak.** (KRAK) Crujido chasquido (onomatopeya del ruido de una cosa que se rompe, que cruje, de un golpe...). || *I, kontun, krak ein dxok!*

**krakada, krakadie.** (KRAKADA) Crujido chasquido (onomatopeya del ruido de una cosa que se rompe, que cruje, de un golpe...). || *Ño, orrek ein dxok krakadie!*

**krakatu, krakau.** (KRAKATU) Cascar, quebrar, hender. Ik. *arrakalatu, astildu.* || *Intxeskie da markie eitte dxakona. Esate baterako, egurreri be. Arrakalak esate dxako solun. Da bestie, intzebidxe esaten dan les, eitte dxako egurreri. Beres eitten da, a krakatu eitten da.* || *Eusi, ba krakau eitti les, eusi.* || *Asurre krakau ein dxakok.*

**kresal, kresala.** (KRESAL, gesal) **1.** Agua de mar. || *Itxosoko ureri esate dxako kresala.* □ Gauza gaziari ere esaten zaio: || *Kresala be geuse gasitxu, gasi-gasi bateri be: "Kresala laku egon da".* **2.** Capa ligera de nieve. || *Eur kresala da eurtxu ein de eur asko barik apurtxu bet ein, da erdi surittu eitten dabenin, "Eur*

*kresala ein deu*". || *Eur kresala: eur gitxi daunien, da leku batzuk dana tapaute igul estaus eurras, da eur kresala.* || *Eur kresala: eur eitten dabenin, ta ganetik leidxe eitten dabenin.*

**kridxeu, kridxau, kridxaue.** Criado. Ik. *morroidxe.* || *Kridxau egon, jun.* || *Mayordomu da agintzen dabena, ordesko ipintte dekona. Nik, esate baterako, sure pentzuran... 'Pentzuran' be esate tzeu guk. Estakit aittuten bosu 'pentzuran'. Ba sure pentzuran dau ori geusie. Suk agintzосу se ein bi dan suk agindu kridxaduri edo biargiñeri. Mayordomue.*

**kridxeda, kridxedie.** Criada. || *Kridxeda egon.* || *Arrebak kridxeda ibilli sirin.* || *Julia kridxeda jun da.* || *Kridxedie etzeko geusak eitte ittuna da. Kridxedie jeneral da a ume sain dabillena bayo aundixau, edo nausidxaue, da kridxedie. Baya ya bestiri be ba kridxedie esate dxako, edo ume jaboli esate dxako, kridxedatzu esate dxako.*

**kriña.** □ **kriña jo.** Rechinar. || *Bat eskontzen sanin len, beidxeikiñ erute san etze bateti pestera, oyek eta orrek eruten siren, da burdidxek danak apropos ipintte, badakixu, kriña joten, krin-krin-krin... □ kriña soñue.* Rechinamiento.

**kristel, kristela, kristala.** (KRISTAL) 1. Cristal. || *Erluse eitten deu kristelak.* || *Kristelesko ontzidxe.* 2. Placa de hielo, superficie helada. || *Kristelak ei dire ur posotzatan.* || *Kristelak tas.* || *Baya antzierrak ya asko gogortzen deu, lurre be bai, euriri..., posurik atrapetan badeu, kristela eitte tzo ganien da axe da antzierra.*

**kristiñau, kristiñaue.** (KRISTINAU) Cristiano. || *Ori da kristiñau txarra.*

**kristolako.** (KRISTOLAKO) Tremendo, -a, impresionante. || *Kristolako juergie.*

**kriston, kristona.** (KRISTOREN) Tremendo, -a, impresionante. || *Kriston barriek eiñ ittu.* □ **kristonak.** Burradas. || *Lelengotan jaidxokeran, umie. Da gero soldautzan be umi ixen bier, se iñun dixen orrek ei tzes, da gixonak pentzetan axe ein bittula. Ta gu soldau, kristonak eitte eskusen ba, kaguen dies, paso lijero eta kriston martxak, ya ganora bako geusak. Da a umaldidxe. Arek berak esate ban, kapitanak. Joer! Afrikan egon nintzen ni tte etxat astu eitten! □ kristonak esan.* Decir burradas.

**kruseu, krusau, krusetan.** Cruzar. || *Errekie kruseu.* || *Bidi krusau.* || *Krusetan etxak erresa.* || *Ametik tiruk entzute sin. Bai, or fronti lusero on san or e Gipuskuan. Ba, amendik entzute sin tiruek. Ta Illunsarretik, bueno! Klaru-klaru-klaru. Da lantzin tiro bat botate ben, paute ta paute! Tiruek nik pentot jeurti por jeurti, eiñ esteidxen bata bestiri kruseu-ero. Gero apurtu saniñ e, bueno! Ordun gero dana! Ordun bai tirue! Ba aman berton es san bota.*

**kuadrille, kuadrillie.** (KOADRILA) Cuadrilla. Ik. *aldrie.* || *Kaballu kuadrillie.* || *Ume kuadrille.* || *Kuadrille galanta jun dok an be!* || *Ño, kuadrilla itzela*

*etorri dok!* || *Kuadrille dxatok.* || *Ume kuadrilli daunien, da bi dan beste estekenien manteniduteko edo ba, "Erruki emoteko das".*

**kuadrau, kuadraue.** Cuadrado (metro, kilómetro, etc.). Ik. *kuadrue.* || *Metro kuadraun onenbeste kabitok.* || *Metro kuadrauen landara asko dxauk.*

**kuadro, kuadru.** (KOADRO) 1. Cuadrado. || *"Takoi" da atzie bakarrik, kuadrue.* || *Sapatillan atzeko kuadrue da takoye.* 2. Pequeña parcela. || *Soluen eskiña baten patata kuadru eder bat ereitten da.* || *Errekin kontra dau cuadro bat.* || *Patata cuadro bat ein dot.* 3. Cuadrado (metro, kilómetro, etc.). Ik. *kuadrue.* || *Metro kuadruko.* || *Metro cuadro bat.* || *Bai, esteridxe.* *Apiak-eta oiñ alan eitten dire.* *Neurtzen dire, da onenbeste metro kuadrau, ba onen beste esteridxu esaten da.* || *Metro kuadrue au presidxu ok.* 4. Constitución. || *Bai, ganadu ederra bada, cuadro ederretakue: lepotzue, lepo eundikue. Batzuk e lepo eundixau eukitten dabe beste batzuk bayo.* || *Kuadrue? Bai, kuadru edarrari ba esate dxako "Ori be kuadru ederretaku da"* || *Kuadrue? Gorputz edarrari, lepo edarrari, atze edarrari.* □ *Emakume bat lodi-lodi dagoenean, honela esaten da: || Kuadro ederrak dekos! || Or dekos kuadruk!*

**kuadrodun, kuadrodune.** (KOADRODUN) De cuadros. || *Kuadrodune da arkondarie.*

**kuarentena, kuarentenie.** Cuarentena, aislamiento preventivo a que se somete durante un período de tiempo, por razones sanitarios, a personas o animales. || *Naparreidxe? Amen gu keuk eukitte us ori. Urtik die, baya urtik, urte pillu da. Neuk esautu naben etzien. Etzien e ganera es... neuk eukiko nabasan... ba senbat urte..., ba se, soldau orduntxe junde ero ni, nik e... etxaten suertau emen baya anaiddi tte aitte ta ama ta danak etziñ egon siren, da ganaduk atara barik kuarenteni eitte dxakon ordun be. Berrogei eguniñ e ganadurik esiñ eidxen atara kanpora. Da es e txakurrekiñ onekiñ animalidxekein kuidau itzela! One pe soltau bes. Ta gero erropak, noberen erropak e etzetik sartukeran, kanbidxeu ta kortara ta bierrak ganadunak beste erropa batzukiñ ein, inkeu esteidxon orreri, kontajidxau esteidxen.*

**kuarta, kuartie.** Cuarta, medida de capacidad para áridos equivalente a doce kilogramos y medio. Ik. *selemiñe.* || *Kuartie ixete san garidxe, artue eta olan neurtzeko.* || *Kuarti da, aintxiñe meida bat egote san, olako ser bat, meida bat, da bat ixate san kuartie. Kuartie anein laurena da. Da gero egote san imillaune be bai, da selemiñe be bai.*

**kuarta denporak.** Têmporas. || *Garixuma eingerun ixeten dire kuarta denporak.* || *Kuarta denporak sarri entzu ot, da len kuarta denporakiñ asko ibilte giñin, asko esate san beintzat. Da urtin lau bider ixeten ei dire orrek.*

**kuartillo, kuartillue.** Medio litro. || *Kuartillo ardaue.* || *Asunbreko botillie: Lau kuartilluko botille eundidxe.*

*Litruk kuartillu bi dekos, da litro bi botillik. egoten siren arek bost kuartillukuk ixete sirin, jeneraliñ arek eundidxek. Litro bi, da beste kuartillu bet eukitte ben.*  
|| *Asunberdi kuartillu bi siren.*

**kuartu, kuartue.** Dormitorio, cuarto. *Gelie eskatzaren alboan dagoena izaten da; goikoak, ostera, kuartuek.* Ik. *gelie.*

**kubi.** (KUBI) Exclamación en el juego del escondite.  
|| *Kubike beste bat eote san, da atrapaute kubi esan biar ixate dxakon bestiri, bera axe ixate san lo.*

**kubike.** (KUBIKA) Al escondite. Ik. *baleka.* || *Kubike: begidxek tapaute, ta gero libre esaten danin, ordun juten da topetan.* || *Kubike eingo gu?* ☐ **kubike ein.** Jugar al escondite. || *Kubike eitte gendun geu pe.*

**kueba, kuebie, kubie.** (KOB) Cueva. || *Ondarroko kuebie.* || *Kubie, beko sulue.*

**kui, kuidxe.** (KUI, akuri) Cobaya (*Cavia procellus*). || *Kuidxe pataridxe da, arratoin tipora. Kuidxek jan eitten dire.*

**kukaratxa, kukaratxie.** Cucaracha.

**kukildu.** (KUKILDU, kukildu-bat.) 1. En cuclillas. || *Gixon sarrak egoten dire solo basterrin kukildute.* 2. Agachar(se), acurrucar(se). *Kukildu nahiz kukildu nahiz kikildu esaten da. Ik. kukulumutxu.* || *Kukildu? Ori otzak e..., otzak e, otz aundidxe dauniñ-edo, ba bat e kukildute les ibiltten da.*

1 **kuku, kukue.** (KUKU) Cuculillo, cuco. (*Cuculus canorus*). || *Kuku txoridxe.* || *Kukue agertu da, martidixen ogeta bost eurretik agertzie da emen kostumbrie, da San Pedrotako mututu.* || *Andra maridixen martikutako espadator, aintziñe esan ei dxuan kukuk berari eitteko eliskisune edo funerala.* || *Kúku berandu dator. Kuku, ba, junio bueltan. Mayetz akabu, junio.* ☐ **kuku ein.** Cantar el cuco. ☐ **kuku prakie.** Digital, dedalera (*Digitalis purpurea*). || *Kuku prakak: udebarridixen urtetan dau orrek. Bedarra da, ta puntan lora lilie, lora lilie olanik bera begira, alanik eukitten deu lora lilitxue, da ba prakie axe bera begire dauna. Bedartzan urtetan deu.*

2 **kuku.** (KUKU) Umeari esaten zaio: *Kuku!* ☐ **kuku barrie.** Risa del bebe. || *Umi lelogotan barretxuk eitten asten danin: "Kuku barriek eitte itu".* ☐ **kuku ein.** Escondarse.

**kukubala.** (KUKUBALA) Agalla seca (de los robles y alcornoques). || *Kukubala da aritxen granue, txikitxuk ixeten dire.* || *Kukualak atxien agertzen siren, txikitxuek.* || *Kukubalak: orrek sagarren antzekuk eukitte itunak.* || *Orrek e aatxak-edo emote itun orrek e sagartxu lakuek, bai, kukubalak.*

**kukuke.** (KUKUKA) Al escondite, apareciendo y desapareciendo sucesivamente. || *Euskidxe laño artien agertu esiñik dabil, kukuke, batién agertu, bestien es.* || *Euskidxe be kukuke asi dok.*

**kukuldu.** (KUKULDU) Agachar(se), acurrucar(se). *Kukildu nahiz kukuldu nahiz kikildu esaten da. Ik. makurtu.*

**kukulu, kukulue.** (KUKULU) 1. Cogollo (de la lechuga, berza...). *Errepollue* ere esaten da. || *Asiri be bai. Errepollue aste dxakonin ba, kukulue.* || *Kukulue bai, orreri esate tzeu, nabue loran urten baya deunin, "Kukulun dxak", ya asitte urtetan.* 2. Tallo superior del maíz, mequicote. || *Kukulue? Selan esango tzut ser dan kukulue? Kukulue, esate baterako, artue -oiñ esta, arto denpori esta oin baya-... selan esango pa? Artu asten da ba aundidxe, da arek e artuek erdi-erdidixen e gorau eukitten deu kukulue.*

**kukulumutxu.** (KUKULUMUXU, kokoriko) En cuclillas. Sin. *kukildute.* || *A kukulumutxu dau.* || *A plantau da kukulumutxu deskantzeta.* || *Gurin nire aitte pes, da gixona pes, iñois be es bata es bestie e kukulumutxu etziren plantetan, eurek jarri eitte sirin. Baya ikustot gixonak, sobre todo fumatzaillik kukulumutxu plantaute sigarru erreten.*

**kukupraka, kukuprakie.** (KUKU-FRAKA) Digital, dedalera; planta escrofulariácea, cuyas flores, en racimo, tienen forma de dedal. El extracto de las hojas se emplea en medicina del corazón (*Digitalis purpurea*). || *Kukuprakak lilak dire; prakatxuk eukitte itue.* || *Kukuprakak lora bateri esate dxako. Udebarridixen asten dire, ta lilak ixeten dire.*

**kukurruku.** (KUKURRUKU) Quiquiriquí, canto del gallo. || *Ollarra kukurruku eitten dau.* ☐ **kukurruku estule.** Tos ferina. Emiliano Arriagak *tos de cucurruku* batu zuen Bilbon. || *Kukurruku estule gastetan sertzen da. Oin, jun dan urtitan estot entzun, baya len atakate ban orrek, gu gaste giñenien.* || *Estul kukurruku deko.*

**kukurrukuka.** (KUKURRUKUKA) Cantando el gallo. || *Kukurrukuka ariñ asi da.*

**kukusagar, kukusagarra.** (KUKUSAGAR) Agalla del roble. || *Kukusagarra esta jateku. Txikitxuk ixete siren, bigaran modun.*

**kulada, kuladie.** Desaire, calabaza. Ik. *kalabasie.* ☐ **kuladie emon.** Desairar, rechazar al pretendiente, dar calabazas. *Neskik itxi edo mutillik itxi* ere esaten da. || *Orrek emo tzo kuladie.* || *Kuladie emo tzo batak bestiri.*

**kulero, kulerue.** (KULERO) Bragas. Antzinako berba zaharra *pantaloye* da. || *Kulerue? Len areri pantaloitxuk esate dxaken.* || *Pantaloye? Bai, esaten da. Kuleru pe bai. Bidxetara esaten da, baya oiñ e geidxau esango neke kuleruk ibiltte dirilla ta kuleruk esate dxakola. Pantaloyek len ibiltte sirin, da arek ixete sirin de belaunetarañokuk erute sittuen, puntillekin-de ta.*

**kulpe, kulpie.** (KULPA) Culpa. || *I, orrek etxok kulperik euki!* || *Orre pe kulpie euki deu.*

**kume, kumie.** (KUMA, sehaska) Cuna, camita para niños. || *Kumie? Ume txikidxe egoten danari.* ☐ **kumiri erein.** Mecer la cuna.

**kuna, kunie.** (KUME) **1.** Cría. || *Txori kunie.* || *Kunie bota deu.* || *Txakur emie alta sartu da ta laugarren biderres euki bittu kunak.* || *Marti sosuk kunak atarate ittu ariñau.* **2.** Pequeño, -a. Ik. *txatxarra.* || *Bentana kunie, kune utze.* ☐ **kunek artu.** Preñarse. || *Kunek artzeko sasoye-edo etorte dxakenin be bakidxes marrau galantak eitten-da, katarra etorten dxakena.* ☐ **knas gelditu.** Quedarse preñada. || *Kunas esta gelditzen, umerik estau artzen.* ☐ **kunie ein.** Parir (los animales). || *Manduek estabe kunarik eitten.* || *Bueno, badau eitteko kunie, edo txakur kuni edo billotza edo soser eitteko badau, enbarasada badau, ernai dau.* || *Esate baterako txakur bat kunak eitteko dau, te ba kunak sortute dekoso.* || *Kunie ein deu.* || *Bost bider kunak einde.*

**kunaldi, kunaldixe.** (KUMALDI) Camada. || *Bost kunaldi eindakun, geratzen da ya geidxau estauela eitten.*

**kuneta, kunetie.** Cuneta. || *Kamiñu kuneta.* || *Ño, kunetara sartu dok.*

**kuramentu, kuramentue.** Curamiento, curación. || *Se botik bai kureten dau bai barrun e a, orregas, baya orrek esteko. Ori da adarra. Es, es kuramenturik esteko orrek.* || *Kuramentue? Tratamendu onas eitten dana kurau.*

**kurau, kureu, kureten.** **1.** Curar. Ik. *osatu.* || *Ondo kureu barik geldittu da ori.* **2.** Curar, secar un alimento por medio de la sal, humo, etc., para que, perdiendo la humedad, se conserven por mucho tiempo. || *Kurau ein bi da txorixue. Pernille be bai.* || *Da pernille pe kurau ein bi dau, bierbada euki biosu aixetan edo beintzet, batzuk e ur korrantin be ipintte ben gatza kentzeko ta kuretako, kuretako. Olan itxitten da bai.* || *Da txorixu pe, txorixuk e... Len es eun es neberarik es frigorifikorik es konjeladorarik. Da orrek txorixuk kuretako, galtzu ebei se-se da kaixan, orrek aintxiñako kaxan barrun danak nasteute egote sin.* || *Kuretako, txorixuk konserbau eitteko, galdu esteidxen. Otzas ein biarriñ antxe, galtzuas eitte san. Etziñ egote sa les galtzu asaue, asaue se kabillatxu modukuk, da aretxe, a ebei, se-se, da a gero nastau-nastaute einde, txorixu artien dana, txorixuk tapaute ta ariyas, nastaute. An ba es san... urdindu es alkar jo-ta eiñ esteidxen arexe ipintte gendusen guk.*

**kurau, kuraue.** Curado, preparado un alimento por medio de la sal, humo, etc., para que, perdiendo la humedad, se conserven por mucho tiempo..

**kurbe, kurbie.** (KURBA) Curva. || *Gartzelaidxe da ganaduk e onan eukitten dabe ba ori kurbe eundidxe. Areri kartzelaidxe esate dxako.* || *Da guk e eukitte gendusen makuk sididunek. Da bestik e kurban-da eitte benak, bedarra-ta kargetako. Da guri diferente.*

**kurbedun, kurbedune.** (KURBADUN) Curvado. || *Tella kurbedune.*

**kuridxosamentu, kuridxosamentue.** Curiosidad, cuidado. || *"Trespas dabil": kuridxosamentu barik dabillena-edo, ba asko loitzen dana-edo.* || *Kuridxosamenturik esteko, apur bet trespasa da.* || *Kuridxosamentu barik ein deu.* ☐ **kuridxosamentu bakue.** Descuidado, -a, brusco, -a. || *Trope esati da, tropie ba kuridxosamentu bakue, suabe-ta barik, trope: "Kaguen, trope ein dxok!"-eta.* || *Kuridxosamentu baku da.*

**kuridxoso.** Curiosamente, con cuidado. || *Kuridxoso ibili.* || *Ori tropi da!" esate dxako, bakixu, selan esangot?, kuridxoso barik trope ein bihar dana.* || *Kuridxoso altzau edo leku kuridxosun eitten badeu, ba altzetan da.*

**kurkubitte, kurkubitxie, korkobittie.** (KURKUBITA) Cierta tipo de manzana. || *Kurkubitti sagar bateri esate dxako, sagar klase bateri. Emenguedo, ba ser esangot neuk? Esta..., esta sagar elegantie, sagarra... korrinte bat. Beres ba suridxe edo suriska antzeku da.* || *Korkobitta pe estire berandukuk.*

**kurra.** (KURRA, purra) ¡Pita! (voz para llamar a las gallinas). || *Olluri ba "Kurra!" esaten dxako ta ba, "Kurra!" esan, da jaten emon.* || *Kurra-kurra!*

**kurrin.** (KURRIN) Gruñido (de cerdos, jabalíes). ☐ **kurrin-kurrin.** Voz para llamar a los cerdos?

**kurrinka.** (KURRINKA) Gruñendo (los cerdos, jabalíes). Ik. *kurrunkadaka.* || *Txarridxe kurrinka dau.* || *Kurrinka deutzo.*

**kurrinke, kurrinkie.** (KURRINKA) Gruñido (de cerdos o jabalíes). ☐ **kurrinki euki.** Refunfuniar, estar algo enfadado con alguien. Lagunak haserre egonez gero, honela ere esaten da: || *Kurrinki da gustura estekon bateri "Kurrinki dxekok arentzako", asarri eukitti lakue.* || *"Kurrinketxu badxekok": lagune estala esan gure deu.*

**kurrumuskada, kurrumuskadie.** Ruido producido en la garganta al toser. || *Kurrumuskadie: ba estule eitten daniñ olan gorru-da atarateko, aaahhh! eraitten dan karraskadie.*

**kurrumuskadaka.** Haciendo ruido con la garganta al toser. || *Kurrumuskadaka dabil.*

**kurrunkada, kurrunkadie.** (KURRUNKA) Gruñido (de cerdos, jabalíes).

**kurrunkadaka.** (KURRUNKA) Gruñido (de cerdos, jabalíes). Ik. *kurrinka.* || *Txarridxe kurrunkadaka dau.*

**kursulue, kursulue.** (KURTZULU, kriseilu) Candil. || *Kursulue: etziñ egoteko. Ori, saiñe esate tzen berari botate dxakonari, da sue olan bueltatxu eitte ban, baya ba dana dala, arexas konpontze giñin be.* || *Bai, kursulue. Oiñ esta ibiltten kursuluri pe. Arexek ibiltte siñ etziñ argidxe eitten.*

**kurtidu.** Curtir. || *Malluketxuas jo ta eitte dxakon orrek, kortetxuek. Osea, kurtidu lelengo, narrue kurtidu apur bet, masuas-da jo da kurtidu eitte ben, nik ikusi be ein dot, da gero joste ben ugelagas, bueltan-bueltan ugelagas joste ben.*

**kurtze, kurtzie, kurutzie.** (KURTZE, gurutze-bat.) 1. Cruz. || *Kurtzien josi. || Kurutze bi egon sirin, da lagunek ildekuk dile esate ban arek. || Solun suk esan gure suna da ori, erremus kurtzie ipintte da solun. A da bedeinkatute eruten dan adartxue, sartun, da kurtzie. Len beti solo gustidxetara kurtze bana. Ainbeste solo egote si les, danak kurtze bana. || Len kurutziek ipintte siren. Kalbaridxo esate dxaken iru kurutzi ipintte siriñ etzetik urrenengo soluen. Da beste solutan da landatan, ba, kurutze batzuk ipintte sirin. Ereiñotz sati batas ipintte sirin. || Da oin be, oin kontixu, estaus ipintten baya, ba oin be, guk e solo bat euki gendun e iru kurtze dekosen, beti olantxik useu. || Gu jute gara san junetan ormen ipintteko. Elorri suridxe daus, lantzin leku baten, lantzin bat e! Gitxi e! Da arexen bille, kurtzieri sartzeko, elor suridxe. || Da eitte dxakon kurtze bat, da a kurtzik esan gure deu usaba dekola. 2. Cruce, encrucijada de caminos. Ik. bidekurtzie. || Kamiñu kurutzie. || Bide kurtzera jun nas.*

**kurtzero, kurtzerue.** Cruce, encrucijada (de caminos). || *Bide kurtzerue. || Kurtzean: kurtzerue, ixena Kurtzean dxako. Kurtzeruk dausen les an, Kurtzean beti ixena arena. || Kurtzerun dau itturidxe. || Bide kurtzerotik pasau nas.*

**kurtzetan, kurtzietan.** Cruzar(se). || *Bidiek kurtzietan badire, or beyen ba bide kurtzi eitten da, ona gora dator bat, da beste bat kopradixera doye, da bide kurtzie. || Baten ikusi ñaben, etzera natorrela, kamiñun kurtzetan.*

**kurumiñue.** (KURUMINO, liztor) Avispa || *Kurumiñuek: esebe eitten estabenak, andidxek. || Kurumiñuk ainkarik edo estenik sartzen badabe miñ eundidxe eitten deu ganera.*

**kusan.** (KUSAN) Oteando, escudriñando, vigilando. || *Kusan ibilli, ser da? Seinde lapurretan les-edo. Bai, orrek berbak astute, edo itxitte das asko. Bai, kusan ibili-tte. Nik ori gurasugandik edo aittegandik-edo entzunde neu baten bayo geidxauten, kusan ibilli, baya oin, estaitt, ainbeste; berba pe mudeute-edo. Erderie dau geidxau sartute-edo.*

**kuskur, kuskurre.** (KUZKUR) Cuscurro, parte del pan más tostada que corresponde a los extremos o al borde. || *Ogi kuskurre. || Gabonetan jaten dan ogidxe? Aren kuskurre gordeteko kostunbrie dekeu. Da a ogidxe esta alperrik galtzen urte gustidxen be. Esta es lixundu, es alperrik galtzen. Gero emoten dxake, berat u de katuri de txakurreri gabon egunien, aparidxen. Eurreko urteko kuskurre.*

**kusun, kusune.** (KUSUN) Efecto de escañarse, atragantarse. Mendatan *kusumena* esaten da (Idoia

Mallea, Mendata, gure geurea danentzat, 98. orr.) || *Guk usetau, kusune kentzeko, urtxue edan, suabe-suabe. || Kusune deko orrek. || Kusune asi dxatzu. || Kusune ein dosu. || Kusune? Krough einde errementau... "Kusun ein dxok". Kusun da bota. Bete igul seosegas, agh! einde, "Kaguen, kusun ein dxok!". Beteta botate dan les. Larrei batera jun-ero. Sotiñe esta. || Txal txikidxeri esni emote dxakon botillatik, da larrei botaten bosu, Klu! da "Kaguen, kusune ein dxok!". Larrei batera jun. □ Hona hemen kusune eta sotiñe berben arteko desberdintasuna: || Baya kusune sotiñeri es dxako esaten, espabese esni edo soser artzen dabenien, olanik eitten dabenien e iruntzi esiñ edo iruntzi barik e olanik e sotiñe les eitten dabenien, ba kusune orrixo esate gentzon.*

**kusunke.** (KUSUNKA) Escañándose, atragantándose. || *Kusunke daunin ba, ikera apur bet sartuti-edo, geldittu deidxen-edo.*

**kutun, kutune.** (KUTUN) A. Amuleto. || *Kutune ipiñi eitte jakien ume txikidxei. || Kutune aintxiñe ume txikidxeri ipintte dxaken olako ebanjelidxe ixate san.*

B. Querido, favorito, preferido. Hitz hau gutxi erabiltzen da, bakar-bakarrik ume txikiekin. Ik. begikue. || *Au neure kutun-kutune da. || Seme kutune. || Neure kutune da ori!*

**kutxillo, kutxillue.** Cuchillo, navaja. Ik. labaiñie. || *Kutxillue sorrostu, akatzak ein dxakos-da! || Botaixu kutxillue, esbiarren bat eiñ esteixun! || Labaiñie da bixerra kentzeko..., ser esangot neuk?, bixarra kentzeko e kutxillue, edo esangot neuk? Kutxillun antzekue. Lengo gixonak labaiñi ibillte ben, ojie es eben ibiltten. || "Motza dau" esaten da kutxilluek espadau ebei gure, "Motza dau". □ **kutxillo madaridxe.** Pera de invierno. Karrantza aldean, peras de cuchillo esaten ei zaie. || *Kutxillo madaridxek naiku lusiek, naiku aundidxek dire, irailien edo olan atarate dire arek.**



